

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA  
VASCA «JULIO DE URQUIJO»

International Journal of Basque Linguistics and Philology

LVI (2)

2022



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

© «Julio Urkixo» Euskal Filologia Institutu-Mintegia  
Instituto-Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»  
«Julio Urkixo» Basque Philology Seminar Institute  
© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISSN: 0582-6152  
e-ISSN: 2444-2992  
Depósito legal / Lege gordailua: BI - 794-07

## Arnaut Oihenarten *Kobla berriak*. Lan inprimatuen edizioak eta aleak banaka ezagutu eta aztertu beharraz, XVII. mendeko euskarazko poema aurkitu berrien kariatara<sup>1</sup>

*Arnaut Oihenart's Kobla berriak: On the importance  
of understanding and analysing editions and copies of printed works,  
on the occasion of newly discovered 17th-century poems  
in the Basque language*

Gidor Bilbao\*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**ABSTRACT:** This article publishes 83 hitherto unknown verses (three poems), written in Basque by Arnaut Oihenart (1592-1667), known to us thanks to a printed copy that we recently discovered in the Municipal Library of Grenoble under the name of *Kobla berriak*. To contextualize the short book *Kobla berriak*, we analyse the different editions and copies of the works published by Oihenart in Basque, French and Latin, as well as the different elements that make up each of them. Regarding the works printed in Basque, the six copies cited by Vinson in his bibliography have been analysed, as well as four other copies not cited up to now in the studies on Oihenart. We conclude that Oihenart gradually shaped his works with corrections, changes and additions, even after having published them, and, based on this statement, we propose a new arrangement and presentation of Oihenart's works printed in Basque. Finally, we contend that the

---

<sup>1</sup> Artikulu hau MINECOren *Monumenta Linguae Vasconum 6: Periodizazioa eta kronologia* (PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuaren baitan egin da, Eusko Jaurlaritzak babesturiko *Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia. DLTB* (IT1534-22) ikerketa-taldean. Esker ona zor diet Ricardo Gómez, Joseba Lakarra, Julen Manterola eta Céline Mounole taldekideei eta artikulua aztertu duten *ASJU* aldizkariko bi ebaluatzaile anonimoei, haien ohar eta iradokizunei esker artikulua testua asko hobetu delako.

\* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Gidor Bilbao Telletxea. Ikasketak Klasikoak Saila, UPV/EHU. Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatean ibilbidea, z/g (01006 Vitoria-Gasteiz). – [gidor.bilbao@ehu.eus](mailto:gidor.bilbao@ehu.eus) – <https://orcid.org/0000-0001-9333-6571>

**Nola aipatu / How to cite:** Bilbao, Gidor (2022). «Arnaut Oihenarten *Kobla berriak*. Lan inprimatuen edizioak eta aleak banaka ezagutu eta aztertu beharraz, XVII. mendeko euskarazko poema aurkitu berrien kariatara», *ASJU*, 56 (2), 1-76. (<https://doi.org/10.1387/asju.24095>).

Jasoa/Received: 2022-11-29; Onartua/Accepted: 2023-03-14. Online argitaratua / Published online: 2023-03-20.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © 2022 Instituto-Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» (UPV/EHU)



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

main objective of Oihenart's collections of poems is to show in practice the variety of possibilities offered by the theoretical model he put forward for the metric and prosody of poetry in the Basque language.

KEYWORDS: Oihenart; 17th century; poetry; material bibliography; *xikito*; oral literature.

**LABURPENA:** Artikulu honetan Arnaut Oihenarten (1592-1667) euskarazko 83 bertso-lerro ezezagun editatzen dira (hiru poema), zeinak Kobla berriak izenburuarekin Grenobleko Udal Bibliotekan aurkitu berri dugun ale inprimatu bati esker ezagutu baititugu. Kobla berriak liburuñoa testuinguru egokian kokatzeko, Oihenartek euskaraz, frantsesez eta latinez argitaraturiko lanen edizioak, aleak eta horien osagaiak aztertu dira. Euskarazko lan inprimatuei dagokienez, Vinsonek bere bibliografian aipaturiko sei aleak aztertu dira, eta beste lau orain arte Oihenarti buruzko ikerketetan aipatu gabeak. Ondorioztatu dugu Oihenartek urteetan zehar moldatu eta osatu obi zituela idazlanak zuzenketaz, aldaketaz zein emendioz, are lanak inprimatu ondoren ere, eta, baieztapen horretatik abiatuta, Oihenarten euskarazko lan argitaratuak aurkezteko proposamen berria egin dugu. Azkenik, Oihenarten poesia-bildumen helburu nagusia bistaratu dugu: lan teorikoetan formulatu dituen metrikako eta prosodiako arauak praktikan zelan erabil daitezkeen erakustea, ahalik eta neurri eta estrofa sorta aberatsena eskainiz.

**HITZ GAKOAK:** Oihenart; XVII. mendea; poesia; bibliografia materiala; *xikitoak*; ahozko literatura.

## 1. Sarrera

Patxi Altuna Bengoetxeari eta Jose Antonio Mujika Casaresi zor diegu Arnaut Oihenarten atsotitzen eta poemen edizio nagusizat har daitekeena: 2003an argitaraturiko *Euskal atsotitzak eta neurtitzak / Proverbes et poesies basques / Proverbios y poesías vascas*. Edizio horretako poema-bilduma berrirakurtzeari ekin nionean, ezin izan nintzen geratu saiotxo bat egin gabe, ikusteko ea inon aurkitzen nuen Altunaren eta Mujikaren edizioan hasierarik gabe (O *Po.Co* I)<sup>2</sup> eta amaierarik gabe (O *Po.Co* VIII) argitaratu ziren poemen arrastorik. Halako saioek, askotan, ez dute emaitza positiborik izaten, baina oraingoan esan genezake bilaketak opari polita ekarri digula: artikulu honetan Oihenarten euskarazko lan inprimatuen ale ezezagun batzuen berri emango da eta, ale horietako bati esker, egile horren euskarazko testuen corpusa aberastuko da, ale ezagunetako bati buruz genekiena osatzearekin batera.

<sup>2</sup> Aipua emateko, *OEHk*ko laburdurak erabili ditugu, baina ñabardura batzuekin. <O *Pr*> erabili dugu errefracuan kasuan, baina errefracuari Altuna & Mujika (2003) edizioan eman dioten zenbakia gehituta; hortaz, adibidez, <O *Pr* 668> izango da Altuna & Mujika (2003)-n <668> zenbakia duen atsotitza. Poemen kasuan, *OEHk* <O *Po*> erabili du, eta guk <O *Po.Ot*> *OTen gaztaroa neurtitzetan* libururako, eta <O *Po.Co*>, berriz, *Cobla berriac* liburuxkako poemetan. <O *Po.Ot*> laburduraren ondoren, Altuna & Mujika (2003)-n poemari eman dioten zenbaki erromatarra idatziko dugu, eta, gero, kasu batzuetan bertso-lerroa (ahapaldirik ez dagoenean) eta beste batzuetan ahapaldiaren zenbakia gehi ahapaldi barruan bertso-lerroari dagokion zenbakia; <O *Po.Ot* XVII, 31> izango da Altuna & Mujika (2003)-n <XVII> zenbakia duen poemako 31. bertso-lerroa, eta <O *Po.Ot* XVI, 6, 4> Altuna & Mujika (2003)-n <XVI> zenbakia duen poemako 6. ahapaldiko 4. bertso-lerroa. *Cobla berriac* liburuxkaren kasuan, ordea, <O *Po.Co*> laburduraren ondoren, poemen zenbakia ere berrantolatuko dugu, liburuxkan daukaten zenbakiaren arabera. Hona hemen aldaketen zerrenda (Altuna & Mujika 2003ko zenbakia adieraziko dugu lehenengo eta guk eman dioguna gero): O *Po* XXIII → O *Po.Co* I; O *Po* XXIV (II) → O *Po.Co* II; O *Po* XXV (III) → O *Po.Co* III; O *Po* XXVI (IV) → O *Po.Co* IV; O *Po* XXVII (V) → O *Po.Co* V; O *Po* XXVIII → O *Po.Co* VI; O *Po* XXIX → O *Po.Co* VII; O *Po* XXX → O *Po.Co* VIII(I) eta O *Po.Co* VIII(II).

## 2. Oihenarten frantsesezko eta latinezko lan inprimatuak edizioak eta aleak

Artikulu honen helburua ez da Oihenarten lanen inguruko azterketa bibliografikoa egitea, baina, aurkeztuko diren testu berriak ondo kokatzeko, lagungarri izango zaigu hemen laburbiltzea zer dakigun Arnaut Oihenartek, bizirik zela, argitaraturiko idazlanei buruz.<sup>3</sup> Atal honetan latinezkoarekin eta frantsesezkoekin hasiko gara.

### 2.1. *Déclaration historique de l'injuste usurpation et rétention de la Navarre, faite par les Espagnols (c. 1625)*

Ez da ziurra Arnaut Oihenartek idatzia den ala ez; are gehiago, itxura guztien arara ez da Oihenartek idatzia. Hamazazpigarren mendeko argitalpenean<sup>4</sup> ez da agertzen egile-izenik, argitalpen-urterik, argitaratu zen lekuari buruzko zehaztasunik, ez eta inprimatzailearen izenik ere; soilik izenburua.

Hogeita lau orrialde dira, zortzi orrialdeko hiru kaier elkarri josita, signaturak adierazten dutenez (-, Aii, Aiii, -, B, Bii, Biii, -, C, Cii, Ciii, -). Azalean izenburua dago (baina lehenengo kaieraren lehenengo orrialdea da, paper arrunta, besterik gabe, ez estalkia), ondoren kortesiazko orrialde zuria dator, eta hirugarren orrialdean hasten da testua: orrialde-zenbakia, orrialde-buruko zerrenda apaingarria (oso xumea, lerro-banaketarako erabiltzen diren apaingarriez osatua), berriz liburuxkaren izenburua, eta testua. Hogeita laugarren orrialdea, azkena, testuak bete du orrialde-barrenaraino, eta ez dago ez kontrazalik ez apaingarririk.

Ohargarria iruditzen zaigu halako liburuxka xume baten gutxienez hamaika alek irautea gaur arte munduko biblioteketan.<sup>5</sup> Liburuxkak, esan dugun moduan, ez dauka datarik, baina beste dokumentu batzuekin batera dagoen bildumetan, 1625. urtekoen inguruan kokatu izan dute garaiko bildumagile guztiak.

Nolanahi ere *ante quem* data ziurra da, edozein kasutan ere 1728a baino lehen argitaratua baita. Izan ere, Pierre D'Avity (1573-1635) poligrafoaren *Les Etats, empires, et principautez du monde...* atlas entziklopedikoaren Parisko 1728ko edizioan,<sup>6</sup> «Discours

<sup>3</sup> Kanpoan utziko ditugu, hortaz, Oihenart hil ondoren argitaraturiko (eta argitaratu gabeko) eskuizkribuak, hala euskarazkoak (adibidez, Pouvreuren hiztegiari eginiko oharra, edo Koldo Mitxeleanak argitaraturiko atsotitzak) nola beste hizkuntza batzuetan idatziak (frantsesezko *L'art poétique basque*, adibidez). Kanpoan geratu dira orobat Oihenart hil ondoren argitaraturiko berrargitalpenak.

<sup>4</sup> Frantziako Biblioteka Nazionalaren *Gallica* bilduman, helbide honen bidez ikus daiteke osorik: <https://catalogue.bnf.fr/ark:/12148/cb31033134f>.

<sup>5</sup> BNFren katalogoan lau ale aurkitu ditugu, bi ohar bibliografiko desberdinekin (aurreko oin-oharrean aipatua eta <http://catalogue.bnf.fr/ark:/12148/cb362910955>): Arsenal 8-H-29681 (Gallican digitalizatua), Arsenal 8-H-12846 (7), Tolbiac-Rez de jardin Z FONTANIEU-207 (2) eta Tolbiac-Rez de jardin 8-LB36-2161. Frantziako biblioteketako *CCFR* katalogo kolektiboaren bidez, beste sei aleren berri izan dugu (Rouengo Udal Bibliotekan, Aix en Provençeko Méjanas Bibliotekan, Montpellierreko Udal Bibliotekan, Lilleko Udal Bibliotekan, Bourgesko Udal Bibliotekan eta Parisko Sainte Geneviève uniibertsitatearteko bibliotekan). Bada ale bat Vatikanoko Bibliotekan ere.

<sup>6</sup> Pierre D'Avityren lan handia 1614an argitaratu zen lehenengoz Saint Omerren, baina guk aztertu ahal izan ditugun ediziorik zaharrenak Parisko 1616koa (Bibliothèque Cantonale et Universitaire BCU Lausanneko alea) eta 1617koa (Lyongo Udal Bibliotekako alea) dira, izenburu honekin: *Les Etats, empires et principautez du monde, representez par la description des pays, moeurs des habitans, richesses des provinces, les forces, le gouvernement, la religion et les princes qui ont gouverné chacun Etat. Avec l'origine de toutes les religions et de tous les chevaliers et ordres militaires. Par le Sieur D.T.V.Y., gentilhomme ordinaire*

de la Monarchie d'Espagne» atalean (175-179 orrialdeetan), ia hitzez hitz kopiatu baitira *Declaration...* liburuxkako 7-24 orrialdeak (liburuxkaren ia bi heren), aurkezpen honen ondoren: «Je me serviray cecy d'un memoire d'Estat qui m'a esté doné». Hortaz, *un memoire d'Estat* gisa aipatzen du aztertzen ari garen *Declaration...* liburuxka.

1719an aurkitu dugu lehenbizikoz Arnaut Oihenarten izenari lotua, hemen ere 1625eko datarekin. Hain zuzen Jacques Le Long bibliografoaren *Bibliothèque historique de la France, contenant le catalogue de tous les ouvrages tant imprimez que manuscrits qui traitent de l'histoire de ce royaume ou qui y ont rapport, avec des notes critiques et historiques* liburuan, elkarren ondoren zerrendatuta daude Oihenarten *Extrait...* (gero aztertuko duguna) eta *Déclaration...* hau.<sup>7</sup> Lehenengoan, «A.O.M.» egileari buruzko azalpena gehitu du: «Ces lettres initiales signifient Arnaud Oihenart de Mauleon, Avocat au Parlement de Navarre». Eta bigarreanean, erreferentzian «in octavo. 1625» zehaztu ondoren, beste ohar hau: «Cette Déclaration historique est du même Auteur».

1760an, *Recueil* izeneko dokumentu historikoen bilduman berrargitaratu zen, zehazki *Recueil H* liburukian.<sup>8</sup> Liburu horretan, guk ezagutzen dugun lehenengo edizioko testua berridatzita dago, ez hitzez hitz kopiatuta, baina funtsean lerroz lerro errepikatzen dira lehenengo edizioko ideiak eta argudioak. Baina hemen gehien interesatzen zaiguna da izenburuan bertan integratu direla autorearen izena eta dokumentuaren data: *Déclaration historique de l'injuste usurpation et rétention de la Navarre par les Espagnols, faite et écrite par Arnauld Oihenart de Mauleon, en 1625*. Seguruenik 1719ko *Bibliothèque historique de la France* aipatuari zor diote datua, baina ez dakigu bestelako arrazoiren bat ote zuten editoreek egiletasuna eta argitaratze-data zalantzarik gabe zehazteko.

Guk dakigunaren arabera, Manex Goihenetxe izan zen *Déclaration* honen edukiaren azterketa zehatza egin zuen lehenengoa. Hark defendatu zuenaren arabera, «azterketa kritikoa egin ondotik, ez dirudi Oihenartena denik, erabiltzen diren argudioak eta Nafarroako historia idazteko moldeak ez baitira inondik ere *Notitian* aurkitzen direnak» (Goihenetxe 1993: 56). Baina ez du bidea erabat ixten Oihenartena izan daitekeela onartzeko:

ou A. d'Oihenart n'est pas l'auteur de cet opuscule, ou bien s'il l'est, il s'agit d'une oeuvre de jeunesse qui montre qu'il a une connaissance peu approfondie de l'histoire de la Navarre. De cette dernière hypothèse, il faudrait conclure qu'il s'est livré à une étude systématique des sources de l'histoire de la Navarre assez tardivement, sans doute dans les années 1625-1635, et peut-être au contact de Paul Dupuy et André Duchesne. (Goihenetxe 1994: 502)

---

*de la Chambre du Roy*. Lan historiko-geografiko-entziklopediko hori edizioz edizio zabaltzen, handitzen eta aberasten joan zen, D'Avity bizi zeno autorearen beraren ardurapean, eta gero beste egile batzuek paraturik. Beste hizkuntza batzuetan ere (alemanieraz, ingelesez...) asko zabaldu zen XVII. mendean bertan.

<sup>7</sup> Katalogo horretako 12048 eta 12049 zenbakiak dituzte, hurrenez hurren.

<sup>8</sup> Liburu horretako 176-197 orrialdeetan argitaratu zen Nafarroari buruzko lan hau. Bildumari buruz, hona zer dakarren BNFren FRBNF32849154 ohar bibliografikoak: «Chaque vol. est identifié par une lettre de l'alphabet (Recueil A, Recueil B, etc., Recueil Z, Recueil &). Publié successivement par G.-L. Pérau (A, 1745), Meusnier de Querlon (B, 1752), Mercier de Saint-Léger (C, 1759, d'après Barbier), E. Barbazan, B. Graillard de Gravelle et J. de La Porte (C-&, 1759-1762). Le lieu de publication mentionné varie: Fontenoy (A); Luxembourg (B et D); Paris (C, E-Y); Bruxelles (Z); Amsterdam (&). Les adresses étrangères sont fictives, l'ensemble ayant été publié à Paris».

Alex Kubelosek (2010) frantsesezko lehenengo edizioko testua berrargitaratu zuen eta gaztelaniazko itzulpena eskaini, ohar argigarri horniturik. Testuaren egiletasuna aztertzean, funtsean, Manex Goihenetxeren argudioak errepikatu zituen, baina Oihenarten egiletasuna are zalantza gutxiagorekin ukatuta:

aquí no nos encontramos con testimonios y pruebas para declarar la injusticia del rey castellano-aragonés Fernando. Parece más bien una agria protesta contra la intromisión de la Iglesia en un asunto que se considera propio, a saber, la pertenencia tradicional e inmemorial de Navarra a Francia. Es digno de remarcarse cierto aire galicanista en la expresión de estos argumentos. [...] nosotros nos inclinaríamos a pensar que fue alguna persona del entorno de la corona quien redactó el texto. Conociendo la calidad de un historiador como Oihenart, no creemos que el famoso escritor suletino sea el responsable de este alegato. En 1625 Oihenart tenía ya 32 años, se encontraba en su plenitud y es muy difícil que este texto saliera de su pluma. (Kubelos 2010: 197)

Oihenarten egiletasunaren kontra, orain arte inork nabarmendu ez duen pasarte bat ekarriko dugu hona: *Navarre* izenaren etimologiari buruzkoa. Lehenengo edizioko 13. orrialdean dator (eta 1760ko edizioko 186.ean):

Or le nom de *Navarre* vient du mot de *Navar*, qui signifie 'pleine' ou 'campagne cottoyée de coustaux ou montagnes', et *erras* qui signifie 'terre', comme qui diroit 'terre pleine cottoyée de montagnes'.

Dirudienez, Garibairen 1571ko *Compendio historial de las crónicas y universal historia de todos los reinos de España* liburuan hasi eta ondorengo historialariek kopiatu-riko tradizioari lotzen zaio azalpena.<sup>9</sup> Garibairen arabera, *nava* 'ordokia, laua, berdina' eta *erria* 'herria, lurra, eskualdea' lirateke *navaerria* izenaren jatorrian, eta hortik letorke *Navarria*, eta gero *Navarra*. Esan dugun moduan, etimologia hori errepikatzen dute ondoren beste historialari askok. Batzuek Garibairen izena aitortuta,<sup>10</sup> eta beste batzuek etimologia nork asmatua den aitortu gabe. Gainera, euskara ez dakiten historialariek euskarazko hitzak aldatzen dituzte nahi gabe.<sup>11</sup> Horietakoa da, gure us-tez, *Déclaration...* liburuxkako etimologia: Garibairen tradizioaren zordun, etimokak

<sup>9</sup> Hona hemen Garibairen hitzak, *Compendio...* horretako XXI. liburuko 2. kapituluan: «otras muchas tierras que d'este apellido [*Navas*] llaman, y en diversas regiones de los reinos de España, que son llanuras conjuntas a las montañas, aunque no todas caen muy aledañas. Pues d'esta manera las bajadas de los montes Pireneos, que con los llanos de Navarra confinan, es verisimil, que se llamaron *Navas* en los tiempos antiguos, como tierras cercana a montañas y lugares altos. A estas llanuras de *Navas* devieran venir las gentes suyas y circunvezinas de Cantabria a llamar *Navaerria*, que en lengua de los Cantabrios quiere dezir 'tierra de Navas', porque en este lenguaje *Erria* quiere dezir 'tierra' o 'lugar'».

<sup>10</sup> Garibairen jabetza intelektuala aitortzen dutenen artean dago, adibidez, Gabriel Chappuys, 1596an, Parisen, *L'histoire du royaume de Navarre, contenant, de roy en roy, tout ce qui y est advenu de remarquable dès son origine, et depuis que les roys d'Espagne l'ont usurpé* argitaratu zuena. Liburu horretako 2. orrialdean, hau irakurri dugu: «*Nava* est la planure qui es naturellement au pied des montagnes, et *Erria* en langage Cantabrien, duquel le peuple use fort en ce pays, signifie 'terre', de sorte que ces deux mots *Nava erria* joints ensemble signifient 'terre plaine'».

<sup>11</sup> Adibidez, Pierre de Beloyk 1599an argitaraturiko *Conférence des édits de pacification des troubles esmeus au royaume de France, pour le fait de la religion...* liburuan, autoreak *erria* → *erra* aldatu duela aurkitu dugu: «et est ce royaume appelé *Nauarre*, comme qui diroit *Nava erra*, qui signifie en langage du pays 'terre pleine' dautant qu'il est assis au pied de la montagne» (Parisko 1600eko edizioan, 34. orrialdean).

aldatuta, autoreak ulertu ez dituelako: *nava* → *navar* eta *erria* → *erras*. Ez dirudi Oihenartek inola ere euskarazko *nabar* hitzaren ordain gisa frantsesezko ‘*pleine*’ ou ‘*campagne cottoyée de coustaux ou montagnes*’ eman zezakeenik, edo euskarazko *erras* frantsesez *terre* itzul zezakeenik; Oihenartek Pouvreauren hiztegirako eginiko oharretan begiratzea besterik ez dago, ikusteko oso ondo bereizten zituela *naba* eta *nabar*:

NABAR. Coutre. Item, bigarre de diverses couleurs.<sup>12</sup>

...

NAVEA selon le dialecte de Guipuscoa et NAVA selon le dialecte de la Haute et Basse Navarre, c'est une grande plaine proche les montaignes.<sup>13</sup> (Urkixo 1910: 231)

Bigarren etimoa ere (*erras*) ezin dugu ulertu, Oihenarten luman, *terre* frantsesaren ordain gisa. Egia da Maister eta Intxauspe zuberotarrek *erras* erabili dutela *arras* ‘osoki, guttiz, zeharo’ adberbioaren ordain gisa, eta Pouvreaux<sup>14</sup> «*Arraz, radicitus*» eta «*Lu-arraz, a platte terre*» lotzen dituela bere hiztegian, baina pentsaezina iruditzen zaigu Oihenartek eusk. *erras* : fr. *terre* baliokidetasuna asmatzea etimologia bat azaltzeko.

Arnaut Oihenartek, gainera, bere 1638ko *Notitia utriusque Vasconiae* lan historiakoan, 74. orrialdean, beste etimologia bat eman zuen:<sup>15</sup>

Nominis ratio a Vasconum lingua petenda est, quae voce *nava* planitiem aliquam montibus proxime succedentem solet denotare. Inde et manus vola seu concava pars apud eandem gentem, *escu-nava* nomen habet. A *naua* fit denominativum *navarr*, et adiecto articulo *navarra*, quo incola planae regionis designatur. Huius oppositum est *menditarra* et contracte *mentarra*, id est ‘montanus’ seu ‘montium incola’.

Ikusten denez, Garibaik bezala, Oihenartek ere *naba* ‘ordokia, laua, berdina’ etimoa hautatzen du, baina ez du hitz elkarturik ikusten, *nabar* eratorria baino. Hamahiru urteren tartean, jakina, iritzia alda zezakeen, baina gure ustez ez da sinesgarria 1625eko etimologia (*Navarra* < *nabar* + *erras*) Oihenart euskaldunarena izatea, eta 1638koak, ordea, erakusten digu Oihenartengandik espero zitekeen moduko etimologia.

Horrekin guztiarekin, Manex Goihenetxeren argudio historiografikoan ondoan, beste era bateko argudioa gehitu litekeela uste dugu, baieztatzeko c. 1625eko *Déclaration historique de l'injuste usurpation et rétention de la Navarre, faite par les Espagnols* liburuxkaren autorea ez zela izan Arnaut Oihenart.

Zergatik lotu zaio liburuxka honi Oihenarten izena? Garai hartan gutxi bide zutelako Oihenarten legelari-prestakuntza eta gaiaren ezagutza, Frantziak “ofizialki” defendatu nahi zuen lurraldetasunaren aldeko halako lana idazteko. Ildo horretan kokatzen da, hain zuzen, hurrengo atalean aztertuko dugun *Extraict...* ere.

<sup>12</sup> Oihenartek, hortaz, *nabar* hitzak gaurko Euskaltzaindiaren Hiztegian dituen bi adierak jaso zituen: izena denean, ‘goldearen hortza’, eta adjektiboa denean, ‘kolore askotakoa’.

<sup>13</sup> Gaurko Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, *naba* ‘zelaia, toki laua’ da, eta zubereraz ‘ibarra’.

<sup>14</sup> Pouvreauren hiztegian, A eskuizkribuan, BNFko *Celtique et Basque* bildumako ms. 7 eskuizkribuan, 22v orrialdean.

<sup>15</sup> 1656ko edizioan ere testu berbera dago, orrialde berean. Hona hemen Oihenarten testuaren euskarazko itzulpena: «Izenaren jatorria euskaran bilatu behar da, zeinean *nava* hitzak mendietatik gertu dagoen lautada adierazten baitu. Era berean, herrialde hartan esku-barrenari edo ahurrari *escu-nava* esaten zaio. Bestalde, *nava* izenetik *navarr* denominatiboa dator, eta artikulua erantsiz gero *navarra*, zeinaren bidez deitzen baitzaio eskualde lauan bizi den biztanleari. Honen kontrakoa da *menditarra*, eta kontrakzioz *mentarra*, hau da, mendialdeko biztanlea».



**2.2. *Extraict d'un traicté non encores imprimé intitulé "Navarra iniuste rea, etc. sive De Navarrae regno contra ius fasque occupato expostulatio". A.O.M. (c. 1635-1643)***

Berez, izenburu honen bidez, bi libururen berri ematen zaigu: batetik, *Navarra iniuste rea, etc. sive De Navarrae regno contra ius fasque occupato expostulatio* ('Nafarroa bidegabeki erruztatua, etc. edo Salaketa Nafarroako erresumaren zuzengabeko eta zilegitasun gabeko okupazioaren inguruan') latinez idatziriko liburua, eta bestetik horren frantsesezko laburpena (*Extraict d'un traicté non encores imprimé*). Laburpenaren izenburuak dioen moduan, latinezko liburua argitaragabea zen orduan, eta, dirudienez, argitaragabe geratu zen gero ere, ikertzaileek ez baitute ez liburu argitaratuaren ez eskuizkribuaren aztarnarik aurkitu.

*Extraict...* laburpena zortzi orrialdek osatzen dute; signaturek adierazten dutez (A, Aii, B, -), orri-laurden tamainako lau kaier dira, bina orrialdekoak. Ez dago izenburu-orrialderik, lehenengo orrialdean bertan baitago orrialde-buru apaingarria (Frantziako koroaren armaria, hiru lis-lorez osatua, eta bi *putti* armariari eusten) eta azpian izenburua (egilearen «A.O.M.» inizialekin, argitaratze-datarik gabe); ondoren, testua hasten da, lehenengo letra apainduarekin. Orrialde guztiak daude zerbaituta (1-8) eta azken orrialdean testua ia orrialde-barreneraino iristen da, inongo apaingarriarik eta amaiera-markarik gabe.

Laburpen argitaratu honen bi ale ezagutzen dira. Ezagunena Frantziako Biblioteka Nazionaleko Dupuy Bildumakoa da (gero jardungo dugu ale honi buruz), baina lan hau idaztean beste bat lokalizatu dugu, Besançongo Udal bibliotekan, Chiflet Bilduman.<sup>16</sup>

Chiflet familia Besançongo eruditu-familia bat zen (hainbat belaunalditan daude, XVI-XVII. mendeetan, legelariak, sendagilea, historialariak, hizkuntzalaria...). Hemen bereziki interesatzen zaigu familia honek Habsburgotarrentzat (esan nahi baita Espainiarrentzat) egin zuela lana, eta Franche-Comté herrialdearen historian adituak zirela hala Jean-Jacques Chiflet aita (1588-1660) nola Jules Chiflet semea (1615-1676), Chiflet Bilduma osatu zuten bi historialariak; gogoratu behar da Franche-Comté herrialdeak, urte horietan, autonomia handia zuela (Jules Chiflet, hain zuzen, Doleko Parlamentuko elizgizon kontseilaria zen) eta Habsburgotarren monarkia hispanikoaren itzalpean zegoela, baina Hamar Urteko Gerran (1634-1644) korapilaturik, frantziarrek "berreskuratu" nahi zutelako. Oihenarten *Extraict...* liburuxkaren alea, hain zuzen, Jules Chiflet legelari eta historialariak osaturiko bilduma batean dago (Ms Chiflet 75), zeinak izenburu aski adierazgarria baitu («Suite des prétentions des princes et Etats l'un sur l'autre...»), historialarien artean jokatzen ari zen kontaketa-aren guduan erabiltzeko prest zegoelako seinale.

Frantziako Biblioteka Nazionaleko Dupuy Bildumako alea ere antzeko dokumentu-bilduma batean gorde da. Kasu honetan, Pierre Dupuy (1582-1651) eta Jacques Dupuy (1591-1656) anaien dokumentuen bilduma da, eta zehazki Oihenarten *Extraict...* liburuxkaren alea Pierre bibliotekari eta historialariak 1643an osaturiko «Recueil de mémoires et de pièces relatives à la Catalogne et à la Navarre (1640-

<sup>16</sup> Besançongo Udal Bibliotekan, signatura hau du: «Ms Chiflet 75. Fol. 63».

1643)» bilduman dago.<sup>17</sup> Pierre Dupuyk hau idatzi du, eskuz, aurreko orrialdean, *Extrait...* iragartzeko: «Memoire touchant l'usurpation du Roiaume de Navarre, par le Sr d'Hoinard». Gorago esan dugu Le Long bibliografoak, 1719an, argitu zuela «A.O.M.» inzialek «Arnaud Oihenart de Mauleon» ezkututzen dutela, eta Dupuyren oharra funtsezkoa da Oihenarten egiletasuna berresteko, ziur baitakigu Oihenartek harreman zuzena izan zuela Dupuy anaiekin: batetik, Jean Besly (1572-1644) historialariak Pierre Dupuyri 1638ko urtarrilaren 25ean bidaliriko gutunean,<sup>18</sup> eskerrak ematen dizkio «Oihenard» ezagutzeko aukera eman diolako («estant si rare personnage comme il est») eta hark «La Gascone»ri buruz idatzitako liburuaren ale bat helaraziko diola jakinarazten dio (bistan denez, *Notitia* argitaratu berriaz ari da); bestetik, *Notitia...* liburuan, Oihenartek bi lekutan<sup>19</sup> aipatzen ditu Dupuy anaiak, zeinek Parisko *Tresor des Chartes* (Frantziako koroaren artxiboa) antolatzeko ardura baitzuten, eskerrak emanez artxibo hartako dokumentuak aztertzeko aukera eman diotelako. Ez dago zalantzarik, hortaz, liburuxkaren egiletasunaz.

Arazo gehiago ditugu argitaratze-data zehazteko. Aski hedatua da 1635ean argitaratua dela baieztatzeko ohitura, baina 1635eko *post quem* data baino ez da. Izan ere, liburuxkako 2. orrialdean, usurpazioaren aldeko argudio nagusia (Frantziako erregeren eskumikua) errepikatu duten autoreak aipatzean, Nicolas de Vernulz irakasleak (Nicolas Vernulaeus, latinezko izenez) 1635ean argitarara emaniko liburu bat<sup>20</sup> da liburu berriena, Oihenarten hitzetan «recentement» argitaratua. Hortik ondorioztat

<sup>17</sup> “BNF Archives et manuscrits: Dupuy 598 ff. 123-126” dokumentua. Dokumentu honetako hurrengo orrialdeetan (ff. 127-136), *Extrait...* osoaren eskuzko kopia garbia dago, dirudienek Pierre Dupuyk bere eskuz idatzia, aldaketa hutsal batzuekin (grafari dagozkion kontuak eta errataren baten zuzenketa). Desberdintasun gehixeko ditu, baina ez funtsezkoak, “BNF Archives et manuscrits: Français 20157 ff. 272-301” dokumentuak: «Discours concernant l'usurpation de la Navarre, dressé par Arnaud d'Oihénart, avocat en la Cour de parlement de Navarre». Hau, Manex Goihenetxeren ustez (1994: 501-502), *Extrait...* inprimatua baino lehenagoko eskuzko bersioa da eta «Oihenartena da dudarik gabe» (Goihenetxe 1993: 56). Ikusi dugunaren arabera, grafari eta sinonimoen erabilerari dagozkion desberdintasun hutsalak dira gehienak, bi salbuespenekin: 274r-274v orrialdeetan, *Extraiten* ez dau den hiru paragrafo daude, eta 276r orrialdean bat. Victor Pierre Dubaratek eskuizkribu hori argitaratu zuen 1910ean, *Revue historique et archéologique du Béarn et du Pays Basque* aldizkariko 1910eko 579-586 orrialdeetan, bere horretan, ohar labur-labur batekin.

<sup>18</sup> “BNF Archives et manuscrits: Dupuy 688 f. 54” dokumentua.

<sup>19</sup> Hona hemen *Notitiaren* 1638ko edizioako 83. orrialdean dakarrena: «Diploma istud atque etiam ipas leges Stellanæ et veteri membrana quæ in Tabulario Regio Parisiensis recondita latebat, exscribendi mihi facultas fuit beneficio Petri Puteani viri clarissimi et de me ac de meis studiis optime meriti» ('Petrus Puteanus (Pierre Dupuy) gizon txit argi eta ospetsuak, nirekin eta nire lanarekin eskuzabal izan denak, eman dit aukera dokumentu hau eta Lizarrako legeak kopiatzeko, Parisko Errege Artxiboan ostendurik gordeta zegoen pergaminotik'). Eta 358. orrialdean: «Paulo plenius in hac parte est Commentarium Gentilitiorum Insignium, quod nobis communicarunt totius antiquitatis et bonarum litterarum vindices, Petrus et Iacobus Puteani fratres» ('Honi dagokionez, apur bat egokiagoa da Nobleen Arma-ikurren Historia, zeina utzi baitidate Pierre eta Jacques Dupuy anaiek, antzinate osoaren eta letra ederren defendatzaile eta babesleek').

<sup>20</sup> Oihenarten hitzak hauek dira zehazki: «recentement par Nicolaus Vernuleius in son *Apologie de la Maison d'Austriche*, qu'il a faite imprimer à Louvain en l'année 1635» (*Extrait...* liburuxkako 2. orrialdea). Lovainan 1635ean argitaraturiko *Apologia pro augustissima, serenissima et potentissima gente Austriaca* liburuaz ari da. Luxenburgon jaio eta Lovainako Unibertsitateko irakasle gisa jardun zuen humanista honek zazpi orrialde (113-120) erabili zituen *De Regno Navarrae* 'Nafarroako Erresumaz' atalean; horietako bat eta erdi (114-115) erabili zuen Frantziako errege-erreginek Nafarroaren jabe izateko zituzten eskubideak azaltzeko (*Ius Franciæ regum in Navarram*), eta bost orrialde oso (115-120) Espainiako errege-erreginen jabetza-eskubidea defendatzeko (*Responsio de iure Hispaniæ regum*).

da, nonbait, Oihenarten liburua 1635ekoa dela. Baina, bistan denez, aipu horrek Oihenarten liburuaren *post quem* data baino ezin du ezarri, «recentement» adberbioa aski zabala izan baitaiteke testuinguru honetan: ez dakigu hilabete gutxi batzuek ala urte gutxi batzuek ari den. Nolanahi ere, badugu *ante quem* data ere: gorago idatzi dugun moduan, badakigu Oihenarten liburuxka Dupuyren bilduman zegoela 1643an, 1640-1643 tarteko beste dokumentu batzuekin batera. Hortaz, ziur esan daiteke Arnaut Oihenartek 1635etik 1643ra bitartean argitaratu zuela *Extraict...* liburuxka, baina, aldi berean, zentzuzkoa da 1635eko gerra-aldarrikapenetik gertu kokatzea, ekintza militarrekin batera garaturiko norgehiagoka publizitarioan bi aldeetan (Frantzian eta Espainian) sustatu eta argitaratu ziren dozenaka panfletoen testuinguruan (Jover 1949), erantzunen eta erantzunen-erantzunen lasterketa bizian.

Aipagarria da, azkenik, 1648ko berrargitalpena. Urte horretan, Augustin Galland (1572-1641) legelari, politikari (besteak beste, Nafarroako Prokuradore Nagusia izan zen Parisko Parlamentuan 1606an eta Estatu Kontseilaria hil arte) eta historialariaren *Mémoires pour l'histoire de Navarre et de Flandre* liburua argitaratu zuen Augustin Galland semeak.<sup>21</sup> Lehenengo zatia amaitu ondoren (293 orrialde), bigarrena hasten da (orrialde-zenbakiak berriro 1etik hasita) bere argudioen euskarri gisa aurkezten dituen frogekin (*Preuves des Memoires pour l'Histoire de Navarre*) eta horien artean argitaratzen du (107-111 orrialdeetan) ia hitzez hitz (soilik grafiari edo hizkuntzari dagozkion aldaketa ez funtsezkoekin), Oihenarten *Extrai(c)t...* Aipagarria dela esan dugu, Oihenart bizi zela eginiko argitalpena delako eta, pentsatzekoa denez, Arnaut Oihenartek ezagutu bide zuelako argitalpena, Parisko Mathieu Guillemot inprimatzailearenean egina, zeina aurrerago aipatuko baitugu berriro, akaso Oihenarten laren argitalpenarekin erlazioaturik izan daitekeelakoan (cf. *infra* 4.2 atala).

### 2.3. *Notitia utriusque Vasconiae* (1638 eta 1656)

Latinez idatziriko liburu hau da, ezbairik gabe, Oihenarten libururik ezagunena eta aztertuena. Ez dago zalantzarik egiletasunaz, eta 1638ko lehenengo edizioak 1656ko bigarrenarekin duen erlazioa aztertzea izan da, artikulua honen helburuetarako, gehien interesatu zaiguna.

Julien Vinsonen *Essai d'une bibliographie de la langue basque* ospetsuko 20a et 20b sarrerak dagozkie, hurrenez hurren, 1638ko eta 1656ko edizioei; eta, bigarrenean, edizio bien arteko konparaketa zehatza aurkezten du, gure azterketarako abiapuntu gisa balioko diguna. Vinsonek zioen 1638ko edizioa gehiago zabaldu zela, nonbait, 1656koa baino, lehenengoaren hogeita hamar ale inguru ezagutzen baitzituen, eta bigarrenaren hamar bat; ez dugu liburu honen ale ezagunen erolda zehatzik egin, baina badirudi gaur ere proportzio horretan ezagutzen ditugula, Europa osoko biblioteketan zabalduak.

Bi edizioetako hainbat ale aztertu ondoren, Vinsonek ondorioztatu zuen alerik ale aztertu behar direla aldaketak. Izan ere, 1656ko edizioa ez da erabateko inprimaketa berria: bigarren ediziorako, 1638ko aleen orri gehienak erabili dira, orri batzuk aldaturik. Baina are 1638ko ale gehienek ere txertaturiko orriak dituzte (fr. *carton*, ing.


<sup>21</sup> Galland semea *Père Galland (Prêtre) de l'Oratoire* izengoitiarekin identifikatu ohi da. "BNF Archives et manuscrits: Français 16674 ff. 317-322" dokumentuan, Galland semeak eskuz kopiatu du oso-osorik Oihenarten *Extraict...*, seguruenik 1648ko edizioan erabiltzeko.

*cancel*; edo [folium] *cancellans*, [folia] *cancellantia*),<sup>22</sup> hots, lehenengo inprimaketaren ondoren aldaturiko orriak; eta 1656ko aleek hainbat orri dituzte aldaturik, baina ez dira ale guztietan orri berri guztiak txertatu. Hona Vinsonen hitzak (1891: 83):

C'est bien à juste titre que les exemplaires de 1656 portent la mention *altera editio emendata et aucta*; on s'est évidemment servi des exemplaires non vendus de l'édition de 1638 dont on a refait certaines parties. Les particularités spéciales, les différences individuelles de quelques volumes prouvent seulement qu'Oihenart s'occupait incessamment de son ouvrage et cherchait toujours à l'améliorer. C'est dans l'intervalle de 1638 à 1656, comme le montre la comparaison des deux textes du chapitre XIV, qu'il inventa le système orthographique dont il s'est servi pour ses *Proverbes et Poésies* publiés en 1657.


Hortaz, artikulua honetan behin eta berriro errepikatuko dugun moduan, Oihenartek etengabe jarraitu zuen bere lanak osatzen, aldaketaz, zuzenketaz eta emendioz. Vinsonen ondo ikusi zuen *Notitiaren* 1656ko edizioa ez zela hutsetik abiatu inprentan; 1638ko ediziorako inprimaturiko orriak erabili ziren eta orri berriak txertatu ziren (*cartons* Vinsonen garaiko frantsesezko terminologiaren arabera, *cancellantia* zehatzago esateko) Oihenartek aldatu nahi zituen pasarteak zeuden lekuetan. Vinsonen hitz argi horiek garrantzizkoak dira artikulua honetan aurkeztuko den testu berriaren historia ulertzen ahalgintzeko, eta lerro batzuk emango dizkiogu baieztapen horien balioa zedarrizteari.

Lehenengo eta behin, bi edizioetako azalak konparatuko ditugu:



### 1. irudia

1638ko edizioaren azala  
(BNFko alea: <http://catalogue.bnf.fr/ark:/12148/cb31033137g>)



### 2. irudia

1656ko edizioaren azala  
(Lower Silesian Digital Libraryko alea:  
<https://www.dbc.wroc.pl/dlibra/publication/15011>)

<sup>22</sup> Terminologia honen historia eta gertakizunaren adibide egokiak daude Harris 2007 lanean. Oihenarten kasurako, ondo dator *cancellans*, *cancellantia* 'orri txertatua(k)' vs *cancellandum*, *cancellanda* 'orri ordeztu beharrekoa(k)' bereizketa, Harrisen artikuluan ondo azaldua.

Ikusten denez, Cramoisy inpresore-familia ospetsuaren inprimategian argitaratuak dira bi edizioak. Lehenengoa, 1638koa, tinta beltzez eta gorritz inprimatua Sébastien Cramoisyrean, eta bigarrena, 1656koa, Sébastien eta Gabriel anaiek osaturiko elkartean argitaratua. Sébastien (1584?-1669) itzal handiko inprimatzaile eta liburu-saltzailea zen Parisen, XVII. mendeko inportanteenetakoa; 1606tik 1669ra jardun zuen inprenta-lanetan eta 1633az geroztik Erregeren Inprimatzaile kargua izan zuen; 1643tik 1661era bitartean, Erregeren Inprentako zuzendaria izan zen. Gabriel gaztea anaia nagusiaren aprendiz izan zen eta gero bien elkarteak 1658ra arte jardun zuen.<sup>23</sup> 1. irudian ikusten den legez, bi zikoinen irudiaz osaturiko inprimatzaile-marka erabili zuten 1638ko edizioan, Sébastien Cramoisyren inprimatzaile-marka ohikoaren aldaeretako bat.<sup>24</sup> Bi anaien arteko elkarteak argitaraturiko 1656ko edizioan agertzen den inprimatzaile-marka, ordea, barazkiz eta fruituz beteriko kopa hain zuzen (ikus 2. irudia), ez da ohikoa, edo ez dugu aurkitu, behintzat, Cramoisy anaien beste liburuetan. Harrigarriena da Estienne Loyson inprimatzailearen 1641eko eta 1663ko liburu banatan aurkitu dugula inprimatzaile-markaren lekuan,<sup>25</sup> eta inprimatzaile honen etxean 1662an argitaraturiko liburu batean, berriz, hamabost lekutan aurkitu dugula, kapitulu amaierako apaingarri gisa.<sup>26</sup> Ez dakigu gertaera hau esanguratsua den ala ez, baina aipatu beharrekoa iruditu zaigu.

Ondoren, Vinsonek bere bibliografiako 20b sarreran eginiko edizioen arteko alderaketa baliatuta egitura gisa (esan nahi baita hark *carton* gisa seinalaturiko orrialdeak bakarrik arakaturita), hamahiru ale konparatu ditugu, hamar 1638ko edizioak eta hiru 1656ko edizioak:

- 1638ko edizioko Frantziako Biblioteka Nazionaleko 4-LK2-776 signaturako alea (1638BNF deituko diogu).<sup>27</sup>
- 1638ko edizioko Bizkaiko Foru Aldundiaren Bibliotekako LAND-R-235 signaturako alea (1638BFA deituko diogu).<sup>28</sup>
- 1638ko edizioko Nafarroako Liburutegiko NA-BGN, FA/889 signaturako alea (1638NAF deituko diogu).<sup>29</sup>

<sup>23</sup> Ikus FRBNF12293032 eta FRBNF13610685 ohar biografikoak, BNFren katalogoan.

<sup>24</sup> Léo Mabmacien ezizeneko bibliotekariaren *Bibliomab* blogean, “Diversité des marques d'imprimeurs : l'exemple des Cramoisy” izeneko artikuluan, Cramoisytarren hainbat inprimatzaile-markaren bilduma interesgarrian (Mabmacien 2012), Oihenarten liburukoaren berdin-berdina agertzen da, 1665eko liburu batean. Bartzelonako Unibertsitatearen inprimatzaile-marken bilduman, 1652ko liburu batean aurkitu dugu (<https://marques.crai.ub.edu/es/impresor/a11602715>). Kurioski, Julio Urkixok hain zuzen irudi hori berori hartu zuen bere bibliotekako *ex-libris*etarako, Cramoisytarren armarriaren lekuan Urkixotarren ipinita, eta Sébastien “SC” inizialen ordeez bere “JU” jarrita, eta Cramoisyren armarriko idazpuru bibliokoaren ordeez *Refranes y sentenciaseko* “Ambiolaco supitac eguiac” atsoitza.

<sup>25</sup> Bi liburu hauetan aurkitu dugu: Suetonioren *Des vies des douze Cesars empereurs romains* (1641) eta Claude Le Cellier autorearen *Le nouveau armorial universel* (1663).

<sup>26</sup> Pierre de Lunerer *Le nouveau et parfait maistre d'hostel royal* (1662) liburuan aurkitu dugu, 5, 25, 48, 61, 77, 81, 107, 118, 135, 146, 160, 182, 202, 211 eta 224 orrialdeetan. Frantziako Biblioteka Nazionaleko alea ikus daiteke Gallica biblioteka digitalean: <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k1339465>.

<sup>27</sup> Gallica: <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k87165821>.

<sup>28</sup> Lau Haizeetara Liburutegi Digitala: <http://hdl.handle.net/20.500.11938/69968>.

<sup>29</sup> Biblioteca Navarra Digital: <https://binadi.navarra.es/registro/00008261>.

- 1638ko edizioko Bavariako Biblioteca Nazionaleko alea (1638BAV deituko diogu).<sup>30</sup>
- 1638ko edizioko Lyongo Udal Bibliotekako 314090 signaturako alea (1638LY deituko diogu).<sup>31</sup>
- 1638ko edizioko Lyongo Udal Bibliotekako SJ AD 500/24 alea, jesuiten ikasketxekoa izana (1638LYSJ deituko diogu).<sup>32</sup>
- 1638ko edizioko Sancho el Sabio Fundazioko ZRV 7516 signaturako alea (1638SELF deituko diogu).<sup>33</sup>
- 1638ko edizioko Txekiako Biblioteca Nazionaleko alea (1638TXEK deituko diogu).<sup>34</sup>
- 1638ko edizioko Austriako Biblioteca Nazionaleko alea (1638AUS deituko diogu).<sup>35</sup>
- 1638ko edizioko Eusko Legebiltzarraren Bibliotekako alea (1638ELEG deituko diogu).<sup>36</sup>
- 1656ko edizioko Eusko Legebiltzarraren Bibliotekako alea (1656ELEG deituko diogu).<sup>37</sup>
- 1656ko edizioko Silesia Behereko Bibliotekako XVII-11785-III signaturako alea (1656LSDL deituko diogu).<sup>38</sup>
- 1656ko edizioko Sancho el Sabio Fundazioko ZRV 8444 signaturako alea (1656SESF deituko diogu).<sup>39</sup>

Hamahiru ale horiek aztertuta,<sup>40</sup> konprobatu dugu Vinsonen baieztapen nagusiak balio duela guk azterturiko aleetarako ere: 1656ko edizioa ez da erabat berria, baizik eta 1638ko edizioko ale saldu gabekoen orriak erabiliz paratua; Oihenartek zerbait aldatu beharra ikusi duenean, orri osoa (gehienetan kaier osoa: 2, 4, 6, 8, 16 orrialde) ordeztu du, beti ere orriaren edo kaieraren amaiera hurrengo orrialdearen hasierarekin ondo ezkontzeko moduan; horretarako, behar izan duenean, orrialdeko idazketa-kaxa behetik luzatu du (askotan, baina ikusi, adibidez, 437. orrialdea, zeina 32 lerro izatetik 35 lerro izatera igaro baita, horretarako kaieraren signatura kenduta), edo

<sup>30</sup> MDZ Münchener Digitalisierungszentrum. Digitale Bibliothek: <https://www.digitale-sammlungen.de/view/bsb10358219?page=4,5>.

<sup>31</sup> Numelyo, bibliothèque numérique de Lyon: [https://numelyo.bm-lyon.fr/f\\_view/BML:BML\\_00GOO0100137001101012222](https://numelyo.bm-lyon.fr/f_view/BML:BML_00GOO0100137001101012222).

<sup>32</sup> Numelyo, bibliothèque numérique de Lyon: [https://numelyo.bm-lyon.fr/f\\_view/BML:BML\\_00GOO0100137001101357650](https://numelyo.bm-lyon.fr/f_view/BML:BML_00GOO0100137001101357650).

<sup>33</sup> Euskal Memoria Digitala: <http://hdl.handle.net/10357/1280>.

<sup>34</sup> Manuscriptorium, Digital Library of Written Cultural Heritage: [https://www.manuscriptorium.com/apps/index.php?direct=record&pid=NKCR\\_-NKCR\\_65\\_D\\_002583\\_0VSJ58F-cs](https://www.manuscriptorium.com/apps/index.php?direct=record&pid=NKCR_-NKCR_65_D_002583_0VSJ58F-cs).

<sup>35</sup> Österreichische Nationalbibliothek: <http://data.onb.ac.at/rec/AC10168798>.

<sup>36</sup> Liburuklik: <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/9067>.

<sup>37</sup> Liburuklik: <http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/9073>. Ale hau berrargitaratu zen 1992an, faksimile gisa, baina bibliografia materialarentzat funtsezkoak diren kontuetan arreta gutxiarekin jokatu zen (adibidez, orrialde bakoitiak geratu dira ezkerrean eta bikoitiak eskuinean; ondorioz, orrialdegoiburua VASCONIAE NOTITIA da, NOTITIA VASCONIAE izan beharrean, liburu osoan zehar).

<sup>38</sup> Lower Silesian Digital Library: <https://www.dbc.wroc.pl/dlibra/publication/15011/edition/13263>.

<sup>39</sup> Euskal Memoria Digitala: <http://hdl.handle.net/10357/65094>.

<sup>40</sup> Argazkiak erabili ditugu gehienetan, baina bi ale aztertu ditugu zuzenean: Sancho el Sabio Fundazioko ZRV 7516 (1638ko ediziokoa) eta ZRV 8444 (1656ko ediziokoa).

are orrialdeak zenbakitu beharrean orriak zenbakitu ditu (65-72 orrialdeetan). Baina orri txertatuak agertzen dira 1638ko ale batzuetan ere (303-304 orria 1638BFA, 1638BAV eta 1638LYSJ aleetan), eta 1656ko ale batzuetan ordeztu gabe geratu dira edizio horretako gainerako aleetan ordeztu diren orri batzuk (1656LSDL da halako gehien dituen alea). Sancho el Sabio Fundazioko aleetan, paperari eta tintari begiratuta, testuari begiratu gabe, guk ez genituzke bereiziko ukiturik gabeko orriak eta *cancellantia* orriak. Baionako Udal Bibliotekako alean, Vinsonen dioen moduan (1891: 83), 113-114 eta 407-408 orriak bi aldiz daude: *cancellanda* orriak beren tokietan, kendu gabe, eta *cancellantia* orriak aurkibidearen *ē* eta *ēĭj* orrien artean txertaturik. Hau litzateke aleen osaeraren koadro sinoptikoa:<sup>41</sup>

### 1. taula

Edizioaren arabera espero ez diren *cancellantia* 'orri txertatuak' (NT laburdura) eta *cancellanda* 'ordeztu beharrekoak' (ND laburdura) aztertuturiko aleetan

<i>Cancellantia</i> orrialdeak 1656koan	1638 BNF	1638 BFA	1638 NAF	1638 BAV	1638 LY	1638 LYSJ	1638 SESF	1638 TXEK	1638 AUS	1638 ELEG	1656 ELEG	1656 LSDL	1656 SESF
7-10												ND	
[37-38]													
57-72													
[113-114]													
255-256												ND	
[303-304]		NT		NT		NT					ND		ND
[407-408]													
421-422												ND	
433-440													
449-456													
457-464													
465-466													
471-472													
473-480													
481-482													
489-504													
507-510													
511-512												ND	
513-514												ND	
515-518													
521-528													
529-530												ND	
532												ND	
533												ND	ND
541-544												ND	
545-552													
553-558													
erratak													

<sup>41</sup> Ezkerreko zutabeen zerrendatu ditugu Vinsonen arabera 1656ko edizioan aldatuta dauden orriak. Parentesi karratuen artean markatu ditugu 1638koan ere kartoi erantsiak dituzten orriak. Espero diren egoerak ez ditugu markatu: espero dugu 1638ko edizioako aleetan *cancellanda* 'ordeztu beharrekoak' agertzea, eta 1656ko edizioako aleetan *cancellantia* 'orri txertatuak' agertzea. Horiek, hain zuzen, ez ditugu markatu.

Kopuruei begira, 1638ko edizioak 577 orrialde zituen eta, 1656koan, 125 orrialdetan dago aldaketaren bat aleren batean; hortaz, liburu osoko orrialdeen % 21,66k izan du aldaketaren bat, baina, kontuan izanik orrialde batzuetan oso aldaketa txikiak agertzen direla, hori baino gutxiago aldatu da bigarren edizioan. Zein eratako aldaketak agertzen dira *cancellantia* orrietan? Kasurik nabarmenena XIV. kapitulua da, euskarari dagokiona, hor (57-72 orrialdeak) ia goitik behera aldatu baita testua. Gainerakoetan aldaketa zehatzagoak dira:

- Tipografiari dagozkionak. Adibidez *ae*, *e* → *ē*, *ā* → *an*, *ū* → *um...* (*passim*, baina noizbait baita alderantziz ere, 504. orrialdean adibidez), edo izen bereziak etzanez ipintzea.
- Hautu terminologiko batzuk. Adibidez, *Vasconica* → *Vasca*.
- 1638ko erraten zerrendako akats batzuk zuzendu dira (466. orrialdekoa, adibidez), baina beste batzuk ez (90. orrialdekoa, adibidez). Zuzenketa-aldaketa guztietan ohi bezala, errata berriak ere sortu dira, nahi gabe (421. orrialdeko 26. lerroan, adibidez: *domum* → *domnm*).
- Ugarienak edukiaren zuzenketa dira, batzuetan azalpen eta guzti. Adibidez, 256. orrialdean:

(1) *Garsimirum*

→ *Garsim Innicum* (*sic enim legitur in prototypo, non Garsimirum ut edidit Duches<u>nus*) ‘Garsim Innicum (horrela irakurtzen baita jatorrizkoan, ez Garsimirum, Duchesnek argitaratu zuen moduan)’

Nolanahi ere, esan dugun moduan, ale guztiak izan daitezke desberdinak, aldaketak, zuzenketa eta emendioak dituzten orriak ez direlako edizio bakoitzeko ale guztietan berdin sartu. Azterturiko aleei begiratuta, 1638ko edizioan emisio<sup>42</sup> berekoak izan daitezke batetik 1638BNF, 1638NAF, 1638LY, 1638SESF, 1638TXEK, 1638AUS eta 1638ELEG, eta bestetik 1638BFA, 1638BAV eta 1638LYSJ, multzo horiek aldaketa berak dituztelako. 1656ko edizioan, ordea, azterturiko hiru aleen artean ez daude aldaketa berberak dituzten bi ale, eta ez dirudi emisio kontzeptua baliagarri denik; edozein kasutan ere, ale gehiago aztertu beharko lirateke baieztapen zehatzagoa egin ahal izateko.

### 3. Oihenarten euskarazko lan inprimatuak: Vinsonen aipaturiko edizioak eta aleak

Vinsonen bibliografia-lan erraldoiko 26a eta 26c<sup>43</sup> sarreretan eta horiei dagozkien eranskinetan (Vinson 1891: 99-108 eta 418-420; 1898: 549-550) azterturiko idatziez jardungo dugu atal honetan, baina esan behar da, kasu honetan, ordutik hona nabarmen aldatu dela lan horiei buruz dakiguna, azken urteetan agertu diren aleak kontuan hartuta. Oraingoan, guk ere “alea” hitza erabiltzen jarraituko dugu biblioteketan sarrera bibliografikoa duten dokumentuentzat, baina aurreratuko dugu arreta

<sup>42</sup> Edizio, emisio, egoera eta aldaera (ingelesez *edition*, *issue*, *state* eta *variant*) kontzeptuei buruzko azalpen argia dago Martín 2014 artikuluan.

<sup>43</sup> Vinsonen 26b sarrera ez zaigu hemen interesatzen, Francisque Michelek 1847an argitaraturiko edizioari dagokiolako.



berezia jarriko diegula ale horietako bakoitza osatzen duten elementuei, ikusteko noraino diren ale edo noraino bilduma.

Vinsonek sei ale ezagutzen zituen: hasieran hiru, hain zuzen Parisko BNFko Z-1801, Baionako Udal Bibliotekakoa eta Vaussenat jaunak Vinsoni berari emandakoa; gero, 1891ko eranskinak idatzi zituenean, Madrilgo BNEko bi aleak (BNE R.5081-1 eta R.5081-2) ere ezagutzen zituen,<sup>44</sup> eta, azkenik, 1898ko eranskinak idatzi zituenean, Parisko Mazarine Bibliotekako alea ere zehaztasunez deskribatu zuen (alearen kolazioa 1893an egin bide zuen). Beste hiru ale ere aipatzen ditu (Vinson 1891: 105), XVIII. mendean argitaraturiko katalogoetan ikusi dituelako aipaturik,<sup>45</sup> ez daukagu ale horien inguruko informazio zehatzik, baina hemen interesatzen zaigu hiru kasuetan agertzen direla izenburuetan, nolabait, *proverbes basques* eta *poesies basques*, eta “Paris, 1657” datazioa, zalantza gutxirekin pentsatzeko moduan 1657an paraturiko bildumaren aleak direla.

### 3.1. Frantziako Biblioteka Nazionaleko RES. Z-2626 alea

Vinsonek bere bibliografian deskribaturiko aleak RES. Z-2626 signatura dauka gaur egun BNFko katalogoan, baina Z-1801 zen Vinsonen garaian, eta Z-2363 lehenago.<sup>46</sup> Parisen 1657an argitaraturiko bilduman, bi atal deskribatzen eta bereizten ditu 26a sarreran (*Atsotitzak edo errefrauak* eta horien frantsesezko itzulpena eta oharrak batetik, eta *O<sup>T</sup><sup>en</sup> gaztaroa neurtitzetan* bestetik).

Bestalde, 26c sarreran, bereiz aztertzen du *Atsotitzen urhenkina*, eta, oraingo alea liburuki faktizioa dela azpimarratzeko, zehazten du alea Parisko BNFn josi eta azalezatu zenean josi zitzaioala *Atsotitzen urhenkina* liburuxka (*plaque*), azkenaren independentzia errespetatu gabe. Izan ere, *Atsotitzen urhenkina* atalak sailkatze-marka propioa zuen hasieran BNFn («Q. 208. *voyés* Z. 1801»), eta lehenengo orrialdearen hasieran dauka izenburu hori, argitaraldiaren lekurik eta datarik gabe bada ere. Vinsonek geroago jaso zuen Madrilgo BNEko aleen berri zehatza (1891 baino lehen nolana ere, eranskinak idatzi zituenerako), eta orduan ikusi zuen, BNE R.5081-2 aleari esker (cf. *infra* 3.6 atala), Pauen 1665ean argitaraturikoa dela, Jean Desbaratz inprimatzaile eta liburu-saltzailearenean, edo behintzat datu horiek dituen azala ipini zitzaioala Madrilgo aleari, zeina gainerakoan Pariskoaren berdin-berdina baita.

BNFko alea zehaztasunez deskribatuko dugu gaur egungo egoeran osagai gehien dituen delako eta, hain zuzen horregatik, gainerako aleen osagaiak errazago azaltzeko balioko digulako:

<sup>44</sup> Madrilgo bibliotekaren bidez jakin zuen, antza, hango aleen esistentziaren berri (Vinson 1891: 107) eta eranskinetan eman zuen horien berri zehatza (Vinson 1891: 418-420). Berak ale bakar gisa aipatzen ditu, behegero 3.5 atalean azalduko ditugun arrazoiengatik.

<sup>45</sup> Colbert familiaren bibliotekaren 1728ko katalogoan, Jean-Pierre Imbert Châtre de Cangéren liburu-bildumaren 1733ko katalogoan (Vinsonek susmatzen du bi horiek ale bakarra izan litezkeela, eta Francisque Michélek uste du are de Cangéren alea BNFkoa izan litekeela), eta Camile Falconet (1671-1762) jakintsuaren liburuaren 1763ko katalogoan.

<sup>46</sup> Gallica: <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k15122177>.

- $\alpha$ - $\beta$ . Orrialde-zenbaki gabe.  
Kaieren signaturarik gabe.  
Bildumaren izenburua: «LES PROVERBES BASQVES RECUEILLIS PAR LE S<sup>r</sup> D'OIHENART. *PLVS LES POESIES Basques du mefme Auteurs*».
- i-ii. Orrialde-zenbaki gabe.  
Kaieren signaturarik gabe.  
Lehenengo izenburu nagusia: «ATSOTIZAC, EDO REFRAVAC, *Prouerbes, ou Adages Basques*. Recueillis par le Sieur d'OIHENART. A PARIS. M.DC. LVII.».  
Gehi orrialde zuria ifrentzuan.
- iii-x. Orrialde-zenbaki gabe.  
Kaieren signaturak:  $\bar{a}$  (iii or.),  $\bar{a}$  ij (v or.).  
Atsotitzen bildumaren hitzaurrea, «PREFACE» izenburu eta orrialde-goiburuarekin.  
Testu osoa frantsesez.
- 1-80. Orrialdeak zenbakiturik.  
Kaieren signaturak: A (1 or.), A ij (3 or.), A iiij (7 or.), B (17 or.), B ij (19 or.), B iij (21 or.), B iiij (23 or.), C (33 or.), C ij (35 or.), C iij (37 or.), D (49 or.), D ij (51 or.), D iij (53 or.), E (57 or.), E ij (59 or.), F (65 or.), F ij (67 or.), G (73 or.), G ij (75 or.).
- 1-537 atsotitzak, euskaraz, hurrenkera alfabetikoan multzokatuta (A letrarekin hasten direnak, B letrarekin hasten direnak... X letraraino). Baina ikusi 42. orrialdean eta 45. orrialdean gertatzen dena.
1. orrialdearen goiko aldean: «ATSOTIZAC, edo Refraüac.» izenburua.  
42. orrialdean: «Atso-tizen *emendioa*.» izenburua, 482. eta 483. atsotitzen artean. 483-509 atsotitzak berriz hasten dira hurrenkera alfabetikoan (Atik Ira).  
45. orrialdean: «*Atfotizen berze emendioa*.» izenburua, 509. eta 510. atsotitzen artean. 510-537 atsotitzak berriz hasten dira hurrenkera alfabetikoan (Atik Vra).  
46. orrialdearen beheko aldean, testuaren amaieran: «Vrhenzea.».  
47. orrialdean: «INTERPRETATION DES PROVERBES BASQUES.» izenburua. 1-537 atsotitzen frantsesezko itzulpenak eta atsotitz batzuen ohar argigarriak datoz ondoren, 77. orrialdeko eta 79. orrialdeko jauziekin.  
77. orrialdean: «*ADDITION DE PROVERBES*.» izenburua, 482. eta 483. atsotitzen artean.  
79. orrialdean: «*Autre supplément de prouerbes*.» izenburua, 509. eta 510. atsotitzen artean.  
80. orrialdearen beheko aldean, testuaren amaieran: «FIN.»
- xi-xii. Orrialde-zenbaki gabe.  
Signaturarik gabe.  
16, 17, 20, 23, 24, 44 eta 48. orrialdeetako erratak dira, «FAVTES DE L'IMPRESSION.» izenburuarekin.  
Testu osoa frantsesez.  
Orri hau, Vinsonen deskripzioaren arabera, x. orrialdearen ondoren zegoen, 1 orrialdearen aurretik. Dirudienez, ale hau Parisko BNFn josi eta azaleztatuzenean aldatu zen lekua.
- 1-8. Orrialdeak zenbakiturik.  
Kaieren signaturak: A (1 or.), A<sub>2</sub> (3 or.).  
1. orrialdearen goiko aldean: «ATSOTIZEN VRRHENQVINA.» izenburua.  
538-679 atsotitzak, euskaraz, hurrenkera alfabetikoan multzokatuta (A letrarekin hasten direnak, B letrarekin hasten direnak... X letraraino).

- 1-2. Orrialdeak zenbakiturik.  
 Signaturarik gabe.  
 680-706 atsotitzak, euskaraz, hurrenkera alfabetikoan multzokatuta (Atik Sra).  
 2. orrialdearen beheko aldean, testuaren amaieran: «VRHENZA.»
- γ-δ. Orrialde-zenbaki gabe.  
 Orrialde zuriak.
- 1-13. Orrialdeak zenbakiturik.  
 Kaieren signaturak: A (1 or.), A ij (3 or.), B (9 or.), B ij (11 or.).  
 1. orrialdearen goiko aldean: «TRADVCTION DV SUPLEMENT DES PROVERBES BASQUES.» izenburua. 538-706 atsotitzen frantsesezko itzulpenak eta atsotitz batzuen ohar argigarriak datoz ondoren.  
 13. orrialdearen beheko aldean, testuaren amaieran: «FIN.»
- ε-ζ-η. Orrialde-zenbaki gabe.  
 Orrialde zuriak (ε orrialdea 13.aren ifrentzua da).
- i-ii. Orrialde-zenbaki gabe.  
 Kaieren signaturarik gabe.  
 Bigarren izenburu nagusia: «O.<sup>Ten</sup> GASTAROA NEVRTHIZETAN. *La Ieuneffe d'O. en vers Basques. A PARIS, M. DC. LVII.*»  
 Gehi orrialde zuria ifrentzuan.
- iii-iv. Orrialde-zenbaki gabe.  
 Kaieren signaturak: â (iii or.).  
 iii. orrialdearen goiko aldean: «AV LECTEUR.» izenburua. Neurtitzen bildumaren hitzaurrea dator ondoren.  
 Testu osoa frantsesez.
- 1-76. Orrialdeak zenbakiturik.  
 Kaieren signaturak: A (1 or.), A iij (5 or.), B (9 or.), B ij (11 or.), C (17 or.), C ij (19 or.), D (25 or.), D ij (27 or.), E (33 or.), E ij (35 or.), F (41 or.), F ij (43 or.), G (49 or.), G ij (51 or.), H (57 or.), H ij (59 or.), I (65 or.), I ij (67 or.), K (73 or.).  
 1-45 orrialdeetan, I-XV poemak zenbakiturik.  
 46-67 orrialdeetan, Altuna & Mujika (2003)-ko XVI-XXII poemak zenbakitu gabe, euskaraz.  
 67. orrialdean, euskarazko azken neurtitzaren ondoren: «NEVRTITZ HAVTACO HIZ bekanen adigarria. *EXPLICATION DES MOTS RARES QUI se rencontrent parmy ces Vers.*» izenburua.  
 67-75 orrialdeetan, 25 lerroko oharra frantsesez eta euskarazko hitz hautatuen zerranda hurrenkera alfabetikoan (Atik Vra), ondoren bakoitzaren marka diatopikoarekin (laburduraz) eta azalpenarekin (frantsesez).  
 76. orrialdean (75. orrialdearen ifrentzua da): «FAVTES DE L'IMPRESSION.» izenburua. Inprenta-akats gehienak neurtitzen orrialdeetakoak dira (19, 26, 33, 51, 52, 63 orrialdeak), baina beste batzuk atsotitzen lehenengo bildumaren *Preface* atalari dagozkio (hitzaurre horretako 3 eta 6 orrialdeak).

### 3.2. Parisko Mazarine Bibliotekako 8° 44024 [Res] alea

Parisko Mazarine Bibliotekako alea 1898an argitaraturiko eranskinetan aipatu eta deskribatu zuen Vinsonek (1898: 549-550). Ale osoa dela azpimarratzen du, ale osotzat hartuta 1657ko *Les proverbes basques recueillis par le Sr d'Oihenart, plus les poésies Basques du mesme auteur* bilduma, esan nahi baita 537 atsotitz eta *O<sup>Ten</sup> gazarroa neurtitzetan*, paratestu guztiakin, orrialderik galdu gabe. Vinsonek dio BNFko

RES. Z-2626 alearen berdin-berdina dela, baina, kontuan izanik BNFkoa, gure ustez, ale faktiziotzat hartu behar dela *Atsotitzen urhenkina* josi eta erraten orrialdearen lekua aldatu zitzaionetik, egiatan Mazarine Bibliotekako ale hau izango litzateke Parisko 1657ko bilduma nolakoa zen bere horretan erakusten digun ale ezagun baxarra.<sup>47</sup>

Liburuan bi jaberren aztarnak agertzen dira (Mazarine Bibliotekako zigituez gain): batetik Pierre Séguier (1588-1672) kantzeliariarenak (armarria azalean eta kontrazalean, eta PSMF monograma bizkarrean),<sup>48</sup> zeina Frantziako biblioteka nagusietako baten sortzaile eta jabea izan baitzen, eta bestetik Parisko Saint-Honoré kaleko fraile Jakobinoen (domingotarren) Komentukoak (komentu horretako zigitula eta bibliotekako ex-libris eta signatura zahar eskuizkribatuak).<sup>49</sup>

Aipagarria da, Vinsonen diogen moduan, *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* poema-bildumako 9-10, 27-30 eta 45-46 orrialdeak BNFko RES. Z-2626 alekoen berdinak direla (*cartons* edo *cancellantia* erantsiak, hortaz, testu berriarekin), eta ez Vausse-*nat*-Vinson alekoak bezalakoak (cf. *infra* 3.4 atala).

### 3.3. Baionako Udal Bibliotekako RES. 21 FR alea

Baionako Udal Bibliotekako katalogoan RES. 21 FR signatura dauka gaur egun, Vinsonen garaian 3820 sailkatze-marka zuenak; Baionako Mediatekan ikusi ahal izan dugu alea, Hiri Barneko eraikinean.<sup>50</sup> Jules Balasque bibliofiloak oparitu zion Baionako Udal Bibliotekari. Francisque Michelek ale hau erabili zuen 1847an Oihenarten euskarazko lanen argitalpena paratzeko eta bere ustez (Michel 1847: iii) alean esku-*z* egin diren zuzenketak Oihenartek berak eginak dira.

Alearen orrialde batzuk galdu dira eta agian horregatik ez dauzka bildumaren izenburua (*Les proverbes Basques... plus les poesies...*), ez lehenengo izenburu nagusia (*Atsotizac edo refrauac... Paris, MDCLVII*). Bigarren izenburu nagusia ere (*O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan... Paris, MDCLVII*) ez dauka, baina horri legokiokkeen tokiko ondoko orriak ere galdu dira. Pentsa liteke, hortaz, izenburuak eta edizioaren lekua eta data zekartzaten orriak galdu direla; baina posible da, beste ale batzuetan ikusiko dugunaren arabera, ale honetan inoiz ez izana.

Aipaturiko paratestuen orrialdeez gain, *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* ataleko 27-30 eta 43-46 orrialdeak ere falta dira gaurko alean. Francisque Michelek 1847an paratu zuenean Oihenarten lan honen edizioa, zehaztu zuen 45-46 orrialdeak erditik

<sup>47</sup> Alea erraz aurkitzen da Mazarine Bibliotekako katalogoan "Oihenart" eskatuta (izenburuan, ez autore gisa). Guk dakigula, ez dago ale honen kopia digital publikorik.

<sup>48</sup> Monogramako letrak kantzeliariaren eta emaztearen inizialak dira (Pierre Séguier eta Madeleine Fabry). Mazarine Bibliotekako katalogoan beste 28 liburu agertzen dira Séguierren bibliotekatik etorriak direlakoan, eta ez dugu aurkitu horien arteko ezaugarri komunik (ez atsotitzak izatea, ez euskararekin zerikusia izatea, ez hizkuntza "bitxiak" izatea...).

<sup>49</sup> Bibale-IRHT/CNRS datu-basean ondo identifikatuta eta deskribatuta agertzen dira jatorri horri dagozkion ex-librisak eta sailkatze-markak: bost puntako izarra eta inguruan «JACOBINS R.S. HONORE» testua dituen zigitula (<https://bibale.irht.cnrs.fr/36196>), «Ex-libris ffm [fratrorum] Praedicatorum Parisiensium ad S. Honoratum. 757» ex-librisa (<https://bibale.irht.cnrs.fr/44860>) eta «Mus. C. Tab. 75<sup>a</sup> n.º 23» signatura zaharra (<https://bibale.irht.cnrs.fr/36192>).

<sup>50</sup> *Bilketa* atarian dago dokumentu numerikoa: <https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go/120133>.

moztuta zeudela goitik behera, eta, testuaren zati bat irakur zitekeenez, ikusten zela poemetako zati hori ez zettorrela bat BNFko RES. Z-2626 aleko testuarekin (Michel 1847: iii<sup>oh</sup>). Pentsatu behar dugu, hortaz, orduan moztuta ikusten zen zatian *cancellandum* testua zegoela, guk orain Vaussenat-Vinson (orain BNF RES. P-YO-2) eta Grenoble F.23065 aleen bidez ezagutzen duguna, eta hain zuzen goitik behera moztuta zegoela, hor *cancellans* orria kolatzeko; baina *cancellans* orria solte geratu bide zen, kolatu gabe, eta gero galdu; ondorioz, gorago esan dugun moduan, gaurko alean galduta daude hala 43-44 orria, nola 45-46 orriko *cancellandum* zatia, ustez Michelen garaian bazeudenak.

Gainerako atalei dagokienez, ez daukagu zalantzarik BNFko RES. Z-2626 aleko atsotitzen atalari dagokion hitzaurrea (*Preface*) eta atsotitzen bilduma nagusia (1-80 orrialdeak) berdin-berdinak eta inprimaldi berekoak direla Baionako alean ere; beste horrenbeste esango dugu *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurritzetan* ataleko poeman 1-76 orrialdeei buruz ere (orrialdeak, kaieren signaturak, tipografia eta testua berdin-berdinak dira Pariskoan eta Baionakoan). Baina horrek ez du esan nahi ezinbestean atal biak beti elkarri lotuta egon direnik, Parisko alean bezala, “Paris, 1657” leku-datak zehaztuta eta azal-izenburu nagusi batekin (*Les proverbes Basques... plus les poesies...*).

Bestalde, bilduma honetan ez dago *Atsotitzen urhenkina*. Osagai hori, zalantzarik gabe, ez da inoiz egon Baionako alean.

Baina badaude poema batzuk Pariskoan ez daudenak. Poema horiek aparte zenbaitutako orrietan daude (3-14 orrialdeak, aurrekoak eta atzekoak galduta), *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurritzetan* atalaren aurrean josita. Francisque Michelek argitaratu zituen lehenengoz, *Autres pièces et fragments* izenburua gehituta (Michel 1847: 224-250), eta orain arte pentsatu izan da *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurritzetan* atalaren parte direla, azken orduan kendurikoak (Urkizu 1994: 296-297, Mitxelenaren iradokizuna onartuta), edo poesien “bigarren kapitulua” liratekeela (Arkotxa & Oihartzabal 2009, Egiategiren baieztapenari kasu eginez; cf. *infra* 4.4 atala). Altunak eta Mujikak (2004: 481-518) Parisko alean daudenen ondoren editatu zituzten, poema-bilduma berekoak izango balira bezala (XXIII-XXX poema-zenbakiak erantsita). Geroago ikusiko dugun moduan, orain badakigu poema horiek Oihenarten beste poema-bilduma bat osatzen dutela, *Cobla berriac* izeneko, Grenobleko Udal Bibliotekan aurkitu dugun F.23066 liburukian (cf. *infra* 4.4 atala) izenburu hori agertzen baita 16 orrialdez osaturiko liburuxka osoaren hasieran, lehenengo orrialdean; Baionako atal hau Grenobleko horren berdin-berdina da, hain zuzen, inprimaldi berekoa, 1-2 eta 15-16 orrialdeak galduta, esan nahi baita kanpoaldeko plegua galduta.

Kanpoaldeko plegua beti izan ohi da hondatzeko eta galtzeko arrisku gehien izaten duena, eta agian besterik gabe denboraren poderioz hondatu eta galdu zen, ale honetako beste atal batzuetako orrialdeak ere galdu ziren moduan. Baina, gero 6.2 atalean ikusiko den moduan, 15-16 orrialdeetako poemei ez zaizkie gatza eta piperra falta, eta akaso irakurleren baten gogo minbera asaldatu zuten, poema lotsagabeak zirelakoan azken orri hori erauzteko gogoia pizteraino. Behin azken orriaren zentsura gauzatu ondoren, lehenengo orria (1-2 orrialdeak), harekin batera erauzi ez bada, are zaurgarriago bihurtzen da, jakina.

### 3.4. Vaussenat-Vinson alea (orain BNFko RES. P-YO-2)

Banhèras de Bigorrako Célestin-Xavier Vaussenat ingeniariak Julien Vinson euskalariari eman zion, 1879an, Oihenarten poemak biltzen zituen ale bat. Vinsonek ale horri buruzko azalpen zehatzak eman zituen bere bibliografian (26a sarreran), baina geroztik galduta egon da haren aztarna. Orain, ale guztien berrikuspena egitean, ikusi dugu Frantziako Biblioteka Nazionalan dagoela, Parisen, Tolbiac eremuan, Rez-de-jardin ataleko biltegian.<sup>51</sup> Guk dakigunez Oihenarten ikertzaileek aipatu ez duten arren, BNFko katalogoan «Oihenart» bilatzen duenak erraz aurkituko du; katalogo-goko deskripzioa, ordea, orain arte Oihenarten lanei buruz idatzi denak baldintzaturata dago eta izenburuan «Les Proverbes basques recueillis par le Sr d'Oihenart, plus les poésies basques du mesme auteur» ipini dute, gero «Exemplaire incomplet comprenant seulement la 2e partie: Oten Gastaroa neurthizetan. La Jeunesse d'O. en vers basques» oharra erantsita. Izan ere alea azal gogorarekin enkoadernatu zen XIX. mendean amaieran edo XX.aren hasieran, eta Frantziako Biblioteka Nazionaleko RES. Z-2626 alearen izenburudun azalaren erreprodukzio heliografiko bat josi zitzaion aurrean, «Reproduction héliographique, procédé Motteroz.» oharrarekin. Gainerakoan, Vinsonen deskripzioak goitik behera balio du, baina zerbaite gehitu behar da: alearekin batera josi dira Vinsonen eskuzko oharrak, ale hau BNFko RES. Z-2626 alearekin, Mazarine Bibliotekakoarekin eta Baionako RES. 21 FR alearekin konparatu ondoren idatziak, hain zuzen *Essai d'une bibliographie de la langue basque* erraldoian erabili zituenak (Vinson 1891: 102-105).

Alearen deskripzioa egitean, Vinsonen lau ezaugarri azpimarratu zituen: 1) Dokumentu hau alboak moztu gabe dago (plegu-laurdenen tamainako zortzi orri, gainerako aleak plegu-zortziren tamainakoak direnean). 2) Dokumentu berezia da, ez *Proverbes* deituriko liburukiari lotua. 3) BNFko RES. Z-2626 alearen bidez ezagutzen ziren poemetan, aldaerak daude testuan, 9-10, 27-30 eta 45-46 orrialdeetan (horien berri zehatza ematen du). 4) Vinsonen ustez ale honetako testua jatorrizko inprimaldikoa da, eta ondorioz BNFko RES. Z-2626 alean aldaerak dituzten orriak *cancellantia* erantsiak (*cartons* dio Vinsonen) dira.

Vinsonen gaztigatu zuen moduan, ale honetan lehenengo 8 orrialdeak (bi plegu, 1-8 orrialdeak) galduak dira. Plegu-laurdeneko 8 orri dauzka aleak, hain zuzen plegu-zortzireneko 32 orri, hots 64 orrialde (9-72 orrialdeak). 9-14 orrialdeak hezetasunak hondatuta daude (zulo handi bat 9-10 orrian, zulo txiki bat 11-12 orrian, eta orriaren beheerengoa herena galduta 9-10, 11-12 eta 13-14 orrietan), testu zati batzuk galtzeko beste; gainerako orriak ere apur bat hondatuta daude, baina ez da testurik galdu. Amaierako lau orrialdeak ere (plegu bat, 73-76 orrialdeak), lehenengo lauak bezala, erabat galdu dira. Hortaz, argitalpen osoa 76 orrialdekoa bide zen... eta hain zuzen 76 orrialde ditu *O<sup>I</sup>en gastaroa neurthizetan* atalak hala BNFko ale ezagunenetan nola Baionakoan.

Hemen ezinbestean aipatu behar dugu Grenobleko Udal Bibliotekan aurkitu dugun F.23065 liburukia (cf. *infra* 4.3 atala), Grenoblekoa ere, Vaussenat-Vinson alea bezala, ez dagoelako atsotitzen bildumari loturik, eta Vinsonen kolazionaturiko 9-10,

<sup>51</sup> BNF: <https://catalogue.bnf.fr/ark:/12148/cb32495365t>. Guk dakigula, ez dago ale honen kopia digital publikorik.

27-30 eta 45-46 orrialdeetan testu-aldaera berberak dituelako. Gainera, Grenobleko alean badira, BNFko RES. Z-2626an bezala, *Au lecteur* hitzaurrea (bi orrialde) eta *O.<sup>1en</sup> gastaroa neurthizetan... Paris, MDCLVII* izenburu nagusia dakarren orrialdea (jatorrizkoa izan edo ez, 1657ko data darama, hortaz, BNFko RES. Z-2626 aleak bezala). Ezin dugu jakin paratestuen orrialde horiek, orrialde-zenbakidun 1-8 eta 73-75 orrialdeak bezala, galdu egin ote ziren Vaussenat-Vinson alean, ala ez zituen inoiz eduki.

Baina zalantza gutxirekin esan genezake Vaussenat-Vinson alea, orain BNFko RES. P-YO-2, *O.<sup>1en</sup> gastaroa neurtizetan* liburukiaren ale bat zela, Grenobleko F.23065 bezala (azalarekin eta hitzaurrearekin, edo horiek gabe). Vinsonek ondo ikusi zuen (1891: 102): «il est évident que ce cahier formait un tout séparé et ne devait point être joint à un exemplaire des *Proverbes*».

### 3.5. Madrilgo BNE R.5081-1 alea

Vinsonek Espainiako Biblioteca Nazionaleari galdetu zion, dirudienez, ea Oihenarten alerik ote zeukaten, eta idatziz erantzun zioten baietz. Horren berri eman zuen bibliografiaren 26c sarreran, baina, antza, orduan ez zuen dokumentua ikusi, eta ezer gutxi zekien hari buruz. Gero, *Essai* ezagunaren 1891ko edizioaren azken bertsioa moldiztegiratu baino lehen, emendakinen eta zuzenketen atal bat idatzi zuen (*Additions et corrections*, Vinson 1891: 415-430), eta ordurako ondo aztertuta zeuzkan Madrilgo BNEko Oihenarten dokumentuak, datu zehatzak eskaintzen baititu hor.

Gaur egun, BNEko katalogoan “Oihenart” autorea eskatuta, Oihenarten garaiko bi dokumentu agertzen dira: 1657ko *Atsotizac edo refrauac* eta 1665eko *Atsotizen urhenquina*. Lehenengoa da, hain zuzen, atal honetan aztertuko duguna, baina esan behar da bi dokumentuak daudela gaur ere pergaminozko azal gogor bakarrarekin babestuta eta biek zutela, jatorrian, bibliotekako sailkatze-marka bakarra: «135-4» (libururaren lehengo jabearen bibliotekakoa) Vinsonen garaian, eta «R. 5081» gero (BNEen ezarritakoa). Gaur egun ere signatura zahar horiek ikusten dira azal gogorren ifrentzuan, baina egungo katalogoan 1657koa «R. 5081-1» da eta 1665ekoa «R. 5081-2».<sup>52</sup> Liburukian ez da jabearen ex-librisik agertzen, baina Vinsonek dio

<sup>52</sup> Ez dago dokumentu hauen kopia digital publikorik. Artikulu hau idatzi ondoren gogorarazi zaigun moduan, Aurelia Arkotxak 2005ean eginarazi zuen digitalizazio pribatua, eta argazki horiekien osaturiko diapositiba batzuk aurkeztu zituen jendeaurrean, 2016an, UPV/EHUko Letren Fakultatean, bi ekitalditan. Lehenik, Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Masterreko saio batean (2016/04/18), “Itzulpena *scribus* euskaraz: kasu konkretu batzuk (1545-1665)” izenburuarekin. Bigarrenik, hilabete batzuk geroago, Monumenta Linguae Vasconum III. Jardunaldietan (2016/12/20) “Testu-antolatze, orri-antolatze, sortze-prozedura euskal testu inprimatueta: hiru etsenplu” deitu komunikazioan (hemen ikus daiteke: <https://ehutb.ehu.es/video/58c67368f82b2be4338b45aa>). Komunikazio horren 3. atalean aipatu ziren, besteak beste, honako hauek: i. Madrilgo alearen liburu-antolaketa. ii. Oihenarten 331. atsotitzaren kasua: Arkotxak komunikazioan zehazten duenez, 331. atsotitzean euskarazko bertsioa inprimaturik agertzen da, baina frantseseko itzulpena ez, eta horren lekuan zuriune tipografikoa utzia delarik, zuriune tipografiko horretan, BNE R.5081-1 alean, frantseseko bertsioa eskuz gehitua da (Arkotxak dioenez, pentsa daiteke Oihenartek berak gehitua dela): «Une fille de yoye qui passe par plusieurs mains, peut faire quelque bon rencontre». Ondorio gisa, Arkotxak azpimarratzen du garrantzitsua dela esku-zuzenketen inguruan atentzioa ezartzea, eta seinalatzen du “Baionako ale” deiturikoan ere ikus daitezkeela halakoak.

Osunako Dukearen Bibliotekatik iritsi zela Espainiako Biblioteka Nazionalera, eta, ikusi ahal izan dugunaren arabera, *Catálogo de las obras impresas pertenecientes a la Biblioteca del Duque de Osuna y adquiridas por el Gobierno de su Majestad, en 1886 con destino a esta Biblioteca [Nacional]* eskuizkribuan<sup>53</sup> argi eta garbi identifikaturik agertzen da «L.L.58» sarreran, ohar interesgarri honekin: «2 part. en 1 vol. 8º. Perg.»; hots, aurreko jabearen bibliotekan ere liburuki bakarrean koadernaturik zeudela bi parteak, baina orduko bibliotekariak ere ondo bereizten zituela. Liburukian zehar eskuz idatziriko oharak ere Vinsonek 1891.ean aipatzen dituenez, pentsatu behar dugu Osunako Dukearen Bibliotekatik BNEra iritsi baino lehenagokoak direla.

BNE R.5081-1 alean, esan dugun moduan, Oihenarten 1657ko *Atsotizac edo refrauac* daude. Madrilgo alearen orrietan, testua, tipografia, orrialdeen eta kaieren banaketa... dena da Parisko BNFko RES. Z-2626 alearen eta Baionakoaren berdindina, eta ez dago zalantzarik inpimaldi bereko orrialdeak direla. Inprenta-akatsen orria, Baionako alean bezala, hitzaurrearen ondoren dago, 1 orrialdearen aurretik, Pariskoan ez bezala (gorago esan dugu Parisko alean mugitu dutela, XIX. mendearen amaieran, bere lekutik beste kokapen batera, liburuki faktizioa osatzean). Baina desberdintasun nagusia da Madrilgo aleak ez daukala «LES PROVERBES BASQVES [...] PLVS LES POESIES [...]» izenburu nagusiari dagokion orria (osagaien deskripzioan guk  $\alpha$ - $\beta$  deitu duguna); Baionakoak ere ez dauka, baina kasu hartan, orri batzuk hondatuta daudenez, pentsa genezakeen azala hondatu eta galdu egin zela; kasu honetan ere gerta zitekeen, jakina, baina esan behar da gainerakoan alea oso-osorik eta oso egoera onean dagoela, pentsatzeko moduan Parisko alean atsotitzak eta Oihenarten gaztaroko poesiak biltzen dituen azala ez duela Madrilgo aleak sekula izan. Kasu honetan, alearen lehenengo orrialdea da Pariskoan i-ii deitu duguna: «ATSOTIZAC, EDO REFRAVAC, *Proverbes*, ou *Adages Basques*. Recueillis par le Sieur d'OIHENART. A PARIS. M.DC.LVII.». Horrek erabateko independentzia ematen dio liburukiari, gure ustez, eta erakusten du Oihenarten 1-537 atsotitzekin eta horien frantsesezko itzulpenarekin eta oharrekin osaturiko liburuxka bereiz ere zabaldu zela, bestelako osagarririk gabe, eta liburuñi beregaina izan zela noizbait.

Liburukiaren beregaintasuna azaldu dugun leku honetan, komeni da gogoraraztea zein den liburuaren egitura, horrela oso ondo ikusiko baitugu Oihenartek zelan jokatzen duen bere lanak argitaratzera bidaltzen dituenan. Gorago (3.1 atalean) zehaztasun handiagoz deskribaturikoa laburtuko dugu hemen:

- i orrialdea: Izenburu nagusia: «*Atsotizac edo refrauac. Proverbes ou adages basques, recueillis par le Sieur d'Oihenart. A Paris, 1657*».
- iii-x orrialdeak: Atsotitzen bildumaren hitzaurrea, *Preface* izenburu eta orrialde-goiburuarekin.
- xi orrialdea: Inprenta-akatsak, «*Fautes de l'impression*» izenburuarekin. *Preface* hitzaurreko inprenta-akatsak ez daude zerrenda honetan, baina bai beste ale batzuetan, *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* poema-bildumaren inprenta-akatsen zerrendan.
- 1-80 orrialdeak: 1-537 atsotitzak, euskaraz, hurrenkera alfabetikoan multzokatuta (A letrarekin hasten direnak, B letrarekin hasten direnak... X letraraino).
  - 1. orrialdearen goiko aldean: «*Atsotizac edo refräuac*» izenburua.

<sup>53</sup> Madrilgo BNEko MSS/18848 eskuizkribua da.



42. orrialdean: «*Atsotizen emendioa*» izenburua, 482. eta 483. atsotitzen artean. 483-509 atsotitzak berriz hasten dira hurrenkera alfabetikoan (Atik Ira).
45. orrialdean: «*Atsotizen berze emendioa*» izenburua, 509. eta 510. atsotitzen artean. 510-537 atsotitzak berriz hasten dira hurrenkera alfabetikoan (Atik Vra).
46. orrialdearen beheko aldean, testuaren amaieran: «*Vrhenzea*».
47. orrialdean: «*Interpretation des proverbes basques*» izenburua. 1-537 atsotitzen frantsesezko itzulpenak eta atsotitz batzuen ohar argigarriak datoz ondoren, 77. orrialdeko eta 79. orrialdeko jauziekin.
77. orrialdean: «*Addition de proverbes*» izenburua, 482. eta 483. atsotitzen artean.
79. orrialdean: «*Autre supplément de proverbes*» izenburua, 509. eta 510. atsotitzen artean.
80. orrialdearen beheko aldean, testuaren amaieran: «*Fin*».

Gure ustez, bistan da proiektuak osatzen joatea dela Oihenarten jarduteko bide ohikoa. Atsotitzen kasu honetan, emendioz osaturiko lana da: lehenengo 1-482 atsotitzen multzoa osatu zuen, gero 483-509 atsotitzen emendioa gehitu, eta hurrengo 510-537 atsotitzen bertze emendioa. 537 atsotiz horiek (eta horien itzulpena) inprimatzaileari eraman zizkionean, denak bide zeuden Oihenarten eskuizkribuan, baina ez zuen kezka handirik izan, nonbait, hiru multzoak Atik Zrako multzo bakarrean zerrendatzeko. Gainera, kontuan hartzen badugu 3.6 atalean aztertuko dugun alea, 538-706 atsotitzak are geroago inprimarazi zituen beste liburuki batean (*Atsotizen urhenquina* liburuxkan), baina bilduma horretarako ere bi atsotitz multzo paratu zituen: lehenengo 538-679 atsotitzak eta gero 680-706 atsotitzen emendioa. Hemen argi ikusten den jokabide hau (lana emendioz osatzen joatea) ondo ulertzea baliagarri izango zaigu gero, poema-bildumetan ere antzera jokatu zuela ulertzeko.

### 3.6. Madrilgo BNE R.5081-2 alea

Aurreko atalean argitu dugun moduan, BNE R.5081-2 alea Oihenarten 1665eko *Atsotizen urhenquina* da, baina gutxienez XIX. mendearen amaieratik BNE R.5081-1 alearekin (esan nahi baita Oihenarten 1657ko *Atsotizac edo refruauc* liburuxkarekin) batera josita eta azaleztatuta dago.

*Atsotizen urhenquinaren* liburuxkari dagokionez, argigarria da BNEk egin duen deskripzio fisikoa: «[2], 8, 2, [2], 13, [3] p.; 8º». Ikusten denez, orrialde-banaketa Parisko BNFko RES. Z-2626 alean urrenkinarentzat deskribatu dugunaren berbera da, kenduta lehenengo paratesturen bi orrialdeak. Hori da, hain zuzen, ale honen desberdintasuna eta balioa: ale hau Pariskoan dagokion atalaren berdindina da gainerakoan (osagaiak, kaierak, tipografia eta testua), baina hark ez bezala honek azal moduko orrialdea dauka hasieran, izenburu nagusia, argitaratze-lekua, inprimatzaile eta liburu-saltzailearen izena eta argitaratze-urtea zehazten dituena.

Izenburu osoa hau da, hortaz: «*ATSOTIZEN VRHENQVINA. SVPPLEMENT DES PROVERBES BASQVES*». Eta azala behintzat Pauen inprimatu zen, 1665ean, Jean Desbaratz inprimatzaile eta liburu-saltzailearen baitan: «*À PAV, Par IEAN DESBARATZ, Marchand Libraire & Imprimeur du Roy. 1665*».



### 3. irudia

Madrilgo BNE R.5081-2 alearen azala

Jean Desbaratz (1638-1687) inprimatzaile eta liburu-saltzailea Desbaratz (*Desbarats* aldaera ere agertzen da) inprimatzaile-familiako kideetako bat da (Lacaze 1884: 109-148). Belaunaldi bat lehenago hasi ziren (aita lehenengo eta ama alarguna gero) Pauen inprimatzaile-lanetan, eta Jean Desbaratzek, berez, 1665ean, Oihenarten lanaren datako egunean, oraindik ez zeukan inprimatzaile-baimen osoa Pauen jarduteko, izendapen hori 1663an lortu baitzuen, baina 1668an egin zuen kargutan sartzearen juramentua; izan ere, ordura arteko inprenta-lanak amarekin batera sinaturik agertzen dira: «à Pau, par la veuve de Pierre Desbaratz et Jean Desbarats, imprimeurs et marchands-libraires du collège Royal. MDCCLXIII», adibidez (Lacaze 1884: 120). Oihenarten enkargua, hortaz, bere izenean sinaturiko lehenengoetakoa izango litzateke (ez dugu lehenagorik aurkitu); gainera, inprimatzaile-kargutan sartzearen juramentua egin aurretiko hurrengo lan ezaguna ere euskarazkoa da: Joanes Etxeberri Ziburukoaren *Eliçara erabiltceco liburuaren* edizio bat, 1666an, «PAVEN, IOANNES DESBARATZ, Erregueren Imprimatçaillea Baithan.»<sup>54</sup>

<sup>54</sup> Geroago, Bernard Gasteluzarren *Eguia catholicacen* edizio bat ere atera zuen 1686an, baina orduko Jean Desbaratzenean argitaraturiko beste hainbat lan ezagutzen dira, frantsesez nahiz okzitanieraz.

Esan dugu argigarria dela BNEk egin duen deskripzio fisikoa, konparatzeko Parisko BNFko RES. Z-2626 alearekin. Baina argigarria da, berez, orrialdeen antolaketaren berri ematen duelako ere: «[2], 8, 2, [2], 13, [3] p.; 8º». Azpimarratu nahi dugu liburuxkaren 30 orrialdeen zenbaketa ez doala 1etik 30era, saltoka baino. Aurreko atalean bezala, hemen ere 3.1 atalean eskaini dugun deskripzio zehatza laburtu eta egokituko dugu, Madrilgo ale hau (*Atsotitzen urhenkinaren* erakusgarririk onena) hobeto ezagutzeko:

- i-ii orrialdeak (zenbakitu gabe): Izenburu nagusia: «ATSOTIZEN VRHENQVINA. SVPPLEMENT DES PROVERBES *BASQUES*. [*fleuron*] A PAV, Par IEAN DESBARATZ, Marchand Libraire & Imprimeur du Roy. 1665.»
- 1-8 orrialdeak (zenbakiturik): 538-679 atsotitzak, euskaraz, hurrenkera alfabetikoan multzokatuta (A letrarekin hasten direnak, B letrarekin hasten direnak... X letrairaino).
  - 1. orrialdearen goiko aldean: «ATSOTIZEN VRRHENQVINA.» izenburua. Kaieren signaturak: A (1 or.), A<sub>2</sub> (3 or.).
- 1-2 orrialdeak (zenbakiturik): 680-706 atsotitzak, euskaraz, hurrenkera alfabetikoan multzokatuta (Atik Sra). Signaturarik gabe.
  - 2. orrialdearen beheko aldean, testuaren amaieran: «VRHENZA.»
- α-β orrialdeak (zenbakitu gabe): Orrialde zuriak.
- 1-13 orrialdeak (zenbakiturik): 538-706 atsotitzen frantsesezko itzulpenak eta atsotitz batzuen ohar argigarriak.
  - 1. orrialdearen goiko aldean: «TRADVCTION DV SUPPLEMENT DES PROVERBES *BASQUES*.» izenburua.
  - 13. orrialdearen beheko aldean, testuaren amaieran: «FIN.»
  - Kaieren signaturak: A (1 or.), A ij (3 or.), B (9 or.), B ij (11 or.).
- γ-δ-ε orrialdeak (zenbakitu gabe): Orrialde zuriak.

Gehien interesatzen zaiguna, aurreratu dugun moduan, orrialde-zenbaketaren jauziak dira. Batetik, atsotitzen lehenengo bildumaren datatze-egunetik zortzi urtegarrenera (1657tik 1665erako tartearen ondoren), 538. atsotitz-zenbakiarekin hasten da bilduma berria, zortzi urte lehenagokoaren urrenkin edo eranskin gisa, berriz ere lana emendioz osatu nahian. Baina, gainera, hurrenkera alfabetikoari begiratzen badiogu, euskarazko 538-679 atsotitzek osatzen dute multzo bat (Atik Xra), eta 680-706 atsotitzek beste bat (Atik Sra). Kasu honetan, gainera, 1657ko atsotitzen bilduman ez bezala, orrialde-zenbaketa eten egin da 679. atsotitzean, eta berriro hasi (538-679 atsotitzak 1-8 orrialdeetan, eta ondoren 680-706 atsotitzak 1-2 orrialdeetan). Frantsesezko itzulpenen eta ohar argigarrien atalean, orrialdeen zenbakikuntza berriro hasten da 1etik (1-13 orrialdeak), baina kasu honetan segida bakarrean datoz atsotitz guztien (538-706) itzulpenak eta oharak. Bistan da berriz ere Oihenarten ohiko jokabidearen aurrean gaudela: lana emendioz osatzen joatea.

#### 4. Oihenarten euskarazko lan inprimatuak: Vinsonek aztertu ez zituen aleak

Vinsonek azterturiko sei aleei, beste lau gehituko dizkiegu, guk dakigula orain arte Oihenarti buruzko ikerketetan aipatu gabeak:

#### 4.1. Frantziako Biblioteka Nazionaleko Arsenal Liburutegiko ARS 8-T-678 (3) alea

Ez dugu ikusi ale hau Oihenarten ikertzaileen lanetan aipaturik, baina Frantziako Biblioteka Nazionaleko ARS 8-T-678 (3) alea erraz aurkitzen da biblioteka horretako katalogoan.<sup>55</sup> Bibliotekaren Parisko Arsenal Liburutegian dago eta «T-821» sailkatze-marka zaharra du, baina ez dakigu alea noiz, zelan edo nondik iritsi den horra.<sup>56</sup>

Funtsean, Mazarine Bibliotekako aleak ordezkatzeko duen bildumaren moduko alea da: alde batetik, Oihenarten 537 atsotitz (gehi dagokien hitzaurrea eta atsotitzen frantsesezko itzulpena), eta bestetik *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* poema-bilduma (gehi dagokion hitzaurrea, hitz bakanen adigarria eta inprenta-akatsen zerrenda). Bi parte horiek bakoitzak bere azala dute, parte bakoitzaren izenburuarekin eta leku-datekin («ATSOTIZAC, EDO REFRAVAC, *Prouerbes, ou Adages Basques. Recueillis par le Sieur d'OIHENART. A PARIS. M. DC. LVII.*» eta «O.<sup>Ten</sup> GASTAROA NEVRTHIZETAN. *La Jeunesse d'O. en vers Basques. A PARIS, M. DC. LVII.*»). Baina desberdintasun nagusi bat azpimarratuko dugu, Mazarine Bibliotekako alearen aldean: Parisko Arsenal Liburutegiko aleak ez dauka bi parteen edukia biltzen duen izenburu nagusia (*Les proverbes basques recueillis par le S<sup>r</sup> d'Oihenart, plus les poésies Basques du mesme auteur*). Gerta liteke orri hori galdua izatea, baina gure ustez ez da hala izan behar ezinbestean, eta are esango genuke seguruenik ez duela sekula orri hori eduki. Horrela, ale honek berretsiko luke 537 atsotitzen bilduma bere aldetik enkoadernatu zela, liburuxka beregain gisa, poemekin batu gabe (horrela dago BNE R. 5981-1 alean ere), eta, era berean, *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* ere liburuxka beregaina zela, atsotitzekin batu gabe (horrela dago Vaussenat-Vinson alean eta Grenobleko Udal Bibliotekako F.23065 alean ere). Seguruenik hurrengo urratsa litzateke Oihenarten bi liburuxkak elkarrekin enkoadernatzea, hemen egin den moduan, eta hurrengoia bientzako azala ere eranstea, ale honetan halakorik egin ez bada ere (bai, ordea, beste ale batzuetan: BNF RES. Z-2626, Mazarineko 8<sup>o</sup> 44024 eta Dijongo 11986).

Lehenengo parteari dagokionez, atsotitzen parteari dagokionez, alegia, ezaugarri desberdintzaile bakarra dauka, bere pareko aleen aldean: ez dauka inprentan egindako akatsen zerrenda (ikusiko dugun beste ale batzuetan ere ez dagoela beti leku berean josita).

Azkenik, Arsenal Liburutegiko *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* liburuxkaren azterketak ere ekarpen interesgarria egin digu: 27-28, 29-30 eta 45-46 orrietan testuaren bertsio berria dago (*cancellans* deitu duguna), baina 9-10 orrian jatorrizkotzat eman dugun testua kontserbatu da (*cancellandum* deitu duguna). Liburuxka honetan ere, hortaz, *Notitia* liburuan ikusi dugun bezalatsu (cf. 1. taula), *cancellantia* orriak ale gehiengotan era beretsuan txertatzen dira, baina ez ale guztietan berdin-berdin. Hain zuzen Arsenal Liburutegiko ale hau izango litzateke jarduteko era horren frogarria, poemen

<sup>55</sup> BNF: <https://catalogue.bnf.fr/ark:/12148/cb393024837>. Guk dakigula, ez dago ale honen kopia digital publikorik.

<sup>56</sup> Nolanahi ere, sailkatze-marka 8-T-678 (3) duenez, begiratu dugu ea zein diren 8-T-678 (1) eta 8-T-678 (2) signaturak dituztenak, eta biak dira 1629an argitaraturiko liburu elebidunak, bat hebreeraz eta frantsesez, eta bestea hebreeraz eta latinez (eta bi hauek ere, Oihenartenak bezala, T-821 signatura zaharra dute). Hortaz, pentsatu behar dugu denak batera iritsi zirela Arsenal Liburutegira.

testu berritua duten aleen artean honek bakarrik mantendu duelako 9-10 orrialdeetan jatorrizko testua.


#### 4.2. Dijongo Udal Bibliotekako Ondarearen ataleko 11986 alea

Dijongo Udal Bibliotekan, *Bibliothèque patrimoniale et d'étude* atalean, *Les proverbes basques recueillis par le Sr d'Oihenart, plus quelques poésies Basques du mesme auteur* izenburua duen liburuxka dago (egun 11986 sailkatze-markarekin, azalean agertzen denez «n.º 14.794» izandakoa).<sup>57</sup> Ez dakigu noiz eta nondik iritsi den Dijongo Udal Bibliotekara, bibliotekaren ondare bibliografikoa oso aberatsa baita eta jatorri oso desberdinetako liburu eta eskuizkribuak biltzen baititu. Jabetza-zigilua- ren bidez bere azarna utzi duen jabe bakarra Dijongo Biblioteka Publikoa da («BIBLIOTHEQUE PUBLIQUE. VILLE DE DIJON»), zeina udal bibliotekaren ondarearen jatorri nagusietakoa baita 1701az geroztik.<sup>58</sup>

Izenburuak iradokitzen duen moduan, Parisko 1657ko datarekin beste ale batzuetan ere ikusi dugun bilduma-liburukia da, Oihenarten 537 atsotitzez eta *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurritzetan* poema-bildumaz osatua (Mazarineko Bibliotekako alea eta BNFko ARS 8-T-678 (3) alea bezala, eta seguruenik, bi ale hauen egungo koadernaketak egin baino lehen, BNFko Z-2626 eta Baionako RES. 21 FR. bezalatsu). Izan ere, Mazarinekoaren eta BNFko ARS 8-T-678 (3) alearen osagai berberak ditu: azal eta izenburu nagusia, atalen izenburuak, paratestu guztiak, atsotitzen eta poemien testu berbera (*cancellantia* testua poesien ataleko 9-10, 27-30 eta 45-46 orrialdeetan)... baina bi desberdintasun ditu: bat txikia eta seguruenik ez oso esanguratsua (atsotitzen ataleko erraten orria, beste ale guztietan hitzaurrearen ondoren josita dagoena, hemen hitzaurrearen aurretik josita dago), baina bigarrena esanguratsua, liburukiaren azal nagusia eta izenburua bera desberdinak baitira. Gainerako aleetan «*PLVS LES POESIES*» dakarren lekuan, ale honetan «*PLVS QVELQVES POESIES*» dakar, eta besteetan «*Auteur*» dakarren lekuan, hemen «*Authheur*». Gainera, tipografia berdintsua erabili da, baina ez dira letra-tipo berberak, eta orrialdeko marrazki apaingarria erabat desberdina da: Mazarineko alean, BNFko RES. Z-2626 alean eta BNFko ARS 8-T-678 (3) alean, lorez beteriko saski bat da (*fleuron* erakoa), eta Dijongo ale honetan *cul-de-lampe* erako marrazkia (aingeru-aurpegia, lorez eta girlandaz inguratua).


<sup>57</sup> Bibliothèque municipale de Dijon (Bibliothèque patrimoniale et d'étude): <https://bm.dijon.fr/Default/doc/SYRACUSE/647271/les-proverbes-basques-recueillis-par-le-sr-d-oihenart-plus-quelques-poesies-basques-du-meme-auteur>. Guk dakigula, ez dago ale honen kopia digital publikorik.

<sup>58</sup> Egungo sailkatze-markaren hurrenkeran datozen hurrengo liburuak (11987, 11988, 11989...) atsotitzen bildumak dira denak, baina ez dirudi multzokatze hori jatorrizkoa denik bibliotekan.



## 4. irudia

BNFko RES. Z-2626 alearen azala




## 5. irudia

Bibliothèque municipale de Dijon  
(Bibliothèque patrimoniale et d'étude):  
11986 alearen azala.


Hortaz, kasu honetan, bildumaren azala eta izenburua desberdinak izateak adierazten du bildumak osagai berberak izan arren enkoadernatzea ez dela batera egin, eta Parisko 1657ko datazioa bildumaren bi osagaietara dagokiela (537 atsotitzetaz osaturiko liburuxkari 1657an ezarri zitzaion azala Parisen, eta *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* poema-bildumari ere 1657an jarri zitzaion azala Parisen), baina ez ezinbestean bi osagaiak batera enkoadernatu zirenean osaturiko liburuxkari.

Azal horietan ez dago inprimatzailearen izenik, bistan denez, baina irudi apaingarriek Parisko Guillemot inprimatzaile-familiarenera begira paratu gaituzte. Agian kasualitatea izango da, baina Guillemot familiako inprimatzaileen hainbat lanen azaletan aurkitu ditugu (baita *cul-de-lampe* gisa ere, liburu barruko zuriuneak betetzeko) hala lore-saskia (ez berbera, baina aurkitu dugun antzekoena, ia-ia berdina), nola aingeru-aurpegia (kasu honetan, berbera dela esango genuke). Gorago esan dugun moduan (cf. *supra* 2.2 atala), Augustin Gallandek ere Mathieu Guillemot inprimatzailearenean berrargitaratu zuen Oihenarten *Extrai(c)t*, 1648an. Aitortu beharra dago, dena den, gehiago landu beharreko hari bat geratzen dela hemen solte, ez dugulako ezer ziurrik frogatu. Datazioari dagokionez, adibidez, 1618-1652 urteak eman ohi dira Mathieu Guillemoten aktibitate-alditzat, eta 1648-1656 urteak Louise Gelée alarguntsaren aktibitate-alditzat; biak amaitzen dira, hortaz, 1657a baino lehenago.



## 6. irudia

Lore-saskiaren irudia Guillemot alarguntsak  
1649an inprimaturiko lan batean



## 7. irudia

Aingeru-burua duen irudia  
Mathieu Guillemotek 1626an  
inprimaturiko lan batean

#### 4.3. Grenobleko Udal Bibliotekako F.23065 alea

Grenobleko Udal Bibliotekan, *Bibliothèque d'Etude et du Patrimoine* atalean, Arnaut Oihenarten bi liburuxka aurkitu ditugu, *Notitiaren* 1638ko edizioaren aleaz gain. Lehenengoa, F.23065 alea,<sup>59</sup> Oihenarten *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* poema-bilduma da eta, gorago esan dugun moduan, garrantzizkoa da poema-bilduma hau bere aldetik ere zabaldu zela erakusten duelako, hau da, poema-bilduma horrek atsotitzekin inongo loturarik gabeko ibilbidea ere egin zuela; bigarren liburuxka 4.4 atalean aztertuko dugu.

Ale honetako osagaiak ikusita, bistan da guztiak ezagutzen ditugula beste ale batzuen bidez, *Les proverbes basques recueillis par le S<sup>r</sup> d'Oihenart, plus les poésies Basques du mesme auteur* izenarekin ezagutzen diren ale guztietako azken atala osatzen baitute:

— «O.<sup>Ten</sup> GASTAROA NEVRTHIZETAN [...] PARIS, M. DC. LVII» izenburua azalean.

<sup>59</sup> Bibliothèque Municipale de Grenoble (katalogoko fitxa): <https://catalogue.bm-grenoble.fr/ark:/66349/pf0000319934.locale=fr>. Guk dakigula, ez dago ale honen kopia digital publikorik.

- «AV LECTEUR.» hitzaurrea frantsesez (iii-iv zenbakitu gabeko orrialdeetan).
- I-XV poemak zenbakiturik eta XVI-XXII poemak zenbakitu gabe (1-67 orrialdeetan).
- «NEVRTIZ HAVTACO HIZ BEKANEN ADIGARRIA [...]» (67-75 orrialdeetan).
- «FAVTES DE L'IMPRESSION.» (zenbakitu gabeko 76. orrialdean).

Kasu honetan, Vaussenat-Vinson alean bezala, atal honen ondoan ez dago besterik, ez dago atsotitzik. Baina, aipaturiko alea ez bezala, Grenoblekoa oso-osorik dago eta ez dirudi orrialderik galdu denik, ez aurretik ez atzetik. Ukaezina da, hortaz, *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* poema-bildumaren ale hau behintzat, eta seguruenik baita Vaussenat-Vinson alea ere, Oihenarten gaztaroko poemen bilduma bakarrik zabaltzeko enkoadernatu zela, eta azalean “Paris, 1657” leku-datak ezarri zirela.


Zenbakitu gabeko «FAVTES DE L'IMPRESSION.» orrialdea da liburuki hau atsotitzen atalarekin lotzen duen elementu bakarra, akatsen zerrendako azken hiru lerroak ez baitagozkio poema-bildumari, atsotitzen bildumaren hitzaurreari baino, seinalaturiko orrialde eta lerroetan begiratuta edozeinek ikusten duen moduan.<sup>60</sup> Inprentako akatsen zerrenda eranskina da, nolana ere, eta hala ulertu behar da kasu honetan ere, liburuki beregainari josiriko eranskin gisa, baina ukaezina da eranskina egin zuenak poemak eta atsotitzak batera bilduko zituen liburukia zuela gogoan, nahiz eta, Grenobleko ale honek eta Vaussenat-Vinson aleak erakusten duten moduan, *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* poema-bildumak bere ibilbidea egin zuen atsotitzekin batu gabe ere.

Testuari dagokionez ere bat datoz bi ale horiek 9-10, 27-30 eta 45-46 orrialdeetan: poema-bilduma bera bakarrik zabaltzeko enkoadernatu diren bi ale horietan mantendu dira *cancellanda* deitu ditugun orrialdeak jatorrizko testuarekin, eta atsotitzekin batera enkoadernatu diren ale guztietan, ordea, *cancellantia* orriak txertatu dira (Vinsonen *cartons* horiek), testu aldatuarekin. Erdibideko historiaren ordezkari da, gure ustez, Arsenal Liburutegiko ARS 8-T-678 (3) alea (cf. *supra* 4.1 atala).

---


<sup>60</sup> «En la Preface page 3, ligne 22, lisez *Augustinus*. P. 6, l. 18, pour *prononcer*, lisez *prononcez*; ligne 28, pour *dans*, lisez *en*».






## 8. irudia

Bibliothèque municipale de Grenoble,  
F.23065: 9. orrialdea




## 9. irudia

Bibliothèque municipale de Grenoble,  
F.23065: 10. orrialdea




## 10. irudia

Bibliothèque municipale de Grenoble,  
 F.23065: 27. orrialdea




## 11. irudia

Bibliothèque municipale de Grenoble,  
 F.23065: 28. orrialdea




## 12. irudia

Bibliothèque municipale de Grenoble,  
 F.23065: 29. orrialdea




## 13. irudia

Bibliothèque municipale de Grenoble,  
 F.23065: 30. orrialdea



## 14. irudia

Bibliothèque municipale de Grenoble,  
 F.23065: 45. orrialdea



## 15. irudia

Bibliothèque municipale de Grenoble,  
 F.23065: 46. orrialdea

Grenobleko ale honetan, bestalde, beste guztietan baino hobeto ikusten da 41-48 orrialdeek osatzen duten F kaiereko papera nabarmen desberdina dela (gorriagoa), gainerako orrialdeen aldean; ezagutzen ditugun ale guztietan gertatzen da, eta, 45-46 orrialdeak *cancellantia* direnetan (BNF RES. Z-2626 alean edo Mazari-nekoan, adibidez), bistan da 45-46 orria aurrekoak eta ondorengoak baino argiagoa dela, geroago erantsia (Vinsonek jada deskribatu zuen, Mazarine Bibliotekako alearen kasuan, 9-10 orria eta 45-46 orria orri zaharraren erlantz-hondarrean itsatsita daudela, baina 27-28 eta 29-30 orriak solte, kolatu gabe; gaur egun denak ondo jositak daude). Azkenik, 65-72 orrialdeek osatzen duten I kaiereko papera ere ilunxeagoa da ale guztietan, gainerako kaieretako paperaren aldean. Horrek iradokiko luke kaiere horiek osorik erantsiak direla ezagutzen ditugun ale guztietan, baina ez dugu ez testuan ez tipografian ezer aurkitu orrialde horiek gainerakoetatik desberdintzen dituenik.

Grenobleko ale honi esker, bestalde, errazago konpara daitezke 9-10, 27-30 eta 45-46 orrialde horietako *cancellanda* eta *cancellantia* testuak. Etzanez markatu ditugu aldaketaren bat daukaten pasarteak:

<i>Cancellanda</i>	<i>Cancellantia</i>
<9> III. ARGVIA D'ARIZANARI.	<9> III. ARGVIA DARIZANARI.
III, 1 <i>Gauïc</i> , egunic, <i>Estinat</i> hounic, Hirequi espanis <i>Arguia</i> ; Hirequi espanis, <i>Itsu hutsa</i> nis, Seren baihis <i>ene</i> arguia.	III, 1 <i>Gaiiic</i> , <sup>61</sup> egunic, <i>Eštinat</i> <sup>62</sup> hounic, Hirequi espanis <i>Arguia</i> . <sup>63</sup> Hirequi espanis, <i>Itfu hutsa</i> nis, Seren baihis <i>en'</i> arguia.
<9> III, 2, 5 Nun <i>božen - ago</i> ,	<9> III, 2, 5 Nun <i>božen-ago</i> ,
<9> III, 3, 4 Esnun <i>dofstazen</i> ,	<9> III, 3, 4 Esnun <i>dofstazen</i> , <sup>64</sup>
<10> III, 4 Nic dudan lana, Esin errana, Cer <i>neke</i> dudan higati, <i>Ban' en' ixura</i> , <i>Et' ixildura</i> <i>Hiž ari ditun</i> nigati.	<10> III, 4 Nic dudan lana, Esin errana, Cer <i>koainta</i> dudan higati, <i>En' ixil, eta</i> <i>Mais pensaketa</i> , <i>Egonac siotšan</i> nigati.

<sup>61</sup> Testu berrian errata sortu da.

<sup>62</sup> Berez aldaketa tipografikoa baino ez da (<st> digramaren lekuan ligatura erabiltzea), baina batzuk markatu nahi izan ditugu, apuntatzeko halako aldaketa batzuk ere agertzen direla bertsio batetik bestera.

<sup>63</sup> Ez ditugu aldaketa tipografiko guztiak markatuko, baina hemen esango dugu aldaketak bistakoak direla, batik bat tipografoaren kaxan bitxienak bide ziren letretan: <A>, <H>, <M>, <N> (buztan apaingarriarekin edo gabe), <k> eta <z> (<Z> / <Z>) gehienbat. Kontuan izan behar da poema guztiak letrakera etzanez idatzita daudela (izenburuak kenduta), eta tipografoak mota horretako are karaktere guxtiago izango zituela.

<sup>64</sup> <st> ligatura da, baina ez da III, 1, 2 bertso-lerroko bera.

<i>Cancellanda</i>	<i>Cancellantia</i>
<10> III, 5 <i>Kadran - orrazac,</i> <i>amant garrazac</i> Hunqui - eta bustan mehea, Xuxen, han hara, <i>Egüerditara</i> Diaducan punta <i>chebea</i>	<10> III, 5 <i>Kadran-orrazac,</i> <i>Burdin-aiz lazac</i> Hunqui - eta bustan mehea, Xuxen, han hara, <i>Egüerditara</i> Diaducan punta <i>xheba</i>
<10> III, 6, 1 Ni <i>hala, hala,</i>	<10> III, 6, 1 Ni, <i>hala hala,</i>
III, 6, 5 <i>Beti ed' orbizes,</i>	III, 6, 5 <i>Beti, ed' orbizes</i>
<27> X, 5 <i>Haren beguitartea</i> <i>Garbi, arrosas betea;</i> <i>Halas, da guertatu ene</i> <i>Bihozaren iabea.</i>	<27> X, 5 <i>Ederrénen bardina</i> <i>(Espadohat' aizina)</i> <i>Da beguitartes, eta</i> <i>Diçcret oboro esina</i>
X, 6 Ahono, mihi osena, <i>Horzic den arazena,</i> Begui visi, fo hutjas, <i>Xarm' ehor diroena.</i>	X, 6 Ahono, mihi osena, <i>Horzic den arazena,</i> Begui visi, fo hutjas, <i>Maitarasi diroena.</i>
X, 7 Lepo' <i>argui miresteco,</i> Goxo <i>beřarcazeco,</i> <i>Bulharr' asqu ilhumbean,</i> <i>Bela</i> <sup>65</sup> <i>serbizazeco.</i>	X, 7 Lepo' <i>arrai mirazeco,</i> Goxo <i>beřarcazeco,</i> <i>Bolharr' ask' ilhumbean</i> <i>Argui serbizazeco.</i>
X, 8 Oina, <i>xoil ons' ansatu,</i> <i>Halacos engreinatu,</i> <sup>66</sup> <i>Escüa bol' iduri,</i> <sup>67</sup> <i>Beřfo' esne-gazatu.</i> <sup>68</sup>	X, 8 Oina, <i>kaisus, nolaco?</i> <i>Ikuřlen gogaraco:</i> <i>Vkaraüa, beřfoa,</i> <i>Arhan-lil'-ixuraco.</i>

<sup>65</sup> Poemetan hemen bakarrik dago *bela* hitza, eta Oihenartek *Neurtitz hautako hitz bekanen adigarria* hitz-zerrendan sartu du.

<sup>66</sup> Poemetan hemen bakarrik dago *engreinatu* hitza, eta Oihenartek *Neurtitz hautako hitz bekanen adigarria* hitz-zerrendan sartu du.

<sup>67</sup> *OEĤk* erabili ditu Vinsonen oharrak Vaussenat-Vinson aleko hitzak eta adibideak baliatzeko, baina *boli* hau ez dago *OEĤ*ren adibidetegian.

<sup>68</sup> *Esne-gazatu* hau ere ez dago *OEĤ*ren adibidetegian.

<i>Cancellanda</i>	<i>Cancellantia</i>
	X, 9 <i>Efcu eta sango biac,</i> <i>Xuri besain guriac,</i> <i>Erbi mehe, gaineti</i> <i>Silbarstatu iduriac:</i>
	<28>
X, 10 Hambates, beud' erranac <i>Agueri</i> daduzanac: <i>Estaquist, esterrasquet</i> <28> Gordaillüan dausanac.	X, 10 Hambates beud' erranac <i>Aguerris</i> daduzanac: <i>Estaquist esterrasquet,</i> Gordaillüan dausanac.
X, 11 <i>Elcoit daquit</i> elkorra, <i>EsKer-gabe,</i> gotorra, Del' enezat, bait' <i>are,</i> Harri besain gogorra.	X, 11 <i>Elkoit dakit</i> elkorra, <i>Efker gabe,</i> gotorra, Del' enezat, bait' <i>are</i> Harri besain gogorra.
X, 14 Bana hura, hargati, Nisas est' axolati, Er' enu itoiten, berac Sartu <i>nayen, penati.</i>	X, 14 Bana hura, hargati, Nisas est' axolati, Er' enu itoiten, berac Sartu <i>nauën, pe' nati.</i>
X, 15, 1 <i>Aurkit</i> ahal banesa	X, 15, 1 <i>Kaulfit</i> ahal banesa
<29> Nonbait berhes-berhesa Hunl' ene penazea BaKa bide bailesa.	<29> Nonbait berhes-berhesa Hunl' ene penazea Baka bide bailesa.
XI. <i>BELSARANARI.</i>	XI. <i>BELXARANARI.</i>
XI, 1 Nic hambatetan errana Nahiestuna jinhetji, <i>Isal'</i> onhetji Nisas, anhiz, <i>Belsarana?</i> <i>Bada,</i> dela hori eguia, Prest nun <i>eracustera,</i> Er' eguitera Mana nesana gusia.	XI, 1 Nic hambatetan errana Nahiestuna jinhetji, <i>Aisel'</i> onhetji Nisas, anhiz, <i>Belxarana?</i> <i>Bada</i> dela hori eguia, Prest nun <i>eracustera,</i> Er' eguitera Mana nesana gusia.

<i>Cancellanda</i>	<i>Cancellantia</i>
XI, 2 <i>Badihoacun dembora,</i> <i>Hurrenzen saharzea,</i> <i>Maitasarrea</i> <i>Harsan engoiti gogora;</i> Ser prouexu edertarsuna Da hire gorpuzean,	XI, 2 <i>Esar nesan porogutan,</i> <i>Ordea hambatequi</i> <sup>69</sup> <i>Es, issirequi,</i> <i>Har den' estela burutan;</i> Ser prouexu edertarsuna Da hire gorpuzean,
<30> Tinc <i>bihozean</i> Badaxen gogortarsuna?	<30> Tinc <i>Bihozean</i> Badaxen gogortarsuna?
XI, 3 Sor din maitatu isateac, Ordainetan, <i>maitaze</i> Ser al' ahaze Sausquin <i>maiteri - legueac?</i> Aldis <i>maitasalearen</i> Mait' <i>orde</i> , hig' vkena <i>Dun ons'</i> estena <i>Hi besalaco</i> ederraren.	XI, 3 Sor din maitatu isateac, Ordainetan, <i>maitaze;</i> Ser al' ahaze Sausquin <i>maiteri-legueac?</i> Aldis <i>dun maitariaren</i> Mait' <i>orde</i> hig' vkena <i>Eder</i> estena <i>Hibesalaco</i> ederraren.
XI, 4 <i>Hic nun herfutura</i> hunetan <i>Et' es berzecz</i> esarri, <i>Dolu - equin - garri,</i> <i>Hara niagon hil - minetan:</i> Espanun hant' idokiten, Sordun isan besala, Hic hil nunala, Dinat hil-aitorr' vziten.	XI, 4 <i>Halas gaisquize</i> hunetan <i>Nun alabain'</i> esarri, <i>Dolu-equin-garri,</i> <i>Huna niagon hil minetan</i> Espanun hant' idokiten, Sordun isan besala, Hic hil nunala, Dinat hil-aitorr' vziten.
XII.	XII.
<i>Aspaldian</i> nabila	<i>A]paldian</i> nabila
<45> XV, 8 Eracut]u sutan den garra, Eta sure bihoz - <i>gorà</i> Isterbeguia <i>puxatus;</i> Eta sines mehaxatus <i>Xuxent esasu, ed' uheas,</i> <i>Esin bada deus berzeas.</i>	<45> XV, 8 Eracut]u sutan den garra, Eta sure bihoz - <i>gorà:</i> Isterbeguia <i>puxatus,</i> Eta sines mehaxatus <i>Ex' esasu, edo kulüas,</i> <i>A]qui espada mehaxüas:</i>

<sup>69</sup> Testu berrian errata sortu da (*hambatequi* pro *hambatequi*).



<i>Cancellanda</i>	<i>Cancellantia</i>
XV, 9 Hal' eguites sur', ene bano, Eguinen dusu guehiago, Seren bainais, visi nisano, <i>Neure bano</i> , sureago: Hel <i>sasquit</i> , gaurguer', <i>oitian</i> , <i>Helzecos</i> , sure bisian, Espad' <i>ene amorecati</i> , <i>Espere</i> sureagati.	XV, 9 Hal' eguites sur', ene bano, Eguinen dusu guehiago, Seren bainais, visi nisano, <i>Nihauren bano</i> sureago: Hel <i>sasquit</i> gaurguer', <i>otian</i> , <i>Helzecos</i> sure bisian, Espad' <i>en' a/perragati</i> , <i>Espereric</i> sureagati.
<46 ezk> XVI, 1 NAHIS espegui <i>Gaiias</i> , ilhargui, Ni sure begui Ederrec argui;	<46 ezk > XVI, 1 NAHIS espegui <i>Gaiias</i> ilhargui, Ni sure begui Ederrec argui;
XVI, 2 Heien gordazen Espasin' ari Beti mirazen Dagotenari.	XVI, 2 Heien gordazen Espasin' ari Beti mirazen Dagotenari.
XVI, 3 <i>Negüan daza</i> , <i>Landan isoza</i> ; <i>Est' en' obaza</i> <i>Besambat hoza</i> .	XVI, 3 <i>Suc hori eguiten</i> <i>Besambatetan</i> , <i>Nais eri eziten</i> <i>Biboz minetan</i> .
XVI, 4 <i>Su guri saunza</i> <i>Matalasean</i> , <i>Ban' en' ezaunza</i> <i>Da lur haffjean</i> .	XVI, 4 <i>Min' iragaiten</i> <i>Sautan artean</i> , <i>Nehorat joaiten</i> <i>Sauskidanean</i> ,
XVI, 5 Seric <i>inhara</i> , Naiteeno akit <46 esk> Noa horra, hara, <i>Nora espaitakit</i> ;	XVI, 5 Seric <i>inhara</i> Naiteeno akit Noa horra, hara, <i>Nor' espaitakit</i> ,
XVI, 6 V]tes naiteen Hel <i>erortera</i> , Su sirateen <i>Lecu</i> berera.	XVI, 6 V]tes naiteen Hel <i>erortera</i> <46 esk> Su sirateen. <i>Leku</i> berera.

	XVI, 7 <i>Halas bazutan Bazen basaitut, Baten lecutan, Neke biga itut;</i>
	XVI, 8 <i>Seren nic suri Emanic bahi Bihoz', izuri Baizauskit nabi.</i>
XVI, 9 <i>Suri behatu Eta, su-gabe Su eta guertatu, Nais guifju-labe.</i>	XVI, 9 <i>Surekin batu Et' aise gabe, Su nais bilhatu, Ta kifju labe.</i>
XVI, 10 <i>Sarri hil dadin Su haur eguisu, Ni hil enadin; Ahal daidisu:</i>	XVI, 10 <i>Lafter hil dadin, Su haur eguisu, Ilhaunt enadin, Ahal daidisu</i>
XVI, 11 <i>Hurbil basite, Iraungui daite, Bana espasite, Hautj bilba naite.</i>	XVI, 11 <i>Maita nesasu, Halas hil daite: Espanesasu Hautj guertha naite.</i>

Aldaketa inportantea da, oin-oharretan ere markatu dugun moduan, *bela* eta *engreinatu* hitzak bertsiio berrian desagertzea, bi horiek neurtitzetako pasarte hauetan baino ez baitira agertzen, eta ez beste inon. Oihenartek *Neurtitz hautako hitz bekenen adigarria* hitz-zerrendan sartu dituzenez, ondorioztatu behar dugu liburuxkaren argitalpena *cancellanda*-orri horiekin pentsatua dela, ez *cancellantia*-orriekin; beste era batean esanda, honek ere baieztatzen du Grenobleko alekoa dela jatorrizko testua (eta, jakina, Vaussenat-Vinson alekoa, berbera delako).

*O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* bere horretan liburuxka beregaina dela erakutsi eta jatorrizko testua zein den proposatu ondoren, hau leku egokia dateke zerbait esateko izenburuaz. Irakurle erneak ikusiko zuen moduan, erabaki dugu izenburuan ez garatzea *O<sup>Ten</sup>* laburdura, uste dugulako Arnaud Oihenart autoreak nahita erabili duen estrategia dela, bere autore-kontzientzia modu jakin horretan azaltzeko. Orain arte, euskal literaturaren historiografian, Oihenarten poemak gehienbat atsoitzen bildumarekin batera azaldu direnez, eta atsoitzen bildumak sinatzailea agerian duenez («recueillis par le S<sup>r</sup> d'Oihenart, plus les poesies Basques du mesme auteur»), maiz ikusi dugu *Oihenarten gaztaroa neurtitzetan* izenburua, inzialak osatuta. Aztertzen ari garen poesia-liburuxka bera bakarrik hartzen bada, ordea, ikusten da autoreak ez duela inon eman izen osoa, eta jolas literarioa egin duela egiletasuna ezkutuan gordeta edo erdigordeta. Gure ustez, jolas literarioaren testuinguru horretan ulertu behar

da gaztaroan itzuritako poemak direla baieztatzea ere (izenburuan, eta hitzaurrean: «ce peu de vers qui m'estoient échappés en mon jeune âge»), eta esatea ez duela poeta handien osperik bilatzen:

Car comme en les composant je n'avois cherché que mon divertissement, aussi ne pretens-je pas, par la publication qui s'en fera, participer à l'honneur qui accompagne les ouvrages des bons poètes. (*Au lecteur* hitzaurrean, bigarren orrialdean)

Baina iradoki dugu egiletasuna erdigorde egiten duela, eta ez erabat gorde, ezin delako esan argitalpenean Oihenart zeharo desagertu denik. Euskaraz «*O'*» inizialak agertzen dira, eta frantsesez «*O.*»; horrek bakarrik ez du informazio handirik ematen, baina liburuxkan badira bi datu, inizialekin gurutzatuta, autorearen identitatea berresteko balioko ziotenak Oihenarten irakurle garaikideari. Batetik, *Au lecteur* hitzaurrean aipatzea autoreak euskal metrika eta prosodiari buruz idatzi duela beste idazlan batean, halako lan bakarra, guk dakigula, Oihenarten *Notitia utriusque Vasconiae* laneko 1656ko edizioan (72r eta 72v orrialdeetan) agertzen den *De syllabarum quantitate* atala baita.<sup>70</sup> Bestetik, poemen artean bada bat, *Ezkontidearen hil-kexua museen kontra* izenekoa, Oihenarten biografiarekin bat datorrena, Joana emaztearen heriotza aipatzen baitu;<sup>71</sup> eta gauza jakina da Arnaut Oihenarten emaztea Joana (edo Jeanne) Erdoi zela, eta Oihenart hain zuzen 1653an alargundu zela. Gure ustez, hortaz, Oihenartek nahita hautatu zuen *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* izenburuan bere izena erdiezkutatzea, aldi berean egiletasunaren azterna nabariak utzita; eta horregatik komeni da liburukia- ren izenburua aipatzen dugunean guk ere horrela egitea, inizialak osatu gabe. Egoera hori erabat aldatu zen liburuxka atsotitzekin batera enkoadernatu zenean, atsotitzek Oihenarten izena baitaramate; baina adi, gorago erakutsi dugun moduan, ez baitakigu noiz, non eta nork agindu zuen *Les proverbes basques recueillis par le Sr d'Oihenart, plus les [edo quelques] poésies basques du mesme auteur* izenburu bateratua ezartzea.

Eta Oihenarten gaztaroak al dira bilduma honetako poema guztiak? Gure ustez bat bera ere ez. Aurelia Arkotxak (1994 eta 2005b) eta Ana Toledok (2008 eta 2017) azaldu eta iradokitako bidetik, zalantza gutxi daukagu urrunago iristeko eta baieztatzeko amodio-poemak gaztaroan itzuritako poematzat aurkeztea literatur estrategia dela, Oihenarten poemetan maitasuna bera literatur arauk ezarritako bidetik aurkezten baita (Aldekoa 2003 eta Arkotxa 1994). Baina gehiago interesatzen zaigu (4.4 atalean azaldu nahi dugun zerbaitetan ere inplikazioak izango dituelako) erakustea izenburu hori (*O<sup>Ten</sup> gaztaroko neurtitzak*) nolahi ere poema-bildumaren zati bati zegokiola hasiera batean, baina bilduma osoarentzat erabili dela gero.

Goian (3.5 atalean) proposatu dugun moduan, gure ustez, proiektuak emendioz osatzen joatea zen Oihenarten jokabide ohikoa. Poema-bilduma honetan (eta 4.4 atalean aurkeztuko dugun poema-bilduman ere bai) antzera jokatu zuela uste dugu, eta hori erakusteko liburuxka inprimatuaren antolaketa materiala aztertuko dugu.

<sup>70</sup> Hona hemen Oihenarten hitzaurreko hitzak: «C'est ce qui m'a obligé, apres avoir parlé de ces regles en un autre ouvrage». 1657a baino lehen euskal prosodia eta metrikako erregela horiei buruz diharduen lan argitaratu eta ezagun bakarra, hain zuzen, Oihenarten *Notitia utriusque Vasconiae* laneko 1656ko edizioan (72r eta 72v orrialdeetan) agertzen den *De syllabarum quantitate* atala da; orrialde bakarra da (gehi bi lerro), baina hain zuzen *Au lecteur* hitzaurre honetan agertzen diren gai horiexek ukitzen ditu. Altuna (1994) eta Arkotxa (2005b) dira kontu honi buruzko azterketa sakonak.

<sup>71</sup> «Utzi derautazue hiltzera / Joana, [...] / [...] Joan', en' emazte karioa» (O *Po. Ot XVII*, 23-24 eta 27).

Hasteko, funtsezkoa da seinalatzea liburuxka honetako amodio-poemak zenbakituta daudela Ietik XVera, 1-45 orrialdeetan, eta horiek liratekeela zentzu hertsian Oihenartek gaztaroko neurtitz gisa aurkeztu nahi izan dituenak, nahiz eta seguruenik ez izan gaztaroen idatziak; 45. orrialdean lore handi apaingarria dago (*fleuron* desberdinak agertzen dira jatorrizko *cancellandum* bertsioan eta *cancellans* bertsio aldatuan), zerbaiten amaiera adieraziz, gure ustez hain zuzen *Gaztaroko neurtitzak* proiektuaren amaiera.

Gero, 46. orrialdeko *Nahiz ezpegi...* hasten den poema ez dago zenbakituta, nahiz eta gaiari dagokionez arazorik gabe aurreko hamabosten ildoko amodio-poema izan. Atsotitzen bilduma emendioz osatzen joan zela ikusi dugun moduan, poemen kasuan ere, gure ustez, lehenengo proiektuko hamabost amodio-poemei emendatu zaie hamaseigarrena, lehenengo multzoa berrantolatu gabe.

47. orrialdea orrialde-buruko zerrenda apaingariarekin hasten da eta beste nobaiteko mozketak bat adierazten du. Kasu honetan, *Ezkontidearen hil-kexua museen kontra* dator (47-52 orrialdeak), eta autoreak bere burua justifikatu beharra ikusi du, bistan delako ez dela gaztaroko neurtitza: «Bertanko ilhots haur, gaztaroen egina ez izanagati, eritzi dut etzaokeela hemen gaizki». Toledo irakasleak (2009: 413-414 eta 2017: 299-300) azpimarratu du poema honek zubi moduan balio diola Oihenarti, jauzi egiteko maitasunezkoetatik erlijiozkoetara, eta hala da, gaiari begiratzen badiogu. Baina are errazago ulertzen da, gure ustez, Oihenartek bere hitzaurrean aitorturiko helburu nagusiaren mesedetan, gure ustez liburu osoari baitagokio helburu hau: «a fin qu'il apparaisse que la pratique de ces Regles n'est pas si mal aisée en notre langue qu'aucuns se sont persuadés». Oihenarten helburu nagusia da *Notitiako De syllabarum quantitate* atalean, *Au lecteur* hitzaurrean bertan, eta, data ezaguna geroagokoa bada ere, nola ez, nagusiki Arte Poetikoan formulatu dituen metrikako eta prosodiako arauak praktikan zelan erabil daitezkeen erakustea, ahalik eta neurri eta estrofa sorta aberatsena eskainiz. Kasu honetan, ezkontideari eskainiriko hil-kexuan, bederatzi silabako errimadun distikoen segida mugagabeak euskaraz nola funtzionatu lukeen erakutsi nahi du, gure ustez, besterik gabe.<sup>72</sup>

Ondoren (53-67) *Jainkoazko neurtitzak* datoz. Kasu honetan, berariaz aipatu ditu hitzaurrean («J'ay fait adjouter à la fin quelques rimes pies») eta atalak izenburu bereizia du liburukiaren barruan, euskaraz eta frantsesez («IAINCOASCO NEVRTIZAC. *Vers de Deuotion*»). Guztira bost bertso sorta dira, bakoitza bere izenburuarekin: *Hamarkuna edo Jainkoaren hamar manuak*, *Elizaren manuak*, *Eguberri-koplak*, «*Nunc dimittis*», etc. *Simeonen kanta* (itzulpena), eta «*Vexila regis*», etc. (itzulpena).

Azkenik (67-75), *Neurtitz hautako hitz bekanen adigarria* atala dator, izenburua euskaraz eta frantsesez emanda, eta ohar argigarri nagusia frantsesez. Zerrendako sarreker liburuak atal guztietakoak dira, hala amodiozko poemetakoak (gehienak), nola *Ezkontidearen hil-kexua museen kontra* distiko-segidakoak (*hil-kexua* s.v. *kexazea*, edo *ilhotsa*, adibidez), eta baita jainkozko neurtitzetakoak ere (*Agur*, adibidez).

<sup>72</sup> Patxi Altunak eta Jose Antonio Mujikak (2003: 433) diote distikoak hamarnaka bilduta daudela, baina ez dugu uste hala denik. Lehenengo hamar lerroek bai hartu dute ahapaldi itxura (gure ustez inprentan egindako akatsaren erruz), baina gainerakoak etengabeko segidan agertzen dira, eta, lehenengo hamar lerroak aparteko multzoan agertzeaz gain ez dago beste arrazoirik hamarnaka biltzeko. Gainera, hamarrekotan bilduko bagenitu, azken ahapaldia zortzikoa izango litzateke.

Halako deskripzio xehetua eginez erakutsi gura izan dugu *O<sup>Ten</sup> gaztaroko neurtitzak* dela bilduma osoarentzat hautatu den izenburua, eta poema-bilduma, atsotitzen bilduma bezala, emendioz osatzen joan dela: lehenengo hamabost amodio-poema, gero hamaseigarrena, ondoren errimadun distikoen segida (*Ezkontidearen hil-kexua museen kontra*) eta azkenik *Jainkoazko neurtitzak*. Baina inprimatzaileak bilduma osoa jaso zuen aldeberean, eta bilduma osoaren konposizioa egin zuen batera, atalak ondo bereziz, baina bildumari izenburu bakarra emanez. Zehaztapen hau inportantea da 4.4 atalean proposatuko duguna ulertzeko.

#### 4.4. Grenobleko Udal Bibliotekako F.23066 alea

Grenobleko Udal Bibliotekako *Bibliothèque d'Etude et du Patrimoine* ataleko F.23066 alea izan da, zalantzarik gabe, aurkikuntzarik garrantzizkoena.<sup>73</sup> Hamasei orrialdez osaturiko liburuxka da eta orrialde guztiak daude zenbakiturik (1-16). Hiru pleguren signaturak ikusten dira (A —1. or.—, Aij —3. or.—, Aij —5. or.—), baina bistan da, hamasei orrialdeak osatzeko, laugarren plegu bat ere badela signaturarik gabe. Liburuxkak ez dauka izenburuarentzat gorderiko azalik, lehen orrialdean hasten baita testua: «1» orrialde-zenbakiaren azpian lerro apaingarri bat (*filet*)<sup>74</sup> eta horren azpian «COBLA BERRIAC.» izenburua. Amaitu ere oso era soilean amaitzen da liburuxka 16. orrialdean, azken bertso-lerroaren ondoren «Vrhenza.» idatzita.

«COBLA BERRIAC.» izenburuaren ondoren, 1-13 orrialdeetan, bost bertso sorta datoz, I-II-III-IV-V zenbakituta. Horietako bik izenburua dute (III. «EDERRAGOARI». IV. «LAVR KARBARIEN ERESSIA») eta beste hiruretan lehenengo hitza dago maiuskulaz (I. «DEMBORABATES». II. «ARGVIZEAN». V. «EZINTESQUEA»). Bost horiek zer duten amankomunean argi dago: amodio-koplak izatea, *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* bildumako lehenengo hamasei bertso sorten antzera.<sup>75</sup>

13. orrialdean, izenburu bereziarekin, eta atalak banatzeko erabili ohi den lerro apaingarriaren ondoren,<sup>76</sup> «SALGVIS IAVN, PAVECO / *Corte guehienean Erregueren conseillari / senaren gorasarretan. / HAMALAVRCVNA.*» dago. Izenburua gar-

<sup>73</sup> Bibliothèque Municipale de Grenoble (katalogoko fitxa): <https://catalogue.bm-grenoble.fr/ark:/66349/pf0000350747.locale=fr>. Guk dakigula, ez dago ale honen kopia digital publikorik.

<sup>74</sup> Lerro apaingarria osatzeko erabili duen motibo geometrikoa berez *fleuron* bat da, hamabost aldiz errepikatua, eta Oihenarten beste argitalpen batzuetan ere aurkitu dugu; hemen bezala dago, adibidez, lerro bakarrean, loreak gora begira, *Ezkontidearen hil-kexua museen kontra* poema luzea hasten den orrialdean, bertso sortaren izenburuaren gainean, *O<sup>Ten</sup> gaztaroko neurtitzak* liburuxkan. Beste batzuetan, apaingarri bera lerro bikoitzean dago, goiko lerroko loreak gora begira eta beheko lerrokoak behera begira (adibidez, *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* atalaren *Au lecteur* hitzaurrearen izenburuaren gainean, hemengo antzera, edo 68. orrialdean, bi atal bereizteko; edo *Atsotitzak edo refrauk* atalaren *Preface* hitzaurrearen izenburuaren gainean; edo *Atsotitzen urhenkinaren Traduction du suplement des proverbes basques* atal-izenburuaren gainean); badago are lerro hirukoitzean ere, erdiko lerroan loreak alboz, txandaka lore bat ezkerrean eta hurrengo eskuinera begira (adibidez, *Atsotitzak edo refrauk* atalaren izenburuaren gainean, orrialde-zenbakiaren azpian, hemengo antzera).

<sup>75</sup> *Laur karbarien eresia* da bereziena eta desberdina, berez kontakizun luze bat baita, eta ez amodio-kopla lirikoa. Baina kasu honetan ere amodioa da (edo sexua, nahiago bada) kontakizunaren eragile nagusia, gure ustez. Poemaren azterketa sakona egin zuen Jean-Baptiste Orpustanek (1991).

<sup>76</sup> Lehenengo orrialdeko lerro apaingaria (*filet*) osatzeko erabili diren loreak erabili dira hemen ere, lerro bakarrean, baina beste era batean antolatuta: alboz, txandaka lore bat ezkerrean begira eta hurrengo eskuinera begira.

dena da: hamalaurkun edo sonettoa, Zalgiz jaunaren gorazarretan. Gutxi du ikusteko, hortaz, aurreko amodio-koplekin, baina ondo lotzen da ondoren datorrenarekin: «Arrain iaun, Suberoaco / Iuge senaren Ilhartiza.» izeneko epitafioa. Epitafioak, sei lerrokoa izanik, izenburu bereizia du baina tipografikoki ez da oso nabarmena (soilik letra xehe biribilak, poemetako testu etzanarekin kontrastean). Esango genuke nola-baiteko atala osatzen dutela Zalgiz jaunaren gorazarretan eta Arrain jaunaren gorazarretan idatzitako poemek batera.

Azkenik, 14. orrialdean bertan hasten dira, letra larriz iragarritako izenburuarekin nabarmenduta, baina 13. orrialdean atala bereizteko erabili duenaren antzeko lerro apaingarri atal-banatzailerik gabe, liburuxkaren amaierarainoko orrialdeak (13-14-15) beteko dituzten «**ORRALEN COBLAC**». Testua orain arte ezezaguna zenez, beste atal batean aurkeztuko eta aztertuko ditugu koplak zehaztasun handiagoarekin, baina esan dezagun hemen bi koplak sorta datozela, « I. » eta « II. » zenbakiekin bereizita (lehenengo sortan lau lerroko sei koplak, eta bigarren sortan lau lerroko lau koplak). Gaiari dagokionez, ez dira inola ere amodio-poemak, ez eta gorazarre-poemak ere, elkarren aurka zirtoka diharduten neska-mutilen arteko elkarrizketa gogorak baino.

Poemen izenburuak aipatu ditugunean bistan geratu da orrialde hauetako batzuk ezagunak genituela lehenagotik ere. Izan ere, 3-14 orrialdeak Baionako alearen bidez (eta soilik horren bidez) ezagutzen genituenak dira, berdin-berdinak den-denean: orrialde-zenbakiak, kaieren signaturak, tipografia, apaingarriak eta testua berdin-berdinak dira. Grenobleko F.23066 aleari esker, hortaz, Baionako aleko lehenengo poemaren 43 bertso-lerro berri ezagutu ditugu (7 ahapaldi berri, eta 8.aren lehenengo bertso-lerroa), eta Baionako alean (kontserbatu den azken orrialdean) soilik iragarritako zeuden *Jorralen koblak* osorik ezagutzen ditugu orain. Gainera, orain badakigu Baionako alearen bidez ez genekien beste zerbait ere: hamasei orrialdeko liburuxkak izenburu bat duela lehenengo orrialdean (*Kobla berriak*) eta «Urhentza» epigrafeak hasiera eta amaiera duen zerbait zedarrizten duela. Eta, goian erakutsi gura izan dugun moduan, poema-bilduma honek *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* bildumaren egitura antzekoa (ia-ia paraleloa) du, gure ustez: amodio-poemaz osaturiko sorta nagusia, gehi beste era bateko poemak.

Aipatu behar da, gainera, Oihenarten beste lan argitaratuetan aurkitu ez dugun baliabide tipografiko bat erabili dela hitz bakanei buruzko azalpenak (frantsesezko ordainak) emateko: orrialdearen alboko zuriunean ematea ordaina (orrialde bikoitietan eskuineko zuriunean eta orrialde bakoitietan ezkerrekoan), testu nagusian izarxoaren bidezko deia seinalatuta.<sup>77</sup>

<sup>77</sup> Hauek dira alboetako zuriuneetan eman dituen azalpenak:

- 7. or.: *eressia: recit*
- 13. or.: *hamalaurcuna: quatorzain ou sônet*
- 14. or.: *beteguinsarretan: en perfection*
- 14. or.: *urbent-peituric: imparfait*
- 14. or.: *ilhartzia: epitaphe*
- 14. or.: *iauguissarrea: l'ataque*
- 15. or.: *berrizco hiza: replique*
- 15. or.: *heren hiza: triplique*

Gure ustez, horrek guztiak iradokitzen du liburuxka hau ez dela ezinbestean *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtizetan* bildumaren jarraipen soila, seguruenik ezta eranskin soila ere (aukera hori baztertzeko froga eztabaida ezinik ez daukagun arren), poema-bilduma beregaina baino, ezagutzen genuenaren antzekoa.

Galdera zentzuzkoa da, bestalde, *Kobla berriak* izenburua liburuxka osoari ote dago-kion, ala 1-13 orrialdeetako I-V poemei bakarrik (hain zuzen I-II-III-IV-V zenbakituta daudelako), kanpoan utzita *Zalgiz jaun Paueko korte gehienez erregeren konseilari zenaren gorazarretan* idatziriko hamalaurkuna (13-14 orrialdeak), *Arrain jaun Zuberoko juje zenaren ilhartitza* (14. orrialdea) eta *Jorralen koblak* (14-16 orrialdeak). Oihenarten lan egiteko moduz 3.5 eta 3.6 ataletan eta batez ere 4.3 atalean azaldutakoaren bidetik, gure ustez, hasiera batean, zenbakitutako bost poemei bakarrik zegokien *Kobla berriak* izenburua; baina, goiko atal horietan azaldu dugun moduan, uste dugu Oihenarten lan egiteko moduak, hain zuzen proiektuak emendioz osatzeak esplikatzen duela zergatik uste dugun hemen ere, izenburu nagusi bat balego, *Kobla berriak* izango litzatekeela liburuxka osoaren izenburua, *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtizak* izenburua ere liburuxka osoarena den moduan.

Eta noizkoa da Oihenarten *Kobla berriak* poema-liburuxka? Puntu honetan, ezinbestekoa da Jusef Egiategik 1785ean Oihenarten poesia-liburuei buruz idatzirikoa aztertzea, izan ere itxura batean oso egiantzekoa baita hark Oihenarten poesia-argitalpenei buruz dioena. Txomin Peillenek 1983an argitaraturiko eskuizkribua zuzenean ikusi gura izan dugu, ikusteko ea Peillenek letra etzanez eman dituenak (ustez liburu-izenburuak) zelan agertzen diren eskuizkribuan, eta ikusi dugu eskuizkribuan azpimarraturik agertzen direla halako guztiak, ulertzeko moduan azpimarraturikoak liburuaren hitzez hitzeko izenburuak direla. Hona hemen BNFko Fonds Celtique et Basque ms. 155 (4r), transkripzio paleografikoan:<sup>78</sup>

Mosdé Arnaldé Oihenart-ec dereicu éré utzi liburu-ñibat, *atzotizac edo refráuac* icen diana, Parisen moldiskidatia 1657. ourthian. Jarraikis dereicu beraren *gasteroa neurthisetan*, ta asken-ékos *saharsarua éré neurthisetan* eman, Pauen moldiskidatia 1664. ourthian; behéragero cerbait obra harés dugu erranen.

Gehien interesatzen zaiguna da, itxura batean, Egiategiren arabera, *Zahartzarua ere neurtizetan* izenburua zuen liburua argitaratu bide zuela Oihenartek Pauen, 1664an. BNFko Celtique et Basque ondareko 154 eskuizkribuaren 23v-24r orrialdeetako pasarteak ere interesgarria da, baina gure ustez bigarren honetan ez da ulertu behar Paueko liburua zahartzaroko poemak direnik. Hala euskaraz nola frantsesez emango dugu, euskarazkoa baino errazago ulertzen baita frantsesezkoa, seguruenik euskarazkoa kopiatzaileak itxuragabetu duelako:<sup>79</sup>

<sup>78</sup> Gogorarazi behar da bi eskuizkribu hauek ez direla Jusef Egiategiren eskuz idatziak, Joffrion kopiatzailearenak baino, seguruenik inprentarako prestatuak. Lehenengo pasartearen edizioa Peillenek egin zuen lehenengoz (1983: 28); bigarrenaren euskarazkoa Patri Urkizuk eman zuen (1994: 297) eta frantsesezkoa Aurelia Arkotxak (2005a: 49-50 oh.). Gure transkripziorako Joffrionen eskuizkribuen argazkiak erabili ditugu.

<sup>79</sup> Joffrion kopiatzailearen idazkera oso garbia da eta bere horretan transkribatu dugu, baina euskarazko testuko esaldi batzuen esanahia ez dugu ulertzen.

Haren obrétaric dago lliburu-ñibat oraiño, Parisen parthé, bersia Pauen moldiskidatia. Hartan da bidantza erran-etzas mintzo: diradé eré han bi berécita, batan beré gastéroas bersian beré saharzaroaz da dutinac solhatzen. Mira sian bi obrétan erakhoustia, huskara-ren manua haren luma bessalacoaren pian, lotéskindé olzékian denas doitzkintzun lissatékiala.

Il subsiste encore de lui un petit livre imprimé en partie a Paris, et l'autre a Pau, qui traite des proverbes que nous venons de rapporter, on y trouve aussi deux chapitres; dans le premier il parle de la jeunesse, et dans le second de sa vieillesse. Ouvrage dont le but a été de montrer que le genie de la langue basque sous une plume telle que la sienne, est capable de la Poésie la plus élégante.

Pasarte hau ez da lehenbizikoa bezain argia, baina hemen ere bi inprimaldi aipatzen ditu, bat Parisen eta bestea Pauen, eta poesien atala bitan bereizita deskribatzen du, batean gaztaroaz eta bestean zahartzaroaz diharduela zehazturik; frantsesezkoa oso esplizitua da: bi kapitulu, bat gaztaroaz eta bestea zahartzaroaz. Bistan da gaur-gaurkoz ez dugula ezagutzen Oihenartek Pauen 1664an argitaraturiko libururik (horrek ez du esan nahi, jakina, inoiz izan ez zenik), baina *Atsotitzen urhenkina* 1665eko azalarekin ezagutzen dugu, Paueko Desbaratz inprimatzailearen izenarekin. Gorago (3.3 atalean) aipatu dugun moduan, orain arte soilik Baionako aleari esker ezagutzen ziren poemen gaiak ikusita, Urkizuk erabat baztertzen zuen horiek izatea Egiategik aipatzen dituen zahartzaroari buruzkoak, eta Mitxelenaren iradokizuna aldeztu zuen: *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* atalaren parte direla, azken orduan kendurikoak (Urkizu 1994: 296-297). Aurelia Arkotxak eta Beñat Oihartzabalek, ordea, poesien “bigarren kapitulu” lirarekeela zioten, Egiategiren hitzak erabilita (Arkotxa & Oihartzabal 2009). Orain, Grenobleko aleari esker *Kobla berriak* liburuñi osoa ezagututa, berretsi behar dugu hor ez dagoela ezer bereziki zahartzaroaz diharduenik, baina ez dirudi bazter utziriko poemak direnik ere, baizik eta noizbait berriaz argitaratzeko paratuak. Egiategik aipatzen dituen kapituluak, bestalde, gure ustez biak izan daitezke *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* liburukoak: hain zuzen, Egiategiren ustez, amodio-poemak lirareke gaztaroakoak, eta *Ezkontidearen hil-kexua* eta *Jainkoazko neurtitzak* zahartzarokoak.

Goiko galdera, hortaz, noizkoa den Oihenarten *Kobla berriak* poema-liburuxka, gure erantzunik gabe gelditzen da, beste norbaiten ikerketek argi berria ekarriko duten esperantzaz. Oraingoan, gure ustez, zuhurtzia jokatzeko eskatzen du 1657tik 1665era arteko tartea aipatzea.

## 5. Gure proposamena Oihenartek euskaraz argitaraturiko lanez

Arnaut Oihenartek bizi zelarik argitaraturiko lan guztien azterketa egin dugu, bere idazlanak inprentara eramatean zein jokabide zuen ikusteko. Hark frantsesez, latinez nahiz euskaraz argitara emaniko lan guztien aleak aztertu ondoren, ikusi dugu idazlanak zuzenketaz, aldaketaz zein emendioz osatzen joatea zela bere jokamolde ohikoa, are lanak inprentara bidali ondoren ere.

Euskarazko liburuaren kasuan, ikusi dugu liburuxken enkoaderazioak (inprentan nahiz liburutegian eginak) baldintzatu duela Oihenarten lanei buruz daukagun ikuspegia. Orain ezagutzen ditugun ale guztiak kontuan hartuta, taula bakarrean bildu ditugu ale horien osagaiak:



2. taula

Oihenarten euskarazko lanak dituzten ale inprimatuaren osagaiak

	BNF RES. Z-2626	Mazarine 8° 44024 [Res.]	Baiona RES. 21 FR	Vausse- Vinson BNF RES. P-YO-2	BNE R.5081-1	BNE R.5081-2	BNF ARS 8-T-678 (3)	Dijon 11986	Grenoble F.23065	Grenoble F.23066
α-β										
Bildumaren izenburua:										
«LES PROVERBES BASQUES [...]»	BAI	BAI	EZ	EZ	EZ	EZ	EZ	BAI	EZ	EZ
<i>PLVS LES POESIES [...]</i> »										
i-ii										
I izenburu nagusia: «ATSOTIZAC, EDO REFRAVAC, <i>Proverbes</i> [...]»	BAI	BAI	EZ	EZ	BAI	EZ	BAI	BAI	EZ	EZ
PARIS. M.DC.LVII.»										
iii-x										
«PREFACE» frantsesez	BAI	BAI	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	BAI	EZ	EZ
xi-xii										
«FAVTES DE L'IMPRESSION.» Atsoitzen atalarena.	BNFn kokapena aldatuta	BAI	BAI	EZ	BAI	EZ	EZ	BAI	Prefaceren aurretik	EZ
1-80										
«ATSOTIZAC, edo Refra <i>tiac.</i> »										
«Atso-tizen <i>emendia.</i> »										
« <i>Af[on]izen berze emendia.</i> »										
«INTERPRETATION [...]»										
«ADDITION DE PROVERBES.»	BAI	BAI	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	BAI	EZ	EZ
« <i>Autre supplément de proverbes.</i> »										




Taulak erakusten duena eta aurreko ataletan erakutsi dugun guztia kontuan izanik, gure ustez honela aurkez daitezke Oihenarten euskarazko lan argitaratuak:

- *Atsotitzak edo errefrauak*. Paris, 1657.
- *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan*. Paris, 1657.
- *Atsotitzen urhenkina*. Pau, 1665.
- *Kobla berriak*. c. 1657-1665.

Erakutsi dugunaren arabera, bistan da Oihenartek *Atsotitzak edo errefrauak* lanaren jarraipen gisa ikusten zuela *Atsotitzen urhenkina*, baina liburuki bakoitzak bere data argia duenez uste dugu komeni dela bi lanak izenburu banarekin aurkeztea. Gure ustez antzera joko daiteke *O<sup>Ten</sup> gaztaroa neurtitzetan* eta *Kobla berriak* poema-bildumekin ere; izan liteke Oihenarten gogoan bat bestearen jarraipen izatea, baina bakoitzak bere egitura beregaina duenez, uste dugu on dela bi izenburuak bereiztea.


## 6. *Kobla berriak* liburuxkako Oihenarten poema aurkitu berriak

Grenobleko Udal Bibliotekako F.23066 alari esker ezagutu berri ditugun hiru poemak aurkeztuko ditugu atal honetan. Orrialde aurkitu berri guztien argazkiak eskaintzeaz gain, testuen edizioa aurkeztuko dugu, bakoitzaren aurkezpen laburrarekin eta ohar argigarriekin.




16. irudia

Bibliothèque municipale de Grenoble,  
 F.23066: 1. orrialdea




17. irudia

Bibliothèque municipale de Grenoble,  
 F.23066: 2. orrialdea




18. irudia

Bibliothèque municipale de Grenoble,  
F.23066: 3. orrialdea




19. irudia

Bibliothèque municipale de Grenoble,  
F.23065: 14. orrialdea



## 20. irudia

Bibliothèque municipale de Grenoble,  
 F.23066: 15. orrialdea



## 21. irudia

Bibliothèque municipale de Grenoble,  
 F.23065: 16. orrialdea

Testua bi zutabetan aurkeztuko dugu. Lehenengo zutabearen edizio paleografikoa eskainiko dugu, eta bigarrenean puntuazioa, maiuskula-minuskulak, hitz-banaketak eta grafiak gaurko erara eman ditugu. Bigarren zutabearen, parentesari artean eman ditugu Oihenartek bere arau prosodikoen arabera eliditu dituen bokalak, baina ez dira irakurri behar, jakina. Oin-oharretan doaz era guztietako oharrak, hala ohar paleografikoak nola ohar argigarriak. Gero, poema bakoitzaren ondoren, gure parafraasi eskaini dugu, guk zelan ulertu dugun erakusteko.

## 6.1. Denbora batez... (O Po.Co I)

Lehenengo kobla berria maitearen luzamenduekin eta aurrera-atzerako jolasekin nekatuta dagoen maitearen amodio-kexa da. *Odi et amo* klasikoaren bertsiio bat da, azken finean: «zurea naiz, nizaz ez duda» (O *Po.Co* I, 13-14), baina «enganatuko bide zira, [...] baduzu uste zure begira egonen ahal nizala» (O *Po.Co* I, 49-52).

Sei bertso-lerroko ahapaldiak dira, 9a / 8b / 9a / 8b / 8c / 8c egiturarekin. Errima beti da gutxienez silaba eta erdikoa, eta askotan bi silabakoa. Estrofaren antolamendu grafi-

koari dagokionez, bosgarren eta seigarren bertso-lerro errima gabekoek koxka dute ezke-  
rrean (baina, inprentako akats baten erruz, lehenengo lau estrofetan ez dago koxka hori).

Egitura metriko hau ez du Oihenartek beste inon erabili bere horretan; antze-  
koena liburuñi honetako O *Po. Co* III da, 9a / 8b / 9a / 8b / 8c / 8c egitura baitu,  
berdin-berdin; baina liburuñiko hirugarren kobla horretan errepika dira ahapaldi  
guztietako azken bi bertso-lerroak. O<sup>Ten</sup> *gaztaroa neurtitzetan* liburutxoan ere badago  
poema bat (O *Po. Ot* VI) oso egitura antzekoarekin, baina kasu honetan bertso-lerro  
guztiak dira zortzi silabakoak (8a / 8b / 8a / 8b / 8c / 8c). Irudipena daukat hain zu-  
zen ahapaldi-ereduen aniztasun honek salatzen duela Oihenarten helburu nagusie-  
tako bat, gorago ere aipatu duguna: euskarazko poesiagintzan askotariko egitura me-  
trikoak erabil daitezkeela erakustea.

## &lt;1&gt; COBLA BERRIAC

KOBLA<sup>80</sup> BERRIAK

## I.

Demborabates irabasi  
V]te nuën sintudala,  
Gueroz cercbait guibel-erasi  
Dacuffat seraustadala,  
Eta sato]quiel' ardura  
Exausazeco puntura.

## I.

Denbora batez, irabazi  
uste nuen zintudala;  
geroz, zerkbait<sup>81</sup> gibelerazi  
dakusat zerauztadala,<sup>82</sup>  
eta zatozkiel(a)<sup>83</sup> ardura  
esauzatzeko<sup>84</sup> puntura.

<sup>80</sup> *Kobla*: Oihenartek bost aldiz erabili du *kobla* aldaera, eta behin *kopla*. Neurtitzetako hitz baka-  
ren adigarrian, frantsesezko *vers* erabili du euskarazko *koblaren* ordain gisa: «*honzea cobla*: composer des  
vers. S.». *Notitiako* euskarari buruzko atalean, 1656ko edizioan (72v orrialdean), latinezko *in hymnis et*  
*canticis*, euskaraz *cantoretan*, *coblatan* eman du.

<sup>81</sup> *zerkbair*: 'zerbaitek'. Etxeparek erabili du *norkbait* ergatiboa. Oihenarten testuetan hau da halako  
ergatibo bakarra, baina ez dago ezta *zerbaitek* edo *norkbaitek* ere (ez duelako behar izan).

<sup>82</sup> *gibelerazi zerauztadala*: 'hark zu niri gibelerazi', hots, nor-nori-nork, nor 2. pertsonakoa delarik.  
Halakoak oso bakanak dira; Lafonen hitzetan (Lafon 1961 *apud* Lafon 1999: 412) «en basque il est très  
rare que des formes exprimant une action subie par la 1<sup>re</sup> ou la 2<sup>e</sup> pers. contiennent un indice datif. On  
n'en connaît qu'une vingtaine, que l'on cite comme des curiosités et dont treize se trouvent dans Liça-  
rrague (v. Lafon *Système du verbe basque au XVI<sup>e</sup> siècle* I, 397-399)». Oihenarten «hark zerauztan ('zizki-  
dan') hutsak estaltzen» (O *Po. Ot* XVIII, 80), ordea, hark-niri-haiek ohikoagoa litzateke.

<sup>83</sup> *zatozkiela*: 'zatozkeela, etorriko bide zarela'. *-keela* → *-kiela* aldaketaren beste bi adibide ere  
aurkitu ditugu Oihenartenean: «sinhetsak / Jainkorik ez Jainkoazunik / ezin datekiela hunik» (O *Po.*  
*Ot* XVIII, 1, 2-4) eta «Ger' oharturik gazt-ara / hizkatzetik eskukara / jin zaitezkiela» (O *Po. Co* IV, 24,  
1-3). Bestalde, *-ke-* morfemarekin, ikus *dakarke* (O *Pr* 50), *naoke* (O *Pr* 63), *diakarkek* (O *Pr* 65),  
*dikhuzke* (O *Pr* 157), *diakarcken* 'ekarriko din' (O *Pr* 160), *dakarke* (O *Pr* 199), *dauke* 'dagoke'  
(O *Pr* 228), *nerakarke* (O *Pr* 317), *doake* (O *Pr* 326), *dezaguzke* (O *Pr* 374), *datorke* (O *Pr* 416), *ezeza-*  
*guke* 'ez hau ezagutuko' (O *Pr* 424), *dekarke* (O *Pr* 512), *duke* (O *Pr* 537), *dekharke* (O *Pr* 682)...

<sup>84</sup> *esauzatzeko*: jatorrizkoan *exausazeco*. Grafari dagokionez, transkripzio automatikoagoak lirateke  
*exauzatzeko* nahiz *etxauzatzeko*. Baina ez dugu forma horien aztarnarik aurkitu beste inon. Hortaz, pen-  
tsatu dugu frantsesetik mailegaturiko aditza izan litekeela, eta <x> grafia etimologikoa; horrela izanez  
gero, bi hautagai homonimo dira frantsesez, biak ere jatorri berekoak, euskaraz *esauzatu* eman ahal izate-  
teko: *exhausser* 'goratu, gorago eraman, goititu' (hemen 'harrotu') eta *exaucer* 'eskuratu, lortu, erdietsi,  
jadetsi' (gehienetan, erlijio-erreguen testuinguruan, 'otoi eskaturikoa erdietsi'). Testuinguru honetan,  
lehenengoaren alde ergin dugu, baina ez da inola ere asebate gaituen soluzioa.

Hori estaquit ala den iiten  
Gure becaizen kozuti,  
Ala dusun suhauc eguiten  
Ixendo sure buruti,  
Becaizen enganazeco,  
Edo ene porogazeco.

Surea nais, nisas es duda,  
Aldis becaizen minsoac  
Pust' izasu, esi her-oihu da,  
Maitetarsun eguiascoac,  
Isen gaizbaten ukena  
Duela lehen ecoispena.

Hori eztakit ala<sup>85</sup> den jiten  
gure bekaitzen kozuti,<sup>86</sup>  
ala duzun zuhauc egiten  
ixendo<sup>87</sup> zure buruti,  
bekaitzen enganatzeko  
edo ene porogatzeko.

Zurea naiz, nizaz ez duda;  
aldiz, bekaitzen minzoak  
puzt(a) itzazu,<sup>88</sup> ezi herroi<sup>89</sup> da  
maitetarzun egiazkoak  
izen gaitz<sup>90</sup> baten ukena<sup>91</sup>  
duela lehen ekoizpena.<sup>92</sup>

<sup>85</sup> *ala: ala... ala...* korrelazioan ulertu dugu. Ez da ezinezkoa *hala* adberbiala izatea ere ('ez dakit hala gertatzen den gure bekaiztien erruz, ala...'), baina jatorrizkoan *ala* dakar, <h> gabe, eta gehienetan *hala*, *halaco* eta *halaz* idatzi du Oihenartek, nahiz eta baden *ala* adberbial bat ere (O *Po. Co* IV, 2, 1).

<sup>86</sup> *kozuti*: 'kutsutik, errutik, kutsuz, erruz'. Oihenartek hitz hau beste bi aldiz erabili du. Grafari dagokionez, bakoitzean era batean: «ko' suti» (O *Pr* 193), «kosuti» (O *Po. Or* XXII, 2, 5), «kozuti» (hemen, O *Po. Co* I, 2, 2). Esanahiari dagokionez, beste bietan hitzaren adiera nagusian erabili du: «Gizon bizar peituti eta emazte bizartzuti, ihes egik nola khozuti ('izurritetik')» (O *Pr* 193) eta «xahu gentzantzat kozuti ('hark gu xahutzeko orbanetik')» (O *Po. Or* XXII, 2, 5). Hemen adiera eratorria dela dirudi: 'bekaiztien kutsuz, bekaiztien erruz'.

<sup>87</sup> *egiten ixendo*: 'itxurak egiten, plantak egiten'. Oihenartek Pouvreaurentzat idatziriko oharretan (Kerexeta 1991: 890), «*ichendus*: par feinte ou faux semblant» agertzen da. Pouvreauc horrela jaso zuen hiztegian, baina A eskuizkribuan (BNFko *Celtique et Basque* bildumako ms. 7), aurreko eta ondorengo lerroartean gehituta daude *ichendua* eta *ichenduscoa* (B eskuizkribuan, BNFko *Celtique et Basque* bildumako ms. 8n, *ichendus* bakarrik dago, gainera frantsesezko ordainik gabe). Baina Joanes Haranbururen *Debozino eskuarra, miraila eta orazinotegia* (1635) liburuko bi adibideak (biak *OEHn* bilduak, baina hemen jatorrizkotik hartuak, testuinguru zabalagoa erakustearren) funtsezkoak dira, bai formagatik (bietan *icendoz*, <o> bokalarekin), bai esanahia argitzearen, argi ikusten baita Haranbururentzat *zinetan* edo *zinezen* antonimoa dela *ixendoz*: «Herioa edo berze gaitzak nihork nihori edo bere buruari zinetan desiratzea da mortal, ixendoz desiratzea benial» (162. orrialdean); «Deabrua bere lagunzat, bere eramailletzat edo berze finetakotz ixendoz deitza da benial; zinez deitza da mortal» (168. orrialdean). Etxeberri Ziburukoaren *ixenduzkoak* adjektiboaren testuingurua ere argigarria da, *egiazkoak* baita antonimoa. Nolanahi ere, Oihenarten hau litzateke *ixendo egin* 'itxura egin, plantak egin, alegia egin' esamoldearen agerpen bakarra testuetan (bitxiki, *Nola Erran* hiztegian, frantsesezko *feinte* sarreretan, «*ixendu* (zah.)» da euskal ordainetako bat, eta *feinter* sarreretan, «*ixendua egin* (zah.)».

<sup>88</sup> *puzt(a) itzazu*: 'mespretxa itzazu'. Oihenartek bi aldiz erabili du aditz hau eta neurtzitetako hitz bakanen adigarrian ere sartu du, «S.» 'zuberera' markarekin: «*Pustazea*, S. Mespriser et faire un fi de quelque chose».

<sup>89</sup> *herroi*: jatorrizkoan *her-oihu*. Hitz elkartu hau ez dugu beste inon aurkitu, xx. mendera arte. Hemen, gure ustez, *clamor populi* esamoldearen ordaina da.

<sup>90</sup> *izen gaitz*: Oihenarten atsotizetan bitan (O *Pr* 282 eta O *Pr* 469) agertzen da *izen gaitza*, bietan 'ospe txarra' zentzuarekin.

<sup>91</sup> *ukena*: perpaus-egitura honetan, *ukena* (gaur *ukeitea* aditz-izena erabiliko genuke gehienok) da *ekoizpena* objektuaren predikatiboa: 'maitasun egiazkoak ukena/ukeitea du ekoizpena'.

<sup>92</sup> *ekoizpena*: Oihenartek poema batean erabili du *ekoiztea* 'fruitua' (O *Po. Or* XIV, 3, 2) eta neurtzitetako hitz bakanen adigarrian azaldu du, «S.» 'zuberera' markarekin: «*Ecoiztea*, S. Jetter: Il signifie aussi le fruit ou la production de quelque arbre, ou d'autre agent naturel». Bistan denez, *ekoizpena* eratorria aditz-izenaren sinonimoa da eta *Laur karbarien eresian* ere erabili du pikondoaren fruitua aipatzeko (O *Po. Co* IV, 8, 4).



Axeterraren beranzeac,  
 <2> Errequinazen du eria;  
 Ni berhala sutan bazeac  
 Sobera lusaqueria,  
 Bicun da dioit' atseguina,  
 Denean bertan eguina.

Ni guertus unhe hurran nusu  
 Gausabat hambat eſcazes,  
 Cuc ere berhain oguen dusu,  
 Nahi-eta hambat lusazes,  
 Noiz sar' oharzen haſſiren  
 Ser naisen eta ser siren?

Atxeterraren berantzeak  
 errekinatzen<sup>93</sup> du eria;  
 ni berhala<sup>94</sup> zutan<sup>95</sup> batzeak  
 sobera luzakeria.<sup>96</sup>  
 Bikun da —dioit(e)— atsegina,  
 denean bertan egina.<sup>97</sup>

Ni, gertuz,<sup>98</sup> unhe hurran<sup>99</sup> nuzu  
 gauza bat hanbat<sup>100</sup> eskatzez;  
 zuk<sup>101</sup> ere, berhain,<sup>102</sup> ogen duzu,  
 nahi-eta<sup>103</sup> hanbat luzatzez.  
 Noiz zar(a) ohartzen hasiren  
 zer naizen eta zer ziren?

<sup>93</sup> *errekinatzen*: 'errekinoa hartzen, errekerua hartzen, erre-sunda hartzen', eta hortik 'gaizkiagotzen'. Azkuek eronkarieraren markarekin bildu zuen *errekiño* 'quema, gusto a quemado que tiene la leche', eta adibidea ematean hau bildu: «Ezne kau errekiñatruk da. (R-bid)». Bestalde, *errakino* sarreraren, zuberera ere seinalatu zuen: «*Errakino* (BN-ald), *errakiño* (Sc), *errakño* (R-bid), olor o gusto a quemado». Dirudienez Oihenarten adiera hau esanahi nagusi horretatik hedatua da (eta ez dugu beste lekukotasunik ezagutzen).

<sup>94</sup> *berhala*: 'gisa berean'. Oihenartean, lau aldiz aurkitu dugu *berhala*; horietako bitan, *nola* dakar ondoren eta moduzko gisa ulertu dute Lafonek (1955) eta Altuna & Mujikak (2003), eta hala sailkatu dute *OEHN*. Beste biak denborazko gisa ulertu dituzte hala Lafonek nola Altunak eta Mujikak (horietako bat denborazkoen adibide gisa jaso du *OEHN*). Gure ustez, beste bi horiek ere moduzkoak dira, eta biak ulertu behar dira ondoren datorren *bezalarekin* korrelazioan: «jai(o) eta, berhala / hil ailiz, inhar bezala» (O *Po.Ot* VI, 4, 3-4) eta «Hori erranik hauk, doazala / hetarik biga berhala / baratzez baratze, xori / ihiztariak bezala» (O *Po.Co* IV, 3, 1-4). Denborazkoetan, ordea, *bertan* eta *bertarik* erabili ditu Oihenartek.

<sup>95</sup> *zutan*: 'zugan'. Oihenartek, *zu* izenordaina inesiboan jokatzeko, beti (sei aldiz) erabili du *zutan*; baina *zugana* (lau aldiz), *zukanik* (behin) eta *zukanat* (behin). Antzera, *ni* izenordainarekin, *nitan* (bederatz aldiz), *nigana* (hiru aldiz) eta *niganat* (bi aldiz). Baina, *gu* izenordainarekin, *gu baitan* (behin). Erabilera hau, funtsean, bat dator Creissels & Mounolek (2011: 175-176) Etxepareren eta Maizterren testuetan oinarriturik deskribaturikoarekin.

<sup>96</sup> *luzakeria*: hitz arrunta dirudien arren, hau da kronologikoki lehenengo agerpena.

<sup>97</sup> *Bikun da ... egina*: «Atsegina bikun da, denean laster egina» (O *Pr* 60) atsoitza berridazten du, eta horregatik «—dioit(e)—» tartekia.

<sup>98</sup> *gertuz*: 'zinez, egiaz' adierazten duen erabilera adberbial hau Etxepare, Etxart eta Voltoireren lanean ere aurkitu du *OEHN*, Oihenartean baino lehen; Oihenartek berak beste behin erabili du.

<sup>99</sup> *unhe hurran*: 'unhartzeko zorian, gogaitzeko zorian, nekatzeko zorian'. Kolokazio hau berau (*unhe hurran*) dago Oihenarten O *Po.Co* IV, 5, 2 bertso-lerroan ere. Baina ikus baita O *Po.Co* IV, 11, 2 bertso-lerroko *hil hurrenean* 'hiltzeko zorian' ere (hots, *hurran/hurrenean*).

<sup>100</sup> *hanbat*: kuantifikatzailea *eskatzez* aditzari dagokio. Eta bertso-lerro bi beheago, *luzatzez* aditzari.

<sup>101</sup> *zuk*: jatorrizkoan <Cuc>, bistan denez erratuta, <Çuc> behar bailuke.

<sup>102</sup> *berhain*: 'halere, dena den', frantsesezko *cependant*. *OEHN*ko lehenengo adibidea Oihenarten beste poema batekoa da (O *Po.Ot* XVII, 125), eta gainerakoak pastoraletakoak eta bat Etxahunena.

<sup>103</sup> *nabi-eta*: 'nahita' adberbialaren adierarekin, *-eta* atzizki bihurtzeko bidean da oraindik. Ikus baita *abia-eta* (O *Pr* 462), *hunki-eta* (O *Po.Ot* III, 5, 3), *egon-eta* (O *Po.Co* IV, 1, 3) eta *ekus-eta* (O *Po.Co* V, 8, 1), antzeko erabilieran.

Suhaurorren eder isates Sineste hartu dusuna, Edo laufengu sitalbates Erexequi ehorc drausuna, Guesurti (ezitel' engana) Dela da genten errana.	Zuhaurorren <sup>104</sup> eder izatez sineste hartu duzuna, edo lausengu zital batez eretxequi ehork <sup>105</sup> drauzuna, <sup>106</sup> gezurti (etzitel(a) engana) dela da jenten errana.
Ban' ederres gainti, edo peitu Saren, cer nahi, suganic Iduri sait berz' errekeitu Merexi nuqueiela nic; Suhaurc deitatus hontara Iinic, es neure hautara.	Ban(a) <sup>107</sup> ederrez gainti edo peitu zaren, <sup>108</sup> cernahi, <sup>109</sup> zuganic iduri zait bertz(e) <sup>110</sup> errekeitu merexi nukeiela nik, zuhaurc deitatus hontara jinik, ez neure hautara.
Hatsean potac merke ditut <3> Ondoan naracarsuno,	Hatsean <sup>111</sup> potac merke <sup>112</sup> ditut, ondoan narakarzuno, <sup>113</sup>

<sup>104</sup> *Zuhaurorren*: *OEH*ren corpusean, Etxepareren adibide batean baino ez da agertzen *zuhaurori* izenordain indartua.

<sup>105</sup> *ehorc*: 'inork'. Oihenarten testuetan ez da forma ezohikoa (hemen eta beste bost lekutan aurkitu dugu), baina ugariago darabil *nehor* (guztira 20 aldiz), eta behin *nibor*.

<sup>106</sup> *drauzuna*: 'dizuna'. Apokopearekin *drauku* (O *Po.Ot* 231) eta *draukat* (O *Po.Ot* X, 12, 1) ere erabili ditu Oihenartek, baina baita apokope gabeko *derauzudanean* (O *Po.Ot* IV, 8, 6), *deraukat* (O *Po.Ot* VII, 2, 1), *derautazue* (O *Po.Ot* XVII, 23), *derauka* (O *Po.Ot* XX, 4, 4) eta *ezterautazu* (O *Po.Co* V, 7, 3) ere, eta are *darote* 'didate' (O *Po.Ot* VI, 6, 2).

<sup>107</sup> *Bana*: 'baina'. Hau da Oihenarten forma ohikoena, baina baditu *baina* bat (O *Po.Ot* VII, 7, 3) eta *bainan* bat (O *Po.Ot* XVII, 113) ere (hau zalantzazkoa, errata-zuzenketa batean baitago); ez, ordea, *bena*.

<sup>108</sup> *ederrez gainti edo peitu zaren*: 'edertasunez gainezka edo faltan zarelarik ere'. *OEH*ren corpusaren arabera, lehenego agerpena litzateke *gaindi izan* esamoldearentzat; gainera, ez da ohikoa *peitu izan* instrumentalarekin (hemen, agian, *gainti*-ren eraginez).

<sup>109</sup> *cernahi*: 'zernahi gisaz'. *OEH*ren corpusean ez dugu aurkitu honen pareko erabilerarik (esan nahi baita *zernahi*, besterik gabe, *zernahi gisaz*, *zernahi den ere*, *zernahi baita gisaz* edo halakoren baten ordain gisa).

<sup>110</sup> *bertz(e)*: 'beste'. Hemen txistukaria afrikatua da, zalantzarik gabe, hori baitagokio Oihenarten jatorrizkoan datorren <berz> grafiari; kontuan izan, dena den, Oihenartek gehienetan horrela idatzi duen arren, tarteka <berse> (hots, gaurko <z> frikaria) ere idatzi duela.

<sup>111</sup> *Hatsean*: 'hastean, hasieran'. Oihenartek beste behin ere erabili du *hatse* aldaera (O *Po.Co* V, 4, 1).

<sup>112</sup> *merke*: Hegoaldean badira beste lekukotasun batzuk, baina Iparraldeko idazleen artean lehenengo da, *OEH*ren corpusaren arabera (Pouvreauren hiztegian ere badago).

<sup>113</sup> *narakarzuno*: 'narakarzun artean'. Oihenartek *-no*, *-ano* eta *-eno* atzizkiak (ez *-eino*) darabil-tza iraupenaren tarte osoa adierazten duen menderagailu gisa. Poema honetan, ikus bi lerro beherago *eske nauzuno* 'eske nauzun artean, eske nauzunean', eta hurrengo ahapaldian *dautano* 'dagotano, dago-kidan artean, niri (eske) dagoen artean' (O *Po.Co* I, 9, 6). Ikus halaber *debilano* (O *Pr* 13), *dabileno* (O *Pr* 128), *dagoeno* (O *Pr* 128), *deno* (O *Pr* 169 eta O *Pr* 435), *zeno* (O *Pr* 421), *deraunsano* (O *Pr* 433 eta O *Pr* 662), *dateeno* (O *Pr* 677), *naitteeno* (O *Po.Ot* XVI, 5, 2), *derakustano* (O *Po.Ot* XVII, 128), *nenbilano* (O *Po.Ot* XVIII, 71), *zezano* (O *Po.Ot* XX, 12, 1), *natzano* (O *Po.Co* II, 1, 2) eta *dazano* (O *Po.Co* II, 1, 4).

Guero sail edireiten situt Eske gehiago nausuno, Eta iarzen saust erranes Estesaquesul' eman, es.	gero, zail edireiten zitut, eske gehiago nauzuno; <sup>114</sup> eta jartzen zauzt <sup>115</sup> erranez ezetzakezul(a) eman, ez.
Enganatuco bide sira Gauguer', orano besala, Badus' ufte sure beguira Egonen ahal nisala Hautuagoric su bano, Deiës ondotic dautano.	Enganatuco bide zira, <sup>116</sup> gaurger(o), orano bezala, baduz(u) uste zure begira egonen ahal nizala, hautuagorik zu bano deiez ondotic dautano. <sup>117</sup>
Orai iagoiti minsazecoc Minsa gaitesen garbiqui, Suc nigati deus eguitecos, Eguin esasu gaisiqui; Espadusu eguin gogoric, Nic er' es lusazecoric.	Orai, jagoiti, minzatzecoc, minza gaitezen garbiki. Zuk nigati deus eguitecoz, egin ezazu gaiziki; <sup>118</sup> ezpaduzu egin gogoric, nik <sup>119</sup> er(e) ez luzatzekorik.

#### Parafrasia:

Denbora batez, uste nuen irabazi zintudala; geroztik, ikusten dut zerbaitek gibelarazi zaituela nigandik, eta etorriko bide zarea maiz goititzeko puntura.

Ez dakit hori etortzen (gertatzen) den ala gure bekaiztien kutsutik (haien erruz), ala zuhaurk egiten dituzun plantak zure kabuz, edo bekaiztiak engainatzeko, edo ni probatzeko (gaztelaniaz, 'para ponerme a prueba').

Zurea naiz, nitaz ez izan dudarik; aldiz, bekaiztien esanak mespretxa itzazu, ezen herrioihu (*clamor populi*) da maitasun egiazkoaren lehen fruitua dela ospe txarra ukaitea.

Sendagilea berandutzeak gaizkiagotzen du gaixoa; gisa berean, ni zurekin batzeak izan du sobera luzakeria. Bikoitza da, diotenez, atsegina, berehala egiten denean.

Ni, zinez, gauza bat hainbeste eskatuz gogaitzeko zorian nauzu; zuk ere, dena den, hobena duzu, nahita luzatuz horrenbeste (nahita berandutzen zarelako horrenbeste). Noiz hasiko zara ohartzten zer naizen eta zer zaren?

<sup>114</sup> *eske gehiago nauzuno*: 'gehiago eske nauzunean, gero ere eske nauzun artean, berriz ere eske nauzunean'. Patxi Altunak eta Jose Antonio Mujikak beste era batean ulertu dute: 'zenbat eta nik gehiago eska' (Altuna & Mujika 2003: 483).

<sup>115</sup> *zauzt*: 'zatzaizkit'. Oihenartek *zitzautzat* (O *Po.Ot* I, 5, 1), *zitzauzat* (O *Po.Co* V, 8, 4) eta *zazkit* (zehazki *etzazkidala*) (O *Po.Ot* VIII, 6, 2) formak ere erabili ditu 'zatzaizkit' aditz laguntzailearen ordain gisa.

<sup>116</sup> *Enganatuco bide zira*: 'engainatuko zara nonbait, engainatuko zara seguruenik'. *OEHn*, *bideren* erabilera honi dagokion sarreran, ez dugu aurkitu Oihenarten adibiderik, baina baditu honez gain beste bi behintzat: *baka bide baileza* (O *Po.Ot* X, 15, 4) eta *orok bide bezala* (O *Po.Ot* XXII, 7, 3).

<sup>117</sup> *deiez dautano*: 'deiez dagotano, deiez dagokidan artean, niri deiez dagoen artean'. Atzizki-menderagailuari buruz, ikus gorago *narakarzu*.

<sup>118</sup> *gaiziki*: 'berekala'. Hapax bat da, ez baita hitz honen beste agerpenik ezagutzen (Pouvreuren hiztegian ez bada, hain zuzen *promptement* itzulpenarekin).

<sup>119</sup> *nik*: Francisque Michelen 1847ko edizioan <Nic> argitaratu zuten, apostrofoarekin, eta Altuna eta Mujikaren edizioan zehaztu zuten apostrofo hori «zereginik gabe» ageri dela (Altuna & Mujika 2003: 483). Michelek erabili zuen alean, orain Baionako Udal Bibliotekan dagoen alean hain zuzen, orbantxo bat dago leku horretan, baina ez, inola ere, apostroforik; eta Grenobleko alean, ez apostroforik ez orbanik.

Jendearen errana da gezurrezkoa dela (ez zaitez engaina!) zu hain eder zarelako ustea, dela zuk zeuk hartua, dela lausengu zitalez beste norbaitek zuri eratzikia.

Baina zu edertasunez gainezka edo edertasunez eskas izanik ere, zernahi gisaz, iruditzen zait bestelako arreta mereziko nukeela zuregandik, zeuk deiturik iritsi bainaz egoera honetara, ez neure hautuz.

Hasieran musuak merke ditut, zure ondoan narakarzun artean; gero, zail aurkitzen zaitut, berriz ere eske nauzunean; eta hor jartzen zatzaizkit esanez ezin duzula eman, ez.

Engainatuko zara nonbait, uste baduzu hemendik aurrera, orain arte bezala, beharbada zure begira egongo naizela, zu baino hobeak ditudanean ondotik diez.

Orain, hemendik aurrera, mintzatzekotan, mintza gaitezen garbiki. Zuk nigatik ezer egitekotan, egin ezazu berehala; ez baduzu egiteko gogorik, nik ere ez luzatzekorik.

## 6.2. Xikitoak eta jorraleen koblak

Itxura guztien arabera, orain arte Zuberoako xikitoei buruz genekiena osatzen datoz Oihenarten bi koplaren artean, hain zuzen O *Po.Co* VIII(I) eta O *Po.Co* VIII(II), jorraleen kobla horiek zalantzarik gabe xikitoen tradizioarekin erlazioan behar baititugu, ezaugarri bereizgarriak ere badituzten arren.

### 6.2.1. Xikitoen bibliografia eta historiografia

Egia esan, gutxi dakigu xikitoei buruz. Lehenengo berriak Ligi-Athereiko Leopold Irigarairi zor dizkiogu. Parisen Frantziako Biblioteka Nazionalan gorde da hark Georges Hérellerentzat 1905ean idatzirik eskuzkribua, *Albadak, Chiquitoak, Erran zaharrak* izenburuarekin.<sup>120</sup> Hemeretzi koplak daude, Irigaraik berak eginitako frantsesezko itzulpenarekin, eta ohar hau:

Les chiquitoak, qui ne sont pas sans quelque analogie avec les *stornelli* italiens, sont des distiques que les pâtres basques se crient l'un à l'autre dans la montagne pour amuser leur ennui. Ils se crient des couplets d'une *borde* (cayolar) à l'autre. La *borde* ou *cayolar* est une cabane où les pâtres couchent, cinq ou six ensemble, sur la planche. Le seul mobilier de cette cabane est l'âtre, un chaudron, les ustensiles nécessaires pour traire et cuire le lait et faire le fromage, cuire le riz. Naturellement ces distiques peuvent s'improviser à volonté, et par conséquent ils sont innombrables. Ceux qui ont été recueillis ici ne sont en quelque sorte que des échantillons.

A la différence des *stornelli*, qui sont souvent gracieux et poétiques, les *chiquitoak* sont presque toujours grossiers et souvent obscènes. (Irigarai 1905)

Hortaz, Leopold Irigarairi arabera, artzainek oihuka jaurtitzen zituzten xikitoak (ez du melodiariak aipatzen), asperdura astintzeko. Distiko gisa aipatu ditu, hiru lerrotan kopiatu dituen arren, Iparraldeko ohituraren arabera; esan nahi baita egitura metrikoa nolabait berdintzen duela eskuzkribu berean lau lerrotan kopiatu dituen albadekin, baina aldi berean bereizi duela, errima bakoitzari lerrokada bat emanez (lau lerroko koplaren hirugarren lerroak ez daukalako errimarik). Azpimarragarria irudi-

<sup>120</sup> BNFko Celtique et Basque bildumako 202 dokumentua da. Hemen ikus daiteke: <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/btv1b100378001>. 1963an *Igela* aldizkarian argitaratu zituen Txomin Peillenek, eta 1973an Patri Urkizuk *ASJU* aldizkarian berrargitaratu zituen *Igela* aldizkarian 1962an eta 1963an argitaraturiko koblak. Guk eskuzkribua erabili dugu (Irigarai 1905).

tzen zait bat-batekotasunaren aipua ere: koplak bat-batean sor daitezke, baina koplak berriak sortzea aukera bat baino ez da, holaxe aitortzen ez badu ere badagoelako non-bait errepertorio bat ere, koplariak buruz ikasi ohi dutena. Badirudi Jabier Kaltzakortak erronda-kantuak eta esker-bertsoak deskribatzean eta aztertzean seinlatu zuen bezala, errepertorio tradizionala dela nagusi, bat-batekotasunari leku gehiago (Kaltzakorta 2003: 115) edo gutxiago (Kaltzakorta 2003: 118) utzita. Azkenik, edukiaren aruntkeria eta lizunkeria aipatzen ditu Irigaraiak.

Guk dakigula, hurrengo ekarpena 1925ekoa da, Georges Hérellerena, baina gogorazi behar dugu Hérelleren informatzaile nagusia Leopold Irigarai bera zela:

Les *chikitoak* [*Oin-oharra*: Ce mot vient de l'espagnol *chico* ou *chiquito*, de sorte qu'il paraît impliquer l'idée d' "enfantillage". Mais, en basque, *chico* a pris un sens méprisant, et on l'applique à tous les Espagnols, sans considération d'âge ni de taille. Il se pourrait donc que le mot *chikitoak* impliquât aussi dans sa signification une nuance de mépris] sont des strophes formées de trois vers ayant même rime. Ces strophes traditionnelles ont presque toujours un sens grossier et outrageux [*Oin-oharra*: Il y en a un petit recueil à la Bibliothèque nationale, Mss. celtiques et basques, n° 202]; mais ce sont des outrages pour rire, dont s'amuse également l'insulteur et l'insulté. Apostrophes et ripostes ne sont que des propos imaginaires, dont ne peuvent s'offenser ceux qui les échangent.

On sait que les gens du peuple prennent plaisir à entendre débiter des chapelets d'invectives, et qu'ils apprécient comme une sorte d'art ce qu'elles peuvent avoir imagé, d'ingénieux et de mordant. C'est un plaisir que connaissaient déjà les anciens, et les *chikitoak*, injures plaisantes alternativement échangées par jeu, font penser à cette "licence fescennine" dont Horace a dit: *Versibus alternis opprobria rustica fudit* (Livre II, Épître 1, vers 146).

Il est rare que les *chikitoak* soient débités dans le village même. C'est dans la montagne que les jeunes bergers se les crient d'un *cayolar* [*Oin-oharra*: Du latin *cubilare*. On appelle ainsi les cabanes des bergers qui, en été, gardent les troupeaux dans la montagne] à l'autre, pour tromper l'ennui des longues journées passées là-haut avec les troupeaux de vaches et de brebis. La façon dont ils les récitent n'est pas à proprement parler un chant; mais ce n'est pas non plus une vocifération quelconque. Les intonations et les modulations en sont traditionnelles comme les paroles elles-mêmes. (Hérelle 1925: 15-16)

Hérelleren deskripzio honetan, hiru gauza interesatu zaizkigu bereziki: batetik, badirudi Irigaraien oharrak baino leku gutxiago uzten diola bat-batekotasunari, hala hitzen nola intonazio-modulazioaren tradizionaltasuna azpimarratzen baititu; bestetik, interesgarria da kantuaren eta oihuka egitearen arteko eremuan kokatzea intonazio-modulazio hori, hain zuzen erreztatzea-edo iradokiz; hirugarrenik, zirtoen txandakaztea nabarmentzen du, txandaka elkar laidoztatzean laidoa berdinduko balitz bezala.

Bost urte geroago, 1930ean, Jean Jauregiberri sendagileak *Gure Herria* aldizkarian idatzi zuen xikitoei buruz. Funtsean ez du informazio berririk eskaintzen Irigaraien eta Hérelleren oharrekin alderatuta, eta litekeena da Jauregiberrik Hérellek 1925ean argitaraturikoa ezagutzea (nago euskarazko testu honetan ez ote dagoen frantsesezko haren oihartzuna), baina laburpen egokia da, nolana ere, xikitoei buruz:

— Zer da hori, chikitoka?

— Jauna, hori düzü Zibero zokho huntako tchostaka zahar bat, güdüka bat elhez eta oihüz. Mendi bichkar batetarik beste mendi bichkar batetan, artzain batek beste artzain bat ikhusi bezain sari, igortzen diozü chikito bat, eta bestiak chikito batez

ihardesten. Chikito bakhotchak badizü lau breset ahal bezain zorrozki huntürrik. Eta ürhentzeko bethi ber hitza: *chikito!* Zer-nahi batak bestiari erraiten ahal diozü solas hortan, elherik tzarrenak. Batak ez bestiak ez dizü khechatzeko züzenik; bena bai ber chedian ihardestekua. Hola da chikitokako legia! (Jauregiberri 1930: 269)

Hitz horiekin batera hiru koplak argitaratu zituenez, badirudi Jean Jauregiberri (1880-1952) zuzenean ezagutu bide zuela xikitokako jarduna, edo behintzat informatzaile zuzenak bide zituela (Argentinan jaio arren, familia Zuberoakoa zen eta Alozen ezkondu eta hil zen). Jauregiberri argitaraturiko hiru kopletatik bat, gainera, Irigaraik bildurikoetako baten aldaera da<sup>121</sup> eta horrek erakusten du 25 urteko aldea-ekin koplak bera bildu bide zutela biek, aldaketa oso txikiekin.

1962ko *Igela* aldizkariaren 2. zenbakian, Txomin Peillenen *D.P.* inzialekin sinaturik, bost xikito argitaratu ziren (horietako bat Irigaraik bildurikoetako baten aldaera), ohar honekin:

Zubero-ko artzainen xikito batzu bildu ditugu. Xikitoak pertso berdeak dira artzainek egiñak. Gure herrian *olha* izena dauka beste errietan sel edo korta izenekin ezagutua dena; eta duela bost urte oraino artzainik falta *ez zenean*, *olha* batetik bestera, ibar batetik bestera artzainek elgarri, holako kobla horietatik, botatzen zuten. Eunka dira xikitoak baina folklore bildumek bazterten dituzte, nahiz horiek ere populuaren fruituak izan. (Peillen 1962)

Ohar horretan aipagarria iruditzen zaigu xikitoka aritzea 1962an iraganeko praktika gisa aipatzea.

Gero, goragoko ohar batean esan dugun moduan, 1963ko *Igelan* (6. zenbakian), Leopold Irigarairen dokumentua argitaratu zen. 1973an, Patri Urkizuk *ASJU* aldizkarian berrargitaratu zituen *Igelan* 1962an eta 1963an argitaraturiko 24 koplak.

Begirada berri batekin, Sandra Ott antropologoak 1976-1979 tartean egin zuen landa-lana Zuberoako Santa Grazi herrian, 1981ean *The circle of mountains: A Basque shepherding community* argitaratzeko. Haren lekukotzaren arabera, gizonezkoek errexitatu zituzten xikitoak bere aurrean (ondo ikasiak zituzten, hortaz), baina ez zituen liburuan horien testuak eman (*Igelan* argitaraturikoaren erreferentzia eman zuen). Antropologiaren ikuspegitik, gainerakoek aipaturikoez gain (artzainek mendian olha batetik bestera oihukatzea, koplak batzuk ikasitakoak eta beste batzuk bat-batean inprobisatuak izatea, lau bertso-lerroko koplak lizunak izatea, emazteek inoiz entzun gabek izatea), beste inon irakurri ez dugun zerbait ere aipatzen du: 1940ra arte behintzat, auzoen arteko liskarrak eragozteko erabiltzen zirela xikitoak, lehia edo borroka erritual gisa; baina aitortzen du, teoriar horrela izan arren, urte horietan berak ezagutu zituen artzainek ez zutela gogoratzen inoiz halakorik bizi izan zutenik, haientzat libertimendu hutsa baitziren xikitoak. Sandra Otten ekarpena ez da asko aipatu eta uste dut merezi duela pasartea osorik biltzea hemen:

Traditionally, and at least until the 1940s, a formal, institutionalized means of preventing conflict between the members of neighbouring *olhak* existed in Sainte-

<sup>121</sup> Hona hemen Irigarairen bertsioa, Irigaraik hiru bertso-lerrotan transkribatua: «Guerezi beltx jan diat / Khakeia badiat / Ichil ichila egoiten ezipahiz ahoula eguinen deiat». Eta hona Jauregiberrirena, Jauregiberri lau bertso-lerrotan transkribatua: «Gerezi beltx jan diat / Kakeria badiat: / Ichilik egoiten ezipahiz, / ahula egiten deiat».

Engrâce and other communities in Haute-Soule: *xikito*, derived from the verb *xikitatu*, meaning 'to castrate'. *Xikito* was a form of ritual duelling conducted exclusively by men in the mountains; it consisted of obscene and sometimes improvised four-line verses, which always ended with the exclamation *xikito!* A call to make *xikito* was issued when shepherds from neighbouring *olhak* judged that two of their comrades were likely to fight. The adversaries were required to stand at a considerable distance from each other and to take turns shouting rhymed insults 'until their anger was spent'. One classic insult was to accuse the adversary of committing bestiality with an old sow. Opponents competed to recite or to compose increasingly obscene and insulting rhymes as the *xikito* progressed.

*Xikito* which aimed to prevent conflict was generally initiated when a man accused a neighbour shepherd of trespassing on the pasturage of his *olha*. I know of no case in which *xikito* was followed by a quarrel or a fight. Although this form of ritual duelling was an effective method of social control, it was most commonly initiated when shepherds merely wanted to amuse themselves; for *xikitoak* were, and still are among the men, thought to be extremely funny. Few women have ever heard *xikitoak*—since the men never played their game in the valley—and some were shocked by the obscenity of the verses when their husbands recited them in our presence [*Oin oharra*: I was told that *xikito* could, in principle, be played by the members of the same *olha* either for amusement or to prevent a fight; but no shepherd could recall having played the game with his partners for the latter reason. For examples of *xikitoak*, see Irigaray (1963: 5-8) and Peillen (1962: 27). Irigaray provides a French translation of the Basque verses]. (Ott 1981: 132)

Hamar urte geroago, 1991n, Patri Urkizuk *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak* bilduma handia argitaratu zuen eta hor, *Xikitoak* atalean (Urkizu 1991: 289-309), 37 koplak argitaratu zituen. Ekarpen handia da, horietatik hamaika (bildumako 191, 194, 195, 206, 207, 209, 211, 219, 221, 224, 225 koplak) ez baitziren lehenago ezagutzen (edo guk behintzat ez dugu horien aztarnarik ezagutzen), baina Urkizuk ez zuen hamaika horien etorkia zehaztu.<sup>122</sup>

2009an, Allande Etxartek *Txikito!!!*: izeneko liburuxoa argitaratu zuen. Bertran Patri Urkizuk 1991n argitaraturiko *xikito*-koplak guztiak argitaratu zituen berriz, baina alfabetikoki antolaturik, eta frantsesezko itzulpenekin batera, koplak guztien euskarazko bi bertso: bat gaurko zubererazko grafia normalizatuan, eta bestea gaur ahoskatzen den moduan.

2012an, Philippe Etxegehien lan antropologiko-etnografikoan, beste inon aurkitu ez dugun *xikitokaria* izena dakar (Etxegehien 2012: 151) *xikitoka* ari zirenak («les auteurs de *xikito*») aipatzeko.

2015ean, Jabier Kaltzakortak (2015: 5-9) seinalatu ditu *xikito*etako eta *tzintzarrotsetako* koplak batzuen arteko antzekotasunak, eta esango nuke bide polita zabaldu duela azterketa sakonagoetarako. Horiekin batera aztertu beharko lirerateke, nire us-tez, Zuberoako astolasterretako testuak eta pastoral zaharretako sataneriaren pasarteak ere.

<sup>122</sup> Urkizuk dio (1991: 860) *Igelakoak* eta bere 1973ko artikulukoak direla (Ronald Gallopien artikulua bat ere aipatzen du koplak multzo honen iturri gisa, baina horiek albadak dira, ez *xikitoak*), baina bildumako koplak hauek ez daude iturri horietan. Pentsatzen dugu 855. orrialdean eman duen ohar orokorra aplikatu behar dela kasu honetan: «Bada ere baten bat bilduma egiten nuen unean nondik hartua genuen hartzea ahazturik, etorkirik gabe gelditua».

2017ko elkarrizketa batean Txomin Peillenek Joxean Agirre kazetariari esandakoa (Agirre 2017: 99) gehituko nuke hurren, interesgarria baita xikitoen melodiari buruz dioena, gorago iruzkindu dugun Hérelleren oharrarekin («La façon dont ils les récitent n'est pas à proprement parler un chant; mais ce n'est pas non plus une vocifération quelconque») alderatzeko:

Anaia eta biok aitarekin mendian ginela artzain batekin egin genuen topo eta biak hasi ziren elkarri koplak kantatzen edo errezitatzen, melodia oso sinplea baitute, pastoraletako errezitatueta bezala.

Bide horretatik, hain zuzen, oso interesgarria da Jennifer Bonn ikus-entzunezkoetako ikasketetako adituaren lana. Bonnen 2020ko doktore-tesiaren parte bat xikitoi buruzkoa da eta film bat grabatu zuen horren inguruan, tesi-lanaren barruan.<sup>123</sup> Film hori Larraineko Phista olhan grabatu zen 2018an, eta bertan Fabrice Jaragoihen agertzen da protagonista gisa, Christophe Jaragoihenekin xikitoka, olhatik olhara (Christopheren ahotsa urrutian entzuten da, baina ez da bera ikusten). Elkarri botatzen dizkioten kopleetako bi *Igela* aldizkarian 1962-1963an argitaraturikoak dira, baina gehienak ez dira ezagunak. Balirudike hartarako asmatuak direla, eta, ohiko gaiak eta ohiko esaldiak agertzen diren arren («abilua kaka egitera», «horaren üzkie sar adi»...), orain arte aipatu ditugun koplak guztietan betetzen den egitura metriko-tik (neurria eta errima) aldentzen dira. Guretzat alderdi interesgarria da kantatzeko modua: pastoraletako satanek gaur errezitatzen duten era gogorazten digu. Jennifer Bonnek berak honela deskribatzen du:

Le *xikito* est une forme de poésie orale, qui se trouve sur le seuil entre parler et chanter. Il est possible que à certains endroits il était vraiment chanté sur une mélodie, mais il semble plus courant qu'il soit mi-chanté, mi-dit, c'est-à-dire, qu'il soit énoncé avec une certaine formalité d'intonation qui pouvait inclure des tons spécifiques, des mouvements vers du plus aigu ou du plus grave selon les différentes parties de la strophe, ce qui permettait toutefois un ensemble de variantes. Le fait de devoir projeter la voix à des grandes distances activait des techniques qui sont proches des techniques vocales du chant, et le *xikito* est donc un chant tel que le définissaient les Grecs, qui parlaient de chant pour la voix théâtrale et qui utilisaient des annotations indiquant la force, le ton (aigu ou grave) et le rythme de la vocalisation (Ingold 2007). La différence nette qui sépare aujourd'hui le chanter du parler n'était pas aussi claire à cette époque, et puisque le *xikito* intègre des qualités et des techniques des autres chants de cette étude, je l'inclus dans la catégorie du chant, comme on pourrait y inclure de nombreuses formes de poésie orale. (Bonn 2020: 185-186)

Bonnek dioenean agian beste inguru batzuetan melodia batekin kantatu bide zela, seguruenik berak bi urte lehenago eginiko grabazio bat dauka gogoan. Tesirako dokumentazio-lana egiten ari zela, Txomin Peillenekin eta Jean Mixel Bedaxagarrekin elkarrizketatu zen, besteak beste. Bedaxagarrekin izandako elkarrizketaren grabazioa 2016koa da,<sup>124</sup> zinez interesgarria. Bertan, Bedaxagarrek *Igela* aldizkarian 1962-1963an argitaraturiko lau koplak gogoratzen ditu (hiru ia-ia hitz berberekin, eta bat apur bat aldatua) eta pastoraletako koplak nagusien doinuarekin kantatzen ditu (esan

<sup>123</sup> Helbide honetan ikus daiteke: <http://cargocollective.com/jenniferbonn/FILM>.

<sup>124</sup> Helbide honetan ikus daiteke: <https://vimeo.com/169072917>.



nahi baita ez Lehen Pheredikariaren doinua, ez eta satanena ere). Gure ustez, horrek erakusten du hala Jaragoiaren nola Bedaxagar xikitoei buruz irakurritakoa eta ikasitakoa interpretatzen ari direla, nor bere erara, eta ez nuke jakingo zehazten modu bietako zein den tradizionala, edo biak diren aukerako aldaerak.

Azken ekarpen interesgarria 2020an argitaratu zen *Zuzeu* albistarian, eta orain-suago, 2022an, *Bertsozale* aldizkarian berrargitaratu da. Joseba Aurkenerenak Allande Etxarten 2009ko liburuko koplak berrargitaratu ditu, kasu honetan euskara batuzko bertasio moldatuarekin batera.

### 6.2.2. *Jorraleen koblak*

Xikitoei buruz orain arte idatzi dena aztertu ondoren, hemen argitaratuko ditugun *Jorrallen koblak* irakurrita, ezinbestean galdetu behar da ea hamar koplak hauek Oihenartek asmatu eta idatziak diren, ala Oihenartek bilduriko koplak tradizionalak diren. Herri-literaturaz, aho tradizioko literaturaz, bat-batekotasunaz eta ahozkotatuz nik baino gehiago dakitenek aztertu beharko dute arazoa, baina, kontuan izanik egitura metrikoari buruz esango duguna eta hizkuntzaren ezaugarriak (zeinak, argibide-oharretan ikusiko den moduan, Oihenarten hizkuntza-erabileraren bidez azaltzen baitira), oraingoz lehenengo hipotesia izan daiteke Oihenartek ondo ezagutzen zuela guk soilik modu partzialean ezagutu dugun praktika poetiko popular bat, eta berak molde horretan sortu zituela hamar koplak hauek.

Praktika poetiko horren izena bera ere zalantzan jarri behar dugu orain, jakina. Orain arte, *txikitoak* edo *xikitoak* deitu zaie halako koplei, eta *xikitoka* aritzea esan zaio jardunari, koplak guztiak *xikito!* oihuarekin amaitzen zirelakoan. Baina arazoa da pentsatzen genuela xikitoak soilik gizonetzkoen artean erabiltzen zirela (ikus Ott 1981: 132, Peillen 2002: 458 edo Aurkenerena 2022: 55, adibidez), eta horrela zen seguruenik xx. mendearen hasieran, baina, Oihenarten lekukotzari kasu egiten badiogu, orain badakigu andrazkoen eta gizonetzkoen artean ere egiten zirela zirtokoplaz osaturiko eztabaidak, eta hain zuzen gizonetzkoari jaurtiriko koplak amaitzen zirela *xikito!* oihuarekin, baina andrazkoei jaurtirikoak *Perraka!* oihuarekin amaitzen zirela. Bide horretatik, *xikito-perrakak* liriateke koplak, eta *xikito-perrakaka* aritzea litzateke jarduna.

Oihenartek, ordea, beste izen bat erabili du bi sortak izendatzeko: *jorraleen koblak*. Eta, gure ustez, litekeena da izen hori izatea, hain zuzen, praktika poetiko hau izendatzeko xvii. mendean erabiltzen zen izen generikoa. Izan ere, Alberto del Campok Alpujarrako uzta-garaiko trovoak kokatzeko erakutsirikoak berdin-berdin balio du, funtsean, *jorraleen koblak* ere nekazarien lanaren eta libertimenduaren testuinguruan kokatzeko:

Las cosechas han constituido desde antiguo un momento excepcional en las culturas campesinas y han propiciado costumbres festivas, como las luchas de poesías improvisadas de tono y temática obscena, en que se levantaba efímeramente el precepto del decoro. El rastreo histórico y comparativo desde los versos fesceninos de la Antigüedad, pasando por las pullas de los *trovadores de repente* en el Siglo de Oro y otros géneros satíricos, permite vincular el trovo priápico de la Alpujarra en contextos de siega, parva y vendimia, a una larga tradición popular en que las porfías de versos burlescos constituían un divertimento asociado al nexo de unión entre la fertilidad de la tierra y la sexualidad, así como al sentido regenerador de la risa catártica. La pervivencia en el trovo alpujarreño de este registro burlón y lúbrico en ciertas fiestas coin-

cidentes en fechas, espacios y actores con el tradicional contexto de licencias de las cosechas, sugiere la reutilización de estos duelos de ingenio en que se juega a recordar un tiempo en que se celebraba y acompañaba la revitalización cósmica a golpe de injuria verdulera. (Del Campo 2007: 229)

Nolanahi ere, ahozko tradizioaren bildumetan ohikoa den lan-kanten edo lugin-tza-lanetakoa kanten sailean (*chants de travail* edo *chansons de travail* frantsesez,<sup>125</sup> *canción de trabajo* edo zehazkiago *de las faenas del campo* gaztelaniaz<sup>126</sup>) kokatuko literateke jorraleen koblak.

Jorratzaileen langintzari dagokionez, aipagarria da emakumeak gizonetakoekin batera aritzen zirela jorran, eta are Euskal Herriko leku askotan emakumeen langintza moduan aipatzen dela, eta toki batzuetan emakume jorratzaileen taldeak ibiltzen zirela sailez sail eta herririk herri jorraleen (Etniker Euskalerra 2017: 377-384). Zehaztapen etnografiko hori esanguratsua da, Oihenarten koplak hauek, koplak sorta bietan, txandaka ari baitira mutil gaztea eta neskatua, eztabaida bortitza eta zakarraren.<sup>127</sup> Txandaka aritze hori ohikoa da ahozko tradizioko sorkuntzan, eta are izaera agonistikoa ahozkoan oinarrituriko pentsamenduaren eta adierazpenaren ezaugarrien artean zerrendatu zuen Walter J. Ongek:

Orality situates knowledge within a context of struggle. [...] [V]iolence in oral art forms is also connected with structure of orality itself. When all verbal communication must be direct word of mouth, involved in the give-and-take dynamics of sound, interpersonal relations are kept high — both attractions and, even more, antagonisms. [...] The agonistic dynamics of oral thought processes and expression have been central to the development of western culture, where they were institutionalized by the ‘art’ of rhetoric. (Ong 2002: 43-45)

Balirudike, bestalde, Oihenartek auzitegiaren erretorikaren moldeetara lotu zuela ahozko tradizioko praktika poetiko agonistikoa (seguruenik modu ironikoan), gure ustez prozedura judizialaren frantsesezko terminoen oihartzuna baitakar idazleak lehenengo koplak sortan bistaratu duen egiturak:

- (2) *Jaukizarrea* (fr. *L’attaque*, Oihenartek alboko zuriunean frantsesez zehaztua)
- (3) *Inhardespena* (fr. *Réponse*, Oihenartek frantsesez zehaztu ez badu ere)
- (4) *Berrizko hitza* (fr. *Réplique*, Oihenartek alboko zuriunean frantsesez zehaztua)
- (5) *Inhardespena* (fr. *Réponse*, Oihenartek frantsesez zehaztu ez badu ere)
- (6) *Heren hitza* (fr. *Triplique*, Oihenartek alboko zuriunean frantsesez zehaztua)
- (7) *Inhardespena* (fr. *Réponse*, Oihenartek frantsesez zehaztu ez badu ere)

Izan ere, gogoan izan behar dugu Oihenart lege-gizona zela ogibidez, eta, erretorika judizialen, auzi-jartzaileak defentsari ematen dion lehenengo erantzuna izaten

<sup>125</sup> Ikusi, adibidez, Gaskoiniako bilduma (Bladé 1882: 219-271).

<sup>126</sup> xx. mendearen hasierako bilduma batean (Gil 1931: 73), adibidez, honela sailkatzen dira Extremaduran bilduriko sail honetako kantak: «de arado, escarda, acarreo, siega, espigueo, pastoreo, pimentera, vendimia, aceitunas, de uso indistinto». Kanta bakarra dago *de escarda* ‘jorra-lanekoak’ atalean.

<sup>127</sup> Gaztelaniaz ere aurkitu ditugu *Coplas de escarda* edo *Cante de la escarda* ‘Jorra-laneko koplak edo kantu’ flamenkoak, non hain zuzen gizonetako batek eta andrazko batek txandaka kantatzen baitute, elkarri erantzunez. Andaluziako Arcos de la Fronteran bilduak dira eta hango udalak argitaratu zituen CDan (Arcos de la Fronterako Udala 2001); hemen ere entzun daitezke: <https://www.rtve.es/play/audios/figuras-del-flamenco/figuras-del-flamenco-coplas-escarda-16-05-18/4602916>.

da *réplique* (Oihenarten *berrizko hitza*), eta defentsaren bigarren ihardespenerari emaniko erantzuna izaten da *triplique* (Oihenarten *heren hitza*).

Ahozko praktika poetiko tradizionala eta poesia kultu idatzia sinkretizatzeke bidean ulertu behar da, gure ustez, egitura metrikoaren moldaketa ere. Oihenarten liburuko jorraleen koblen egitura metrikoa 9a / 9a / 9- / 9a da sorta bietan. Preseski errima-egitura hori da Oihenartek bere *Art poétique basque* saiakera teorikoan euskal eredu jator moduan aurkezten duena:

Il y a une forme de quatrain qui a esté, a mon opinion, propre et particuliere a nos basques, car ie ne trouve pas qu'elle ait esté pratiquée aux autres langues, [...] celle ou il a trois vers d'une mesme rime, a sçavoir le premier, le deuxiesme et le quatriesme, et le troisesme n'a point de rime. (Oihenarten *L'art poétique basque*, *apud* Lafitte 1967: 220)

Baina, Oihenartek eredu moduan aurkeztu duen Andre Emiliaren kantan, lehenengo laukoa osatzen duten bertso-lerroak zortzi silabakoak dira, Oihenarten arabera azken hitz oxitonoarekin («vers féminins de huit syllabes», *ibidem*), eta bigarren eta hirugarren laukoetako bertso-lerroak, aldiz, zazpi silabakoak, azken hitz paroxitonoarekin («vers glissants de sept syllabes», *ibidem*). Jorraleen kopletan, ostera, bertso-lerro guztiak dira bederatzi silabakoak,<sup>128</sup> amaiera oxitonoarekin, eta errima beti da gutxienez silaba eta erdikoa. Oihenarten beste lau poematan ere aurkitu ditugu errima-egitura hau duten laukoak, baina horietako hirutan zazpi silabakoak dira (7a / 7a / 7- / 7a egiturakoak dira O *Po. Ot* X, O *Po. Ot* XII eta O *Po. Ot* XIII) eta batean zortzi silabakoak (8a / 8a / 8- / 8a egiturakoa da O *Po. Co* IV); gure ustez, zalantza gutxiarekin esan dezakegu euskarazko poesiagintzan egitura metrikoen askotariko aldaerak erabil daitezkeela erakutsi nahian ari dela.

Aipagarria da ahazko tradizioz transmititu diren xikitoetan ere errima-eredu hori dugula beti (a / a / - / a),<sup>129</sup> baina bertso-lerroetako silaba kopurua aldakorra izaten dela eta errima ez dela beti hain osoa izaten (batzuetan azken silabako bokala baino ez). Uste dugu hemen argudio bat izan daitekeela defendatu ahal izateko Oihenartek ahazko tradizioan ezagutu duen praktika poetikotik abiatuta sortu dituela jorraleen koblak, berak proposaturiko eredu teorikora moldatuta.

### 6.3. *Jorralen koblak I (O Po. Co VIII(I))*

Mutil gaztearen eta neskatoaren arteko eztabaida zakarra da. Mutilak “puta” deitzen dio neskatoari, eta neskatoak kikildu gabe erantzuten dio mutila traidore eta proxeneta (*arkabot*) dela. Traidorearentzat agertzen den zigorra urkatzea da, eta prostitutarentzat Baionako zubia, hots, Baionako Bertako zubian (gaurko Pannecau zubian) paraturiko kaiolan besapeetatik lotuta sartzea eta Errobi ibaiko uretan murgilaraztea, burua hondoratu arte; *cubainhedey* edo *cubainhade* ‘bainua’ deitzen zitzaion zigor horri, Edouard Ducéré Baionako kronistaren arabera (Ducéré 1911: 258). Mutilaren koplak guztiak amaitzen dira *Perraka!* bokatiboarekin eta bistan da deitzaile

<sup>128</sup> O *Po. Co* VIII(I), 3, 2 bertso-lerroan ezinezko egiten zaigu hamar silaba baino gutxiago kontatzea.

<sup>129</sup> Urkizu (1991)-ko 206 eta 211 koplak dira salbuespenak, baina hain zuzen jatorria zehaztu gabe duten horietakoak dira, seguruenik berrienak. Jennifer Bonnek 2018an grabaturiko filmean (Bonn 2020) Jaragoihendarren ahotan entzuten diren xikitoetan errima ez da hain zaindua eta bertso-lerro kopurua ere Urkizuren bildumakoetan baino aski irregularragoa da.

iraingarria dela, *Xikito!* baino iraingarriagoa nonbait, mutilak berak eskatzen baitu berari “xikito!” esatea, eta neskatoak ostera ez baitu epitetoa batere gogoko.

## IORRALEN COBLAC

JORRALEN<sup>130</sup> KOBLAK

## I.

## I.

*Iauquisarrea*\* (\*L'attaque) *Motil Gastearen aldeti*

<15> Bata hordi, berze hor' ito,  
Oroc es balio bi behito  
Hor den putaric handienac  
Erran besat niri xiquito, *Perraca*.

*Nescatoaren inhardespena*

Estuc hebe hordi, es putaric,  
Bana hire leinucoetaric  
DicuJaguc, traidor' isanes,  
Dilindan ardur' urketaric- *Xiquito*.

*Jaukizarrea*<sup>131</sup> *Motil Gaztearen aldeti*

Bata hordi, bertze hor(i) ito,<sup>132</sup>  
orok ez balio bi behito.  
Hor den putarik handienak  
erran bezat<sup>133</sup> niri “xikito”. *Perraka*.<sup>134</sup>

*Neskatoaren inhardespena*<sup>135</sup>

Eztuk hebe<sup>136</sup> hordi ez putarik.  
Bana hire leinukoetarik  
dikusaguk,<sup>137</sup> traidor(e) izanez,  
dilindan ardur(a) urketaric.<sup>138</sup> *Xikito*.

<sup>130</sup> *Jorralen*: ‘jorralen, jorratzaileen, jorralen, jorran dihardutenen’. *Jorrale* izenaren genitibo plurala da, hala nola *errailen* (O Pr 260) baita *erraille* izenaren genitibo plurala, edo *ikuslen* (O Po.Ot X, 8, 2) ‘ikusleen’ bailitzateke gaurko euskara batuan. Gure ustez, hemen izenaren esanahia zehazki lurra jorratzen ari denaren ogibideari dagokio, nahiz eta agian, aldi berean, zentzu figuratuan ‘elkarren aurka jorran ari direnak’ aipatu nahi diren; bigarren zentzu horrekin erabili dira hala *jorratu* aditza nola *jorratzaile* izena, baina *OEHk* bildu dituen lekukotasun zaharrena Etxahunena da.

<sup>131</sup> *Jaukizarrea*: ‘erasoa’. Etxeparek eta Leizarragak ere erabili zuten *jauki* aditza Oihenartek baino lehen, baina *jaukizarre* Oihenartek baino ez du erabili; are gehiago, seguruenik berak asmatua da eta horregatik eman du frantsesezko itzulpena orrialdearen ezkerreko alboan: ‘*L'attaque*’.

<sup>132</sup> *ito*: ez dakigu hemen besterik gabe ‘arnasa hartu ezinik dagoena’ edo ‘itota dagoena’ den itoa, ala esanahi hedatua ote duen. Itxura batean, O Po.Co VIII(I), 2, 1eko «Eztuk hebe hordi ez putarik» esaldia bertso-lerro honen erantzun eta oihartzuna denez, litekeena da hemengo *ito* hau hain zuzen ‘puta’ adierazteko izatea, hots, O Po.Co VIII(I), 3, 4n aipatuko duen zigorra jaso duena.

<sup>133</sup> *erran bezat*: ‘erran diezadala’. Inperatibo hirupertsonal (hark-niri-hura) honen lehenengo agerpina da.

<sup>134</sup> *Perraka*: ‘perreka, baztergarria, baliorik gabea’. Ez dakigu ziur Euskaltzaindiaren Hiztegiak bildu duen *perreka* ‘baztergarria, baliorik gabea’ deitzaile iraingarriaren aldaera den, baina badirudi hala izan litekeela. Lhandek bere hiztegian «Personne de mauvaise réputation» definitu du, eta Harrietek «Il se dit aussi d'une personne en guenilles ou de triste apparence». *OEHk* bildu duen lekukotasunik zaharrena 1924koa da, Barbierrren *Supazter chokoan* liburukoa. Simin Palayren 1932ko bearsaren eta gaskoia- ren hiztegian, «*perréc, -réc, -râc*: Haillon, loque, lambeau d'étoffe sans valeur; tissu usé ou sans tenue; par anal., chose de rebut, personne sans force, sans caractère, guenille».

<sup>135</sup> *inhardespena*: Oihenartek *inhardespena* (bi aldiz) eta *inhardetspena* (behin) idatzi du poema honetan; hurrengoan, testuinguru berebean, *ihardespena* bi aldiz. Oihenarten gainerako testuan, <nh> duten formak dira nagusi: *inhardets* (O Po.Ot XX, 8,1), *inhardetsi* (O Pr 373 eta O Pr 632), *inhardesterik* (O Pr 277), *inhardestea* (O Pr 529), *zinhardetsana* (O Po.Co IV, 22,1). Baina bada sudurkaririk gabeko *ihardespena* ere (bi aldiz O Pr 373n).

<sup>136</sup> *hebe*: ‘hemen’. Oihenarten gainerako testuetan behin dago *hebe* (O Po.Ot XII, 1, 2) eta beste behin *heben* (O Pr 137).

<sup>137</sup> *dikusaguk*: ‘ikusten diagu’. Ikus baita *akusa* ‘hark hi ikusten hau’ (O Pr 153).

<sup>138</sup> *urketaric*: ‘urketatik, urkabeetatik’. Hemen *urka* izenaren ablatibo plurala.

*Berrisco hiza*\* (\*Replique)  
Aitor dun beras put' isala;  
Halas, aitor-eguinta besala  
Ioanen ais Jarri, atseguin harsan,  
Baiona-subico caiolala, *Perraca*.

*Inhardespena*  
Del' uko' aitor darizaca?  
Ber-monedas adinzat baka,  
Diotsat niri Arcabotes berzec  
Esterraquedala perraca. *Xikuito*.

*Berrizko hitza*<sup>139</sup>  
Aitor dun, beraz, put(a) izala;  
halaz, aitor egina<sup>140</sup> bezala,  
joanen aiz sarri —atsegin har zan—  
Baiona-zubiko kaiolala.<sup>141</sup> *Perraka*.

*Inhardespena*  
Del(a) uko(a) aitor daritzaka?<sup>142</sup>  
Ber monedaz<sup>143</sup> adintzat baka,<sup>144</sup>  
diotsat<sup>145</sup> niri arkabotez<sup>146</sup> berzec  
ezterrakedala<sup>147</sup> “perraka”. *Xikito*.

<sup>139</sup> *Berrizko hitza*: orrialdearen eskuineko alboan eman du frantsesezko itzulpena: ‘*Replique*. Ikus beherago *heren hitza*, frantsesezko *triplique* adigarriarekin. Frantsesez, biak dira prozedura judizialak terminoak, izan ere auzi-jartzaileak defentsari ematen dion lehenengo erantzuna baita *replique* (Oihenarten *berrizko hitza*), eta defentsaren bigarren ihardespenari emaniko erantzuna baita *triplique* (Oihenarten *heren hitza*). Gogoan izan behar dugu Oihenart lege-gizona zela ogibidez.

<sup>140</sup> *aitor egina*: ‘aitortua, norbere burua errudun aitortu duena’. *OEHn* dauden adibideetan (s.v. *aitor egin*), ez dut ikusi norbera errudun gisa agertzen denik.

<sup>141</sup> *joanen aiz sarri ... Baiona-zubiko kaiolala*: Baionako Bertako zubian (gaurko Pannecau zubia), *cubainhedey* edo *cubainhade* ‘bainua’ izaten zen prostitutei ezartzen zitzaizen zigorra, gutxienez 1317tik 1789ko iraultzara arte. Burdinazko kaiolan sartzen ziren besapeetatik lotuta eta, garabi baten bidez, Errobi ibaiko uretara sartzen zen kaiola, emakumearen burua hondoratu arte (Ducéré 1911: 258). Uste dugu Oihenarten *Baiona-zubi* hain zuzen Baionako Bertako zubia dela, eta mutil gazteak prostituten zigorra aipatzen diola neskatoari.

<sup>142</sup> *Del(a) uko(a) aitor daritzaka?*: esaldi honetan, *-la* bi erataraz uler daiteke. Guk jarri dugun puntuazioarekin, *-la* konpletiboa litzateke: ‘iruditzen al zaik ukoa aitor dela?’ (honen antzeko konpletiboa litzateke «Beti joz-joz daritzana / inkudeak bezala / diraukedala?» O *Po.Ot IX*, 2, 1-3). Baina bada beste aukera bat ere, *-larik* atzizkiaren pareko gisa ulertzea: *Del(a) uko(a), aitor daritzaka?* ‘Delarik ukoa, aitor iruditzen al zaik?’ (honen antzekoa litzateke *zatzala* esaldi honetan: «Han Jesus haurra baturik, / troxaturik, / utzioan zatzala, gurrez jar zatzion apaltzen» O *Po.Ot XX*, 26, 1-4).

<sup>143</sup> *ber monedaz*: ‘moneta berberaz, moneta beraren bidez’. *OEHk* dio Tartasen 1666koa dela izenaren ezkerrean jartzen den *ber* indargarri honen lehenengo lekukotasuna, baina ikus baita *ber zuhurtzia* (O *Po.Ot XIII*, 4, 2).

<sup>144</sup> *adintzat baka*: ‘hadin baka, izan hadin bakatua, izan hadin pagatua’. Aditz intrantsitiboarekin, *OEHk* (s.v. *pagatu*) gaztelaniako «satisfacerse, ser, considerarse pagado» ordainak bildu ditu (hain zuzen hemen dagozkionak), Berialenen 1621eko bi adibiderek. Helburuzko perpausetan aditzari *-tatz* atzizkia eranstean, ikus *zirentzat* (O *Po.Ot V*, 55) eta *xahu gentsantzatz* (O *Po.Ot XXII*, 2, 5); Oihenarten grafia hiruretan da <z>, hots gaurko <tz> afrikatuarentzat baliatu ohi duena.

<sup>145</sup> *diotsat*: ‘nik hiri esaten diat’. Etxeparek ere adizki hau erabili zuen: «Onsa hari gomend’adi, nik diotsat egia» (E 99).

<sup>146</sup> *arkabotez berzec*: ‘andraketariez bestek, proxenetez bestek’. Oihenartek *Notitia utriusque Vasconiae* liburuan gaztelaniako hitzen euskarazko kideak zerrendatzen dituenean (1656ko edizioan, 46. orrialdean), gaztelaniako *alcabuete* izenaren kide gisa euskarazko *arcabot* ematen du, eta latinezko *leno* bien latinezko ordain gisa. *OEHk* ondo erakutsi duen moduan, Simin Palayk 1932ko bearnesaren eta gaskoiaren hiztegiaren «*Arcabòt, -e*: Coquin, -e, fripon, débauché (vieux)» bildu zuen; XVIII. eta XIX. mendeetako katalanaren hiztegiaren ere *arcabot* aurkitu dugu gaurko katalaneko *alcauot* izenaren lekuan, gaztelaniako *alcabuete* eta latinezko *leno* ordainekin. Hortaz, badirudi Oihenartentzat *arkabot* dela, euskaraz, latinezko *leno*, hots, UPV/EHUren eta Spes-Voxen *Latina-euskara oinarritzko hiztegiaren* arabera, «andraketari, emakume-merkatari, proxeneta, emezain, putazain, makarela; artekari, bitarteko, mandatarri, estalgile (sexu- edo maitasun-kontuetan); seduktore, seduzitzaile (gizonezkoa)».

<sup>147</sup> *ezterrakedala*: ‘ezin didala erran’, hirupertsonala. Oihenarten testuetan, *erran* aditzarekin, *erradan* (O *Pr 23*), *erradas* (O *Pr 149*), *errakok* (O *Pr 621*) eta *berraio* (O *Pr 663*) hirupertsonalak aurkitu ditugu, denak aginteran; baina potentzialean beste denak dira bipertsonalak: *ezterraket* (O *Po.Ot X*, 10, 3) *derrakegu* (O *Po.Ot XIII*, 9, 3) eta *nerrake* (O *Po.Ot XIII*, 19, 2).

*Heren-biza*\* (\*Triplique)  
 Orari iarr' is bide honean.  
 Arcabotes hiz-eguitean  
 Seren hec ohitun handiqui  
 Puta beroen bihozean. *Perraca*.

*Heren hitza*<sup>148</sup>  
 Orari jarr(i) iz bide honean,  
 arkabotez hitz egitean,  
 zeren hek ohi tun,<sup>149</sup> handiki,<sup>150</sup>  
 puta beroen bihotzean. *Perraka*.

*Inhardetspena*  
 Isal' arcabot hambatequin  
 Aitor duc, bad' estuc gurequin <16>  
 Cer eguin, gu nescoxac\* (\**Chastes*) gaituc,  
 Abil fit, ordu gaizarequin. *Xikito*.

*Inhardetspena*  
 Izal(a) arkabot hanbatekin<sup>151</sup>  
 aitor duk; bad(a), eztuk gurekin  
 zer egin: gu neskotxak<sup>152</sup> gaituk.  
 Abil fit,<sup>153</sup> ordu gaitzarekin!<sup>154</sup> *Xikito*.

Parafrasia:

#### JORRATZAILEEN KOBLAK I.

##### *Erasoa Mutil Gaztearen aldetik*

Bata hordia da, beste hori itota dago, denek ere ez dute bi txanpon ezdeusen balioa.  
 Hor den putarik handienak erran diezadala niri "xikito". *Perraka*.

##### *Neskatoaren ihardetspena*

Hemen ez zagok ez hordirik, ez putarik. Baina maiz ikusten diagu hire leinukoren bat,  
 traidore izanez (izateagatik), urkabetik dilindan. *Xikito*.

<sup>148</sup> *Heren hitza*: ikus gorago *berrizko hitza*-ri buruzko oharrean idatzitakoa.

<sup>149</sup> *ohi tun*: 'izan ohi ditun', jatorrizkoan *ohitun*. Altunak eta Mujikak zehaztu zutenenez (2003, 64) «Laguntzailearen lehen silabaren galtzea modu batean baino gehiagotan adierazten du Oihenartek: apostrofoarekin, *iaten' tu* (O Pr 35), *iaín'tu* (O Pr 43), *haufsten'tu* (O Pr 134), *galzen'tu* (O Pr 134), *arguiratu'tut* (O Po.Ot XVII, 7); marrarekin, *uken-tut* (O Pr 1); bereiz, *galzen tuste* (O Pr 525), *gupida tuzula* (O Po.Ot XIV, 5, 6); edo lotuta, *eguitentu* (O Pr 21)». Gainera, behin, lehen silaba horretako kontsonantea bakarrik galdu du, eta ez bokala, seguruenik errimarako behar zuelako: *biga itut* (XVI, 7, 4).

<sup>150</sup> *handiki*: 'eskuarki'. Erabilera adberbial hau, esanahi honekin, hiru aldiz dago Oihenarten atso-titzetan (O Pr 9, O Pr 160 eta O Pr 210). *OEhk* hiru adibide horiek bildu zituen eta, bitxiki, Euskaltzaindiaren Hiztegraino iritsi da, *Zab*. markarekin.

<sup>151</sup> *hanbatekin*: 'hortaz'. *OEhk* lokailu honen bi agerpen bildu ditu Oihenarten aurretik, biak Leizarragarenean; honez gain, Oihenarten beste bi adibide ere bildu dituzte, eta ondoren Tartasen hiru adibide.

<sup>152</sup> *neskotxak*: 'neska garbiak, neska onestak, neska zintzoak', jatorrizkoan *nescoxac*. Oihenartek frantseseko itzulpena eman du orrialdearen ezkerreko alboan (\**Chastes*), adigarri gisa, seguruenik berak asmaturiko hitza delako. Hapaxa da, nolana ere, beste inon ez baitugu aurkitu. Gogoratu *neskaso* ere erabili zuela neurtitzetan (O Po.Ot XX, 4, 1), eta kasu horretan ere hitz bakanen adigarrien zerrendan azaldu beharra ikusi zuela: «Vierge, pucelle, de *neska oso*, qui veut dire une fille entière».

<sup>153</sup> *fit*: 'fite, bizkor'. Oihenartek *fite* adberbioaren aldaera hau bakarrik erabili du, eta bakarrik hemen. *OEhk* Larrasqueten hiztegia aipatzen du, baina testuetan lehenengo agerpena litzateke Oihenartena.

<sup>154</sup> *ordu gaitzarekin*: 'ordu gaiztoan'. Ikus *OEhn*, s.v. *ordu*: «ORDU GAITZAREKIN, ORDU GAITZEZ (En frases imperativas). En mala hora, en hora mala. v. ORDU GAIZTOAN. *Zabiliz orduatxez*. (Cantar de Perucho, 1539). TAV 3.1.15. *Ordu gaitzareki horrat zakitzat*. E 213»; baina baita «ORDU GAITZEZ, ORDU GAIZTOZ. En mala hora. v. ORDU GAIZTOAN. *Ordu gaitxez etorri zinan!* (Frase en una comedia castellana de 1550) ASJU2001 (1), 274».

*Bigarrenez hitza hartzea*

Aitor dun, beraz, puta haizela; hala, errua aitortzen dutenak joaten diren moduan, joango haiz laster —atsegin har ezan— Baiona-zubiko kaiolara. *Perraka*.

*Ihardespena*

Nire ukoa aitortzea dela iruditzen al zaik? Moneta beraren bidez izan hadin pagatua, esaten diat niri proxenetez bestek ezin didala esan “perraka”. *Xikito*.

*Hirugarrenez hitza hartzea*

Orain jarri haiz bide onean, proxenetez hitz egitean, zeren eskuarki haiek izan ohi ditun puta beroen bihotzean. *Perraka*.

*Ihardespena*

Hortaz, aitor duk proxeneta haizela; bada, ez duk gurekin zer egin: gu neska garbiak gaituk. Habil bizkor, ordu gaiztoan! *Xikito*.

**6.4. Jorralen koblak II (O Po. Co VIII(II))**

Jorrales-koblak honetan gizonetako da lehenengo koplak esaten duena, koplak tradizionalentzat deskribatu den egitura tipikoarekin: lehenengo bi bertso-lerroetan irudia (eiheraren tanka-tanka hotsa eta zakurraren zaunka), eta hirugarren-laugarrenetan esan beharrekoaren funtsa: gizonetakoaren ustez, nesketakoaren oheak gauero egiten du karranka-hotsa, erran nahi baita haren ustez gauero izaten dela sexu-jarduna nesken ohean. Hurrengo kopletan, nesketakoaren erantzunetan emakume ahaldun-dua agertzen da: ezinezkoa da gizonak halakorik entzutea, baina sexu-gogoz gaixoturik eta sexua burutik ezin kendurik dagoelako ibiltzen da gauero inoren oheari adi, ez direnak entzuten.

## II.

*Iauquisarrea.*

Eihera xarrac tanca tanca;  
Gure hor-sarrac osen Janca,  
Osenago dun hir' oheac  
Gau oros deraman carranca. *Perraca*.

*Jaukizarrea*

Eihera txarrak tanka-tanka,<sup>155</sup>  
gure horzarrak<sup>156</sup> ozen zanka,<sup>157</sup>  
ozenago dun hir(e) oheak  
gau oroz deraman karranka.<sup>158</sup> *Perraka*.

<sup>155</sup> *tanka-tanka*: ‘danga-danga’. Kolpe-hotsaren onomatopeiaren aldaera hau Harrietek bildua zuen hiztegian.

<sup>156</sup> *horzarrak*: ‘zakurtzarrak’, jatorrizkoan *hor-sarrac* (txistukari frikariarekin, beheargoko *ertsozar* bezala). Testuetan hapaxa da (ikus Larramendiren hiztegian, eta gero Harrietenean, *oratzar*).

<sup>157</sup> *zanka*: ‘zaunka’. *OEH*ren corpusaren arabera, aldaera hau Harrietek hiztegian bakarrik zegoen orain arte.

<sup>158</sup> *karranka*: koplak honek Oihenarten 371. atsotitza gogorarazten du: «Orga txarrago eta karranka handiago».

*Ihardespena*

Estuc hir' erharsun' esabe,  
Gau oros, berze coeinta gabe  
Estuanean en' oheari  
Egoitera beha herabe. *Xiquito*.

*Berrisco hiza*

Estinat behazes penaric  
Seren, behatu gabetarik,  
Hir' ohe herots' ensuten dun  
Lecoa laurden bidetarik. *Perraca*.

*Ihardespena*

O, erxo-sar buru-soroa,  
Carranca hur' en' ohecoa  
Esin duquec, luharras niazac,  
Bana duc hir' ametj erhoa. *Xiquito*.

*Vrhenza.**Ihardespena*

Eztuk hir(e) erharzun(a)<sup>159</sup> ezabe,<sup>160</sup>  
gau oroz, berze koeinta gabe,  
eztuanean en(e) oheari  
egoitera beha<sup>161</sup> herabe. *Xikito*.

*Berrizko hitza*

Eztinat behatzez penaric,  
zeren, behatu gabetarik,  
hir(e) ohe-herots(a)<sup>162</sup> enzuten dun  
lekoa laurden bidetarik. *Perraca*.

*Ihardespena*

O, ertxozar<sup>163</sup> buru-zoroa!  
Karranca hur(a) en(e) ohekoa  
ezin dukek —luharras<sup>164</sup> niatzak!—,<sup>165</sup>  
bana duk hir(e) amets erhoa. *Xikito*.

*Urhentza.*

<sup>159</sup> *erharzuna*: 'eritasuna'. Forma hau Leizarragak ere erabilia zuen (eta gero Tartasek), baina hemen bakarrik aurkitzen dugu Oihenarten testuetan.

<sup>160</sup> *ezabe*: 'ezkutuko, isilpeko'. *OEH*ren corpusaren arabera, Belapeyrek, Maisterrek *ezaba* forma erabili zuten, eta Alphonsa Rodriguezek *ezabia*. Harrietek *ezabe* eta *ezabia* bildu zituen hiztegian.

Arkaismoak, berrikuntzak bezala, erlatiboak dira. Goian Caminoren (2008: 212) berrikuntzen definizioa jaso dut. Honela dio: “[h]izkuntzaren ordura arteko egitura aitzindari batekiko edo egoera zaharrago batekiko, dialekto batean sumatzen den haustura da berrikuntza”. Definizio hori irauliz, esan genezake arkaismoa hizkeraren ordura arteko egitura aitzindaria dela, egoera zaharragoa, dialekto batean edo gehiagotan gordetako, beste dialekto bat(zu)etan sumatzen den berrikuntzarekiko.

Esan bezala, ikertzaileak ados daude berrikuntzek frogatzen dutela dialektoen arteko harreman filogenetiko estuagoa, hau da, zuhaitzeko adar bereko ondorengoak direla ondorioztatzeko indar handiagoa dutela. Arkaismoek duten lekuaz, aldiz, ez da horrenbesteko adostasunik. Askok arkaismoak alde batera utzi eta aintzat berrikun-

tzak besterik ez dute hartzen. Bower & Koch (2004: 11), adibidez, berrikuntzak baino ez erabiltzearen aldeko dira. Mitxelenaren (1964a: 51) hitz hauek ere ikuspegi hori irudika dezakete: “La conservación conjunta de un arcaísmo en dos o más variedades de una lengua no supone, por el hecho de tratarse de algo pasivo que se explica por simple inercia, ninguna relación especial entre ellas”.

Aldiz, badaude arkaismoak neurri batean aintzat hartzearen aldekoak ere, hala nola Rodríguez Adrados (1997 [1952], *apud* Zuloaga 2020: 65-67) eta Watkins (1966, *apud* Zuloaga 2020: 65-67). Gerta daiteke hainbat arkaismoren mugak bat etortzea berritu duen eremuarekiko. Kasu horietan, arkaismoak berritu ez duen eremuaren batasunaren adierazle izan daitezke eta, are gehiago, beste nonbait sortutako berrikuntza bat ez hartzeak ez du zertan pasiboa izan, baizik eta aktiboa (Camino 2008: 237). Aktibotasun hori zertan den edo nola gauzatzen den garatea interesgarri litzateke, talde erabaki kontzientea iradokitzen duelako eta horrek ez duelako oso egiantzekoa ematen.

Nolanahi ere den, horrekin ez da esan nahi arkaismoak berrikuntzen pare daudetik edo arkaismo bat gordetzeak zuzenean darabilgun filiazio hipotesiaren alde egiten duenik, benetan aktiboa den frogatzeko arazo metodologikoak berdin irauten baitu: benetan dinamika komun baten ondorio da arkaismoari eustea edo zerbait pasiboa? Adibidez, bokal sudurkariak erdialdean galdu baina mendebaldean —luzeago— eta ekialdean —oraindik ere— mantentzea ezin da pasiboa baino izan, edo ez, behintzat, arkaismo bateratzaile aktiboa bi eremuetan batera.

Aitzitik, berrikuntza zahar esanguratsuak eta arkaismo bateratzaileak gordetzen direnean, dinamika komunak eta, beraz, iragan komuna daudela ondorioztatzeko erabil ditzakegu. Hau da, arkaismo bateratzaile zaharrak berrikuntza zahar eta bereizle-lan laguntzaile eta indartzaile izan daitezke filiazio hipotesiak egiaztatzeko.

Euskararen kasuan, berriki Urgellek (2020: 715-716) proposatu du, Mendebaldeko Euskara Zaharra (MEZ) definitzeko, *a + a > ea* eta *egin* laguntzailearen gramatikalizazioa berrikuntzez gain, \**edun*-en 3. pertsonetako diptongoari eustea (*dauldeu* *vs* ekialde zabaleko *du*) eta *-rean* ablatiboa (*vs -rik*) arkaismoak erabil daitezkeela.<sup>8</sup>

## 2.4. Hautuak

Azkenik, *hautu* izenez deskribatzen edo etiketatzen diren ezaugarri linguistikoak erabili izan dira dialektologian berrikuntza eta arkaismoekin batera, irudia osatzeko nonbait. Tradizio batzuetan besteetan baino gehiago erabili izan dira eta gurean, itxuraz, nahikotxo erabili dira. Kanpoko ereduetan begiratuz gero, ordea, bitxia da —edo ez hain bitxia— mundu mailan zenbait lan esanguratsutan aipatu ere ez direla egiten. Hori da, adibidez, Campbellen (2013) eskuliburuaren kasua. Antzera, Bowernek & Kochekek (2004) Australiako hizkuntzen azterketa dialektologiko-diakronikoa egiteko finkatu metodologian ere ez dira hautuak aipatzen.

<sup>8</sup> Hala ere, \**edun*-en diptongoei dagokionez, Zuloagak (2022: 98-106) berriki markatu du, arkaismoak izateaz harago, ez direla eremu osoan sistematikoak eta, beraz, kontuz erabili behar direla MEZ definitzeko. Halaber, *-rean*-i dagokionez, arkaismotzat jotzen badu ere, Urgellek (2020: 716, 31. oh.) berak berrikuntza izan zitekeela eztabaidatzen du. Haren iritziarekin bat egin du orain Zuloagak (2022: 147-161).

Izan ere, ematen du *haututzat* jo diren ezaugarriak, funtsean, forma zaharra gordetzen duten ezaugarriei dagozkiela. Horrek, baina, ez du kentzen bata berrikuntza eta bestea arkaismoa izatea. Bide horretatik, Lakarrak (2011 [2014]: 198) hautu bezala sailkatu izan diren laguntzaile tripertsonalak (*\*eradun*, *-i-* eta *\*edutsi*) berrikuntza kate bezala azaltzea proposatzen du. Horregatik guztiarengatik, zuhurragoa eta egiantzekoa ematen du *hautuez* ez hitz egiteak, baizik eta arkaismoez eta berrikuntzez edo, akaso, berrikuntza kateez.

## 2.5. Berrikuntza edo arkaismoa

Gorago, 2.2, 2.3 eta 2.4 ataletan, ikusi dugu nagusiki berrikuntzak bilatu behar ditugula eta, gainera, berrikuntza jakin batzuk: ondoz ondoko dialektoetan agertzen direnak, fonologiaren edo morfologiaren esparrukoak, bereziak, positiboak, zaharrak, bateratzaileak, sistematikoak, esklusiboak eta hedadura zabalekoak. Eta nola bereiziko ditugu berrikuntzak eta arkaismoak? Hau da, nola ziurtatuko dugu ez dugula berrikuntza bat arkaismotako hartzen, edo arkaismo bat berrikuntzatako? Zoritxarrez, ez dago kasu guztietan aplika daitekeen erantzunik, eta kasuan-kasuan ikusi eta interpretatu behar dira datuak. Camino (2008: 212) honela mintzatzen da gaiaz:

Dialektologiaren barrenean eztabaida ugari gertatu da azterketan baliatzen den ezaugarri bakoitza berrikuntza ala tasun zaharra den erabakitzean; bereizketa nagusi hau egoki egiten ez bada, analisiari eragin kaltegarriak etor dakizkioke; dena den, ez da pentsatu behar batzuk eta besteak bereiztea horren gauza erraza denik.

Zuloagak (2020: 48) gogorarazten duen bezala, *kau*, *kori*, *kura* erakusleen inguruan asko eztabaidatu izan da (esaterako, Mitxelena 1951: 575-576), zer garaitako arkaismoak izango ote ziren, eta, testu gehiago aurkitu direnean, hala nola Etxarten eta Rosen arteko gutunak (Etxart & Ros 1616-1617), duela gutxiko berrikuntzak ematen dute (Lakarra 2011 [2014]: 73. oin-oharra). Orain, Rojoren (2022a, 2022b) lanek ere modernotasun horren alde egiten dute.

Zorionez, badaude interpretazio ahalik eta zuzenena egiten laguntzen duten irizpideak. Hasteko, argi izan behar da *arkaismo* eta *berrikuntza* termino erlatiboak direla. Ezaugarriak garai eta egoera linguistiko batekiko dira gordetzailerdo berritzaile eta garai batean berrikuntza zena arkaismo izan liteke gero. Hortaz, garaian garaiko egoera linguistikoak ahalik eta hobekien ezagutzea funtsezkoa da. Zer egin, ordea, garaia eta, beraz, egoera linguistikoa historiaurrekoa denean? Idatzirik ez dagoenean? Nola erabaki dezakegu testuetan agertzen diren ezaugarriak garai bateko arkaismoak edo berrikuntzak diren? Horretarako ere badaude zenbait lagungarri, hala nola neolinguisten *hatsarreak* (Bartoli 1925). Nik Caminoren (2009: 146-147) lanetik hartu ditut:

I. Bi egoera linguistiko daudenean, eta horietako bat bestea baino lehenago leku-kotzen denean, hori izan ohi da zaharrena.

II. Eremu geografiko isolatuek, komunikazio-bideen oztopo gehiago dituztenek, arkaismo gehiago bildu ohi dituzte oztoporik gabeko komunikazio-bideak dituztenek baino.

III. Bazterretan (periferian) erdialdeko eremuetan baino arkaismo gehiago bildu ohi dira.

IV. Ezaugarriak zenbat eta hedatuago, hainbat eta zaharrago izan ohi dira.

V. Hizkuntzak hedatu diren lurralde berria(goa)k berritzaileago izan ohi dira.

VI. *Fase sparitan* dauden ezaugarriek emankor direnek baino aukera gehiago dituzte arkaismo izateko.

Horiekin batera, aldakortasunaren irizpidea ere erabili izan da ezaugarri jakin bati zahartasuna aitortzeko, erlatiboa bederen. Irizpide horren arabera, zenbat eta aldakortasun dialektal txikiagoa izan ezaugarri batek, orduan eta aukera handiagoak ditu zaharra izateko; eta alderantziz, zenbat eta aldakortasun dialektal handiagoa izan, orduan eta aukera handiagoak ditu modernoagoa izateko.

Aldiz, irizpide horiek guztiak joerak dira, eta ez arau, elkarri kontrajarriak egon litezke eta, horregatik, kontu handiz interpretatu behar dira datuak. Irizpide horien eta beste batzuen inguruan ere ezin utzizkoa da Mitxelenaren (1963) *Lenguas y protolenguaseko* “Métodos y criterios” kapitulua.

## 2.6. Zuhaitzak eta kritikak

Dialektalizazio prozesua zuhaitz genealogikoen bidez irudikatzea hizkuntzalaritza historikoa diziplina bera bezain zaharra da ia-ia. Jada 1853. urtean Schleicherrek *Stammbaum* (alemanez, *Stamm* ‘erro’ + *Baum* ‘zuhaitz’) edo zuhaitz genealogikoaren eredu proposatu zuen jatorri bereko hizkuntzen arteko harremanen egitura —filiazio hipotesiak— irudikatzeko (Schleicher 1853: 782, 1861: 7).<sup>9</sup> Eredu horretan, aitzin-hizkuntza *batutik* abiatzen da, eta adarkatuz doa denboran aurrera zuhaitzean behera egin ahala, egungo dialekto edo hizkuntzetara iritsi arte. Beraz, jarauntsitakoan jartzen du arreta. Aldiz, eredu horrek hainbat kritika jaso zituen hasiera-hasieratik, jarauntsitakoa eta goitik beherakoa hizkuntzaren eboluzioaren alderdietako bat besterik ez delako, eta beste alderdi batzuk alde batera gelditzen zirelako, hala nola konbergentzia eta elkarren ondoko hizkuntza, dialekto eta hizkeren arteko transmisioa (Schmidt 1872; Schuchardt 1900).<sup>10</sup>

Schmidtek (1872) *uhinen teoria* deitu izan dena proposatu zuen, zuhaitzaren orde, zenbait ezaugarriren banaketa gorabeheratsua azaltzeko. Eztabaida luzeak sortu ditu zuhaitz ereduaren eta uhin teoriaren arteko talkak. Aldiz, zer den ere ez dago argi, teoria —edo hipotesia— edo isoglosak irudikatzeko eredu bat (Jacques & List 2019: 132-133).

Schmidtek (1872: 27), formulatzen duen moduan, hizkuntz aldaketaren inguruko hipotesia da: “Haren [hots, arbolaren irudiaren] orde, uhinaren irudia jarri nahi dut; uhinok eraztun kontzentrikoetan urruntzen dira erdigunetik, eta zenbat eta urrunago orduan eta ahulagoak dira”.<sup>11</sup>

<sup>9</sup> Eskerrak Ricardo Gómezi Schleicherrek dagoeneko 1853an zuhaitz genealogikoaren bertsio bat argitaratu zuela jakinarazteagatik.

<sup>10</sup> XIX. mende bukaerakoak edo XX. mende hasierakoak ez ezik, kritika modernoagoak ere jaso ditu. Esaterako, Dixonen (1997, 2002) arabera, hizkuntzalaritza historikoko metodo konparatua oso ongi doa dokumentazio luzeko eta kontaktu *urrko* hizkuntza indoeuroparretarako edo austronesioendako, baina haren metodoak ezin dira aplikatu gutxienez Australiako hizkuntzak aztertzeko, hango hizkuntzak *punctuated equilibrium* delako batean egon direlako. 3.2. atalean azalduko dut sakonago Dixonen proposamena; horrekin batera, egin zaizkion eta egin dakizkiokeen kritikak berrikusi, eta eztabaidatuko dut zergatik ezin zaion EBZren kasuari ere aplikatu.

<sup>11</sup> Nire itzulpena da. Jatorrizkoa: “Ich möchte an seine Stelle [zuhaitzaren orde alegia] das Bild der Welle setzen, welche sich in concentrischen mit der Entfernung vom Mittelpunkte immer schwächer werdenden Ringen ausbreitet”.

Horren arabera berrikuntzak, uhinen moduan, zirkulu kontzentrikoak eginez hedatzen dira eta, erdigunetik urrundu ahala, indarra galduz doaz, iristen ez diren arte. Horraino, berrikuntzak nola hedatzen diren azaltzeko hipotesi bat da, eta, beraz, egiaztatu beharrekoa. Are gehiago, hipotesi hori hizkuntz aldaketaren inguruko teoria orokorrean txertatu beharko litzateke, besteak beste hots aldaketa erregularren erregularitasunarekin batera, edozein hizkuntzatako berrikuntzak nola hedatzen diren azaltzeko hipotesia baita. Horren bidez, hizkuntzetan aurkitzen zuen zatikako banaketa azaldu nahi zuen Schmidtek (1872).

Esan bezala, Schmidtek (1872) *Wellentheorie* delakoa *Stammbaum* edo arbola genetikoaren aurka egiteko proposatu zuen. Ordea, ez da kritika (egokia). Zuhaitzak, edo zehatzago arbolaren adarkatzeak, filiazio hipotesiak dira eta berrikuntzak nola hedatu diren ez zaio axola. Hau da, adarkatzeak honako hau trinkotzeko modua dira: lehen bateratua zegoen aitzin-hizkuntza edo aitzin-dialektoa hautsi egin zen, A eremuan *X* berrikuntza sortu eta hedatu zelako eta B eremuan *Y* berrikuntza sortu eta hedatu zelako edo, besterik gabe, ez zelako *X* gertatu —arkaismo bateratzailea—. Schmidten hipotesia, ordea, berrikuntzen hedapenaren inguruko hipotesia da, esan bezala, Schmidtek nahi zein ez, berrikuntzak nola hedatzen diren azaltzen du, baina ez dakar berekin filiazioaren inguruko kontsideraziorik.

Bestalde, ikertzaile batzuek mapa batean hainbat ezaugarrik estaltzen duten eremua marrazteari, Bloomfieldek (1933: 316) dakarrenaren moduko mapak egiteari, eta elkar nola gurutzatzen duten ikusteari esaten diote *uhin teoria*. Esan gabe doa hizkuntz ezaugarri bat(zuk) mapa batean irudikatzea ez dela teoria edo hipotesi, datuak aurkezteko modu bat baizik, eta, hutsean, ez du ezer azaltzen.

Horrekin ez dut inondik inora esan nahi mapan isoglosak irudikatzea erabilgarri edo lagungarria ez denik; gogora bitez Mitxelenaren (1964a: 37) hitzok: “Y nunca debemos olvidar que la distribución actual de los fenómenos lingüísticos suele ser distinta de la pasada, aunque aquélla nos proporcione indicios y claves para reconstruir esta”. Une jakin bakoitzean isoglosak non zeuden irudikatzeo ezin hobea da isoglosa mapa, baina horrek ez dio azalpen izaera ematen, hau da, ez du hipotesi edo teoria egiten.

Laburbilduz, *uhin teoria* deitu izan direnak zuhaitz-diagramaren aurka egiteko erabili izan dira, baina ez adiera batek —berrikuntzak nola hedatzen diren azaltzeko hipotesia— ez besteak —isoglosak mapa batean irudikatzea— ez diete ez filiazio hipotesiei ez hipotesi horiek zuhaitz diagrametan irudikatzeari eragiten.

Atal honetan *adarkatzeen auzia* ikertzeko literaturan ezarri diren oinarriak berrikusi ditut. Lehenik eta behin, fenetika —hizkera batzuk bildu eta gainerakoetatik bereizteko arreta bat-etortzeen kopuruan paratzea— eta filogenia —aitzin-hizkuntzatik lekukotutako hizkuntz egoeratarako bidea edo garapena ulertzeko kronologia erlatiboak planteatzea— bereizi ditut eta filogenia hobetsi dut. Ondoren, filogenia egiteko ezarri diren irizpideei heldu diet. Argudiatu bezala, oinarria berrikuntzak dira, arkaismo bateratzaileen laguntzaz. Era berean, berrikuntzek analisi filogenetikoetan erabiltzeko bete behar dituzten baldintza edo irizpideak mahaigainean paratu ditut. Hiru dira: irizpide kronologikoa —labur, berrikuntzak zaharrak izan behar dira—, geografikoa —berrikuntzak aski hedaturik egon behar dira— eta hizkuntzazkoa —berrikuntzak fonologikoak edo morfologikoak izan behar dira, bereziak eta sistematikoak—. Azkenik, filiazio hipotesiak irudikatzeo erabili izan diren zuhaitzei egin izan zaie kritika nagusia bildu dut eta erakutsi dut ez direla zuhaitzaren diagra-



maren aurkako kritikak, eta oraindik ere erabili beharreko eredia zuhaitz diagrama dela aldarrikatu dut.

### 3. Euskara Batu Zaharra eta haren haustura

Atal honetan bi alderdi landuko ditut. Batetik, azalduko dut zergatik behar dugun EBZ bezalako hizkuntz egoera bat (§ 3.1), AEMtik linguistikoki bereizia, eta justifikatuko dut zergatik ez den oreka puntuatua (Dixon 1997, 2002) euskararen iraganeko garaietarako aplikagarria (§ 3.2); hau da, zergatik jarraitu behar dien EBZren eta dialektalizazioaren ikerketak inguruko tradizioetan ezarritako estandarrei. Bestetik, EBZren hausturaren inguruan esandakoak berrikusiko ditut, aurreko atalean ezarritako irizpide metodologikoetan oinarriturik (§ 3.3).

#### 3.1. Euskara Batu Zaharraren beharra

Ez dut EBZ, dialektoak bereizi aurreko azken egoera ba(tera)tu bezala, linguistikoki definituko. Horrek honelako lan batek dituen muga guztiak gaindituko lituzke, tamainaz eta eskatuko lituzkeen ikerketa orduen aldetik. Horren ordez, Mitxelenak (1981) egin zuen EBZren beharraren argudiaketa laburbilduko dut, AEMtik bereizi edo, behintzat, AEMtik hainbat aldaketa jasandako hizkuntz egoera bezala.

Esan bezala, Mitxelenarendako (1981) euskal dialekto ezagunen iturri komuna, EBZ, ez dago gugandik aurretik —eta ondoren— hainbatek uste izan duten bezain urruti. Euskal hizkeren arteko batasun handiaren aldeko ebidentzia hainbat alderditan aurki daiteke, Mitxelenak nabarmendu bezala. Fonologia, oinarrian, berdina da eta aldeak txikiak eta modernoak dira; hain modernoak dira ezen ia-ia datazio absolutuak ere egin ditzakegun. Hori da adibidez (hego-)mendebaldeko hasperenik ezaren eta ekialdeko /y/-ren kasua.<sup>12</sup>

Antzekoa esan liteke morfologiaz. Izen morfologia oso antzekoa da eremu osoan eta dibergentziak osagai komunekin egindakoak dira. Adibidez, mendebaldeko ablatibo *-rean* (gen. *-(r)e* + ines. *-an*) eta sozietibo *-gaz* (bizidunetako eta (ergatibo) pluraleko *-ga-* + instrumental *-z*). Aditz morfologian, morfema gehienak partekatutak dira; esaterako, ergatibo pluraleko *-de > -de & -te & -e*. Aditz laguntzaileak ere partekatutak dira (*izan*, *\*edun*, *\*edin*), eta orokorrak ez direnak ere beste inguru batzuetan dokumentatzen dira (hala nola *\*ezan* eta *\*nin* mendebaldean; Mounole eta Larkarra 2018: 431, 433) edo, berriz, osagai komunekin osatutakoak dira. Adibidez, *\*eradun*-en *\*(e)dun* eta *-ra-* (cf. *erabili*, *eraman* & *eroan* < *\*eraoan*; FHV, 177) orokorrak identifikatu daitezke (Mounole 2014 [2018]: 452. oh.). Horrez gain, eratorpena eta konposizioa ere komunak dira, baita azken horri loturiko bilakabideak ere; esaterako *errege* + *ibera* > *erret ibera* bezalako prozesuak. Gainera, horrek *post quem* data bat eman diezaguke, baliabide horiek ez ditugulako akitanieraz aurkitzen, eta bai x. mendearen inguruko datuetan. Ebaluatzaileetako batek nabarmendu bezala, xx. mendearen inguruko datuek *ante quem* data bat ere finkatzen dute.

<sup>12</sup> Deigarria egiten zait Mitxelenak (1981) iragan komun hurbilekoaren aldeko argudioen artean hasperena sartu ez izana, are gehiago fonetika-fonologiako desberdintasun batzuk (hala nola diptongoen bilakabideak) hasperenaren galeraren ondorio izanik.

Bukatzeko, latineko —eta erromantze goiztiarretako— maileguk ere batasuna erakusten dute, euskarara egokitzeko moduan eta ondorengo euskararen barruko bilakabideetan. Adibidez, latineko hitz hasierako herskariak ahostundu dira (T- > D-): lat. ak. *pace(m)* > eus. *bake*; lat./errom. ak. *turri(m)* > eus. *dorre*; *muta cum liquida* taldeak desegin dira (lat. ak. *cruce(m)* > eus. *gurutze*; lat./errom. ak. *planu(m)* > eus. *lau*);<sup>13</sup> latineko igurzkaria euskarazko lepokariarekin egokitu da (lat. *corpus* > eus. *gorputz*; lat. ak. *causa(m)* > eus. *gauza*); latineko albokaria eta albokari geminatua euskarazko *taparekin* eta albokariarekin egokitu dira hurrenez hurren (lat. ak. *gula(m)* > eus. *gura*; lat. ak. *solu(m)* > eus. *zoru*; lat. ak. *ballaena(m)* > eus. *balea*; lat. ak. *castellu(m)* > eus. *gaztelu*); eta bokalarteko sudurkari hobikariak hasperendu dira —eta ondoren batzuk kokapenez mugitu edo desagertu— eta sudurkari hortz hobikari geminatua sudurkari hortz hobikariarekin egokitu da: lat. ak. *arena(m)* > eus. *\*areha* > *harea*; lat. ak. *anate(m)* > eus. *ahate*; lat. ak. *annona(m)* > eus. *an(h)oa*.

Batasun handi horrez gain, baina, dibergentziak ere badaude eta hor dago gakoa. Mitxelenaren (1981: 295) arabera, txikiak ziren dibergentzia horiek:

[E]s posible que esas diferencias le parezcan muy grandes al hablante ordinario no iniciado a fondo más que en el euskera de su círculo local o comarcal, pero, para un comparatista, y este es el punto de vista que hay que adoptar aquí, las divergencias, como ya he escrito en algún otro lugar, son desesperadamente pequeñas.

Horren txikiak ziren, non errenteriarrendako dialektoen azken egoera bateratuak gugandik oso gertu egon behar zuen, eta v-vi. mendeen inguruan kokatu zuen, erromatarren gainbeheraren ondoren alegia. Horretarako, Barbero eta Vigilen (1965) eredu historikoan oinarritu zen. Aldiz, eredu hori gainditurik dago eta, beraz, data horiek ez digute balio.

### 3.2. Euskara Batu Zaharra eta oreka puntuatua

Hala ere, bigarren aukera bat ere planteatu liteke: oreka puntuatua —Wikipediako egileek *Oreka taiduna* izendatu dute— edo, ingelesez, *punctuated equilibrium*. Izan ere, familia ikertuenen kasuan hizkuntzak milaka kilometrotako eremuan sakabana-turik daude eta, horien aldean, gurea —ezagutzen duguna— eremutxo txikia baino ez da, eta ez du ematen eremu hori askoz handiagoa izan zitekeela pentsatzeko arrazoirik aurkituko dugunik.

Nahiz eta ez zuen Dixonek berak biologiatik hizkuntzalaritzara ekarri (Bowern 2006), hizkuntzalaritzaren barruan oreka puntuatuaren adibiderik ospetsuena hark Australiako hizkuntzen egoera azaltzeko egindakoa da (Dixon 1997, 2002).

Dixonen ereduan, hizkuntzen barne eta kanpo historian *oreka* garai luzeak eta *puntuatze* garai laburrak egongo liriateke. Oreka aldietan, hizkuntzak gutxi(ka) aldatuko liriateke eta, gainera, aldaketa hori, neurri handi batean, hizkuntzen arteko mailegatzearen ondorio izango litzateke. Horrela, ezaugarriak hedatu eta hizkuntz

<sup>13</sup> Oso jakingarria da (#)CL- taldeen inguruan Blevins & Egurtzegiren (2017) lana. Egile horien arabera, eta gainerako *muta cum liquida* taldeek euskaraz eta tipologikoki duten bilakabidea ikusirik, *herskari* + *albokari* taldeak ez ziren euskaraz desegin, baizik eta dagoeneko asimilazio bidez deseginik zituen erromantze (iberiar) batetik hartu zituen euskarak (cf. lat. *flamma* > gazt. *llama* : kat. *flama*).

eremuak sortuko eta familia *genetiko*en arteko mugak lausotuko lirатеke. Azkenean, konbergentziaz, prototipo komun moduko bat —*koinéa*?— sortuko litzateke. Aldiz, puntuatze aldietan, kanpo faktoreen eraginez (teknologia berriak garatzea, inbasioak, migrazio handiak, etab.), hizkuntzak asko eta azkar aldatuko lirатеke eta zuhaitz filogenetikoak irudikatzen dituen moduko etenak sortuko lirатеke. Ez ditut Dixonen proposamenaren arazo guztiak aletuko —ikus, laburpen baterako, Bower (2006)—, baina beharrezkotzat dut azaltzea zergatik ez den, ene ustetan, oreka puntuatuaren eredia onargarria EBZren kasuan aplikatzeko.

Lehenik eta behin, Dixonen proposamenaren aurkako kritikarik handiena Australiako hizkuntzalarien baitatik dator. Izan ere, Dixonek (1997, 2002) Australiako hizkuntzetarako proposatu zuen oreka puntuatua. Aldiz, inguru haietako hizkuntzen historia ikertu dutenek erakutsi dute Dixon hainbat aurreiritzitatik abiatu zela. Adibidez, Dixonek onartzen zuen Australiako hizkuntzetan ezin zirela hizkuntzalari-tza historiko estandarreko metodo eta teoriak aplikatu, baina, Bowernek & Kochek (2004) argitaraturiko liburuan ikusten den moduan, Australiako hizkuntzen azterketa historikoa abian da eta emaitzak lortzen ari dira, beste tradizioetan erabilitako metodo eta irizpide berak erabilirik. Aitzin-hizkuntzak berreraikitzen, azpitaldeak, mugimenduak, eta abar aurkitzen ari dira, eta horrek guztiak agerian uzten du Dixonen iritziak hizkuntzalari-tza historikoa egiten saiatu gabe ere eraikiriko usteak baino ez zirela (Bower & Koch 2004; Bower 2010; McConvell & Bower 2011).

Bestetik, Australiako hizkuntzekin izan ditzakeen arazoez harago, hizkuntzen bilakabideaz dakigunak ere horrelako egoera bat, zeinetan hizkuntzak gutxi eta batez ere maileguen bidez aldatuko lirатеkeen, anomalotzat jo beharko genukeela iradokitzen du. Hurbileko tradizio bat hartuz, zenbat aldatu dira hizkuntza erromantzeak azken 2000 urteetan? Latina zena guztiz urtu da eta hamaika aldaera sortu, garatu, elkartu, eta abar egin dira. Argudioa Dixonen hipotesira itzulirik, ez da oreka aldirik egon (hego-)mendebaldeko Europan azken 2000 urteetan? Niri bat otu zait: azken mendetan hizkuntzak gutxi aldatu dira eta aldaera asko desagertuz joan dira, haien lekua estatuetakoa hizkuntzek hartu dutelako. Gainera, hezkuntzaren *unibertsalizazioak* pisu handia izan du prozesu horretan.

Eredu hori guztiz baztergarria da munduko beste bazter batzuetan duela milaka urte oreka aldiak gertatu zirela pentsatzeko, anakronismo handiegietan sartu gabe. Are gehiago, latina berdin mantendu zen *latin* etiketa daraman garai osoan? Latinistek latin arkaikoa, klasikoa eta postklasikoa bereizten dituzte gutxien-gutxienez. Beste horrenbeste egiten da (Ingalaterrako) ingelesaren historiarekin. Labur esanda, ongi ezagutzen ditugun historiek oreka aldi horien benetakotasuna zalantzan jartzeko nahikoa susmo sorrarazten dituzte. Besterik da konbergentzia garaiak egotea eta garai horietan *koiné* modukoak sortzea —edo aldaera prestigiodunek prestigiorik gabeak ezabatzea—, baina hizkuntzak etengabe aldatzen dira, eta ez du ematen baliabide nagusia mailegatzeari denik.

Europatik kanpo ere, Campbellek (2006) Dixonen proposamenari aurre egiteko zenbait kontradibide jasotzen ditu —eta oreka puntuatuaren sorburua den biologian ere kontzeptu zalantzarria dela esaten du (Campbell 2006: 14)—. Batetik, oreka aldietan aldatzen eta familietan bereizten egon diren hizkuntzen adibideak ematen ditu; adibidez, zenbait hizkuntza maia edo berriki bereizi diren zenbait zapoteko. Bestetik, elkarren aldamenean eta oreka aldietan luzez egon diren hizkuntzen adi-

bideak ematen ditu, zeinen artean ez den ia mailegaterik egon; besteak beste, Ipar Amerikako hego-mendebaldeko hizkuntza athabaskarren (navajoa eta apatxea) eta athabaskarrak ez diren aldameneko hopi, zuni, keresa eta tano taldeen artean ez da ia mailegaterik egon. Puntuatze aldietan gertatutako difusioen adibideak ere jasotzen ditu; esaterako, eskandinaviarrek eta normando frantsesek britainiar uharteak konkistatu zituzten eta orduko ingelesak hitzak, hotsak eta izenordainak mailegatu zituen, eta konplexutasun morfosintaktikoa gainerakoekin berdindu zuen.

Garatze bidean diren aldaketen inguruan dugun ezagutzarekin ere, ezinezkoa dirudi gutxi edo ezer gutxi aldatu diren hizkuntzetan pentsatzea eta, are gehiago, aldatzeko modu ia bakarra mailegutza izatea. Esaterako, Harrington *et alik* (2019) Antartikara zihoan espedizio bateko partaideekin esperimentu bat egin zuten; taldea nazioartekoa zen eta hiztun guztiek ez zuten lehen hizkuntza bera. Joan aurretik hainbat ahoskeraren zenbait alderdi neurtu zituzten. Itzultzean, berriz ere neurtu zituzten eta aurkitu zuten ahoskerak berdindu ez ezik, norabide berean aldatzen hasi zirela. Halaber, Labovek (2020) erakutsi du nola joan den Filadelfiako ingelesean /eiC/ diptongoa aldatzen, oharkabean eta era erabat erregularrean. Hau da, prozesu horietan ez dago mailegutzarik gizarte-taldeen artean Labovenean eta parte-hartzaileen artean Harrington *et alii*enean, eta ematen du hizkuntzak etengabe aldatzen (ari) direla, gu ohartu edo ez.

Aldatzeko modu nagusia mailegatzea izateak ere arazoak ditu. Izan ere, mailegatzearan harremanak ez dira *horizontalak* izaten, hau da, mailegatzaillea eta mailegatuia egon ohi dira eta aldaketak ez du eragin bera batean eta bestean (Bower 2006). Adibide ezagun bat hartzeko, galde liteke noizkoak diren ingelesak frantsesari hartutako maileguak eta noizkoak frantsesak ingelesari hartutakoak; ingelesak frantsesetik hartzen zituenean, zer mailegu utzi zituen ingelesak frantsesean; eta, alderantziz, zer mailegu uzten dituen egun frantsesak ingelesean. Gure kasuan, latina (eta erromantzeak) mailegu-emaileak dira, eta euskara, mailegu-hartzailea, eta nekez aurki daitezke aurkako norabideko adibideak.

Azkenik, euskararen barruan ere oreka puntuatuaren aurkako argudioak aurki ditzakegula uste dut. Gure herria txikia da: Euskal Herri historikoak 250 km ere ez ditu mendebaldeko muturretik ekialdekora, aspaldi hedatuxeago egon zitekeen arren: Bilbotik mendebaldera eta Pirinioan ekialdera, nahiz eta, beharbada, ez batzuetan uste izan den bezain hedatu (Salaberri-Zaratiegi 2011). Ez dirudi, ordea, hizkuntza indoeuroparrak bezain hedaturik *inoiz* egon denik. Txikitetasun (erlatibo) horrek pentsaraz lezake errazago egin zitzakeela berrikuntza komunak, aldi berean berrikuntza dialektal txikiak sortzen edo sorturik zeudenei eusten zien bitartean. Inoiz horrelako egoera bat izan bazen, aurreko aldaera dialektalak ezabatu zituen.

Batetik, Mitxelenak (1981) berak azpimarratu bat-etortze kopuru handia dago. Bestetik, eta garrantzitsuagoa irizten diot, berrikuntzak datatuz joan ahala, nahiko modernoak direla ikusten da. Hori da, adibidez, singularreko artikulua eta hasperenaren galerarekin loturiko aldaketa guztien kasua. Esaterako, *etxea* > *etxia* gertatzeko, lehenik artikulua gramatikalizatu behar da (\**etxe* + *ha(r)* > \**etxe**ha*) eta hori VIII. mende ondokoa da (Zuloaga 2020: 478). Antzera, ekialdeko muturreko /y/-k, besteak beste, XIV. mende inguruko ematen du (Peillen 1991: 252-253; Egurtzegi 2017). Horrez gain, ez du ematen mailegatzea oso faktore esanguratsua izan denik gurean, euskal aldaeren artean, erromantzeetatik andana sartu baita. Adibidez, erdial-


deko zenbat mailegu aurki ditzakegu ekialdeko muturrean, Mitxelenak (*FHV*, 375) aipatu *Z ützi*tik (cf. ek. *eitzi* zaharra) —eta beharbada *Z galdü*tik—<sup>14</sup> harago?

Horregatik guztiarengatik, kontrakoaren aldeko ebidentzia agertzen ez den bitartean, euskararen historian dialektalizazio aurreko egoera ba(tera)tu bat behar dugu ezagutzen ditugun dialektoen abiapuntutako, erromatarren etorreraren ondorengo, eta, egon litezkeen konbergentzia aldiak alde batera, dialektalizazioaren teoria adarkatze bitarreko zuhaitz irudi batera eramango gaituen filiazio hipotesiak egiaztatuz eraiki (behar)ko da (cf. Lakarra 2011 [2014]).

### 3.3. Euskara Batu Zaharraren haustura: bi hipotesi

Atal honetan, EBZren hausturaren inguruan esplizituki edo zeharka esandakoak bildu eta 2. atalean definitutako irizpide metodologikoen arabera ebaluatuko ditut. Izan ere, Lakarraren (2011 [2014]) lanetik esplizituki dakigu —beste familia zabale-tako ikerketan prozedura estandarra gurera ekarririk— euskal dialekto historiko guztiak ezin etor daitezkeela Mitxelenaren (1981) EBZren hausturatik, eta, aldiz, beste tradizioen moduan, zatiketa hierarkiko eta bitar baten ereduan azaldu beharko genukeela euskararen dialektalizazioa.


Logikoa den moduan, lehen haustura ezin da erdialdean gertatu; hau da, ez da posible saihetsek elkarren artean komunitate bateratu bat osatzea erdialdekoak kanpoan utzirik. Horrek bi aukera —bi hipotesi— uzten dizkigu EBZren banaketarako: (a) lehen haustura mendebaldean gertatu zen, edo (b) lehen haustura ekialdean gertatu zen. Lakarrak (2011 [2014]: 205, 133. oin-oharra) egin zituen arbolen arteko alde nagusia ere hori da: “Zuhaitzen arteko diferentzia nagusia honetan datza: Erdialdeko Euskara [hau da, nafarreraren eta lapurteraren jatorri komuna, eta ez Zuazoren erdialdeko euskara, hots, gipuzkera] nondik ateratzen den, Mendebaldekotik ala Ekialdekotik; hots, hurrenez hurren EkeZ ala MEZ bereizi den lehenago EBZtik”. Hipotesiak zuhaitzean irudikatutik, honela izango lirateke bata eta bestea lehen hausturari dagokionez:



#### 1. irudia

EBZren haustura mendebaldean. Iturria: Lakarra (2011 [2014]: 203)

<sup>14</sup> Mitxelenak “ronc. *galtu*, sul. *galdü* ‘perdido’, con sonorización anómala” dakar (*FHV*, 373 [etzan-nireak dira]). Datu “bitxi” hori mailegu edo egokitze modernotako har daiteke, edo oraindik ahoskabeek ahostunak guztiz ordezkatu ez zituztela pentsa daiteke.



## 2. irudia

EBZren haustura ekialdean.

Iturria: Lakarra (2011 [2014]): 203)

Dagoeneko, hipotesi baten zein bestearen aldekoak ditugu, nahiz eta ez den, inolaz ere, bataren eta bestearen alde modu eta maila berean egin. Jarraian, batetik, lehen haustura mendebaldean gertatu zela dioten iritziak berrikusiko ditut. Ondoren, lehen haustura ekialdean gertatu zela defendatzen duen hipotesiari helduko diot, hots, Lakarrak (2011 [2014]) eta neurri batean Caminok (2011 [2014]) defendatu dutenari.

### 3.3.1. EBZren haustura mendebaldean

Esan bezala, EBZ mendebaldean hautsi izana da dialektalizazioaren hasierarako egin litezkeen bi hipotesietako bat eta, kuantitatiboki, aldeze gehien izan dituen hipotesitako har liteke, baldin eta aldezeen artean batasunik egongo balitz mendebaldearen definizioan eta metodoetan. Alde horretatik, eta jarraian erakutsiko dudan moduan, hipotesi horren alde egin den ere zalantzan jar daiteke. Aldeze nagusiak Zuazo (2003, 2008, 2010a, 2014), Reguero-Ugarte (2012a, 2012b, 2013), Aldai (2014) eta Abaitua (2018) izan dira.

#### 3.3.1.1. Zuazo (2003, 2008, 2010a, 2014)

Zuazok proposatzen dituen dialektoen balizko sorguneak proposatzen ditu (Zuazo 2003 eta 2008: dialekto bakoitzaren aurkezpenean; 2010a: 165etik aurrera; 2014: 49tik aurrera; 2017: 9tik aurrera), eta, haren arabera, haustura mendebaldean gertatu zen: “Es posible que el alejamiento de Álava y Vizcaya del Reino de Navarra, y su acercamiento al Reino astur, en el siglo VIII, y, más tarde, al Reino de Castilla, tenga algo que ver con este hecho” (Zuazo 2010a: 192). Gainera, neurri handi batean honetan oinarritzen da bereizketa mendebaldean egiteko: “Desde el punto de vista del lingüista, hay únicamente dos dialectos que presentan una personalidad bien marcada, uno en cada extremo del país: el suletino, por un lado, y el occidental o vizcaíno, por el otro” (Zuazo 2010a: 67). Hori, baina, iritzi subjektiboa da eta

Mitxelenak (1981: 298) Lacombe eta Uhlenbecki egindako kritikak ekar ditzake gogora:

Nunca se precisa para quién es tan diferente el vizcaíno [Zuazoren kasuan, men-debaldeko euskara = bizkaiera]. [...] Pero yo no tenía por aquel entonces, pongámonos por 1935-1937, la menor idea del suletino hablado [...]. Habría que ver también, puesto que las consideraciones que se hacen son cuantitativas, si no hay manera de cuantificar las observaciones.

Zer eremu hartzen duen alde batera, ordea, Zuazoren saioek ez dute hausturak non gertatu diren erabakitzeke balio. Izan ere, haren sailkapenak ez dira filogenetikoak, ez du ezaugarriak aukeratzeko irizpide sendorik eta erabiltzen dituen ezaugarriek ez dituzte arestian finkatu irizpideak betetzen. Ikus dezagun, dena den, Zuazok EBZren hausturarako egiten duen proposamena gertuagotik.

Zuazoren lanetan, metodologiaren aipamenak bakanak dira eta esango nuke luzeen 1998ko lanean landu zituela.<sup>15</sup> Hala ere, honela mintzo da bere lanaren helburuez: “[lanak] euskalkietan barreiatuta dauden ezaugarriak oinarritzkoenak eta esanguratsuenak erakustea du muga” (Zuazo 2008: 16). Bistan denez, Zuazoren helburuak eta Bonaparterenak (1863) berak dira. Sailkapen sinkroniko bat bilatzen du, eta ez historia berreraikitzea.

Horrez gain, *berrikuntzak* baizik ez ditu kontuan hartzen (Zuazo 1998: 192), eta arkaismoak —eta hautuak— alde batera uzten ditu. Aldiz, ez da azaltzen zergatik ezin diren arkaismoak —edo hautuak— oinarritzkoak eta esanguratsuak izan; ez da azaltzen zergatik den hizkuntzalaritza historiko-konparatuko bereizketa bat, hau da, berrikuntza/arkaismo bereizketa, ezaugarri asko kanpoan uzteko irizpide bat, XXI. mendeko euskara zertan den deskribatzeko.

Gainera, ez dago berrikuntzaren eta arkaismoaren artean bereizteko irizpiderik, ezta ezaugarri bat berrikuntzat jotzeko arrazoien inguruko gogoetarik. Beharbada hori dela eta, berrikuntzak eta arkaismoak nahas-mahas darabiltza.

Esaterako, Iparraldeko hasperena arkaismotako du. Eta ematen du hasperena aitzin-euskararako berreraiki behar dugula, ñabardura fonetikoak gorabehera (cf. Mantrola & Hualde 2021). Aldiz, egun gordetzen den hasperenak murriztapen zenbait ditu —hasperen bat hitzeko, lehen edo bigarren silaban—, eta horrek ez du zertan aitzin-hizkuntzarekiko arkaismoa izan. Izan ere, ditugun datuekin, ekialde zabal bateko berrikuntza izan daiteke (Urrestarazu-Porta 2021; Egurtzegi & Elordieta 2023: 49-50), eta, beraz, historiatic begiraturik berrikuntza ere izan daiteke. Arkaismoen sailean sartzen ditu, halaber, Erronkari-Zaraitzuetako *gau & kau, gor & kor, gura & kura*. Gorago esan den moduan, eztabaidatu izan da erakusle horiek aspaldiko arkaismoak izan zitezkeela, baina, itxuraz, garai historikoan gertatutako berrikuntzak dira. Beraz, Zuazoren sailkapene(ta)tik berak nahi lituzkeen ezaugarriak ere kanpoan geratu dira.

Halaber, arkaismoak eta horiek hautematen egon daitezkeen okerrez gain, berrikuntza zaharrak ere —batzuk, eta ez guztiak— kanpoan uzten ditu; adibidez, *a + a > ea* disimilazio morfonologikoa aintzat hartzen du, baina zenbait mendez modernoagoa den *egin* laguntzailea kanpoan uzten du, besteak beste *hautu* bezala trata-

<sup>15</sup> Darabilen metodologia gehiago edo gutxiago azaldu, ez dut haren justifikaziorik aurkitu, hau da, zergatik den darabilen metodologia dituen helburuetarako aproposa.

tzen duelako. Zuloagaren (2020: 530-531) arabera, XIII-XIV. mende artekoa da *eginen* gramatikalizazioa eta  $a + a > ea$  baino modernoagoa.

Zuazoren erabaki metodologikoetara itzulirik, hiru irizpide zehazten ditu *berrikuntzak* kontuan hartzeko: (a) hedadura zabala izatea, (b) emankorrak izatea eta (c) egungo euskaran bizirik egotea. Ez dut iragazki horiek hartzeko arrazoirik aurkitu Zuazoren lanetan.

Erabaki metodologiko horiek ikusirik, ondorio zenbait atera daitezke: Zuazorena sailkapen fenetikoa baizik ezin da izan, arkaismoak alde batera utzirik eta (b) eta (c) irizpideak harturik, informazio historikoaren gehien-gehiena ezabatu duelako. Beraz, ezin du ondorio historikorik atera. Bestetik, fenetikoa bada ere, fenetikotasun bixia du, bat-etortzeen kopuru soilak ez diolako axola, baizik eta berak ezarritako irizpideak betetzen dituztenek; *cf.* behera Caminok (2011 [2014]) esandakoak. Gainera, horrek bere helburua ezinezko bilakatzen du, hots, ez da posible “euskalkietan barriatuta dauden ezaugarriak oinarritzkoenak eta esanguratsuenak erakustea” (Zuazo 2008: 16), printzipioz, horretarako berdin duelako berrikuntza edo arkaismoa izateak edo emankorra izateak.

### 3.3.1.2. *Reguero-Ugarte (2012a, 2012b, 2013)*

Zuazok bezala, Reguero-Ugarte (2012a, 2012b, 2013) EBZ osteko hizkuntz egoera bi eremutan bereizirik ikusten du. Berehala hirutan bereizirik ikusten du eta horretarako zenbait ezaugarri proposatzen ditu, hala nola hasperenaren galera eta *-doi & -dui & -di*.<sup>16</sup> Aldiz, lan hau EBZren lehen hausturara mugatzen da eta, beraz, Reguero-Ugarte irudikatzen duen lehen zatiketara eta horretarako proposatzen dituen ezaugarrietara. Reguero-Ugarte aurrerapauso metodologiko (oso handi) bat dakar Zuazoren lanekiko: Erdi Aroko onomastikatik abiatzen da eta, beraz, XVIII. mendeko berrikuntzak milurteko bat lehenagokotako hartzeko arriskua saihesten du. Hau da, iragazki kronologikoa guztiz betetzen du.

Bi eremu bereizten ditu Goi Erdi Aroan: mendebaldekoan, Araba, Bizkaia, Errioxa eta Gipuzkoa eta Nafarroako mendebaldeko zati batzuk sartzen ditu —Zuloagak (2020, 2022) definitzen duen MEZren oso antzekoa hedaturaz—; gainerakoak erdi-ekialdekoan sartzen ditu: Gipuzkoako ekialdea, Nafarroa Garaiko mendebaldeko muturra ez den beste guztia eta Pirinioaz bestaldeko Ipar Euskal Herri osoa. Horrekin, iragazki geografikoa ere betetzen du.

Zatiketa hori egiteko, mend. *u-* (*huri*) : ek. *i-* (*hiri*), mend. *baltz* : ek. *beltz* eta mend. *barri* : ek. *berri* ezaugarrietan oinarritzen da. Horrez gain, gaineratzen du aurrekoen antzeko banaketa dutela ergatibo pluraleko mend. *-ak* : ek. *-ek* eta mend. *-tza* : ek. *-tze* atzizkiek, nahiz eta bi ezaugarri horiek ipar-ekialderago lekukotu. Esan bezala, Zuazoren lanarekiko aurrerapauso metodologikoa oso garrantzitsua da, leku-kotasun zaharrak —Erdi Arokoak— aztertzen dituelako eta dagokion garai historikoan interpretatzen dituelako.

Aldiz, Zuloagarendako (2020: 699, 2022: 65-71) baztergarriak dira mend. *u-* : ek. *i-*, *barri* eta *baltz*. Mend. *u-* : ek. *i-* ezaugarriaren egokitasuna alde batean uzteko

<sup>16</sup> Hasperenaren galeraz eta haren balio sailkatzaileaz, ikusi orain Zuloagaren (2022: 74-80) lana. Aldiz, 2. silabatik aurrerako eta lexema bereko bi hasperenen artean lehenengoak galtzeaz, ikusi Urrestarazu-Porta (2021) eta Egurtzegi & Elordieta (2023).



argudioen artean, Zuloagak (2020: 172. orrialdetik aurrera) aipatzen du hainbat jatorri, garai eta hedaduratako hitzak nahasten direla. Adibidez, *(h)uri* : *(h)iri* bikotea \**her-i* edo \**huri* formatik etorriko litzateke (ikus orain Zuloaga 2022: 68-69); *urten* : *irten* : *erten* edo *ule* : *ile* : *elle* hirukoteak \**eurten* eta \**eule* formatatik etorriko lirateke hurrenez hurren. Hau da, *u-* : *i-* : *e-* < \**e(C)u-* izango genuke (FHV, 465); baina, horrekin batera, *u-* < \**eu-* (< \**eo*) bilakabide orokor eta zaharragoa ere izango genuke: *unhain* : *ulhain* (< \**enonani*; Lakarra 2011 [2014]: 190), *ugatz* (< \**e-o-atz* < \**edo(n)-hatz*; Lakarra 2011 [2014]: 190) eta *uda* (< \**eguda*; Lakarra et al. 2019: 171). Hor-taz, hori guztia bereizirik, item lexiko gutxi batzuei eragiten dieten hainbat bilakabide txiki izango genituzke, sistematikoak ez direnak, eta horrek gehiegizkoa ematen du EBZren haustura sakon bat planteatzeko.

Antzera gertatzen da *baltz* eta *barri* aldaera lexikoekin. Aldaera lexikoak dira eta, are, *e > a* oso ohikoa da, munduko hizkuntzetan, batez ere dardarkari aurrean (Zuloaga 2020: 166-167; 2022: 65-68). Hori dela eta, berrikuntza horiek ez dute berezitasunik eta ez dute banaketa dialektal esanguratsu eta sakonak proposatzeko aproposak ematen.

Laburbilduz, Reguero-Ugartek lan filogenetiko bat egiten du, baina, aukeratu-tako corpusaren izaerengatik, lortzen dituen ezaugarriek ez dute hizkuntz iragazkia betetzen.

### 3.3.1.3. Aldai (2014)

EBZren haustura mendebaldean gertatu zela landu dutenen artean, Aldai (2014) ere sartu behar da. Hedadura diferenteetako ezaugarriak lantzen ditu eta, beraz, ez da argi gelditzen zer hedadura ematen dion mendebal orokorrari: batzuk egun EAE diren hiru probintzietan lekukotutakoak dira, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan alegia —*cf.* eremu hori eta aipatu berri dudana Reguero-Ugartek planteatzen duen eremu zabalagoa—; beste batzuk, ordea, Zuazoren mendebalera, hau da, ohiko (arabera-)bizkaie-rara mugatuago agertzen dira. Gainera, egia da ez duela *expressis verbis* esaten bere ustez EBZren haustura mendebaldeko dialektoen eraketarekin gertatu zela. Hala ere, *ex silentio* besterik ez bada ere, nire ustez Aldairen (2014: 222) hitzok nahiko argiak dira:

Si el origen de los dialectos vascos modernos hay que situarlo a partir de los siglos VI-VII, a más de uno le parecería que la historia de la fragmentación dialectal vasca debería ser bastante fácil de contar; es decir, que casi podemos llegar a abarcarla en el periodo histórico. Sin embargo, aunque efectivamente la dialectalización del euskera es mucho más reciente de lo que hasta hace poco se había llegado a imaginar, la cuestión sigue siendo muy compleja y desconocida.

Nolanahi ere den, lan horretan, Aldaik mendebaldeko euskara —MEZ?— defini-tzen du zenbait hizkuntz ezaugarriren arabera —jarraian jaso ditut—, eta, hedadura (zenbat eta hedadura zabalagoa, orduan eta zaharragoa) eta aldakortasun irizpideetan (zenbat eta aldakortasun txikiagoa, orduan eta zaharragoa) mendebaldeko euskara-ren barruko lau periodo bereizten ditu. Honako kronologia erlatiboa planteatzen du, zaharrenetik berrienera ordenaturik:

1. *-ak* ergatibo plurala, *izan*-en hirugarren pertsonako adizkietako *-a-*, *-ai* datibo plurala, eta geroaldiko *-ko*.


2.  $a + a > ea$  disimilazio morfonologikoa, eta *-adu* eta *-idu* partizipioak.
3. *egin* eta *\*edutsi* laguntzaileen gramatikalizazioak, *-j* bokalerdiaren ondoko palatalizazioa, eta *-eta* aditz-izenak.
4. *-keta* aditz-izenak, objektu zuzenaren pluraleko komunztadura falta, *\*edun-en -u-* Arabako ekialdean.

Euskal hizkuntzalaritza historikoaren eta dialektologia diakronikoaren bide onaz hitz egiten du Aldaik duela sei urte zalantzazkoak zituen zenbait gauza argituz joan izanak. Adibidez, Aldaik (2014: 225-226) eztabaidatzen du ergatibo pluraleko *-ak* edo *-ek* zein izango den arkaismoa eta zein berrikuntza. Manterolak (2015) argitu duenez, berrikuntza ekialdeko *-ek* da eta, beraz, *-ak* MEZeko arkaismo pasibo bateratzailetako har daiteke (Zuloaga 2020, 2022: 80-82). Halaber, Aldaik aipatzen dituen artean,  $a + a > ea$  disimilazioaren eta *-j* bokalerdiaren ondoko palatalizazioaren bilakabideak askoz hobekiago ezagutzen ditugu Zuloagari (2020: 185-191, 2022: 191-206) esker; Erañak (2020b) objektu zuzenaren pluraleko komunztadurarik eza argitu du, eta Leturiagak (2021, 2022) *egin* laguntzailearen hedadura eta kronologia landu ditu Gipuzkoan.

Edozein kasutan, Aldairen (2014) lanak beteko lituzke, geroko ikerketak ekarri dituen interpretazioen aldaketak alde batera, 2. atalean finkatu irizpide metodologikoak. Ezaugarri zaharrak bilatzen ditu —irizpide kronologikoa—, bilatzen dituen ezaugarriek iragazki geografikoa betetzen dute, eta *-j* bokalerdiaren ondoko palatalizazioa alde batera, hizkuntz iragazkia betetzen du.

#### 3.3.1.4. Abaitua (2018)

EBZren haustura mendebaldean gertatu zela defendatu dutenen artean azkena Abaitua (2018) izan da, eta gainerakoak baino harago joan da. Lehen haustura mendebaldean gertatu zela aldarrikatzeaz gain, Abaituak iv. mendetik xvi. menderako dialektalizazioa azaltzeko sailkapen bat proposatu du:



### 3. irudia

Euskararen dialektalizazioa Abaituaren (2018) arabera.  
Iturria: Abaitua (2018: 318)

Abaituaren (2018) proposamenean, EBZ (Abaituaren lanean, *VCA, Vasco Común Antiguo*) Erdi Aroko Mendebaldeko Euskaran (*VOcM, Vasco Occidental Medieval*) eta Erdi Aroko Ekialdeko Euskaran (*VOrM, Vasco Oriental Medieval*) zatitzen da. Bigarren hori, Erdi Aroko Ekialdeko Euskara, halaber, Erdi Aroko Erdialdeko Euskaran (*VCrM, Vasco Central Medieval*) eta, atzera ere, Erdi Aroko Ekialdeko Euskaran hautsiko litzateke. Bukatzeko, Erdi Aroko tarteko egoera horietatik etorriko lirateke dialekto historikoak, elkarren artean gurutzaturik. Hala ere, ez dut argi Abaituaren *VOcM* —MEZ?— linguistikoki zer den eta zer lurralde hartuko lukeen. Izan ere, Arabaz mintzo bada ere, ez du Arabako daturik.

Abaituaren (2018) lanaren kritika nagusiak metodo(logi)ari dagozkio. Larriena —eta gainerakoa alde batera uzteko modukoa— da Abaituak kontrako bidea egiten duela: kanpo-historiako ereduak hartzen ditu —garai zaharrenetarako, Pozo (2016)— eta eredu horrekin bat egin dezakeena bilatzen du xx. mendeko hizkuntzan.<sup>17</sup> Hizkuntzalaritzan bideak kontrakoa izan beharko luke: dauden hipotesiak egiaztatzeko hizkuntzaren azterketa serio batetik abiatu behar da, egin beharreko berreraiketak egin behar dira eta, ondoren baino ez, hipotesiak indartzeko jo daitete hizkuntzaz kanpoko sistemetara. Izan ere, kontrakoak berekin dakar hizkuntzaren historian muina hizkuntza ez izatea, baizik eta hizkuntza egiten duen herria, eta eredu historikoa eroriz gero hizkuntzarena ere eroriko litzateke —*cf.* Barbero & Vigilen (1965) ereduan oinarriturik, EBZ v-vi. mendeetan kokatzeko Mitxelenaren (1981) proposamenarekin gertatutakoa: jada ez dago EBZ v-vi. mendeetan kokatzeko (hizkuntzaz kanpoko) argudiorik, baina EBZren beharrak hor dirau—. <sup>18</sup>

Bestalde, Abaituaren (2018) lanak badu beste arazo bat: ez du euskal ondare filologikoarekin lan egiten, baizik eta 1980ko hamarkadan jasotako *EHH*Ako datuekin. Hau da, iragazki kronologikoa guztiz hausten du. Gainera, *EHH*Ako zatirik handiena aldaera lexikoak dira eta, beraz, hizkuntz iragazkia ere ezin bete lezake.

Gorrotxategik (2013) Mitxelenaren (1963) *Lenguas y protolenguas* egindako iruzkin honek arazoa laburbiltzen duelakoan nago —ikus, halaber, Gorrotxategi 2001, (euskal) hizkuntzalaritza historikoa egiteko metodo eta baliabide estandarrez, eta datazioaren garrantziaz—:

[Q]uien quiera dedicarse a la prehistoria de una lengua y a la reconstrucción de sus fases más antiguas debe conocer perfectamente la historia documentada de esa lengua. Toda reconstrucción realizada por advenedizos, personas que no conozcan bien su historia, será deficiente y correrá el riesgo de proponer hipótesis aventuradas. (Gorrotxategi 2013: 615)

Ez dut uste euskal ondare filologikoaren eta dokumentazioaren gainetik ibili gabe ere Abaituaren (2018) hipotesiak (asko) aldatuko liratekeenik, kanpo-historiatik ateratakoak dira eta. Aldiz, 1980ko hamarkadan bildutako *EHH*Ako isoglosak, hots, datuak, iraganean bere horretan proiektatzen dira, aldatu izan ez balira bezala: balio

<sup>17</sup> Pozoren (2016) ereduan euskalduntze berantiarrantzat oso leku txikia gelditzen bada ere, ikus orain Abaitua (2017) eta Abaitua, Martínez-Areta & Ramos (2022).

<sup>18</sup> Kanpo-historian oinarriturik ere, badaude arreta handiagoaz landu beharreko alderdiak; adibidez, “Álava mira a Asturias y Pamplona a Córdoba” (Abaitua 2018: 317). Izan ere, ez da azaltzen zer den *begiratze* hori eta zer hizkuntz ondorio utzi dituen. Ildo beretik, Zuloaga (2022: 260-262).

pankronikoa ematen zaie. Jauzi logiko hori —xx. mende bukaerako datuak bere horretan iraganean proiektatzea— metodologikoki arazotsua da, xx. mendearen amaierako datuak xx. mendekoak direlako. Abaitua (2018: 304) ere horren jakitun da: “Pero una cosa es la causa de la distribución geolingüística, es decir, la datación de la isoglosa, y otra el momento en que se producen los fenómenos lingüísticos que se recogen en los atlas. Los dos hechos, el origen del fenómeno y la fijación de la isoglosa, no tienen por qué ser sincrónicos”.

Arazotsua dirudi xx. mendeko datuak erabiltzea, dataziorik gabe, eta onarturik kronologia desberdinetakoak daudela eta ez dutela zertan denboran bat etorri.

Gainera, ezaguna dugun hizkuntzaren historiak —baita oin-oharretan jasotzen dituen lanaren ebaluatzaileek ere— horrelako metodoak erabiltzearen arriskuez ohartarazten gaitu. Adibidez, bere lanean 2. patroia x-xii. mendei lotzen zaie, zeintzuetan hau gertatuko litzatekeen: “la reconexión del núcleo de Pamplona con el área occidental” (Abaitua 2018: 302). Interpretazio hori egiten du, patroia hori duten *ezaugarriak* nahiko homogeneoak direlako: Iruñetik ezker mendebalde osoan forma bat agertzen da, eta Iruñetik ekialdera, beste bat. Besteren artean, “*asko / anitz*” eta “*daukat / badut*” mapak erabiltzen ditu Abaituak (2018: 294) mendebalde *vs* ekialde banaketaren erakusgarri. Beharbada, *EHHA* egin zen garaian hori zen banaketa, baina errealitate historikoa oso bestelakoa da.

Lehenengoari dagokionez, *Orotariko Euskal Hiztegia*n begiratu gero, *asko* ia orokorra da, nahiz eta hegoaldekoan maizago erabili. *Anitz* Iparraldeko eta Nafarroa Garaiko tradizioek arrunt dokumentatzen dute, baina, besteak beste, Lazarragak bazerabilen mendebaldean: *Biotzau jo deustazu anetx fletxaz* (Bilbao *et al.* 2020b: 219). Lekukotasunaren fidagarritasuna alde batera, Bonaparterendako itzuli zen Urdiaingo dotrinan ere *anitz* lekukotzen da, xix. mendean eta *EHHA*k dakarrena baino 40-50 kilometro mendebalderago (*cf.* Urrestarazu-Porta 2022 ohar baterako).

Antzera, *\*edun*-en adizkiak ez dira ezezagunak izan mendebaldean duela erlatiboki gutxira arte; xix. mendera arte bai behintzat. Esaterako, Lazarragarenean adibideak aurki daitezke: ez *dot entendimenduric* (Bilbao *et al.* 2020b: 89); baita *Arrasateko erreketan* ere (*TAV*, § 3.1.7): *Gomiz Gonsalu[c]h bertan çan / Beragaz Presebalen caltean / Joanicoc eta beste ascoc / Eudela parte bertan* (34-37), *Oyn arroc çitulan luma / Oçætaco jaun gazteac* (38-39), *Semea, çer doc orrelan?* (43).

Lazarragaren eskuizkribua 1567 eta 1602 artekoa da, xvi. mendearen amaierakoa alegia (Bilbao *et al.* 2020a: 40) —ikusi, halaber, Bilbao *et al.* (2020a: § 2.3.3) eskuizkribuaren datazioaren gorabehera gutzien inguruen berri izateko—. Arrasate 1448. urtean erre zen (*TAV*, 81) eta, beraz, poema ezin da xv. mendearen erdialdearen aurrekoa izan. Gugandik ari gertuago, 1825ekoa den *Antzuolako dotrinan* (Uribe-Etxebarria 2008) ere zenbait adibide aurki daitezke: —*Orrela badozu zuc Ayngueru Guardacua?* —*Bay, Jauna, badot* (22v). Hau da, Abaituak hartutako ezaugarri horiek *EHHA*ko banaketa geografikoa badute, banaketa hori xvi. mendetik hona sortu da —xix. mendetik hona?—, gutxien-gutxienez euskara zahar eta klasikoan (1600-1745), eta ez, Abaituak (2018) aipatzen dituen x-xii. mendeetan. Bestela esanda, *EHHA*ko xx. mendeko datu horiek ez dute garai historikoetarako balio eta, hortaz, are gutxiago balio dute historiaurreko edo, kasu honetan, protohistoriako (Lakarra 1997: 458-459; Mounole & Lakarra 2018: 358-361) garaian inguruan ondorioak

ateratzeko. Hori guztia ikusirik, zilegi da Abaituaren (2018) mendebala (*VOcM*) zer den galdetzea, aipatzen dituen ezaugarriak ez badatoz ondare historikoarekin bat. Ikusi, orain, Zuloaga (2022: 173. oin-oharra), ezaugarri bakoitzaren hedadura geografikoaz eta Camino (2022: 221-222).

Abaituaren (2018) lanak badu beste arazo bat: esan bezala, *EHHA*ko datuetan oinarrizten da, baina datu horiek ez dira beti fidagarriak. Izan ere, Zuazok (2020) eta Coyosek (2020) *Euskalkien Sailkapen Berriari* (Aurrekoetxea *et al.* 2019) egindako kritiketan ikus daitekeen moduan, *EHHA* baliabide lagungarri eta interesgarria da, dokumentazioari dagokionez bederen, baina *Atlasa* egin zen garaiko ajeak ordaintzen ditu: besteak beste, *Atlasa* egin zenean euskal dialektologiaren ezagutza apal xamarra zen, agertzen diren datu asko ez dira fidagarriak eta inkestak egiteko jarraitu zen metodologiak hutsak (eragin) ditu. Abaituaren (2018) proposamenak, beraz, aurretik aipatutakoez gain, muga edo arazo horiek ere baditu datuetan.

Arazo horiek guztiak ikusirik, garrantzia ere galtzen du Erdi Aroko Ekialdeko Euskara (*VOrM*) aldi berean *ama* eta *alaba* izateak, hots, bi garai desberdinetako eta bestelako ezaugarri linguistikoak izan beharko lituzketen bi hizkuntz egoerak deitura bera izateak.

Azkenik, metodologia bereko beste lan bat argitaratu berri du Abaituak (2020), *EHHA*tik ateratako Gipuzkoako zenbait berrikuntzaren inguruan. Metodologia berbera denez, kritika eta arazoak ere berberak dira. Metodologia ez ezik, datuak ere errepikatzen dira: adibidez, gorago iruzkindu ditudan “*asko / anitz*” eta “*eduki / \*edun*” mendebaldea eta ekialdea bereizteko ezaugarrien artean aipatzen ditu berriro ere (Abaitua 2020: 53).

Konpara bitez, helburuen, metodologiaren eta emaitzen aldetik, Abaituaren lana eta liburu berean argitaratutako Ariztimuñoren (2020) eta Reguero-Ugarteren (2020) lanak; lehenengoak gipuzkeraren zenbait ezaugarriren isoglosak nola aldatu diren aztertzen du —Abaituarenean ez du ematen horretarako aukerarik dagoenik ere—, eta bigarrenak goi-nafarrerako zenbait berrikuntzaren kronologia erlatibo-absolutua egiten du lekukotasunetan oinarriturik.

Laburbilduz, Abaituaren (2018) lanak ez ditu 2. atalean finkatutako oinarri metodologikoak betetzen. Hasteko, kanpo historiatik abiatzen da. Darabiltzan datuak xx. mendekoak dira eta, beraz, ez dute iragazki kronologikoa inondik inora betetzen. Gehienak aldaera lexikoak dira eta, beraz, hizkuntz iragazkia ere ez dute betetzen. Azkenik, xx. mendeko datuak erabiltzearen ondorioz, hedadura geografiko historikoak ezin ditu ezagutu, erakutsi bezala aldatu baitira, eta beraz, iragazki geografikoa ezin da ebaluatu.

### 3.3.1.5. *Lehen haustura gertatu zela defendatu dutenen laburpena*

Erakutsi dudana moduan, euskararen lehen haustura dialektala mendebaldean gertatu zela hainbatek proposatu duten arren, oso talde heterogeneoa da eta oro har ez dituzte lehen haustura non gertatu zen ikertzeko irizpide metodologikoak betetzen.

Batetik, mendebala oso desberdin definitzen dute, hizkuntz ezaugarriak alde batera, geografiaren aldetik ere. Zuazorendako (2003, 2008, 2010a, 2014, 2017) *bizkaiera* da —Araba hor sarturik—. Abaituarendako (2018) Iruñea bertatik ezker hasten da. Reguero-Ugarterenak (2012a, 2012b, 2013) eta Aldairenak (2014) badute

Zuloagak (2020) definitu duen MEZren gutxi gorabeherako hedadura: Gipuzkoako ipar-ekialdetik eta Nafarroako mendebaldetik ezker.

Bestetik, Abaituak (2018) eta Zuazok (2003, 2008, 2010, 2014, 2017) ez dute iragazkietako bat bera ere betetzen. Reguero-Ugartek (2012a, 2012b, 2013) iragazki geografikoa eta kronologikoa guztiz betetzen ditu, baina ez hizkuntz iragazkia, oro har corpusaren izaerak ezinbestean aldaera lexikoetara mugarazten duelako. Irizpide guztiak betetzetik gertuen dagoen lana Aldairena (2014) izan daiteke, baina zaharkiturik gelditu da ezaugarriak xeheago aztertuz eta interpretazioak hobetzen joan diren heinean eta, batez ere, Manterolaren (2015) eta Zuloagaren (2020) tesi-lanen ondoren —ikus orain Zuloaga (2022)—; bestalde, gainerakoak ez bezala, Aldairen ikerketaren helburua mendebala da eta, beraz, ez dio gainerako eremuari erreparatzen, ezta EBZren hausturaren inguruko hipotesi agerikorik egiten ere.

### 3.3.2. EBZren haustura ekialdean: Lakarra (2011 [2014]) eta Camino (2011[2014])

Esan bezala, EBZren hausturak bigarren aukera bat du: ekialdean izatea eta, hortik, Mendebal eta Erdialdeko Euskara Zaharra (MErEZ) eta Ekialdeko Euskara Zaharra (EkEZ) sortzea. Hipotesi horren aldeko dira Lakarra (2011[2014]) eta Camino (2011[2014]). Hala ere, Caminok hipotesi hori aldeztzen duela ematen badu ere, ez da Lakarra bezain esplizitua, besteak beste EBZren haustura noiz eta nola gertatu zen ez delako bere helburua. Caminoren (2011[2014]) helburua ekialdeko mintzoen arteko elkar eraginak aztertzea da, zer mintzok partekatzen duten zer ikustea (cf. Lakarraren (2011 [2014]) edo Abaituaren (2018) helburuak).

Horretarako, ezaugarri asko aztertzen ditu eta zer hedadura (izan) duten zehazten du. 140 ezaugarri, berrikuntza, arkaismo eta *hautu* artean.

Aldiz, EBZren haustura ikertzeko, guztiak ez dute ez garrantzi ez zahartasun bera eta Caminok ez du sakontzen berrikuntza bakoitza noizkoa izan zitekeen. Alde horretatik, nolabaiteko fenetikotasuna du Caminoren lanak, banaketa zaharrena zein den argudiatzeko arreta berrikuntzen kopuruan paratzen baitu. Jakina, Caminok (2011[2014]) testuetarako gertatutako berrikuntzak lantzen ditu eta, alde horretatik, azken ondorioa ateratzeko arreta berrikuntzen kopuru handiari erreparatzen badio ere, 2. atalean finkatutako irizpideen arabera jarduten du: testuek ahalbidetzen duten zaharrenak dira eta zein bere garaian tratatzen du, ezaugarri bakoitzaren alderdi geografikoa zehetzen du eta tratatzen dituen ezaugarrietatik askok hizkuntz iragazkia gainditzen dute.<sup>19</sup>

Gainera, Caminok (2011[2014]: 147-148) ohartarazten du “Nortasun berezi hau Zuberoako euskarak noiz garatu zuen zail da jakitea, hau da, Euskara Batu Zaharra izan zen garaitik honat noiztusu hasi zen gauzatzen, baina beharbada ez dagokio hain aldi zaharri, beharbada uste dugun baino berriagoak dira”. Edozein kasutan, ez da ahaztu behar Caminoren lanak beste helburu batzuk dituela eta EBZren hausturaz aipamen txiki bat baizik ez dela egiten.

<sup>19</sup> Ezinezkoa da 140 ezaugarri aztertutik guztiak 2. atalean finkatutako hizkuntz irizpideak gainditzea, batez ere hizkuntzari dagokionez. Adibidez, *ez* + *z-* bilkura ez afrikatzeak ez du ematen bi hizkeraren artean haustura sakon bat proposatzeko erabil daitekeenik (Camino 2011 [2014]: 110-111), baina ez du ematen Caminok horren alde argudiatzeko erabiltzen duenik ere.

Bestalde, hausturarako ezaugarri on batekin nahikoa da (Bowern & Koch 2004), finkatu ditugun irizpideak gaintzen baditu behintzat, eta horretan saiatzen da Lakarra (2011 [2014]). Lakarraren arabera, *n* eta *l* ondoren herskari ahoskabeak izatea (*T /n, l\_*) EkEZ definitzeko berrikuntza oso zaharra da, Guiterren (1989) kronologian oinarriturik 300. urtearen ingurukoa hain zuzen, eta, beraz, iragazki kronologikoa beteko luke. Lakarrak (2011 [2014]) defendatzen duen hipotesiaren abiapuntua Mitxelenaren (*FHV*, 355) hitzok dira:

Hay dos maneras de interpretar estos hechos [hau da, *T /n, l\_*]. Las más natural parece pensar que en vascuence se ha llegado a neutralizar la oposición sorda / sonora detrás de nasal y *l* sonorizando en esa posición las oclusivas sordas con posterioridad a la introducción de los primeros préstamos latinos: *ronc.* y *sul.* serían por tanto dialectos arcaizantes que han conservado mejor el antiguo estadio de cosas. Pero acaso se pueda suponer también que se trataba de un tipo de lengua en que la oposición quedaba suspendida en esos contextos, en los cuales las oclusivas se pronunciaban uniformemente sonoras (o lenes). En este supuesto, las nuevas formaciones y los préstamos que presentaban grupos formados por nasal o *l* + oclusiva se seguirían acomodando por bastante tiempo al tipo normal, siendo el roncalés y el suletino [uler bedi EkEZ, hots, eronkariera eta zuberera eman zituen aitzin-dialektoa] los dialectos que primero abandonaron esta práctica. Esto quiere decir, naturalmente, que *alte* y *galte* p.ej. eran palabras complejas que habría que analizar *al-te* y *gal-te* del mismo modo que según toda probabilidad *igante* era *igan-te*.

Lakarraren (2011 [2014]: 205-206) arabera, Mitxelenak proposatzen dituen balizko bi interpretazioetan bigarrena da ona, nahiz eta Mitxelenak ez zuen bide hori inoiz garatu. Hitz barruan fonologikoki ahulak ziren herskariak jatorriz AEn fonetikoki ahostunak zein ahoskabeak izan, *fortis/lenis* sistematik ahostun/ahoskabe sistemara igaro ondoren, ahostunak ziren. Aldiz, txistukari ondoren ahoskabetuko lirateke —eta beharbada diptongo ondoren—: *D > T/S\_*.

Ahoskabetze hori orokorra da euskaraz, baina, EkEZn, txistukariaren eraginez ahoskabeturiko forma horiek oinarritzko morfematzat jo, eta gainerako testuinguruetara hedatuko lirateke, baita *n* eta *l* ondora ere. Horrela ikusirik, berrikuntza berezia genuke, eta ez hots-aldaketa arruntzat hartu beharko litzatekeen *T > D /n, l\_* gertatzea. Izan ere, Blevinsen (2004: 109) hots-aldaketaren teoriaran koartikulazioaren eraginez gertatutako hots-aldaketa fonetikoki *naturala* litzateke herskari ahoskabeak ahostuntzea.<sup>20</sup> Beraz, hizkuntz iragazkia aseturik geldituko litzateke. Ondoko

<sup>20</sup> Sudurkari ondoko ahostuntzeari dagokionez, Coetzee & Pretorius-en (2010: 405) arabera, aho-sabai-errezela beste organo artikulatzaile batzuekin alderaturik poliki mugitzen da eta, beraz, normala litzateke ondoko herskaria ebakitzen hasterako oraindik itxi gabe egotea. Berdin, ahots-kordek ez diote bat-batean dar-dar egiteari uzten eta hori ere ondoko herskaria ahostuntzearen alde doa. Coetzee & Pretoriusen sudurkari ondoko herskariaren ahoskabetze kasu bat izan daitekeen bilakabide bat aztertzen dute, tswana hizkuntzan; tswana Botswanan, Namibian, Zinbawen eta Hego Afrikan hitz egiten den hizkuntza hego-bantu bat da. Hizkuntza horretan, ahoskabeak garatzen direla aldarrikatzen dute egileek, nahiz eta niri prozesu fonetiko edo fonologikoa dela sinesgaitza egiten zaidan, besteak beste morfema mugan gertatzen delako eta idatziak eragindako aldaketa izan daitekeelako ikertzen dutena <mp> idatzen baita —ikusi, halaber, Coetzee & Pretoriusen laneko erreferentziak sudurkari ondoko ahostuntzearen eta balizko zenbait ahoskabetzeren berri izateko—. Era berean, Azler Garcia-Palominori eskerrak eman nahi dizkiot, lan honetan aipatu ez ditudan *n* eta *l* ondoko ahostuntzearen beste zenbait lanen berri emategatik.

ikerketek, ordea, *n* eta *l* ondoko herskariak ahoskabetzea berrikuntzat jo badute ere, zahartasunaren kontra egin dute, batez ere Etxart-Ros gutunieratik abiaturik (Etxart & Ros 1616-1617). Urrestarazu-Porta (2021) eta Rojo (2022a, 2022b) izan dira zahartasun horri kontra egin diotenak.

Urrestarazu-Portaren (2021) arabera, ekialdeko *n* eta *l* ondoko herskariak ahoskabetzea gaskoiaren ukipenaren bidez uler daiteke, Saroihandyren (1913: 495) bidetik: “le souletin a remplacé la sonore primitive par la sourde, et l’on est à peu près obligé d’admettre que ce changement s’est fait sous l’influence des parlers de la Plaine béarnaise”. Gaskoiz latineko *n* eta *l* ondoko herskari ahoskabeak ahostundu ziren, euskal substratuaren eraginagatik edo, Rohlfen hitzetan, “l’influence de l’ancien substrat indigène” deituarengatik (Saroihandy 1913; Rohlf 1977: 140-141). Printzipioz, berrikuntza hori gaskoi eremu osoan gertatu zen (Rohlf 1977: 137) eta VII. mendearen aurretik buruturik zegoen (Rohlf 1977; Chambon & Greub 2002). Lakarraren (2011[2014]) proposamenean, inguru osoan, euskaldunean zein erromantzatuan, gertatzen ari zen berrikuntza horren kontra ibiliko litzateke euskal ekialdea, lehenik orduko euskal sistemak eskatu bezala ahoskabeak ahostuntzen eta berehala ahoskabeak garatzen.

Hala ere, Urrestarazu-Portaren (2021) arabera badaude Saroihandyren interpretazioaren eta ahoskabeen berritasunaren alde egiteko argudioak, nahiz eta erabatekoak izan ez. Batetik, ekialdeko muturreko mintzoetan izan da gaskoiaren eragina nabarmena eta hizkuntzaren maila guztietan eragin du: fonologian, /y/ sartu da, baita *-î* & *-û* amaiera sudurkaria mailegutan (adib. *arrazû* ‘arrazoi’); morfosintaxian, *-a* galdera morfema edo *-i* saileko partizipio berriak; eta, jakina, lexema ugari hartu dira maileguan (ikusi Padilla-Moyano 2017, eta lan horretako erreferentziak xehetasun gehiagorako). Alde horretatik, mailegatze harreman horretako beste elementu bat besterik ez litzateke izango. Kontrakoak, esan bezala, suposatuko luke oso garai zaharretan ekialdeko mintzoek inguruko guztiei kontra egin zitelera, maileguei dagokien azken ondorioa inguruko berbera izateko; hots, etimologikoki ahoskabea dagokionean, ahoskabea, eta, ahostuna dagokionean, ahostuna.

Kronologiara joanez, gaskoiz bi fase bereizi behar dira, nahiz eta Urrestarazu-Porta (2021) ez den bi faseak bereizteko beharraz ohartzen eta analisisa hiperzuzenketari baizik ez dion lotzen: lehenengoan, hiperzuzenketak egin ziren eta, bigarrenean, etimologikoki zegozkien ahostunak berreskuratzen joan ziren, okzitanierarekin guztiz berdinduz. Berdintzeak hiperzuzenketen ondorengoa izan behar du, baina hiperzuzenketek ez dute datazio finik: Urrestarazu-Portaren (2021: 61) arabera VII-XII. mendeen artekoak dira eta, beraz, berdintzea ondorengoa. Aldiz, XIII. mendean badira forma hiperzuzenduen adibideak (Baldinger 1958: 69-74) eta, hortaz, prozesua noiz hasi zen gorabehera, ordurako okzitanierarekin berdintzea guztiz hedaturik ez zegoela pentsatu behar da. Zuberoan ez dago hiperzuzenketa adibide ezagunik eta, beraz, maileguak gaskoiz lekukotzen den bigarren fasekoak lirerate: maileguen ahostuntasunak latinez zuten ahostuntasunarekin egiten du bat. Beharbada kronologia hori (XIII. mendearen ingurukoa) ongi doa gaskoitik ekialdeko mintzoetarako beste maileguentzat proposatu diren kronologiekin; adibidez, XIV. mende inguru */y/-rentzat* (Peillen 1991; Egurtzegi 2017).

Bestetik, Zuberoarekin mugan dauden Aspeko eta Baretetzeko haran gaskoietan eutsi zaie hobekien *n* eta *l* ondoko ahostunei (Saroihandy 1913; Rohlf 1977). Ekial-



deko euskal mintzoetan maileguetako *n* eta *l* ondorengo herskariek etimologikoki zegokien ahostuntasuna ukipenagatik berreskuratu bazuten, eragina *berankorra* zela pentsa daiteke, inguruko haran bearnesetan bezala.

Azkenik, berankortasunaren aldeko argudiorik hoberenak ditugun lekukotasunak berak dira. Izan ere, arestian aipatutako Etxart-Ros gutunerian ahostunaren adibideak aurki daitezke, eta, lekukotasun horretatik kanpo ere, ahostunaren adibideak aurki daitezke. Belapeirek, gordetzen dugun Zuberoako egilerik zaharrenetako batek, *alde* zerabilen (Camino 2011[2014]: 104) eta toponimian biak aurki daitezke: *elizalde* eta *elizalte* (Orpustan 2019: 151), Altzürükun *Uhalde* eta *Uhalte* (Orpustan 2019: 305) eta Atharratzen *Uhalde* eta *Duhaut* gaskoitua (Orpustan 2019: 311); Urrestarazu-Portaren (2021: 63) arabera, toponimiako *-arte-k n* eta *l* ondoko ahoskabeak indartzen lagundu zezakeen, baina beharbada *-alt & -aut* kognatu gaskoituen eragina ere ez da alde batera utzi behar. Ahostunaren lekukotasunak, printzipioz, ahoskabeen zahartasunaren alde egin beharko luke, baldin eta azken urteotan gailentzen ari den berrikuntzak direlako hipotesia zuzena bada.

Horrez gain, Urrestarazu-Portak (2021: 63) ohartarazten duenez, alomorfoak egungo hizkuntzan ere bizirik daude (*ongi* vs *gaizki*) eta horrek berranalisiertarako atea zabalik uzten du. Izan ere, euskal hizkera askotan daude herskari ahoskabeak *n* eta *l* ondoren; adibidez, prospektiboko morfema *-ko* da egun Burundan helduen artean (*pa[ra]tuko* eta *emanko*), baina oso berrikuntza modernoa da edadekoek *-en l -ko* oposaketari eusten diotelako, hau da, *pa[ra]tuko* eta *emain* < *emanen* esaten dute (Zuazo 2010b). Antzeko prozesu batek lagundu zezakeen ekialde murrizteko *nonko* eta *alte* bezalakoak sortzen eta finkatzen Urrestarazu-Portaren (2021) arabera.

Bestalde, Rojok (2022a, 2022b) ere berrikuntzat du *n* eta *l* ondoko ahoskabeen hedatzea, baina ez dator Urrestarazu-Portaren (2021) argudioekin guztiz bat, prozesua euskaraz orokortzat baitu, gaskoieratik aske, eta, beraz, euskal dialektoen artean gradu desberdintasun bat ikusten du.

Euskal Herri osoko lekukotasunak aztertutik, Rojok nabarmentzen du *n* eta *l* ondoko ahoskabeak dialekto guztietan dokumentatzen direla, maileguetan zein ondare zaharreko hitzetan, eta beraz Urrestarazu-Portak (2021: 63) ondareko hitzetan nabarmendutako alternantziak maileguetara ere hedatzen ditu. Ondarekoetan zaharrak ahostunak izanik, ahoskabeek ahostunaren lekua hartzen joatea joera orokortzat du, joera hori ekialdeko mintzoetan indartu delarik. Gauzak horrela, berrikuntzak esklusibotasuna galduko luke eta, beraz, kronologia alde batera utzirik ere, ez luke EBZren haustura bat planteatzeko balioko.

EBZren haustura ekialdean gertatu dela defendatu duten lanak laburbiltzeko, erakutsi dut lan fenetiko eta filogenetiko bana egin direla. Hala ere, Caminorena (2011[2014]) ez da guztiz fenetikoa. Izan ere, azken ondorioa —lehen haustura ekialdean gertatu zen— aldarrikatze ezaugarrien kopuruan paratzen du arreta, baina ezaugarrien azterketa guztiz historikoa da eta, oro har, aztertzen dituen ezaugarriek iragazki kronologikoa, geografikoa eta hizkuntzazkoa betetzen dute. Bestetik, Lakarrarena (2011 [2014]) guztiz filogenetikoa da eta *a priori* iragazki guztiak betetzen dituen ezaugarri bat proposatzen du lehen hausturarako, ondoko ikerketek kronologia berriagoa proposatu duten arren (Urrestarazu-Porta 2021; Rojo 2022b).

#### 4. Ondorioak

Lanaren lehen zatian (§ 2), aitzin-hizkuntzen hausturak ikertzeko jarraitu beharreko metodologia finkatu dut, inguruko tradizio ikertuenean tradizioetan oinarriturik. Batetik, filogenia eta fenetika bereizi ditut, eta lehenengoa defendatu dut, ondorio historikoak ateratzeko bide bakar bezala (§ 2.1). Jarraian, argudiatu dut irizpide nagusia berrikuntzak izan behar direla, arkaismo bateratzaileen laguntzaz. Horrekin batera, erakutsi dut berrikuntzek iragazki hauek gainditu behar dituztela analisisetan erabilgarriak izateko: iragazki kronologikoa, geografikoa eta hizkuntzazkoa (§§ 2.2-2.5). Lehen atalarekin amaitzeko, zuhaitz eredu aldarrikatu dut dialektoen arteko filiazio hipotesiak irudikatzen diren bide bakar bezala eta egin zaizkion kritiken hutsak nabarmendu ditut (§ 2.6).

Bigarren zatian (§ 3), Euskara Batu Zaharraren hausturaren inguruan egin diren hipotesiak berrikusi ditut, aurreko atalean ezarritako irizpide metodologikoak betetzen dituzten ikusteko. Bi taldetan banandu ditut, lehen haustura mendebaldean (§ 3.3.1) eta lehen haustura ekialdean (§ 3.3.2) defendatu dituztenak. Aldiz, erakutsi dut lehen haustura mendebaldean gertatu zela hobetsi dutenek ez dituztela beharrezko oinarri metodologikoak betetzen, salbu eta Aldaik (2014), nahiz eta berak agerian lehen hausturaren inguruko hipotesirik ez duen egiten. Bestetik, elkarren artean ere heterogeneotasun handia dago, bai mendebaldearen definizioan, bai metodoetan ere. Bestetik, lehen haustura ekialdean aldarrikatu dutenen artean, Camino (2011[2014]) bat-etortzeen kopuruan oinarritzen da lehen haustura ekialdean gertatu zela aldarrikatzeko eta, beraz, fenetikotasunetik gertu egiten du. Lakarrak (2011[2014]), aldiz, berrikuntza zahar eta bereizle bat proposatzen du, lehen haustura ekialdean gertatu zela aldarrikatzeko eta, beraz, badabil erabili beharreko irizpide metodologikoen barruan, geroko ikerketek beste kronologia batzuk proposatu badiutuzte ere. Beste baterako gelditzen da dagozkion metodoekin lehen haustura mendebaldean gerta zitekeen proposa daitekeen ikustea.

#### Erreferentziak

- Abaitua, Joseba K. 2017. La historia interna de la vasconización tardía: préstamos y neologismos. In Emiliana Ramos & Ander Ros (arg.) *Onomastika, hizkuntza eta historia. Ricardo Cierbideren omenezko estudioak*, 293-314. Bilbo: Onomastika Elkartea.
- Abaitua, Joseba K. 2018. Patrones geolingüísticos, áreas dialectales y cronologías absolutas del EHHA. *FLV* 126. 283-322. <https://doi.org/10.35462/FLV126.2>.
- Abaitua, Joseba K. 2020. Periodización dialectal y cronologías de algunos guipuzcoanismos del EHHA. In Iñaki Camino, Xabier Artiagoitia, Irantzu Epelde & Koldo Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena*, 33-56. Bilbo: UPV/EHU.
- Abaitua, Joseba K., Mikel Martínez-Areta & Emiliana Ramos. 2022. El euskera en la Tar-doantigüedad. Expansión a occidente y dialectalización. *Paleohispanica* 22. 47-84. <https://doi.org/10.36707/paleohispanica.v22i0.437>.
- Aldai, Gontzal. 2014. Hacia una periodización de la fragmentación del euskera occidental. *FLV* 118. 221-245. <http://doi.org/10.35462/flv118.1>.
- Anthony, David. 2007. *The horse, the wheel and language. How Bronze-Age riders from the Eurasian steppes shaped the Modern World*. Princeton: Princeton University Press.

- Ariztimuño, Borja. 2020. Gipuzkoako euskara zaharre(ta)tik *erdialdeko euskarara*: isoglossen diakroniaz. In Iñaki Camino, Xabier Artiagoitia, Irantzu Epelde & Koldo Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena*, 57-66. Bilbo: UPV/EHU.
- Aurrekoetxea, Gotzon, Iñaki Gaminde, José Luis Ormaetxea & Xarles Videgain. 2019. *Euskalkien sailkapen berria*. Bilbo: UPV/EHU.
- Bakker, Peter. 2020. Distant genetic relations: is Basque related to Indo-European? *FLV* 130. 563-592. <https://doi.org/10.35462/flv.130.8>.
- Baldinger, Kurt. 1958. Die hyperkorrekten Formen als Konsequenz der Scripta im Altgaskognischen. In Heinrich Lausberg & Harald Weinrich (arg.), *Romanica. Festschrift für Gerhard Rohlfs*, 57-75. Halle (Saale): Max Niemeyer.
- Barbero, Abilio & Marcelo Vigil. 1965. Sobre los orígenes sociales de la reconquista: cántabros y vascones desde fines del Imperio Romano hasta la invasión musulmana. *Boletín de la Real Academia de la Historia* 156(2). 271-339.
- Bartoli, Matteo. 1925. *Introduzione alla Neolinguistica (principi - scopi - metodi)*. Geneva: L.S. Olschki.
- Bilbao, Gidor, Ricardo Gómez-López, Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Céline Mounole & Blanca Urgell. 2020a. *Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa. I. Sarrera, gramatika, hiztegia eta adizkitegia*. Bilbo: UPV/EHU.
- Bilbao, Gidor, Ricardo Gómez-López, Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Céline Mounole & Blanca Urgell. 2020b. *Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa. II. Testua*. Bilbo: UPV/EHU.
- Blevins, Juliette. 2004. *Evolutionary phonology. The emergence of sound patterns*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Blevins, Juliette. 2018. *Advances in Proto-Basque reconstruction with evidence for the Proto-Indo-European-Euskarian hypothesis*. Londres & New York: Routledge.
- Blevins, Juliette & Ander Egurtzegi. 2017. Unexpected obstruent loss in initial obstruent-sonorant clusters: an apparent example from Basque. *Phonology* 34(3). 507-522. <https://doi.org/10.1017/S0952675717000264>.
- Bloomfield, Leonard. 1933. *Language*. New York: Henry Holt & Company.
- Boberg, Charles, John Nerbonne & Dominic Watt (arg.). 2018. *The handbook of dialectology*. Oxford: Wiley Blackwell.
- Bonaparte, Louis-Lucien. 1863. *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés*. Londres: Drawn.
- Bowern, Claire. 2006. Punctuated equilibrium and language change. In Keith Brown (arg.), *Encyclopedia of Language and Linguistics*, 286-289. Amsterdam: Elsevier.
- Bowern, Claire. 2010. Historical linguistics in Australia: Trees, networks and their implications. *Philosophical Transactions of the Royal Society of Biological Sciences* 365. 3845-3854. <https://doi.org/10.1098/rstb.2010.0013>.
- Bowern, Claire & Harold Koch. 2004. Introduction: Subgrouping methodology in historical linguistics. In Claire Bowern & Harold Koch (arg.), *Australian languages. Classification and the comparative method*, 1-16. Amsterdam: John Benjamins.
- Brugmann, Karl. 1967. *Einleitung und Lautlehre: vergleichende Laut-, Stammbildungs-, und Flexionslehre der indogermanischen Sprachen*. Berlin & Leipzig: Walter de Gruyter (1. argit., 1886).
- Camino, Iñaki. 2008. Dialektologiaren alderdi kronologikoaz. *FLV* 108. 209-247.

- Camino, Iñaki. 2009. *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.
- Camino, Iñaki. 2011 [2014]. Ekialdeko euskararen iraganaz. In Irantzu Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina (ASJUren Gehigarriak 69)*, 87-153. Bilbo: UPV/EHU.
- Camino, Iñaki. 2022. *Aztergaiak Ipar Euskal Herriko euskararen berrikuntzez*. Leioa: UPV/EHU.
- Camino, Iñaki, Xabier Artiagoitia, Irantzu Epelde & Koldo Ulibarri (arg.). 2020. *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena*. Bilbo: UPV/EHU.
- Campbell, Lyle. 2006. Languages and genes in collaboration: Some practical matters [pdf]. Eskuizkribu argitaragabea. [https://www.researchgate.net/publication/242485255\\_Languages\\_and\\_Genes\\_in\\_Collaboration\\_some\\_Practical\\_Matters](https://www.researchgate.net/publication/242485255_Languages_and_Genes_in_Collaboration_some_Practical_Matters) (2023-03-20).
- Campbell, Lyle. 2013. *Historical linguistics: An introduction*. Edinburgh: Edinburgh University Press (1. argit., 1998).
- Chambon, Jean-Pierre & Yan Greub. 2002. Note sur l'âge du (proto)gascon. *Revue de linguistique romane* 66. 473-495.
- Coetzee, Andries W. & Rigardt Pretorius. 2010. Phonetically grounded phonology and sound change: The case of Tswana labial plosives. *Journal of Phonetics* 38. 404-421. <https://doi.org/10.1016/j.wocn.2010.03.004>.
- Coyos, Jean-Baptiste. 2020. Erreseina: *Euskalkien sailkapen berria*. *FLV* 129. 301-314. <https://doi.org/10.35462/FLV129.10>.
- Dixon, Robert M. W. 1997. *The rise and fall of languages*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Dixon, Robert M. W. 2002. *Australian languages: Their nature and development*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Egurtzegi, Ander. 2017. Phonetically conditioned sound change. Contact induced /u/-fronting in Zuberoan Basque. *Diachronica* 34(3). 331-367. <https://doi.org/10.1075/dia.34.3.02egu>.
- Egurtzegi, Ander & Gorka Elordieta. 2023. A history of the Basque prosodic systems. *Diachronica* 40(1). 30-72. <https://doi.org/10.1075/dia.20066.egu>.
- Eraña, Ane. 2020a. *Arabako euskararen dialektalizazioarantz: aditz-morfologia aztergai*. Gasteiz: UPV/EHUko Master Amaierako Lana.
- Eraña, Ane. 2020b. *Jagin aditz laguntzaile ditrantsitiboa aztergai*. In Iñaki Camino, Xabier Artiagoitia, Irantzu Epelde & Koldo Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena*, 229-244. Bilbo: UPV/EHU.
- Etxart, Gabriel & Miguel Ros. 1616-1617. *Gutuneria* (Gidor Bilbao, Ricardo Gómez, Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Céline Mounole & Blanca Urgellen edizio-zirriborro argitaragabea, Gasteiz: UPV/EHU, 2013).
- Forni, Gianfranco. 2013. Evidence for Basque as an Indo-European language. *The Journal of Indo-European Studies* 41(1-2). 39-180.
- Gorrotxategi, Joakin. 2001. Planteamientos de la lingüística histórica en la datación del euskara. In Eusko Ikaskuntza (koord.), *XV Congreso de Estudios Vascos. Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak*, 103-114. Donostia, Iruñea & Baiona: Eusko Ikaskuntza.
- Gorrotxategi, Joakin. 2013. Sobre *Lenguas y protolenguas*. In Ricardo Gómez, Joakin Gorrotxategi, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Bilztzara*, 613-642. Gasteiz: UPV/EHU.

- Gorrotxategi, Joakin & Joseba A. Lakarra. 2013. Why Basque cannot be, unfortunately, an Indo-European language. *The Journal of Indo-European Studies* 41(1-2). 203-237.
- Gorrotxategi, Joakin, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.). 2018. *Euskararen historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- Greenberg, Joseph H. 1957. The problem of linguistic subgroupings. In Joseph H. Greenberg, *Essays in linguistics*, 46-55. Chicago: University of Chicago Press.
- Guitier, Henri. 1989. Elementos de cronología fonética del vascuence. *ASJU* 23(3). 797-800.
- Harrington, Jonathan, Michele Gubian, Mary Stevens & Florian Schiel. 2019. Phonetic change in an Antarctic winter. *The Journal of the Acoustical Society of America* 146. 3327-3332. <https://doi.org/10.1121/1.5130709>
- Hock, Hans H. 1991. *Principles of historical linguistics*. Berlin & New York: Mouton de Gruyter.
- Hockett, Charles F. 1958. *A course in modern linguistics*. New York: MacMillan Company.
- Jacques, Guillaume & Johann-Mattis List. 2019. Save the trees: Why we need tree models in linguistic reconstruction (and when we should apply them). *Journal of Historical Linguistics* 9(1). 128-167. <https://doi.org/10.1075/jhl.17008.mat>.
- Labov, William. 2020. The regularity of regular sound change. *Language* 96(1). 42-59. <https://doi.org/10.1353/lan.2020.0001>.
- Lakarra, Joseba A. 1997. Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. *ASJU* 31(2). 447-535.
- Lakarra, Joseba A. 2011 [2014]. Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz. In Irantzu Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina (ASJUren Gehigarriak 69)*, 155-241. Bilbo: UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba A., Julen Manterola & Iñaki Seguro. 2019. *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa (EHHE-200)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Leturiaga, Olatz. 2021. Gipuzkoako osagarri pluraldun adizki triperzonalen erroez. *ASJU* 53(1-2). 127-162. <https://doi.org/10.1387/asju.22414>.
- Leturiaga, Olatz. 2022. NORK-NOR saileko *egin*-en hedadura geografikoa Gipuzkoan: ondorio batzuk testu zaharren azterketatik. *ASJU* 56(1). 1-42. <https://doi.org/10.1387/asju.23401>.
- Manterola, Julen. 2015. *Euskararen morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia. <http://hdl.handle.net/10810/15848>.
- Manterola, Julen & José Ignacio Hualde. 2021. Old Basque had \*/ɣ/, not /h/. Medieval data, implications for reconstruction and Basque-Romance contact effects. *Journal of Historical Linguistics* 11(3). 421-456. <https://doi.org/10.1075/jhl.19041.man>.
- McConvell, Patrick & Claire Bowern. 2011. The prehistory and internal relationships of Australian languages. *Language and Linguistics Compass* 5(1). 19-32. <https://doi.org/10.1111/j.1749-818X.2010.00257.x>.
- Meillet, Antoine. 1984. *Les dialectes indo-européens*. Paris: Librairie Honoré Champion (1. argit., 1908).
- Mitxelena, Koldo. 1951. La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de André Martinet. *BAP* 7. 571-582 (Berrargit. *OC* 7, 33-46).
- Mitxelena, Koldo. 1961. *Fonética histórica vasca (ASJUren Gehigarriak 4)*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (2. argit. osatua, 1977. Berrargit. *OC* 6).

- Mitxelena, Koldo. 1963. *Lenguas y protolenguas*. Salamanca: Acta Salmanticensia. (Berrargit. OC 1, 1-98).
- Mitxelena, Koldo. 1964a. *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Donostia: Auñamendi (Berrargit. OC 5, 1-116).
- Mitxelena, Koldo. 1964b. *Textos arcaicos vascos*. Madril: Minotauro (Berrargit. OC, 12, 1-197).
- Mitxelena, Koldo. 1981. Lengua común y dialectos vascos. *ASJU* 15. 291-313 (Berrargit. OC 7, 517-544).
- Mounole, Céline. 2014 [2018]. *Le verbe basque ancien: étude philologique et diachronique (Monumenta linguae Vasconum: Studia et Instrumenta 6)*. Bilbo: UPV/EHU (= *ASJU* 48).
- Mounole, Céline & Joseba A. Lakarra. 2018. Euskara arkaikoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua, & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 345-468. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Ohalá, John. 1993. The phonetics of sound change. In Charles Jones (arg.), *Historical linguistics: Problems and perspectives*, 237-278. Londres: Longman.
- Ondartza, Iker. 2022. Zenbait ezaugarri araberaren definiziorako. *ASJU* 56(1). 121-148 <https://doi.org/10.1387/asju.23151>.
- Orpustan, Jean-Baptiste. 2019. *Les noms de maisons médiévales en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Baigorri: Izpegi.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2017. *Zuberoako euskararen azterketa diakronikoa: XVI-XIX. mendeak*. UPV/EHUko & Université Bordeaux Montaigneko doktorego tesia.
- Peillen, Txomin. 1991. Zubereraren bilakaeraz ohar batzuk. In *Nazioarteko dialektologia biltzarra. Agiriak*, 247-272. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Petit, Daniel. 2007. Archaïsme et innovation dans les langues indo-européennes. In Alain Lémarchal & Jacques François (arg.), *Tradition et rupture dans les grammaires comparées de différentes familles de langues*, 13-55. Paris: Mémoires de la Société de Linguistique de Paris.
- Pozo, Mikel. 2016. *Vasconia y los vascones de la crisis del Imperio romano a la llegada del Islam (siglos V-VIII). Evolución sociopolítica y génesis de la "gens effer"*. Gasteiz: UPV/EHUko doktorego tesia. <http://hdl.handle.net/10810/34611>.
- Reguero-Ugarte, Urtzi. 2012a. *Erdi Aroko euskara: dialektalizazioaren hastapenerantz*. UPV/EHUko Master Amaierako Lana.
- Reguero-Ugarte, Urtzi. 2012b. Erdi Aroko euskararen historia kanpotik eta barnetik. *ASJU* 46(2). 63-160.
- Reguero-Ugarte, Urtzi. 2013. Euskararen dialektalizazioaren hastapenarantz: konbergentzia eta dibergentzia prozesuak Erdi Aroan. In Ricardo Gómez, Joakin Gorrotxategi, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra*, 431-444. Gasteiz: UPV/EHU.
- Reguero-Ugarte, Urtzi. 2019. *Filologiatik dialektologiara Nafarroako euskarazko testu zaharretan barrena (1416-1750) (ASJUren Gehigarriak 71)*. Bilbo: UPV/EHU.
- Reguero-Ugarte, Urtzi. 2020. Euskara nafarrari diakroniatik begira. In Iñaki Camino, Xabier Artiagoitia, Irantzu Epelde & Koldo Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena*, 617-630. Bilbo: UPV/EHU.
- Ringe, Don. 2009. The linguistic diversity of aboriginal Europe. *Language Log* [bloga]. 2009-01-06. <https://languagelog.ldc.upenn.edu/nll/?p=980> (2023-03-25).

- Ringe, Don & Joseph F. Eska. 2011. Beyond comparative reconstruction: subgrouping and “long-distance” relationships. In Don Ringe & Joseph F. Eska, *Historical linguistics. Towards a twenty-first century reintegration*, 256-290. Cambridge: Cambridge University Press.
- Rohlf, Gerhard. 1977. *Le gascon. Études de philologie pyrénéenne*. Tübingen: Max Niemeyer (1. argit. 1933).
- Rojo, Leyre. 2022a. /RT/ taldeen bilakabide diakronikoa eta erronkarieraren lekukotasuna: irudia(k) fintzen. UPV/EHUko Gradu Amaierako Lana.
- Rojo, Leyre. 2022b. [n-/l- + herskari] taldeen bilakabide diakronikoa eta erronkarieraren lekukotasuna: irudia(k) fintzen. *ASJU* 56(2). 143-167. <https://doi.org/10.1387/asju.24107>.
- Salaberri-Zaratiegi, Patxi. 2011. Pirinioetako euskal toponimoak: direnak eta diratekeenak. In Andoni Sagarna, Joseba A. Lakarra & Patxi Salaberri-Zaratiegi (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: oraina eta lehena. Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra*, 1019-1048. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Saroihandy, Jean-Joseph. 1913. Vestiges de phonétique ibérienne en territoire roman. *RIEV* 7(4). 475-497.
- Schleicher, August. 1953. Die ersten Spaltungen des indogermanischen Urvolkes. *Allgemeine Monatsschrift für Wissenschaft und Literatur* 3. 786-787. <https://archive.org/details/DieErstenSpaltungenDesIndogermanischenUrvolkes/> (2023-03-25).
- Schleicher, August. 1961. *Compendium der vergleichenden Grammatik der indogermanischen Sprachen*. Weimar: Hermann Böhlau. <https://archive.org/details/compendiumderve06schlgoog/> (2023-03-25).
- Schmidt, Johannes. 1872. *Die Verwandtschaftsverhältnisse der indogermanischen Sprachen*. Weimar: Hermann Böhlau.
- Schuchardt, Hugo. 1900. *Über die Klassifikation der romanischen Mundarten. Probevorlesung gehalten zu Leipzig am 30. April 1870*. Graz: Styria.
- Urgell, Blanca. 2020. Arabako euskara zer da? Gogoetak euskalkien mugez eta haien sailkapenez. In Iñaki Camino, Xabier Artiagoitia, Irantzu Epelde & Koldo Ulibarri (arg.), *Eibartik Zuberoara euskalkietan barrena*, 701-736. Bilbo: UPV/EHU.
- Uribe-Etxebarria, Oxel. 2008. *Euskerazko doktrinia Anzuelako berba moduan* (1825). *ASJU* 42(2). 139-209.
- Urrestarazu-Porta, Iñigo. 2021. *Gogoetak Euskara Batu Zaharraren hausturaz*. Gasteiz: UPV/EHUko Master Amaierako Lana.
- Urrestarazu-Porta, Iñigo. 2022. Auzibidea Burundakoa da, eta euskara? xvii. mendeko euskara apurtxo batzuk eta Burundako euskara garaikidea alderatzen. In Dorota Krajewska, Sergio Monforte & Eneko Zuloaga (arg.), *Aziti Bibia. Euskal filologia eta hizkuntzalaritzaren adarrak*, 203-227. Leioa: UPV/EHU. [https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pasa\\_pdf.asp?File=UFGPD224578](https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pasa_pdf.asp?File=UFGPD224578) (2022-12-04).
- Wichmann, Søren. 2010. Internal language classification. In Silvia Luraghi & Vit Bubenik (arg.), *The Continuum Companion to historical linguistics*, 70-86. Londres & New York: Continuum Books.
- Zuazo, Koldo. 1998. Euskalkiak, gaur. *FLV* 78. 191-234.
- Zuazo, Koldo. 2003. *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektok*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, Koldo. 2010a. *El euskera y sus dialectos*. Irun: Alberdania.

- Zuazo, Koldo. 2010b. *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua & Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, Koldo. 2020. Euskalkien sailkapen berriaz zenbait ohar. *FLV* 129. 269-291. <https://doi.org/10.35462/FLV129.8>.
- Zuloaga, Eneko. 2020. *Mendebaldeko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz*. UPV/EHUko doktorego tesia.
- Zuloaga, Eneko. 2022. *Mendebaleko Euskara Zaharra: ezaugarriak, kronologia eta geografia*. Bilbo: UPV/EHU & Euskaltzaindia.



# **[n-/l- + herskari] taldeen bilakabide diakronikoa eta erronkarieraren lekukotasuna: irudia(k) fintzen<sup>1</sup>**

*Diachronic development of the [n-/l- + plosive] consonants group  
and the Roncalese evidence: Revising some framework(s)*

Leyre Rojo Horrillo\*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**ABSTRACT:** In this article, we will analyze the opposition of occlusives posterior to *n-/l-* that have been debated in the history of Basque. Until recently, it was argued that the voiced stop is the oldest sound after the lateral and the nasal, as found in Roncalese and Souletin. Mitxelena (1961), however, argued the opposite clearly and concisely. We will prove this, together with the grammaticalization and “Trask’s law”, through 17th-century letters by Gabriel Etxart and Miguel Ros. Thus, we will show that the evolution of occlusives was morphological at some point. Then, we will explain in detail how it was phonologically disseminated and how it spread from its old legacy to borrowings. In order to do so, it is essential to bear in mind both sociolinguistic conditions and differences we have found in the corpus.

**KEYWORDS:** Roncalese; Basque dialects; diachronic dialectology; Miguel Ros; Basque from the Roncal Valley; posterior occlusives of *n-/l-*.

**LABURPENEA:** Artikulu honetan, euskararen historian eztabaidatu den *n-/l-* ondoko herskariaren oposaketa aztertuko da. Orainsu arte esan izan da albokariaren eta sudurkariaren ondoren herskari aboskabea hotsik zaharrena dela eta erronkariara eta zuberera honen gordetzaille direla. Mitxelenak (1961), ordea, kontrako defendatu zuen laburki bezain argi. Guk hori egiaztatuko dugu, gramatikalizazioari eta “Trasken legea” delakoari lotuta, XVII. mendeko Gabriel Etxart eta Miguel Rosen gure

---

<sup>1</sup> Lan hau Gradu Amaierako Lanaren (UPV/EHU, 2022) bertsio moldatu eta zuzendu bat da. Eskerrak eman nahi dizkiet masterreko ikaskideei, Iñaki Caminori eta ASJUko bi berrikusle anonimoei lan honen aurreko bertsioei egindako ohar eta iruzkinengatik. Hala ere, nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiot Joseba A. Lakarrari, GrALEko tutore lanagatik, norabidea zuzentzeagatik eta baita testu hau hobetzen laguntzeagatik ere. Esan gabe doa egon litezkeen akatsak nireak besterik ez direla.

\* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Leyre Rojo Horrillo. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitatean ibilbidea, z/g (01006 Vitoria-Gasteiz). – rojole15@gmail.com

**Nola aipatu / How to cite:** Rojo Horrillo, Leyre (2022). «[n-/l- + herskari] taldeen bilakabide diakronikoa eta erronkarieraren lekukotasuna: irudia(k) fintzen», *ASJU*, 56 (2), 143-167. (https://doi.org/10.1387/asju.24107).

Jasoa/Received: 2022-12-01; Onartua/Accepted: 2023-02-15. Online argitaratua / Published online: 2023-02-28.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © 2022 Instituto-Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» (UPV/EHU)



*tunen bidez. Horrela, herskarien bilakabidean noizbait ahostun > ahoskabe fenomenoa morfologikoa izan zela erakutsiko dugu. Gero, fonologikoki orokortuaz joan zela eta ondare zaharreko hitzetatik maileguetara hedatu zela zehaztuko dugu. Horretarako, ezinbestekoa izan da hala baldintza sozio-linguistikoak nola corpusean aurkitu ditugun desberdintasunak aintzat hartzea.*

*HITZ GAKOAK: erronkaria; euskalkiak; dialektologia diakronikoa; Miguel Ros; Erronkaribarko euskara; n-/l- ondoko herskariak.*

## 1. Sarrera

Erronkaria gainerako dialektoetatik desberdintzeko eta deskribatzeko, batez ere zenbait ezaugarri bereizle izan dira irizpide. Adierazgarrienak (agian) erakusleetako herskariak dira, Bonapartek (Pagola *et al.* 1997 [1869az geroztik]) lehenago eta Azkuek (1931) eta Mitxelenak (1961) ondoren ikusi bezala. Era berean, ezin dira aipatu gabe utzi bokal sinkopa bereziak (batez ere aditzean: *gra*, *zren*...) edota monoptongazioak. Gainera, bada lan honetan jorratuko den beste berezitasun bat ere: *n-/l-* ondoko herskarien neutralizazioa.

Hainbat ikertzailek ezaugarri honen arabera isoglosa garbia irudikatu izan dute mendebaldearen eta ekialdearen artean. Honez gain, mugaren bi aldeetan *hilko* edo *Jainko* bezalakoak aurkitzeagatik, albokariaren eta sudurkariaren ondoren herskari ahoskabea hotsik zaharrena izatea are seguruagozat eman ohi da. Honen aurrean, erronkaria berezitasun honen gordetzea dela defendatu da, *borontate* edo *alte* “egitura zaharrak” gorde omen dituelako. Haatik, Mitxelenak *Fonética histórica vasca* (1961) kontrakoa defendatu zuen argi bezain labur, gero inoiz gehiago zehaztu edo zabaldu ez zuen arren; hau da, bere ustez *n-/l-* osteko herskari ahostuna izan daiteke hotsik zaharrena. Ildo honetatik, Lakarrak (2011, 2013) Mitxelenaren proposamenaren alde zenbait argudio ematen ditu: arrazoi geografikoak, [fortis/lenis] sistema zaharrekiko paralelotasunak eta berezitasun honek “Trasken legea” deitua-rekin (cf. Trask 1995: 231) eta gramatikalizazioarekin izan ditzakeen loturak zehaztuz. Esate baterako, CVC egitura zaharretik abiatuz DV alomorforik zaharrena dela erakusten da, eta honen bilakabidetik TV eta V emaitzak lortzen direla (ik. § 6.1).

Guk erronkarieraren ezaugarri hau diakronikoki aztertzeke asmoz, ikerbide honi heltzea erabaki genuen gure GrALean. Horretarako, Gidor Bilbao eta MLVko kideei esker (ik. Bilbao & Lakarra 2016), erronkarieraren lekukotasun zaharrena den Etxart-Ros gutuneria agertu berria —Rosek bere euskararen egiten dituen sei gutunak, alegia— izan genuen abiapuntua. xvii. mendeko corpus honen bidez, albokariaren eta sudurkariaren ondorengo herskariaren fenomenoak aztertu ditugu. Gure asmoa ikergaia ahalik eta zabal eta sakonen azaltzea denez, garai bertsuko baina geografía desberdineko testuekin konparaketak ere egin ditugu. Horretarako, Leizarraga, Betolatza, Beriain, Axular eta Etxeberri Ziburukoaren adibideak baliatu ditugu.<sup>2</sup> Fenomenoa diakronikoki zehaztu nahi dugunez, erronkarierazko corpus klasikoan zein joera ikusten den ere aztertu nahi izan dugu. Hori dela eta, Rosen lekukotasunetara, Bonapartek erronkarieraz biltzen dituen testuak, Hualde Mayoren Ebanjelioaren itzulpena eta Mendigatxaren gutunen *n-/l-* ondoko herskariak bildu ditugu.

<sup>2</sup> 6.2 ataleko 1. taulan zein edizio baliatuz lan egin den zehazten dugu.

Ondoren ikusiko dena aurreratuz, gramatikalizazioari eta Trasken legeari lotuta ahostun > ahoskabe bilakabideak aurkitu ditugu eta, honenbestez, ondare zaharreko CVC-DV egiturak beste edozein baino lehenagoko direla ondorioztatu dugu. Izan ere, hurbilketatxo honek Erronkaribarko gutunak baliatuz Mitxelena 1961ean proposatu zuena egiaztatzea du helburu, hau da, erronkariera —eta zuberera— berritzaileak direla erakustea. Beraz, bilakabide diakronikoa ikerketaren ardatz izango dugu, erronkarieraz eman ohi den irudi klasikoa fintzen saiatuaz.

Hizkuntzari erreparatu aurretik, Etxart eta Rosen gutunen testuinguruan jarri beharra sentitu dugu eta, hori dela eta, jarraian corpusari buruz jakin ditugun xehetasunak azalduko ditugu.

## 2. Etxart-Ros gutuneria<sup>3</sup>

Gabriel Etxart eta Miguel Rosen arteko gutunak oso interesgarri dira haien gaineko hizkuntza analisi bat egiteko. Gainera, xvii. mendeko —beraz, Euskara Zaharreko— zubereraren eta erronkarieraren lekukotasunak direnez, are baliotsuagoak bihurtzen dira eta ideia hau ezin ukatuzkoa da. Hala ere, hizkerai erreparatu baino lehen, bi idazle hauek testuinguruan kokatzea ezinbestekoa da. Esate baterako, euskararen egoera soziala garai batetik bestera aldakorra izan da —adibidez, Euskara Arkaikotik Lehen Euskara Modernora— eta, Mounolek eta Gómezek (2018) erakutsi bezala, ezegonkortasun horrek eragina izan du hizkuntzaren zenbait alderditan. Horregatik, gutunak nork eta nondik idatzi dituen jakitea garrantzitsua da, ondoren testuinguru historikoan ikusiko dena aurreratuz, garai hartako gatazka jakin baten ondorioz bidaltzen direlako hauek. Gainera, Gidor Bilbaok erakutsi zigun moduan, egileen hizkerak ziurtatzeko haien biografiak arakatzeta ere beharrezkoa da. Horrela, zubererarekin edo erronkarierarekin izandako loturak ziurtatzen edo zehazten dira.

Hori dela eta, lan honetako corpusa deskribatuko da, hau da, Etxart-Ros gutuneria (§ 2.1). Ondoren, Etxart (§ 2.2) eta Rosen (§ 2.3) bizitzak azalduko dira eta, honen ostean, eskutizetan eztabaidatzen diren gatazkak (§ 2.4). Azken azpialderretan aipatzen diren gaiak, nahiz eta historikoki garrantzitsuak izan, ez dira berez azalpen honen helburu, baizik eta horren inguruko lekukotasunetan lexiko eta hizkuntza molde jakin batekin topo egingo dugula konturatzea.

### 2.1. Zuberoatik Erronkarira

Gabriel Etxartek Zuberoatik 1616ko maiatzaren 26an idatzi zion lehenengoz Miguel Rosi, eta haien arteko azken gutuna Etxartek bidalia da 1617ko urtarrilaren 14an. Guztira 17 gutun dira, batzuk euskaraz soilik idatziak, beste batzuk gaztelaniaz bakarrik, baina gehienak euskaraz eta gaztelaniaz jasoak. Hots, Etxarten gutunetan zuberera lekukotzen da —guztira 8 gutun— eta Rosenak ziur aski Erronkariko euskaraz daude —guztira 6—; eta, Etxartek bidalitakoen artean, bada erregearen *bothe-rea* euskaraturik ere.

<sup>3</sup> Gidor Bilbaorekin hitz egiteko aukera izan nuen. Hitzorduan berak bildutako materiala azaldu eta utzi zidan. Horregatik, Gidorrentzat da nire esker ona. Atal hau idatzi ahal izateko, Gabriel Etxart & Miguel Rosen (1616-1617) corpusaren transkripzioa ezinbestekoa izan da; ikus bibliografian.

Bildutako testuak Erronkarin jasoak dira eta, Miguel Rosek idatzitako eskutitzak Zuberoara bidali zirenez, gorde diren testuak haren behin betiko gutunen kopia edo zirriborroak dira. Gainera, Rosen gutun baten euskarazko bi bertsio lortu dira, elkarren osagarri, baina haien artean desberdintasun esanguratsuak antzeman daitezke (ik. § 4).

Bukatzeko, hasieran esan da testu gehienak euskaraz eta gaztelaniaz idatzi zirela, zehazki, Etxarten 6 gutun daude gaztelaniara itzulita eta baita Rosen beste 5 ere. Beharbada Rosek horiek itzuli zituen Espainiako koroarekin erlazonaturiko organoren bati helarazteko helburuarekin, beharbada eskutitzetan aipatzen den Nafarroako *visoreyari*, eta Espainiako, Nafarroako eta Erronkaribarko hizkuntza ofizial bakarra gaztelania zelako.

## 2.2. Gabriel Etxart

Gabriel Etxart Mauleko Oihenartenarekin lotuta dagoen familia garrantzitsu batetik zetorren. Zuberoan zenbait karguren jabe izan zen, ikasketak baitzituen, eta zuzenbidean lizentziaduna ere bazen. 1595ean bere lehengusina Jeanne Etxart alargunarekin ezkondu zen, Oihenarten amarekin, alegia —orduan, Oihenartek hiru urte baino gutxiago zituen—. Ezkontzean, emaztearen lehen senarraren kargua lortu zuen, hau da, Zuberoan erregearen prokuradore bilakatzen da.<sup>4</sup> Honezaz gain, 1604ko urtarrilaren 1etik *Conseiller et Maître des Requetes de sa Maïesté en Navarre* karguaren ardura hartu zuen. Eta, prokuradore izateagatik, 1602tik aurrera auzi zibil eta kriminaletako epaile gisa ere jardun zuen, nahiz Estatu Kontseiluak eskumen hori kendu zion 1614ko irailaren 30ean.

Biografiara itzuliaz, Gabriel alargundu zenean, 1610. urtearen inguruan, Arnau-dine Oihenartekin —Jean Iriatziti Bordeleko Parlamentuko Gorteko abokatuaren alargunarekin— ezkondu zen. Emakumea Oihenarten aitaren arreba zen. Gidor Bilbaok utzitako bere lanaren laburpenaren arabera (Bilbao & Lakarra 2016), lehenengo emaztearekin hiru seme-alaba izan zituen (Charles, Jean eta Claire-Jeanne) eta bigarren emazte horrekin bakarra (Donioan). Hala ere, ezkontzaz kanpoko beste seme bat ere izan omen zuen (Sans).

## 2.3. Miguel Ros

1544ko uztailaren 25ean Erronkarin jaio zen eta 1624ko urriaren 10ean hil, bere heriotza-agirian zehazten denez. Bere gurasoak, Blas Ros eta Katalina Miguel, 1543an ezkondu ziren. Nahiz eta ezkontza-kontratua Izabako notario batek baliozkotu, Rosen gurasoak Erronkarin bizi izan ziren. Informazio hori baliagarri suerta dakiguke Rosen hizkuntza egiaztatzeke eta, gainera, jakin da bere familia hiru belau-naldiz behintzat Erronkarin egon zela Ros alkate izateko.

1545ean Blas Ros hil zen. Horren aurrean, Katalina Miguel eta bere semea amaren nebaren etxera joan ziren bizitzera, orain ere Erronkarin bertan. Osaba horrek Rosen bizitzan zeregin garrantzitsua izan zuen: Domingo Miguel ikasketak Parisen egindakoa zen eta Erronkariko abade eta maisua zen. Bere arrebari lagundu zion Ro-

<sup>4</sup> Gidor Bilbaok eta haren lankideek uste dute gutunetan *fiscal de Francia*, *fiscal de Sola* edo *fiscal de Mauleón* aipatzen denean, kargu honi erreferentzia egiten zaiola (Bilbao & Lakarra 2016).

sen ikasketa apaletan, eta jakin da arreba eta ilobarekin ere gogor xamarra zela eta biek beldurra ziotela.

Miguel Ros heldutasunera iristean, 1570 inguruan, Joana Lópezekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba izan zituzten: Luis —notario izana— María eta Inesa. Halaber, ezkondu aurretik Magdalena Sanz ezkongabearekin ere seme bat izan zuen. Rosen izaera ez bide zen goraiatzeko modukoa; adibidez, auzi bat baino gehiagotan salatu zuten bere emaztea egurtzeagatik. Gainera, bestelako salaketak ere izan zituen: mutiko bat kolpeka hiltzea, karguak bere mesedetan baliatzea, auzietako lekukoak erostea... Horren ondorioz, behin baino gehiagotan Iruñeko kartzelan izan zen preso.

Nolanahi ere den, hainbat kargu garrantzitsuren jabe izan zen: errege-eskribaua —1569tik aurrera—, notarioa, Erronkariko alkate eta kapitain, eta baita Erronkariko bortuetako komisario eta guarda nagusi ere. Horrekin batera, hainbat dokumentutan Erronkariko Batzar Nagusien juntakide, diputatu eta ordezkari gisa ageri da. Baliteke Errege Bardeako Juntako alkate gisa ageri dena ere Ros bera izatea. Hortaz, Etxarten eta Rosen karguak eta jarraian aipatuko ditugun arazoaren larritasuna ikusita, ez da harritzekoa elkarri gutunak bidali izana.

#### 2.4. Gutunetan aipatzen diren gatazkak

Muga, igarobide, bidesari, abere- eta diru-lapurreta eta abarren inguruko desadostasunak konpontzeko, Etxartek Zuberoako eta Erronkaribarko ordezkariak mugako bortuetan bilkura egitea proposatzen dio Rosi. Proposamen hori bi herrien arteko harremanen eta salerosteen hainbat urtetako etena hobetzeko helburuarekin egiten da; baina, horretarako, Etxartek baldintza hau jartzen du: berak garai hartan Frantziako errege zenak sinaturiko dokumentua (*botherea*) aurkezten duen moduan, erronkaribartarrek ere aurkez dezatela Espainiako erregearen dokumentua: “Haren causaz, necessarioquy baque hun baten çarteco, behar ducie ciec ere obtenitu eta uken cien erregue iaunaganic bothere eta comissione amplia...” (Etxart & Ros 1616-1617: Etxarten 1616-05-26ko gutuna).

Erronkaribartarrek, ordea, ez diote erregeari Etxartek aipatutako dokumentua eskatu nahi. Are gehiago, zuberotarrei galdetzen diete erronkaribartarren aurka dauden sententziak baliogabetzeko eskumena emango dien ahalordea eska diezaiotela Frantziakoari: “çuen erregue jaunaganic podere espeçial, çuen gobernadore jaunarentaco, nola emanic vaitago sentencia, eta pregonaturich sentencia gure contra aren revocazeco, aboliçeco eta anullaçeco” (Etxart & Ros 1616-1617: Rosen 1616-07-26ko gutuna).

Aurreko eztabaidaz gain, Rosek gutun berean azaltzen du bortuetan erronkariar bati abereak lapurtu dizkiotela eta, honen aurrean, Etxarti esaten dio lapurreta horren arduraduna zein izan den argitzeko: “Otoy eguiten diçut içuleraci diçaçun espendioequi eta gaztiga diçaçun” (Etxart & Ros 1616-1617: Rosen 1616-07-26ko gutuna).

Laburbilduz, aurreko mendeetan beren aitzindariak bezala, Etxart eta Ros ez ziren ados jartzen eta arazoak ez ziren epe laburrean amaitu, Florencio Idoatek (1977: 144) oraindik biltzen baititu 1800 aldeko antzeko liskarrak zuberotar eta erronkaribartarren artean: “que como son frontaleros han muy grandes afrentos e han uista con los de Saluatierra de Aragón, con los de la vall d’Ansó, de la vall d’Hecho, de la vall d’Aspa, de la vall de los Baratonos, de la tierra de Sola, e de la vall de Sarasaz, que son sus frontaleros”. Antzeman daitekeenez, honako hau ez zen izan epe laburreko ezta-

baida. Gainera, Etxarten azken gutunetik aurrera horren inguruan ez denez gehiagorik jakin, ezin zaio tirabirari amaierarik jarri.

## 2.5. Testuinguruan kokatzen

Corpusaren gaineko azalpena bukatzeko, gutunak idatzi ziren testuinguru historikoa zein den zehaztea falta da. Informazio hori hiru iturritatik lortu du Gidor Bilbaok Céline Mounoleren laguntzaz: Frantziako erregearen artxiboan, Espainiako erregearen artxiboan eta, azkenik, Erronkariko Batzar Nagusiaren Artxiboan (cf. Bilbao & Lakarra 2016).

Frantziatik jakin da eskutitzetan eztabaidatzen den gatazkari buruz Etxartek zenbait txosten idatzi zituela eta baita Parisera bidali ere. Gainera, lehen gutuna 1616an bidali arren, egoera aurretik nahaspilatsua zela irakurri ahal izan da. Esate baterako, Iruñean zela Etxartek Idiakez erregeordearekin egoerari buruz hitz egin zuen eta, horri esker, 1612, 1613 eta 1614ko lapurreten, lur-usurpazioen, hilketen eta gainerako gertaeren berri izan da. Era berean, gai bera tratatu zuen zuberotarrak Frantziak Madrilen zuen enbaxadoreari idaztean. Eta liskar honen amaiera noiz izan zen zehaztu ezin bada ere, historialariek jakin dute 1620an berdin jarraitzen zuela.

Bestalde, Espainian gertaera horri buruz Simancasko Artxibo Nagusitik informazio gehiago lortu du Gidor Bilbaok (ik. Bilbao & Lakarra 2016). Alde batetik, Frantziak Madrilen zuen enbaxadorearen txostenak daude eta, bestetik, lan honekin zuzenean erlazionatzen den testua Etxartek Idiakez Nafarroako erregeordeari euskaraz itzulitako *botherea* da (ik. § 2.1): “Tengo embiado antes de agora copia en lengua bulgar a los dichos roncaleses”.

Amaitzeko, ondoko xehetasunak Rosen bizilekuan lortu dira. Hemen 1597ko dokumentu batean honako erreferentzia hau eskuratu da:

Proceso del fiscal de su Magestad de una parte y Juan de Constantin y Juan de Xobac Lujan, naturales de Montori, en tierra de Sola (Francia), sobre que siendo franceses, enemigos de la Santa Fé Católica, que viven en la secta reprobada de luteranos hugonates, entraren de acuerdo con otros franceses armados en los límites de Navarra y Valle de Roncal, haciendo mucho daño a los católicos y naturales, robándoles y asaltando ganados, acometiendo a cinco hombres de dicho valle de Roncal y a otros hiriéndolos. (*apud* Bilbao & Lakarra 2016)

Atal honetan gutunen hartzaileen bizitzetako zertzelada zenbait ezagutzera eman da. Gainera, biografiekin haien hizkerak ere ziurtatu dira, Etxart Zuberoan —honekin zalantza gehiago daude— eta Ros Erronkarin jaio, bizi eta hango kontuez eta pertsonen arduratzen baitziren. Hala ere, lan honetan Rosen erronkaria aztertu denez, Etxarten zuberera ere noizbait ikertu beharko litzateke eta baliteke orduan zeresan gehiago ematea bere “jatortasunak”. Behin aurkezpenak eginda, jarraian analisiari helduko diogu.


## 3. Analisi-sistema

Aztergaian sakondu aurretik, esan dezagun zenbait ikerketa ezinbestekoak izan direla lan hau egiteko: Bonaparteren itzulpen lanak (Pagola *et al.* 1997), Azkuek argitaratutako *Particularidades del dialecto roncalés* (1931), Mitxelena *Fónetica histórica*

*vascan* (1961) eta bere beste bi artikulutan (1954, Mitxelena *et al.* 1953) azaltzen dituen ezaugarriak, eta Ricardo Gómezen ikerketa (1991), besteak beste. Azterketa horiei esker, hizkera horren bilakabide diakronikoaz gehiago jakin ahal izan da. Beraz, aipatutakoetan biltzen diren bilakabideak Rosen gutunetan bilatu nahi izan ditugu; baina, hori baino lehen, erabilitako analisi-sistema zein izan den argituko da.

Sarreran zehaztu moduan, nahiz gutun hauen bidez zuberera eta erronkariara lekukotu, Rosen gutunetara mugatuaz, ikerketa honetan *n-/l* ondoko herskariaren oposaketa aztertzea da helburu. Dena den, Etxarten testuak ez dira erabat baztertuko sudurkari eta albokariaren ostean zubereran ere herskariaren bilakabidea axolazkoa delako eta honen eskutitzak konparaketetarako baliagarriak izango direlako.

Lana ahalik eta erabilgarriena egitea denez asmoa, gutunak izendatzeko orduan jarraitu den sistema beheko irudian zehazten da. Hots, gutun bakoitzari zenbaki bat esleitu zaio: Etxartek bidalitako lehen gutunak (1) zenbakia du eta guztira 18 testu direnez, azken gutunari (18) zenbakia jarri zaio. Bestalde, egile bakoitzak idatzitako kartak koloreen bidez ere desberdindu dira: Etxartenak laranja kolorekoak dira eta Rosenak, berriz, urdinak. Tartean bada morez markatu den beste bat; hau da Etxartek “en lengua bulgar” (ik. § 2.5) itzuli zuen *botherea*. Azken ezaugarria gorritz nabarmendu diren zenbakiak dira, Rosek euskaraz idazten dituen idazkienak: (7), (9), (11), (13), (15), eta (17). Sei gutun hauen bidez, *n-/l* ondoren *ongi/onki* bezalako herskariaren ahostun/ahoskabe oposaketa antzeman denez, honetan gehiago sakontzea erabaki da, euskalki banaketarako ere duen garrantziagatik (cf. Mitxelena 1961: 355; Lakarra 2011: 205).



### 1. irudia

#### Etxart-Ros gutuneria

(15). eskutitzak bi zirriborro dituela ohartu gara. Bi hauek konparatu eta zein desberdintasun den ikusi nahi izan dugu (ik. § 4), horietako batean Rosek Etxarten hizkerara hurbiltzeko ahalegina egiten duelako. Berezitasun honek garrantzia duela azpi-

marratu nahi dugu, jabetu baikara ondoren aztertuko dugun *n-/l-* ondoko herskariaren fenomenoan eragina izan dezakeela, eta, horregatik, herskariaren txandakatzea aztertzen hasi aurretik hau zehaztuko da. Beharbada zehaztapen filologiko hauek beharrezko izan daitezke azterketa diakronikorako (ik. § 8).

#### 4. (15). gutunaren berezitasunak

Esan bezala, Rosek Etxarti zuzendutako gutunen artean badira euskarazko testu baten bi zirriborro, hark egindako azkenaurreko gutunarenak, alegia. Desberdintasun honen inguruan ez genukeen ezer esango berezitasunik aurkitu ez bagenu, baina zirriborroak konparatzean orain arte ikusi gabeko hitz formak identifikatu direnez, hauei arrazoi logiko bat emateko asmoz, (15). gutunaren inguruko azterketatxo berezia egitea erabaki da, eta erakutsi da lehen testua (aurrerantzean “A”) bigarren zirriborrotik (aurrerantzean “B”) zertan desberdintzen den.

Hasteko, nahiz grafian ezberdintasunak eriden, hauei ez zaie garrantzi handirik eman hizkeraren izaerari ez baitiote eragiten. Gehienez ere, biezpainkari ahostuna edo afrikatu lepokaria adierazteko grafema desberdinak erabili dira: *reçebitu* (A) / *reçevitu* (B); *anizetan* (A) / *anicetan* (B). Baina adibide hauek biltzen dituen hitz-zerrenda egitea ez da atal honen asmoa. Aldiz, *guthun* eta *othoy* bezalako hitz forma bereziei emango zaie lehenetsuna.

Rosen gutunetan hamabost aldiz *gutun* hitza erabiltzen da, guztietan, inongo <h>rik gabe. Antzera *otoy* hitzean: Rosek hitz hau lau bider idazten du eta behin ere ez hasperenarekin —Erronkaribarren ohi edo itxaroten den bezala, Nafarroan hasperena antzina desagertua baita (cf. Mitxelena 1961)—. Kontrara, Etxartek ez ditu Rosen bi adibide hauek <h>rik gabe idazten. Gauzak horrela, bi hitz hauetan (*guthun*, *othoy*), Ros Etxarten idazkera imitatzen ahalegindu zela pentsa daiteke eta, ondorioz, ordura arte erabili gabeko hitz formak idatzi zituela. Hain datu gutxiarekin hipotesi hau ahul geldituko litzateke, baina Rosek (15)A-n hasperenarekin idatzitako beste hitz bat identifikatu da oraindik, *çuhur*. Kasualitatea dirudien arren, Rosek jasotako azken gutunean Etxartek *çuhurrec* darabil. Beraz, badirudi planteatutako hipotesiaren aldeko ebidentzia erantsia dela honako hau.

Adibide horien pare, Rosen *gore* aipatzekoa da. Hark pluralezko izenordain hori beste gutunetan *-u-* bokalarekin idazten du hogeita hamairu aldiz. Etxartek, ordea, *goure*. Aurretik azaldu diren adibideekin konparatuz, hau ez dirudi hain begibistakoa denik. Izan ere, bokalismo ezberdin hori bakarrik gutun honetan gertatzen dela azpimarratu nahi genuke. Eta, era berean, Rosen gainerako gutunetan topatzen ez den beste ezaugarri bat <x> grafema da, baina (15)A testuan *quexa* biltzen da. Aldiz, nahiz Etxarten adibideak gutxi izan, grafema horren bidez hauek ematen ditu Rosek: *exprez*, *expressuqui* (4); *expedient*, *execucionetan* (5); *oraicoix* (8). Hortaz, bi gertakari horietan ere (*gore*, *quexa*) Etxarten ereduaren eragina antzeman daiteke.

Ikusitakoaren ondorioz, bi zirriborro hauetatik badirudi horietako bat (A) Etxarten idazteko era imitatu nahian egin zela. Gainera, berezitasun horrek ondoren aztertuko den *n-/l-* ondoko herskariaren analisisian du eragina, *gente* (15) bezalako formak bakarrik testu horretan aurkitu baitira. Beraz, metodologia baldintza deza-keenez, (15). gutuneko herskariaren adibideak kontu handiz aztertu dira. Nolanahi ere den, Rosen jarrera horren benetako asmoa zein izan zen jakiteko gogoz uzten gaitu.



## 5. Dena ez da zuri edo beltz

Analisian sartu baino lehen, bildutako *n-/l*- ondoko herskarien adibideak bi multzotan banatu ditugu: alde batetik, Rosek erabiltzen dituen maileguetakoak eta, bestetik, hark dakartzan ondare zaharreko hitzetakoak. Zintzoak bagara, etsenplu guztiak maila berean ez daudela esan beharko genuke, eta gure intereseko adibideak ondare zaharreko hitzen herskariak direla bereziki, diakronikoki eta metodologikoki lehenetasuna haiena delako. Gainera, maileguak normalean lehendik nagusi diren ohi-uretara moldatzen dira (cf. 8. oin-oharreko lat. *pace(m)* > eus. *bake* → *pake*).

Beraz, analisi honetan, ondare zaharreko hitzei lehenetasuna emango zaie, baina maileguak erabat baztertu gabe, hauetan ere ahostun/ahoskabe alternantzia gertatuko delako, nahiz ez erabat aurrekoen arrazoiengatik eta kronologia berean. Izan ere, maileguetako ahostun/ahoskabeak beste arrazoi baten eraginez eta seguruenik oso kronologia desberdineko aldietan sortu zirela argituko da (ik. § 6.2). Jarraian, multzo bakoitzean aurkitutako berezitasunak zehazten hasiko gara; baina, adibideen gaineko azterketan sakondu aurretik, pare bat gauza argitu nahi genituzke. Hurrengo atalean, Lakarraren 2013ko argudioak (ik. § 6.1) azaltzean, Martineten eta Mitxelenaren bortitz/ahul oposaketaren proposamena aipatuko da. Hots, Martinetek (1950) euskaraz *bekatu* baina gaztelaniaz *pecado* dela ikustean, aitzineuskarazko hitz hasierako herskarien bilakabidea oso ezberdina dela oharturik, sistemaren izaera desberdinari zor zaiola ondorioztatu eta hitz hasierako herskarietzako bortitz/ahul oposaketa zaharrago —eta artean ezezaguna— proposatu zuen. Ildo beretik, Mitxelenak (1957) Martineten ideia hori inbentarioko gainerako azpisailetara zabaldu zuen eta, horrela, ozenak eta txistukariak ere bortitz/ahul oposaketaren barnean azaldu ziren.

Aipatutako hori guztia fonologia gertakari hutsa balitz bezala argitu eta ikertu zen. Fonologiak bere autonomia duela ezin da ukatu, baina, haatik, hori ez da erabakitekoa eta morfologiarekin duen lotura hertsia aipatzera ausartuko ginateke. Horren inguruan, Richard D. Jandak dio (2003: 404):

[I]t is assumed that linguistic theory cannot ignore morphology, and so cannot shirk, but must instead always address, questions regarding the proper grammatical type or grammatical location that should be assigned to particular analyses for sound-based phenomena. Synchronically [eta diakronikoki, noski], it is clear that not all manipulations of sound must necessarily be a matter of phonology pure and simple. That is, there are some alternations in the shapes of certain lexical items which cannot be reduced to statements of rules or constraints that take into account nothing other than elements of sound structure.

Gurera ekarriz, Lakarrak (2018) *\*e-da-dus-i* > *\*e-a-dus-i* > *\*e-aus-i* > *jausi* aditz zaharraren bilakabidea proposatu duenean, galdutako —kasu honetan— hotsen ondorioz, fonologian aldatetak izan dira, bereziki *jausik* /j/ soinua garatu du eta begi bistakoa da hasierako egiturak bokal eta kontsonante galerak ere pairatu dituela; baina, era berean, eraldaketa horrek morfologia berria sortzea ere ekarri du: hots silabaketa baina baita morfema antolaketa berria ere. Era berean, berehala ikusiko denez, *n-/l*- ondoko herskarien auzia ere ezin da fenomeno fonologiko eta ezta morfologiko huts bezala aztertu, dena ez baita zuri edo beltz esparru hauei dagokienez (ik. § 8). Gainera, herskarien banaketak Trasken legearekin eta gramatikalizazioarekin izan ditzakeen loturak erakutsiko ditugu (ik. § 6.1).

## 6. Gutunetan oinarritutako analisia

### 6.1. Erronkaria arkaismoaren gordetzailea: *pake*?

Sarreran genioenez, erronkaria —zubererarekin batera— gainerako dialektotatik desberdintzen duen ezaugarrietako bat *n-/l-* ondoko herskariaren fenomenoa da (cf. Mitxelena 1961: 355). Hots, testuinguru fonologiko horretan, sudurkariaren eta albokariaren ondoren herskariaren neutralizazioa nagusi dela antzeman da, kontsonante haien ostean herskari ahoskabeak ala ahostunak agertzen direlarik soilik euskal dialektotetan. Izan ere, hizkeretan hain ohikoa den egoera horretan, erronkariarak izaera berezia erakusten du: “E *altare*, Z *althá(r)e* : orok. *aldare* (B *altara*), Err-Z *boront(h)ate* : orok. *borondate*, Err-Z *alt(h)e* : orok. *alde*, etab.” (Lakarra 2018: 218). Berezitasun horri eman zaion azalpena Zuberoak eta Erronkaribarrak egoera zaharra gorde dutela izan da (cf. Mitxelena 1961); baina, modu sistematikoan ez bada ere, Lakarrak (2018) gogoratzen duen moduan, gainerako euskalkietan ere *hilko*, *Jainko* eta *abalko* bezalako adibideak badira.

Ikusi dugunez, oraintsu arte arkaismotzat jo da *n-/l-* ondoren herskari ahoskabea gordetzea, baina Mitxelenak kontrako azalpena proposatzeko bidea ere ikusten zuen, nahiz gero ez garatu:

Hay dos maneras de interpretar estos hechos. Lo más natural parece pensar que en vascuence se ha llegado a neutralizar la oposición sorda / sonora detrás de nasal y *l* sonorizando en esa posición las oclusivas sordas con posterioridad a la introducción de los primeros préstamos latinos: *ronc.* y *sul.* serían por tanto dialectos arcaizantes que han conservado mejor el antiguo estado de cosas. Pero acaso se pueda suponer también que se trataba de un tipo de lengua en que la oposición quedaba suspendida en esos contextos, en los cuales las oclusivas se pronunciaban uniformemente sonoras (o lenes). En este supuesto, las nuevas formaciones y los préstamos que presentaban grupos formados por nasal o *l* + oclusiva se seguirían acomodando por bastante tiempo al tipo normal, siendo el roncalés y el suletino los dialectos que primero abandonaron esta práctica. (Mitxelena 1961: 355)

Hortaz, Mitxelenak (1961) dioena kontuan hartuz, erronkaria edo zubereraz landako euskalkietan *n-/l-* ondoko herskari ahostunak iraun du eta aipatutako ekialdeko hizkeretan, berriz, herskari ahoskabea sartu da (cf. Lakarra 2011: 206). Horren ondorioz, hasieran azaldutako egoera berrinterpretatu behar da: Mitxelenaren proposamen berri horren arabera, gainerako euskalkietan gorde den egoera zaharraren —ahostuna gordetzearen— aurrean, zubereran eta erronkariaren ahostun > ahoskabe aldaketa gertatu dela, alegia.

#### 6.1.1. Mitxelenaren proposamena finduaz

Mitxelenaren interpretazioaren alde, Lakarrak (2013) haren hipotesiari hiru argudio eranstean dizkio. Alde batetik, ezaugarriaren hedadura dialektalari begiratzen dio eta erronkariaren “ustezko arkaismoa erdian (mendebaleragoko euskararen eta ekialderagoko [euskal sustratoaren bidezko] erromantze ahostundunaren tartean) eta berrikuntza komunak ertzetan” (Lakarra 2013: 293) kokatzen direla konturatzen da. Beraz, ustezko berrikuntza bera bi muturretan bateratsu gertatzea “logika guztiaren aurka” [*aree laterali*] (2013: 293) doala azpimarratzen du.

Gainera, txandakatzea ahostun/ahoskabe ulertu beharrean, euskara zaharrerako Martineten eta Mitxelenaen bortitz/ahul proposamena gogoratuaz eta, ildo hone-tatik, txistukarien kokagune bereko neutralizazioarekin lotzen du: “kontuan badugu [n-/l ondoko] kokagune berean txistukariekin gertatua, orduan, neutralizazio zaha-rra ahularen alde zela (frikaria haietan, ergo ahostuna hauetan) eta aldaketa gero bor-titzaren alde bilakatu zela eremu batzuetan (afrikatua haietan, ahoskabea hauetan)” (Lakarra 2013: 293). Hau da, txistukarietan neutralizazioa historiaurreko ahularen —frikari historikoaren— alde gertatu bazen, herskarietan gauza bera gertatu ahal zela pentsatzera eramaten gaitu Mitxelenaen [bortitz/ahul] sisteman oinarritutako argu-dio horrek. Orobat, frikarien aldeko neutralizazioa Euskal Herri osoan lekukotutako bilakabide bat da, Leizarragaren bereizkuntza grafiko sistematikoaz landara, *Refranes y sentenciasen*, Landucciren hiztegian, Beriainen edo Lazarragaren testuetan aurkitu baita, besteak beste. Hortaz, Mitxelenaen (1957) berreraiketaren arabera bortitz/ahul oposaketa bera denez /h/az kanpoko sail guztientzat, gainerako hots taldeetan emaitza berdinak espero dira. Hots, hizkera guztietan herskarietan ahostunaren al-deko neutralizazioa gertatzea.

Mitxelena hil ondoko garaietan garatu diren ikerketa lerroetara jauzi eginaz, orain arte ikusitako gertakariak Trasken legearekin du lotura —Lakarraren (2013) hiruga-rraren argudioa—. Fenomeno hau egoki aztertzeke, gramatikalizazio teoriaren barnean kokatzea ezinbestekoa da, Traskek egin ez bezala. Horretarako, erro zein morfema le-xikoaren eta gramatikalaren arteko loturatik abiatu behar da. Horrela, item lexikoe-k gramatikalizatzeke jarraitzen dituzten bideak ikusten ditugunean, morfema lexikoe-k gramatikalizatzean gramatika-funtzioak eskuratzen dituzte, eta lehen zeukaten esanahi lexikoa galtzen dute. Horrekin batera, jatorrizko egitura fonikoa ere urritzen edo alda-tzen zaie. Beraz, Lakarraren (1995, 2013) morfema lexikoen forma kanonikoan oina-rrituz,<sup>5</sup> CVC erro monosilabiko egitura zahar batek bi bilakabide izango ditu: batetik, CVC → CV gramatikalizazio primarioa deritzona eta, bestetik, azken horretatik sor-tzen den CV → C / V gramatikalizazio sekundarioa (cf. Lakarra 2016). Hona hemen adibide batzuk: “\**din* > -*di* > -*di* / -*ti*, \**den* > -*de* > -*de* / -*te* / -*e*” (Lakarra 2018: 116).

Aurrekoa Trasken legearekin lotuaz, hau gramatikalizazioaren bilakabidetik atera daiteke: CV egitura berri horren hitz hasieran ahoskabe/ahostun alternantzia bada, CVrik zaharrena ahostunaren bidez eraikitako morfema dela dio Traskek (1995), DV, hain zuzen. Eta hortik sortzen dira gainerako alomorfoak: TV eta V.<sup>6</sup> Horrela, -*gil-ki* eta -*del-te* alternantziak azaltzen ditu:

Finite forms are not part of my brief here, but I cannot resist pointing out that the existence of the competing forms *-ki* and *-i* suggests a common origin for both in an earlier \**-gi*. The splitting of an original \**-gi* / *-ki* and *-i* would strongly parallel the split of the plurality marker \**-de* into *-te* (as in *dute*) and *-e* (as in Biscayan *dabe* < \**daue*), with *-de* surviving in a few forms like *daude*. (Trask 1995: 231)

Bestalde, “finite forms” delakoetarik atera eta morfologia eta lexiko zahar oroko-rrera zabalduaz, Lakarraren 2013ko artikuluan DV > TVren kasu gehiago ematen

<sup>5</sup> Guk asumitzen dugu CVC erro egitura zaharrena dela eta morfemak erroetatik datozela.

<sup>6</sup> Hau guztia CV-ren gramatikalizazioaren kasu partikularra da, herskari ahulez hasitako erro-mor-femena.

dira, Trasken adibideak Lakarrarenekin bat datozela erakutsiz. Gainera, abiapuntu guztiak CVC dira: \**edin*, \**dar*, \**den*, \**don*... Hortaz, Trasken legearen arabera, sudurkari eta albokariaren osteko CVren hotsik zaharrena herskari ahostuna da, hots, herskari ahulez hasten ziren erroen ondorioa. Hori dela eta, *-nd-*, *-ld-*, *-nb-*, *-lb-*, *-ng-* eta *-lg-* kontsonante bilkuretatik *-nt-*, *-lt-*, *-np-*, *-lp-*, *-nk-* eta *-lk-* berrikuntzak sortzen dira. Ideia horrek indarra hartzen du “/l, n/ ondoren ez dela \*\**hanti* edo \*\**alti*-rik ekialdean, baizik eta *handi* eta *aldi*, gainerakoetan bezala” (Lakarra 2013: 293) ikustean eta *erdi*, *ardi*, *hordi*... *r-* ondoren, hots, beti eta dialekto guztietan ahostun/ahoskabe berezi den kokaguneetan: “A diferencia de lo que sucede detrás de *n* y *l*, las dos series de oclusivas se mantienen bien distintas tras *r*: com. *urde* ‘cerdo’ / *urt(h)e* ‘año’, cf. también *ardi* ‘oveja’ (y vizc. ‘pulga’) y *arte* ‘espacio intermedio’ ‘encina’” (Mitxelena 1961: 355). Eta, batez ere, DV > TV [S\_] —txistukari ondoren— testuinguruan ere fenomeno morfofonologikoa da, ez soilik fonologikoa, hau da, eratorpena edo konposaketa gertatu da eta, era berean, hotsak kateatu dira. Are gehiago, lehenik fonologikoki D- > T- bihurtzen bada ere, gero alomorfoa bilakatu eta edozein testuingurutara hedatzen da (cf. *-zul-tsu* atzizkia).

Ondorioz, orain arte ikusitakoa zuzena bada, erronkaria eta zubereraren herskari ahoskabetzea ez litzateke arkaismo bat. Horregatik, Mitxelenak (1961) proposatutako ideia astiroago ikusteko helburuarekin Ros erronkariarraren *n-/l-* ondoko herskari adibide guztiak bildu ditugu.<sup>7</sup> 5. atalean zehaztu bezala, jasotako horiek bi multzotan bereizita azalduko dira: batetik, maileguetakoak (§ 6.2) eta, bestetik, ondare zaharreko hitzak (§ 6.3), suma baitaiteke bilakabideak arrazoi eta kronologia ezberdinak izan litzakeela hitzen sail batean eta bestean. Amaieran, bi talde horietan antzeman diren joerak zehaztuko dira (ik. § 8).

## 6.2. *n-/l-* ondoko herskariak mailegutan

Atal honetan, Rosen eskutitzetako maileguen RT —[*n-/l-* + herskari]— taldeei erreparatuko zaie. Hasteko, azaldu diren maileguen artean badira batzuk zeinetan [izena + atzizkia] elkarketak bereizten diren. Haiak zeintzuk diren zehaztu aurretik, mailegaketari dagokionez beste bi zertzelada izan behar ditugu gogoan. Ezer baino lehen, nahiz eta maileguen egitura banaketa erakutsi, maileguak —batez ere morfemak— gehienbat euskarak barneko analisirik gabe (“osorik”) hartuko zituen eta bertakotu gabe, ondorioz.<sup>8</sup> Hala ere, zatitu egingo ditugu azterketa errazteko asmoz. Izan ere, badira ahostun/ahoskabe txandakatzek maileguen atzizkietan bakarrik gertatzen direnak eta, beraz, zuzenean atzizkiei begiratuko diegu.

<sup>7</sup> Etxartenak ere jaso dira ondoren egingo diren konparaketetarako.

<sup>8</sup> Mailegaketa zaharra balitz, maileguez euskarazko lege zaharrak pairatuko zituzketen. Hau hobeto ulertzeko, Mitxelenak (1963) ezarrirako “paradoxa” aintzat hartu behar dugu: euskal mailegu zaharrenak jatorrizkotik gertuago egotea espero da eta, aldi berean, zaharrago diren neurriari euskararen barnean aldaketa gehiago jasatea. Adibidez, Martinetek (1950) proposatutako eta, ondoren, Mitxelenak (1957) garatutako teoriaren arabera (ik. § 5), latinez herskari ahoskabeaz hasten ziren hitzak euskaraz —horko ahulen taldeak kokatu ondoren— herskari ahostunaz agertzen dira aldaera zaharretan. Horrela, lat. *pāce(m)* > eus. *bake* bilakabideak azaldu dira. Beraz, atzizkietan ere lat. *-mentu(m)* > eus. *-mendu* aldaketa espero da, baina geroago azaltzen dugun bezala (ik. § 6.2.1.1), atzizki zaharra izateko ondare zaharreko hitzetako oinarriekin behar du konbinatzera heldu.

## 6.2.1. -mentu

Ahoscabea erakusten du *-mentu* atzizki mailegatuak. Hau latinezko *-mentu(m)*etik datorrela esan ohi da eta, aldameneko erromantzean ere (gaztelaniaz), *-mientoren* kontsonantea ahoscabea da. Halaber, Rosen gutunetan bi hortzetakoen arrastoak daude: *juntamentu* (15) eta *gubernamendu* (15).<sup>9</sup> Baina *-nd-* > *-nt-* erronkarierean berrikuntzat jo aurretik, garai bertsuko idazleen testuekin konparaketak egingo ditugu *-mentul-**mentu* txandakatzearen hedadura zehatzago ikusteko. Hortaz, lan honetako analisisirako, eskutitzen garaiko inguruko dialektoetako zenbait lekukotasun hautatu ditugu. Horrezaz gainera, erronkarierean XIX. mendearen akabuko lekukotasun zabalenak ere aintzat hartu dira:

## 1. taula

Analisisirako erabilitako lekukotasunak<sup>10</sup>

Testua	Edizioa	Laburdura
Leizarragaren <i>Jesus Christ gure iaunaren testamentu berria</i> (1571)	Leizarraga (1990)	Lç
Betolatzaren <i>Doctrina Christiana en Romance y Basquence</i> (1596)	Mitxelena (1955)	Bet
Berianen <i>Tratazen da nola enzun bear den meza</i> (1621)	KG <sup>11</sup>	Ber
Axularren <i>Gero</i> (1643)	KG	Ax
Etxeberri Ziburukoaren <i>Elizara erabiltzeko liburua</i> (1665)	KG	EZ
Hualde Mayoren <i>Jesu-Cristo gore Geinaren Evangelio Sainthua segun San Mateoc</i> (ca. 1870)	Hualde Mayo (1934-1935)	HM
Mendigatxaren gutunak (1902-1916)	Irigoién (1957)	Mdg

Analisisira itzuliaz, geografiaren eta kronologiaren aldetik Rosengandik hurbilen gelditzen diren adibideak Etxarten gutunetakoak dira eta Etxartek *-mentu* amaiera darabil: *iugamendu* (1); *arrestamendu*, *luçamendu* (4); *governamendian* (14).<sup>12</sup> Bi hauengandik ez oso urrun, Leizarraga eta Etxeberri Ziburukoak ditugu. Espero bezala, Iparraldeko bi idazle hauek ere ahostunarekin *gubernamendu*<sup>13</sup> dute. Gauzak sakonago miatzeko asmoz, Etxeberri Ziburukoaren adibide gehiago jaso dira eta, bestalde, hegoaldeko nafarraren Beriainen hitzekin alderatu ditugu.<sup>14</sup> Kasu honetan ez

<sup>9</sup> Hala ere, 4. atalean ikusi bezala, Rosek zenbait hitz moldatzen ditu Etxarten hizkerara hurbiltzeko. Kasu honetan, *-mentu* bakarrik eskutitz honetan darabil. Baliteke intentzio berarekin aldaketa hori egin izana.

<sup>10</sup> Analisisirako Bonaparteren lexikoa (Pagola *et al.* 1997) ere erabili da, baina hark ez du laburdurarik. Hau da, analisisian testu horretako herskari adibideak “Bonaparteren lexikotik” aterarakoak direla zehazten da.

<sup>11</sup> *Klasikoen Gordailua* (KG), edizio faksimileak (<https://klasikoak.armiarma.eus>).

<sup>12</sup> Lekukotasun honetako Etxarten kasu guztiek *-mentu* amaiera dute.

<sup>13</sup> Ikus bedi *OEH* (s.v. *gubernamendu*): “Zareten bada suiet *gubernamendu humano guziaren, Iaunagatik*. «Tout ordre humain» Lç 1 Petr 2, 13 (IBk [Itun Berria] *giza agintaritza*) [...]. *Hek guztiak mukurruki dakizkitzu, Prelata, I zure gubernamenduan nola ageri baita*. EZ Man I 6”.

<sup>14</sup> Hemendik aurrera erabiliko diren testuak 1. taulan zehaztutakoak dira.

gara Rosen jaioterri eta bizilekutik asko urrundu,<sup>15</sup> ezagun denez, Beriainek Iruñeko hizkera erabili baitzuen:

y aunque en diferentes partes del ay en algunas cosas, diuersos modos de hablar, yo escriuo el que se habla en Pamplona, Cabeça deste Reyno y Obispado de Nauarra, que es el que se habla en la mayor parte del, donde se habla bascuence y el que mejor se entiende en todas las partes. (Ber, “Al lector”)<sup>16</sup>

Etxeberri Ziburukoak latinezko *-mentu(m)* atzizkiari dagozkion hitz guztiak *-nd-* rekin dakartza. Autore horren corpusean ikusitako hitz asko Beriainen testuan ere aurkitzen dira, baina idazle honek, aldiz, ahoskabeak ditu: *adimendu* (EZ, 5. or.)<sup>17</sup> *vs adimentu* (Ber, 43. or.); *pensamenduetaric* (EZ, 73. or.) *vs pensamentues* (Ber, 69. or.). Hau ikusita, Iparraldean herskari ahostunak denbora luzeagoan irauin duela pentsa daiteke, baina honek teoria zaharrari kontra egingo lioke (ik. § 6.1). Erronkaribartik urrunago gelditzen den Betolatzaren dotrina ere arakatu dugu puntu hau argiago ezartzeko asmoz. Arabar idazle honek —Beriainek bezala— *-mentul-mentu* atzizki soila du: *pensamentu* (Bet, 52. or.), *Mandamintu* (Bet, 56. or.), *juramenturic* (Bet, 56. or.). Azken lekukotasunaren lagin esanguratsu horri esker, aurretik ikusitako Iparraldeko eta Hegoaldeko idazleen arteko banaketa —Ros *vs* Etxart, Leizarraga, Etxeberri Ziburukoak— are nabarmenago bilakatzen da Rosi Betolatz eta Beriain ere gehituaz. Lehendabiziko hurbilketa horren arabera, Mitxelenak proposatzen duen ahoskabearen aldeko berrikuntza ez Erronkaribar eta Zuberoakoetan eta bakarrik hor, baizik eta Rosez landara Hegoaldeko gainerako testuetan ere gertatu dela erakuts daiteke. Horrek esan nahi ote du, beraz, erronkarieraren *n-* ondoko ahoskabetasuna ez dela hizkera horren ezaugarri bereizlea? Erantzuna bilatu nahian, euskalki horren gainerako lekukotasunak ere aztertuko ditugu.

Eginkizun honetarako, oso lagungarri izan da Ricardo Gómezen (1991) lana. Ikerlari horrek XVIII. mendeko erronkarierazko *Doctrina uscaraz* aztertzean, *n-/l-*ren ondoko herskariaren adibideen artean, *pensamentu* eta *ordenamentu* hitzak aurkitu zituen. Kasu horretan, Rosen gutunen eta dotrina horren arteko distantzia ez du geografiak markatzen, baizik eta mende bateko jauzi kronologikoak. Are geroagokoak dira Hualde Mayoren itzulpena eta Mendigatxak Azkueri idatzitako gutunak —1902tik 1916ra arte—, hauetan ere orobat aurkitzen delarik *-mentu*.<sup>18</sup> Hartara, esan daiteke ordurako ekialdeko euskalki horretan *-nd-* > *-nt-* berrikuntza gertatu dela? Hain corpus txikiarekin ezin dira hipotesi orokorrak atera. Gehienez ere, aurreko konparaketa laburrean ikusitako joerak deskriba daitezke, hots, XVIII. mendetik aurrera *-mentu* dela nagusitu dena.

<sup>15</sup> Iruñeko hizkera Erronkaribartik ez oso urrun egon arren, Jerónimo de Jubera eskribau tuterarra euskaraz moldatzen zen, baina, Erronkaribarko hitzunen esanak ulertzeko zailtasunak izateagatik, 1582an itzultzaile bat behar izan zuen: “Según hace constar en la probanza, con cinco mujeres se sirvió de un vecino como intérprete por no entender bien el euskera de la zona” (Monteano 2017: 59). Iruñeriko nekazari euskaldunekin, ostera, ez omen zuen arazorik izan.

<sup>16</sup> 1. taulan zehaztu den moduan, hau KGko edizio faksimiletik ateratakoa da, “Al lector” sarreratik, hain zuzen.

<sup>17</sup> Parentesien artean, adibidearen orrialdea zehazten da eta, gutunak identifikatzeko sistemarekin ez nahasteko, zenbakiaren ostean “or.” idatzi da. Dena den, zein testuz ari garen ikusteko, 1. taulara jo.

<sup>18</sup> Hona hemen adibide batzuk. Dena den, eranskinen etsenplu guztiak bildu dira: “Hura pensamentu contan” (HM, 528. or.); “Egun kuetan nago sendimentu pikor bateki” (Mdg, 127. or.).

### 6.2.1.1. *Hizkuntzatik haratago: egoera soziolinguistikoaren eragina*

Aurreko hurbilketak ez digu aipatutako Hegoaldeko *vs* Iparraldeko auzia konpontzen, Beriain eta Betolatzaren dokumentuetan espero ez den herskari ahoskabea aurkitu delako. Pentsatu izan da *-mentu* aldaerak atzizkiaren jatorrizko latinezko formatik hurbilago dirudenez, horixe dela zaharrena euskaraz, baina gainerako adibideei esker jakin genezake baieztapen hori ez dela zuzena. Izan ere, zalantzarik gabeko bestelako testuinguru batera jotzen badugu, *bake* askoz zaharragoa da euskaraz *pake* baino, nahiz itxuraz bigarrena latinekotik hurbilago izan. Horregatik, aztertzen ari garen kasu honetan hizkuntzan gertatzen diren aldaketetatik haratago jo behar dugu.

Beste era batean esanda, Beriainen eta Betolatzaren testuinguruak xehetasun handiagoz ikertu beharra dago, XVII. mendean kokatzen diren idazle horien garaian, bai Iparraldean eta baita Hegoaldean ere: “*Diglosia* hitzak ezin hobeki deskribatzen du euskararen egoera, beti gaztelaniaren, frantsesaren eta gaskoiaren beraren menpe, hizkuntza horietantxe idatzi baitziren Euskal Herriko foruak” (Mounole & Gómez 2018: 473).

Baina diferentzia nabarmenak ere baziren: Hegoaldean gaztelania guztiz indartsu bihurtzen ari zen eta Beriainen testua horren adibide da. Idazle hori erdarazalea dela ez dago zalantzarik, hainbat hitz orduko erromantze modernoenetik hartu dituela ikusi baita —orobat edo are gehiago Lizarragak mende bat geroago—, testuari nolabaiteko maila eta dotorezia emateko aipatutako erdaratik zuzenean hartutako mailegu asko erabili baitzuen. Jarrera horren eraginez, esan daiteke Beriainentzako *-mendu* atzizkia zaharrituta dagoela eta gaztelaniazko forma jasoago aurkitzen duenez, hizkuntza horretatik hurbilen gelditzen den atzizkiaren alomorfoa erabiltzen duela. Iparraldean, aldiz, Leizarraga eta gainerakoengan, ezin topa daiteke horrelakorik, *-nd-* eredu zaharrari eutsi baitzaio. Autore horiek maila jasoko idazleak izan arren, ez da antzematen beren hizkeran erromantze garaikideen (gaskoiaren) eragin markagarriarik fonologian, Hegoaldean bertako erromantzearekiko aurkitu bezala.

Hortaz, Iparraldekoek *-nd-* forma jatorra darabilte, baina Beriainek, berriz, forma hori baztertu eta kultismo diglosikora jotzen du, hau da, gaztelaniaren ahoskabeetara. Orobat, gaztelaniaren eragina Rosen eskutizetan ere nabaritzen da, berak ere *-mentu* atzizkiaren adibideak baititu. Hala eta guztiz ere, atzizki mailegatu baten inguruan ari garela ezin da ahaztu, ez latinetik baizik eta gaztelaniatik zuzenean hartutako atzizki batez,<sup>19</sup> hain zuzen ere.

Ezagunenez, bertakotzeko ondare zaharreko hitzen oinarri lexikoekin behar dute konbinatzera heldu atzizki mailegatuek; alabaina, ez da egoera hori aurkitzen duguna, atzizki mailegatua soilik mailegatutako oinarriekin elkartzten baita. Hau da, *-mentu* euskarazko atzizki soilik bilakatuko litzateke ondare zaharreko hitzetako oinarri lotzean, baina hori ez da gertatu ez XVII. mendean ezta geroago ere, Sarasolak (1997: 636) atzizkiaren “modernotasuna” aztertzean erakutsi zuen moduan. Hortaz, euskaraz Rosek dakartzan bezalako hitz mailegatuak barneko analisirik gabe (“osorik hartu”) eskuratu dira, hizkuntza hartzailean inongo eratorpen historikorik gauzatu gabe, nahiz erromantzean hitza zatikagarria izan lehen eta gero.

<sup>19</sup> Berianek gaztelania eredu duenez, *-mentu* hizkuntza horretatik egokitu *-ie-* > *-e-* (cf. Bet *-ie-* > *-i-*: *-mintu*) duela baieztatu daiteke.

### 6.2.2. Entelegatu, gente, abentu, borontate

Mitxelenaren azalpena itzuliaz (cf. § 6.1), barneko analisirik gabeko mailegutan azaleko berrikuntza bat dirudien *-d-* > *-t-* aldaketa dugu. Adibidez, Etxarten gutunetan askotan errepikatzen den *endelgatzen* (1) hitzaren aurrean, Rosen *entelegatuec* (15) dugu. Hitz forma hori latinezko *intelligeretik* datorrenez, euskal dialektoetan *-d-* baten bidez ematea espero da eta, gauzak horrela, *-t-* agertzea berrikuntza litzateke. Gainera, Mendigatxaren gutunen artean ere herskari ahoskabea aurkitzen da hor: *entelegatra* (Mdg, 132. or.).<sup>20</sup> Beraz, badirudi *endelgatu*-n xvii. mendeko erronkariaren herskari ahoskabea sartzan hasia zela; baina, hau argiago ikusteko, kasu gehiago eta ohikoagoak hautatu ditugu dagoeneko aipatu diren garai bertuko idazleekin konparaketak egiteko. Horrela, ahostun/ahoskabe alternantziaren inguruan xehetasun gehiago lortu ahalko dira.

Lehenik eta behin, Rosek ahoskabea idazten duen beste mailegu bat *gente*<sup>21</sup> (15) da. Etxartek ahostunarekin (*gende*, 1) jartzen du eta baita Leizarragak, Beriainek eta Etxeberri Ziburukoak ere.<sup>22</sup> Hualde Mayok eta Mendigatxak, aldiz, *gente*<sup>23</sup> idazten dute. Ondorioz, badirudi hitz horretan jada *nd* > *nt* bilakabidea burutua dela Erronkaribarran.

Horrekin batera, Rosen gutunetan *abentuco* (15) aurkitu da eta Beriainen eta Leizarragaren testuetan ere hitza badator, baina beti bietan ahostunarekin.<sup>24</sup> Geroago Mendigatxak ere *-t-* idazten du: *abentu* (Mdg, 129. or.). Gainera, Etxartek *abentuiaren* (14) erabiltzen du eta, horri esker, lekukotasun eta hizkera bakoitzak bere bilakabidea duela ondoriozta daiteke: esate baterako, Rosek *-t-* sartzan duenerako, Etxartek oraindik hitz batzuetan egitura zaharrari eusten dio, baina, beste batzuetan, herskari ahoskabea ematen du.<sup>25</sup>

Rosen hizkeran fenomeno hau erabat finkaturik ez dagoela pentsatzera garamatzate *borondateaz* (7) eta Etxarten *vorondate* (4) adibideek. Leizarragak, Beriainek, Axularrek eta Etxeberri Ziburukoak ere hau *-d-*rekin dakarte.<sup>26</sup> Geroago, *Doctrina uscarazen*,<sup>27</sup> aldiz, *borontatia* lekukotzen da (Gómez 1991: 407) eta Hualde Mayoren testuan edo Mendigatxaren eskutitzetan *borontatia* (HM, 538. or.) / *borontate* (Mdg, 121. or.). Hartara, Rosen gutunetan topatzen diren aldaketak oraindik “bariazio” txi-

<sup>20</sup> Gainera, Erronkaribarko azken hiztuna izan zen Fidela Bernati esker, gogoan izan hizkeraren hondarreko uneetara arte ere ahoskabea biltzen dela: “Xa? entelégatan?” (Artola 2000: 490).

<sup>21</sup> (9). gutunean *gende* darabil. Beharbada 4. atalean ikusitako jarreraren ondorioz.

<sup>22</sup> Hona hemen adibideak: “eta bere *gendea* igorric hil citzan” (Lç, 286. or.); “eta Corteco *gendeac*” (Ber, 38. or.); “Hartaracotz *gende*” (EZ, 394. or.).

<sup>23</sup> Hona hemen adibideak: “*guente anichez*” (HM, 532. or.); “*canpoco gente*” (Mdg, 128. or.).

<sup>24</sup> Hona hemen adibideak: “*adbendua*” (Lç, ikus bedi *OEH*, s.v. *abendu*), “*Carta demboretan eta abenduco*” (Ber, 254. or.).

<sup>25</sup> Honek badu salbuespenik: Etxarten zubereraren “jatortasuna” oraindik ziurtatu gabe dago (ik. § 2.5). Baliteke mendebaleragoko hizkeren eraginik izatea. Horregatik, hau ere ondare zaharreko hitzetako adibideak aztertzean, kontuan izan behar dugun egoera bat da.

<sup>26</sup> Hona hemen adibideak: “Eguin bedi hire vorondatea ceruan beçala lurrean-ere” (Lç, 298. or.); “berce gauçac ceren aren vorondatea baitago” (Ber, 51. or.); “eracutsi duçun vorondate” (Ax, 5. or.); “*ceure vorondatea*” (EZ, 413. or.).

<sup>27</sup> Lekukotasun hau nongoa den zehaztea zaila da. Erronkarikoa edo Urzainkikoa izan daitekeela uste da. Nolanahi ere, Gómezek (1991) eztabaida hau bere artikuluan azaltzen du.



kiak direla iruditu ahal zaigu eta hauek erabat sistematikoa ez den testuinguru bat erakusten dutela. Eta Gómezek (1991) argitaratutako dotrinaren, Hualde Mayoren edo Mendigatxaren kasuak ikusita, ahoskabearen aldeko egoera hori soilik geroago egonkortzen dela pentsa daiteke.

Dena dela, hurrengo puntuan ondare zaharreko hitzetako kasuei helduko zaie, izan ere, diakroniaren metodologian lehenetsuna haiena baita beti.

### 6.3. n-/l- ondoko herskariak ondare zaharreko hitzetan

Sudurkari eta albokari ondoko taldeen analisia osatzeko, atal honetan ondare zaharreko hitzei begiratu diegu. Horretarako, erronkarietaz lekukotutako ondare zaharreko hitz guztien analisia hemen egitea ezinezko delarik, [erro monosilabikoa + atzizkia] bezalako elkarketak aukeratu ditugu, beraiek baitira oinarrizkoenak eta zaharrenak ere (cf. Lakarra 1995). Honenbestez, CV(C) + CV osarak aztertuko dira, Trasken legea ere (ik. § 6.1) gogoan dugularik: beraz, espero da CV(C) + DV egitura zaharrena izatea eta hortik CV(C) + TV / V alomorfo berriak sortzea.

Has gaitezen Rosen *ongui* (9) aztertzen. Kasu honetan, *on-* erroari atxikitzen zaion atzizkia DV ahostuna da; hortaz, Trasken legeak aurreikusitako forma zaharrena dugu. Horren alde, Axular, Beriain, Etxeberri Ziburukoa eta Leizarragaren *-gi*<sup>28</sup> amaierak topatzen ditugu. Aldiz, horren aurka, Ros beraren *onquy* (15) dugu eta baita Bonaparte, Hualde Mayo eta Mendigatxaren<sup>29</sup> *-ki*<sup>30</sup> ahoskabe ugariak ere. Lekukotasunen kronologia ikusita, *-gi* atzizkia zaharrena dela pentsa daiteke eta, ondoren, Rosen garaian *-k-* sartzen hasi zela Mendigatxaren gutunetan nagusi edo erabateko bilakatu arte. Bilakabide hori aditzetako *-ki/-gi-*rekin bagenekien (cf. Lafon 1999: 769).

Aurreko lekukotasunaz gain, Rosek lau aldiz *vilgu* (7) darabil. Adibide hori ahostunarekin Etxarten gutunetan ez denez topatzen, ondoriozta dezakegu Rosek ezin izan duela harengandik hitz forma hori hartu. Hori dela eta, *l-* ostean erronkarietan espero ez den herskari ahostuna dugu. Gainera, Etxeberri Ziburukoak *bilkhua*<sup>31</sup> dakar eta Etxartek, berriz, *bilkuian* (10). Beraz, lekukotasun hori Erronkaribartik kanpo ahoskabearekin aurkitu dela ikusten dugu eta, horrenbestez, *vilgu-k* —*handi* eta *gelditu-k* bezala— alomorforik zaharrena ahostuna dela erakusten du.

Ahoskabearen aldeko bilakabide hori argiago ikusteko, hitz gehiagorekin azterbide bera jarraitu da, baina ondoren aztertuko direnak Etxarten hitzak dira, egile horren gutunetan ahostun/ahoskabe lekukotasun gehiago aurkitu baitira:<sup>32</sup> zuberotarraren *alde* (8) etsenpluarekin bat, Leizarraga, Beriain, Axular eta Etxeberriren *-de* alomorfoak ditugu. Izan ere, Bonapartek izan zituen laguntzaileek, Hualde Mayok eta Men-

<sup>28</sup> Hona hemen adibideak: “vngui egueçue gaitz ” (Lç, 296. or.); “eguitendituela ongui” (Ber, 253. or.); “ongui ethorria” (Ax, 5. or.); “Bethi ungui ethorria” (EZ, 19. or.).

<sup>29</sup> Esan beharra dago *ongui* (bakarra) ere topatu dela. Horregatik, hau *fase sparitaren* erakusle da.

<sup>30</sup> Hona hemen adibidea: “onqui aburritandaiceiner” (HM, 536. or.); “onki eskibitandaudan” (Mdg, 121. or.).

<sup>31</sup> Ikus bedi *OEHN bilkuia* sarrera.

<sup>32</sup> Halaber, kontuan hartu 25. oin-oharrean esan dena.

digatxak, *-te*<sup>33</sup> darabilte. Ondorioz, azken hitz horrekin ere aurretik ikusitako egoera bera lortzen da. Baita Etxarten *bildu*<sup>34</sup> (8) adibidearekin ere: gainerako Iparraldeko idazleek *-du* erabiltzen dute eta Bonaparteren datuek edo Mendigatxak, berriz, *-tu*.<sup>35</sup> Horregatik, adibideen datak ikusita, *-d- -t-* baino lehenago lekukotzen dela frogatzen da eta gertakari horrek bat egiten du Mitxelenaren (1961) hipotesiarekin, alegia, ahostuna dela forma zaharra eta gero Erronkaribar eta Zuberoan ahoskabetu zela.

Horrela, maileguetan ikusitako “bariazio” txikiak (ik. § 6.2) ondare zaharreko hitzetako etsenpluetan ere aurkitu dira, ahoskabea nolabait sartzen ari dela erakusten digutenak. Eta herskari ahostunarekin adibide gehiago aurkitzeagatik ere —baita garai bertsuko testuetan eta geroko *sparitak* ere— haiek zaharragoak izan daitezkeela erakusten da. Horrekin batera, badira adibide batzuk euskararen historian herskari ahostunarekin bakarrik topatzen direnak: Rosen *andia* (7) eta *guelditu* (11). Ondorioz, aipatutako azken horiek atzizkiaren forma zaharra *-di* dela pentsatzera garamatzate, gramatikalizatu aurreko *-din-* erroarena zen bezala zalantzarik gabe:

Orain *hordi*, *geldi*, *handi* bezalako *forma sparitak* —seguru asko baita *erdi* eta, agian, *irudi* ere— kontuan izanik (ez da *\*\*horti*, *\*\*gelti*, *\*\*hanti*, *\*\*erti*, *\*\*iruti*), *-di* zen (ez *-ti*) adjektiboak egiteko atzizkiaren forma zaharra (cf. *-de < \*eden : -di < \*edin*). (Lakarra 2013: 302)

#### 6.4. Herskari ahostun > ahoskabe bilakabidea

5. atalean, fonologiaren eta morfologiaren arteko lotura azaldu da eta, aitzineuskaraz geroztik erlazioa aldatuz joateagatik, bisilaboen egitura —monosilabikoen eta morfemen arteko erlazioa— eraldatzen da eta horrekin inoiz *-DV > -TV* egitura ere. Bilakabide hori hurrengo paragrafoetan erakutsiko da.

Ikusi den bezala, badaude arrazoiak Trasken legearen alde jokatzeko; hots, aztertutako gutunetan aurkitu diren herskariaren ahostun/ahoskabe alternantzien aurrean, *DV* egitura adibideak zaharrenak dira. Horren berme eta alomorfo berriek nola funtzionatzen duten ulertzeko, Kuryłowicz-en lege klasikoak gogoratzekoak dira:

The fourth law: when a form undergoes analogical reshaping, the new form takes over its primary function, and the old form remains only in secondary functions. [...] The sixth law: a native form may be analogically reshaped under the influence of a non-native form, especially if the non-native variety is more prestigious. (*apud* McColl Millar 2015: 106)

Kuryłowicz-en arabera, alomorfo berriak aurrera eginez gero, hainbat eta tesuinguru gehiagotan indartsu eta nagusi bilakatzen hasiko dira eta, horren eraginez, forma zaharra tesuinguru isolatuetan bazterturik geldituko da. Beraz, hau guztia aintzat hartuz, *DV* egitura zaharra *TV* alomorfo berriaz ordezkatu da. Bestalde, berri-

<sup>33</sup> Hona hemen adibideak: “Capernaum itfas aldecoan” (Lç, 290. or.); “alde batetic” (Ber, 38. or.); “Alde batetic” (Ax, 221. or.); “Ene alde othoi” (EZ, 276. or.); “Jordanaren berce alteco” (HM, 533. or.); “mechediaren altez” (Mdg, 125. or.).

<sup>34</sup> Gogoan izan *-du* mailegatutako atzizki zaharra dela, baina haren zahartasunarekin ez dago zalantzarik ondare zaharreko hitzekin konbinatzen eta dialekto guztietan lekukotzen baita.

<sup>35</sup> Hona hemen adibideak: “Eta bilduric” (Lç, 284. or.); “vildu nahi du” (Ax, 218. or.); “Elkhar gana bildu” (EZ, 247. or.); “faitendra biltuz” (Mdg, 136. or.).

kuntza gero eta hitz eratorri gehiagotan hedatzen hasiko da, azkenean alomorfo berria nagusi eta usu bakar bilakatuz.

Horretarako, gramatikalizazioaz hitz egin dugunean morfemak lexikotik datozela gogoratu behar dela azpimarratu dugu eta, honenbestez, morfemak errotik hainbat ezaugarri eutsi diola: fonetikan, semantikan... Baina beste bereizgarri batzuk, berriaz, aldatu egiten dira (ik. § 6.1). Beraz, erronkarian edo zubereran aurkitzen diren -TV alomorfo berriak, beste hizkeretan ere aurkitzea espero da (cf. 7. ataleko *arte* adibidea), baina euskalki bakoitzean aldaketak daraman erritmoak eta berrikuntzak lexikoan erdiesten duen hedadurak eragiten du ekialdeko bi hauen eta gainerako hizkeren arteko banaketa. Hori dela eta, erronkarian eta zubereran abiadura handiagoan orokortu dira *n-/l* osteko herskari ahoskabeak.

Dena den, segurtasun eta zehaztasun gehiagorako, Rosen eskutitzak gainerako erronkarietarako testuekin konparatu dira eta, haietan zer gertatzen den astiroago ikusteko, Hualde Mayoren itzulpenak eta Mendigatxaren gutunak, XIX. eta XX. mendeko lekukotasun zabalena, sakonago aztertzeke aukera izango da hurrengo atalean.

## 7. XVII. mendetik XIX. menderako jauzia

6.3. azpiatalean sumatu den moduan, ahoskabeak ugalduez doaz ondare zaharreko hitzetako egituretan eta egoera horren adibide garbiak dira Hualde Mayo eta Mendigatxaren testuak. Horrenbestez, *alte*, *biltu*, *galte*, *g<u>entu*, *onki*<sup>36</sup> etab. bezalako adibideak aurkitu dira (guztiak eranskinean daude zerrendaturik). Etxart eta Rosen gutunetan, aldiz, haietako batzuk ahostunarekin aurkitu dira, beren XVII. mendeko kronologiaren aldaera zaharragoari dagokion moduan. Gogora, bestalde, badela beste argudio ezagun bat oraindik: *handi*, *aldi*, *erdi*, *ahardi*, *zaldi*, *ardi*, edo *hordi* (ik. § 6.1) bezalakoak euskararen historian ez dira inoiz ahoskabearekin lekukotu, ezta Erronkaribar eta Zuberoan ere. Horren alde Mendigatxaren *ongui sparita* ere badugu (ik. 29. oin-oharra).

Ondare zaharreko hitzetako ahoskabeekin batera, Hualde Mayo eta Mendigatxaren idazkietan mendebaldean ahostunarekin diren zenbait mailegu ahoskabearekin aurkitu dira: *tenpra* (*vs denbora*), *altare* (*vs aldare*), *abentu* (*vs abendu*). Haien bidez, isoglosa argiak marraztu izan dira bi eremuen artean eta, ekialdeko adibideak latinezko egitura zaharretik hurbilago egoteagatik, haien herskari ahoskabea hotsik zaharrena dela defendatu izan da oraintsu arte (ik. § 6.1-eko Mitxelenaren aipua). Baina iritzi bera partekatzen ote da *alte*-rekin? Mitxelenaren aipuan bertan ikusten da ezetz. Gainera, badira hainbat mailegu toki guztietan ahoskabearekin idatzi direnak —adibidez, *contra* baina inoiz ez *\*\*condral\*\*gondra*— eta horrek zalantzan jartzen ditu mendebaldeko balizko ahostuntze berantiarrek edo halakoen ugaritasun edo sistematikotasuna, gutxienez. Hortaz, ondare zaharreko hitzak kenduta, mendebaldean badira hainbat mailegu ahoskabearekin, ekialdean bezalaxe.

Beraz, zer ahostundu dute mendebaldekoek? Erronkarietaren *abentu* bezalako mailegu zaharrak? Zertarako edo zergatik? Eta ekialdean zergatik dugu beti *handi* eta ez *\*\*hanti*, espero genukeen bezala, baldin eta forma ahoskabeak balira zaharrenak?

<sup>36</sup> *Biltu* eta *guentu* adibideei dagokienez, kontuan hartu 34. oin-oharrean *-du* atzizkiak esan dena.

Horren inguruan gogoeta egitean, oraintsu arte fenomenoaren alderdi bakoitza bere aldetik aztertu dela dirudi edota, are gehiago dena, fenomeno horren alderdi osoak aztertu gabe utzi direla, hau da, maileguren eta ondare zaharreko hitzen arteko loturak/erkaketak egin gabe. Horregatik, lan honetan zehar Trasken legea eta gramatikalizazioaren garrantzia aldarrikatu dugu, betiere ondare zaharreko hitzetako morfemen jatorri eta bilakabidea ezartzeko, ikusi baitugu dagoeneko aztergai honetan ere ez dela erabateko etenik morfologiaren eta fonologiaren artean. Bestela ez ginatke ohartuko aztertutako morfemak lexemetatik datozela eta, gertakari horiek aintzat ez hartzeagatik, ahostun/ahoskabe fenomenoaren arazo fonologiko hutsa balitz bezala tratatu izan dela (ik. § 5).<sup>37</sup>

Rosen *-mentu* edo *gente* adibideei esker, ikusi da mailegu horietan *n-/l-* osteko ahoskabea ez dela euskarazko forma zaharrena eta egoera hori are argiago da ondare zaharreko hitzetan. Esate baterako, ikerketa honetarako erabili diren Erronkaribarko lekukotasunek, nahiz *alte* edo *onki* —baina Rosen eta Mendigatxaren *ongi* ere— dituzten, *handi -d-*rekin dakarte. Horrela, *\*\*hanti* euskararen historian inoiz ez lekukotzeak Trasken (1995) hipotesia indartzen du. Gainera, *han-di*, *ar-di*, *er-di* eta *hor-di*-ren *-di* amaierak atzizki beraren kasuak direla onartzen baldin badugu, *\*\*arti*, *\*\*erti* zein *\*\*orti* ere faltan direla ohartuko gara. Arrazoi horiengatik, *handi*-k pisu gehiago du gainerako TV bilkuren aurrean.

Beraz, Hualde Mayo eta Mendigatxaren bidez, ondare zaharreko hitzetan ahoskabetzeak gehituaz doazela nabarmendu dugu. Halaber, batzuk euskaraz orokorrak izatera hel daitezke: adibidez, Trasken legearen oinarrian den *-de > -te* bilakabideko *uste*, *urte*, *sute*, *arte* mendebaldean ere badira, gainera. Horrek zera erakusten du: berrikuntza are aurreratu edo zabalago dela erronkarian edo zubereran mendebaldeko hizkerekin konparatuz, baina ez han ez denik. Edonola ere, TV hots segida bat morfologikoa —morfema zahar/fosildua— denean hotsik zaharrena ahostuna dela frogatu da, alomorfo berriko ahoskabeak txistukari ondoko kokagunean sortu eta gero bestelakoetara ere zabaldutakoak direlarik (cf. *Arratzu*, *Saratsu*, *iletsu*, *bizartsu vs mukizu* [*sparita*]). Hala ere, baieztapen horrek ez du esan nahi talde morfologikoak ez direnean —maileguetakoak bereziki— gauza bera gertatu behar denik. Beste era batean esanda, Euskara Zaharrean *-mentu > -mendu* gerta zitekeen, baina horren kontra, *contra > \*\*condra* daketa inoiz ez da gauzatu. Halaz, etsenplu horrek erakusten du ahostun > ahoskabe berrikuntzan maila diakroniko, fonologiko, soziolinguistiko... desberdinak daudela.

Argi dago erronkarian ahoskabetzea ugalduez doala ondare zaharreko hitzetan eta baita maileguetan ere, eta egiaztapen hori Hualde Mayo eta Mendigatxarekin guztiz ziurtatzen da. Halaber, [erronkaria eta zuberera *vs* gainerako dialektoak = herskari ahoskabeak *vs* ahostunak] lotura egitea ez da zuzena, behin eta berriz errepikatu den bezala, badirelako ahoskabetun mailegu asko mendebaldean inoiz ez direnak ahostundu. Eta ekialdean, ordea, badira egitura zahar batzuk inoiz ez direnak ahoskabe bilakatu —*handi*, *aldi* eta *r-* ondorengoak, adibidez—. Horrenbestez, ahoskabetzearen edo ahoskabetzearen arabera ekialdea eta mendebaldea erabat desberdintzea akats bat litzateke diakronikoki behintzat.

<sup>37</sup> Ikusi dugunez, forma ahoskabeak itxuraz latinetik hurbilago egoteagatik, horiek direla zaharrenak euskaraz ere baieztatu da, baina § 6.2.1.1-eko *pake*-ren kasu ezaguna gogoratzeak erakutsi digu irizpide hori ez dela batere zuzena eta ikerketa desbideratu duela.

Nolanahi ere, fenomenoak analisi morfologiko zaharraren aztarna edo zantzuren bat gordetzen duenean, hau da, morfemen artean banaketa bat suma dezakegunean, Mitxelenak ikusi bezala, herskari ahostunek dute hotsik zaharrena izateko aukera gehien. Izan ere, Mitxelena ohartzen da antzinako egitura morfologiko fosilduaren aztarna horretaz: “Esto quiere decir, naturalmente, que *alte* y *galte* p. ej. eran palabras complejas que habría que analizar *al-te* y *gal-te* del mismo modo que según toda probabilidad *igante* era *igan-te*” (Mitxelena 1961: 355).

Hortaz, lehen esan bezala, erronkarietak pairatutako ahoskabetzeaz hainbat aditu baliatu dira ekialdea gainerako dialektoetatik bereizteko. Baina, mendebaldean ere ondare zaharreko hitzetan ahoskabeak izanik, zeri begiratzen zaio? Kopuruari? Ala maileguetako —latinetik hurbilagoko omen diren— zenbait ahoskaberik? Horren aurrean, fenomeno morfologikoa (cf. § 6.1.1) noiz eta nola bihurtzen den fonologiko ikertzea litzateke garrantzitsua eta, horretarako, mailegu zein ondare zaharreko hitzei begiratu behar zaie, batez ere azken hauei, noski. Hala ere, egoera diglosikoa aintzat hartzea ere ezinbestekoa da, lan honetan forma ahoskabe moderno batzuk arrazoi soziolinguistikoen eraginez gertatu direla erakutsi delako (ik. § 6.2). Erronkarietaren kasuan, morfoloziatik fonologiarako jauzia ondare zaharreko hitzetan bakarrik ziurra daiteke, berrikuntza are indartsuagoa bihurtzen baita Hualde Mayo eta Mendigatxaren testuetan. Hori dela eta, -DV > -TV berrikuntzak biderkatuz joan direla ikusi da —§ 6.4-ko Kuryłowicz-en lege klasikoak jarraituz— lege fonologiko huts (ia) bilakatuaz. Aldiz, *arte* bezalakoak Euskal Herri osoan gertatu direla azpimarratu dugu. Beraz, honek erakusten ditu bilakabidearen erritmo eta hedadura diferentek testuinguru eta dialektoetan. Dena den, erronkarietako ahoskabetasunaren ugaritasunak iradokitzen du hizkera horretan berrikuntza hori lehenago zabaldu zela dagoeneko EBZaz geroztik eta muturrera eraman dela ekialdeko dialekto horietan berrikuntzen kopurua biderkatuz. Horren ondorioz, morfologikoa zena fonologikoa izatera eta ondare zaharreko hitzetatik maileguetara igaro da.

## 8. Ondorioak

Lan honen helburua Mitxelenak 1961ean proposatzen zuena egiaztatzea izan da (ik. § 6.1); hau da, gainerako euskalkietan gorde den egoera zaharren aurrean, zubererian eta erronkarietan *n-/l* ondoko herskarietan ahostun > ahoskabe aldaketa gertatu dela frogatu nahi izan da. Hipotesi zaharberritu horren alde Lakarrak (2013) beste hiru argudio —fonologiko, geografiko eta morfologiko— eranstean dituela gogoratu dugu (ik. § 6.1.1) eta horrek erakutsi digu aztergaia ezin dela bilakabide fonologiko hutsa balitz bezala tratatu. Are gehiago, morfoloziarekin loturak dituela erakusten du, -DV > -TV morfema banaketaz, Trasken legeaz eta gramatikalizazioaz baliatuz.

Aurretik esan dena praktikara eraman nahi izan dugu guk Etxart-Ros gutuneria eta garai bertuko edota geografia bereko konparaketen bitartez. Horrela, herskarietako bilakabidea noizbait ahostun > ahoskabe fenomeno morfologikoa —zehazki, alo-morfikoa— izan zela erakutsi dugu. Gero, fonologikoki orokortuaz joan zela eta ondare zaharreko hitzetatik maileguetara hedatu dela zehaztu dugu, hizkuntza kontaktuan aruntetan ohi bezala (ik. § 7).

Horretaz gain, azterketa honetarako Trasken legea eraginkorra dela frogatu da, Trasken (1995) herskari ahulez hasten den CVrik zaharrena ahostunarekin eraikitako morfema dela baitio —nahiz hura adizki jokatueta mugatu— (ik. § 6.1.1) eta lan honetan egin diren konparaketetan hark ikusitako bilakabidea lortu delako. Halaber, esan dugu herskari ahoskabeak, duten hitz forma itxuraz latinetik hurbilago egoteagatik, zaharrenak direla euskaraz ere baieztatu dela, baina § 6.2.1.1-eko *pake* eta beste askoren kasu ezagunak gogoratzeak erakutsi digu irizpide hori ez dela batere zuzena eta ikerketa desbideratu duela. Hori dela eta, bereziki ondare zaharreko hitzetako kasuei begiratu behar zaiela azpimarratu nahi izan dugu, metodologikoki eta baita diakronikoki ere lehentasuna haiena delako. Gainera, antzeman dugu kultismo edo erdi-kultismoetan erronkaribartarrek, baina baita beste dialektoetako idazleek ere, erdara modernoaren diglosiaren eraginez ahoskabearen alde jokatu dutela. Horren ondorioz, corpusaren baldintza soziolinguistikoa aintzat hartzea ere ezinbestekoa izan da (ik. § 6.2.1.1).

Corpusa aipatzen jarraituz, analisisan eragina izan dezakeen zenbait arazorekin topatu gara. Adibidez, Rosek Etxarten hizkera imitatu nahian, gainerako gutunetan aurkitzen ez diren hitz formak darabilta gutun jakin batean (ik. § 4) eta jarrera horrek *n-/l-* ondoko herskariaren analisisan eragina duela ohartu gara. Horretaz gain, zuberotarraren hizkera lan honen mugetatik kanpo gelditu da eta, horren ondorioz, etorkizunean Etxarten “jatortasuna” —hots, bere jatorrizko lurraldeko benetako hizkerari zenbatean lotu zitzaion— edo horren falta ziurtatu beharko da.

Halaber, oztopo horien aurrean metodologian ahalik eta zintzoenak izaten saiatu gara. Horretarako, kronologia errespetatu nahi izan dugu; adibidez, eskutitzen garai bertsuko lekukotasunekin egin dira lehendabiziko erkaketak eta, gero, Rosen gutunez ondoko 250 edo ia 300 urteko erronkarieraren corpus “klasikoarekin”. Horrela, zehaztasun gehiago lortu da, eta garai batetik bestera zer-nolako bilakabidea dagoen erakutsi da.

Ondorioz, lan honetan egin den hurbilketaren arabera, ondare zaharreko CVC-DV egiturak beste edozein baino lehenagokoak direla frogatu da (ik. § 7). Hala ere, Etxarten eta Rosen herskariaren adibideen artean diferentzia kronologikoak topatu dira —nahiz beste dialektoekin alderaturik topatzen direnak gehiago izan—. Horrek bilakabidea ezaugarri bereizle erabatekoa ez dela erakusten du.

Edonola ere, etorkizunerako fenomeno hau sakonkiago aztertzea eta corpusa handitzea eginkizun beharrezkotzat ikusten dugu; eta ez Rosen gutun laburrotan soilik, baina baita Etxartenetan eta, beraz, baita zubereraz zer gertatu den astiroago ikertzea ere.

## Erreferentziak

- Artola, Koldo. 2000. Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra (eta II). *FLV* 85. 487-512.
- Azkue, Resurrección María. 1931. Particularidades del dialecto roncalés. *Euskera* 12. 207-406.
- Bilbao, Gidor & Joseba A. Lakarra. 2016. Etxart-Ros gutuneria. (*Monumenta Linguae Vasconum* III. Jardunaldietan aurkeztutako komunikazio argitaragabea, Gasteiz, 2016/12/20). <https://ehutb.ehu.eus/video/58c67369f82b2be4338b45b0>.

- Etxart, Gabriel & Miguel Ros. 1616-1617. *Gutuneria* (Gidor Bilbao, Ricardo Gómez, Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Céline Mounole & Blanca Urgellen edizio-zirriborro argitaragabea, Gasteiz: UPV/EHU, 2013).
- Gómez, Ricardo. 1991. Erronkarietarako dotrina argitaragabe bat: edizioa eta azterketa. In Joseba A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum (ASJUren Gehigarriak 14)*, I, 375-426. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Hualde Mayo, Pedro Prudencio. 1934-1935. Evangelio de San Mateo traducido al vascuence roncalés de Vidángoz. *RIEV* 26(1). 527-548.
- Idoate, Florencio. 1977. *La comunidad del valle de Roncal*. Iruñea: Nafarroako Diputazioa.
- Irigoién, Alfonso. 1957. Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue. *Euskera* 2. 119-169.
- Janda, Richard D. 2003. Phonologization as the start of dephonicization –Or, on sound change and its aftermath: Of extension, generalization, lexicalization and morphologization. In Brian D. Joseph & Richard D. Janda (arg.), *The handbook of historical linguistics*, 401-422. Blackwell: Oxford.
- Lafon, René. 1999. *Vasconiana (Iker 11)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lakarra, Joseba A. 1995. Reconstructing the root in Pre-Proto-Basque. In José I. Hualde, Joseba A. Lakarra & Robert L. Trask (arg.), *Towards a history of Basque language*, 189-206. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Lakarra, Joseba A. 2011. Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz. In Irantzu Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehen eta oraina*, 155-241. Bilbo: UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba A. 2013. Euskararen historiaurrearen berreraiketa sakonagorako: forma kanonikoa, tipologia holistikoa, kronologia eta gramatikalizazioa. In Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Kate-draren III. Biltzarra*, 275-324. Gasteiz: UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba A. 2016. Gramatikalizazioa, morfemen forma kanonikoak eta berreraiketa morfologikoaren bide berriak. In Gotzon Aurrekoetxea, Jesus Mari Makazaga & Patxi Salaberri (arg.), *Txipi Ormaetxea omenduz. Hire bordatxoan*, 175-192. Bilbo: UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba A. 2018. Euskararen historiaurrea. In Joaquín Gorrochategui, Iván Igar-tua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 23-229. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Leizarraga, Joanes. 1990 [1571]. *Jesus Christ gure launaren Testamentu Berria*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Martinet, André. 1950. De la sonorisation des occlusives initiales en basque. *Word* 6. 224-233. <https://doi.org/10.1080/00437956.1950.11659382>.
- McColl Millar, Robert (arg.). 2015. *Trask's Historical Linguistics*. Londres & New York: Routledge.
- Mitxelena, Koldo. 1954. La posición fonética del dialecto vasco del Roncal. *Via Domitia* 1. 130-157 (Berrargit. *OC* 7, 611-647).
- Mitxelena, Koldo. 1955. La *Doctrina Cristiana* de Betolaza. *ASJU* 2. 41-60 (Berrargit. *OC* 11, 187-204).
- Mitxelena, Koldo. 1957. Las antiguas consonantes vascas. In Diego Catalán (arg.), *Miscelánea homenaje a André Martinet*, I, 113-157. Tenerife: La Lagunako Unibertsitatea (Berrargit. *OC* 7, 57-91).
- Mitxelena, Koldo. 1961. *Fonética histórica vasca*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (2. argit. osatua, 1977. Berrargit. *OC* 6).

- Mitxelena, Koldo. 1963. *Lenguas y protolenguas*. Salamanca: Salamancako Unibertsitatea (Berrargit. *ASJUren Gehigarriak* 20. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 1990; berrargit. *OC* 1, 1-98).
- Mitxelena, Koldo, Juan J. Beloqui, Jesús Elósegui & Pilar Sansinenea de Elósegui. 1953. Contribución al conocimiento del dialecto roncalés. *BAP* 9. 499-536 (Berrargit. *OC* 7, 571-608).
- Monteano, Peio J. 2017. *El iceberg navarro. Euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI*. Iruñea: Pamiela.
- Mounole, Céline & Ricardo Gómez. 2018. Euskara zahar eta klasikoa. In Joaquín Gorrochategui, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, 469-541. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.
- OEH = Euskaltzaindia. 2021. *Orotariko Euskal Hiztegia*. 10. argit. <https://www.euskaltzaindia.eus/oeh> [2023/01/30].
- Pagola, Rosa M., Itziar Iribar & Juan J. Iribar. 1997. *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Erronkariera*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Sarasola, Ibon. 1997. Euskal hitz altxorraz. *ASJU* 31(2). 617-642.
- Trask, Robert L. 1995. On the history of the non-finite verb forms in Basque. In José I. Hualde, Joseba A. Lakarra & Robert L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language*, 207-234. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.

## Eranskina

Analisisa egiteko Miguel Ros, Hualde Mayo eta Mendigatxaren *n-/l-* osteko herskarietz baliatu garez, aproposa deritzagu jarraian zerrendatzeari.

— Miguel Rosen [*n-/l-* + hers.] taldeen zerrenda:

/np/: *amplo* (13), *conpon* (9), *cumplitu* (11), *inpedizen* (9).

/lp/: *culpa* (17).

/nbl/: *aynbat* (9).

/nt/: *abentuaren* (15), *aconteçizen* (9), *contra* (9), *çoyntan* (9), *diferente* (9), *eguinte[n]* (9), *entelegatuec* (15), *espantaturic* (15), *galanta* (15), *gente* (15), *instrumento* (11), *intencione* (9), *jaunarentaco* (9), *junta* (7), *juntamentu* (15), *ontan* (9), *Parlamentu-yac* (13), *patente* (7), *prendamiento* (9), *presentac* (17), *puntu* (11), *puntualqui* (9), *sentencia* (9), *solamente* (7), *tanto* (11), *tinteroan* (15), *ventajaric* (9).

/lt/: *faltatu* (9).

/ndl/: *aldeti* (11), *andia* (7), *azienda* (9), *çinduten* (9), *demendatu* (13), *emendic* (7), *entendaturic* (15), *gendec* (9), *gobernamenduco* (15), *guelditu* (11), *prendamiento* (9), *respondatu* (7), *sindicuea* (7), *vorondate* (7).

/ld/: *molde* (15).

/nkl/: *concluy* (9), *encargaturic* (11), *Erroncariti* (7), *onquy* (15).

/ngl/: *desengañazen* (15), *emengo* (11), *estrangerequi* (15), *guengati* (15), *nongo* (11), *ongui* (17).

/lgl/: *algoazile* (15), *vilgu* (7).

— Hualde Mayoren [*n-/l-* + hers.] taldeen zerrenda:

/np/: *acompañatruc*, *campo*, *compadecitan cen*, *comparacioneric*, *compasione*, *complacimento*, *componi zte*, *cumplitruc*, *recompensa*, *tempestade*, *temploren*, *tempra*, *trompeta*.

/nbl/: *combeni*, *conbertitiaz*, *miembruetaric*.



/lb/: *alborotatruc, salba guitzazu.*

/nt/: *aburrimentu, alimentiuac, añadimentuz, aposentuan, asientua, atormenta, benabenturanrequin, boroniatia, calenturarequin, centuriaco, cimentu, cinturara, complacimentu, contatu cein, contra, contrario, contrariuarequin, conturequin, cuidamenturequi, cumplimentiuac, discurrimentu, discurrimenturen, encontruiara, entrañetan, entrega dazaizula, entregaten du, erresistimentu, gentilec, guente, inocenten, instantian, intencionia, istantian, juramento, mandamentu, mantena dazabein, mantenataco, multitud, pensamentu, presenta zte, presente, presentiac, prudente, puntu berian, saintiuan, santiuac, sontontan du, tentacionia.*

/lt/: *adulterioric, altacan, altarian, alteco, biltra, bueltatiala, eltu cen, galteguiten, galtia, guentu, multitud, saltu, sepultura, ugaltetaco.*

/nd/: *acabatan du, albertitan du, andia, arrendazalia, candelero, condenada, condescenditu cion, confirmatan du, encomendatu, endemoniatuac, engrendatu cion, entregaten du, erdeitan du, errecibitan du, erresponditu cein, erresucitatan du, escandalo, estimatan du, fabricatan du, fundatruc, indarrez, libratatan du, mendico, mundu, padecitan du, pretenditan dionari, predicatan du, sandaliac, senda, sontontan du, sosegatan du, tratatan du.*

/ld/: *aldeatan, galdein, moldia, saldo, soldadu, umildiac.*

/nk/: *banco, encaminatan ztiolaric, encarcelatruc, encomendatu, onqui, zancopetaco.*

/ng/: *ainguru bat, Ebangeliua, Janguecuaren, langosta.*

— Mendigatxaren [n-/l + hers.] taldeen zerrenda:

/npl/: *anpolla, cunplitako, inprentatra.*

/nb/: *enbarazatruk, sonbreroak, tranviatic.*

/lb/: *albertencia, errebolbi, salbazaliaren.*

/nt/: *abentu, alimentu, arrenta, arrepentitako, aumenta, borontate, consentitruk ssa, consentitu, entelegatra, erremientez, gentia, gentu, intencionia, kantatan dein, kantu, llantoka, mantria, mente, mentian, ñontik, parentesisen, parkamentiuuan, pensamentuan, permentinaz, prometimentiuak, saintiuer, sakramentu, santifika deila, sendimentu, sentimentureki, solamente, sontotu nei, ssunto, ssutan, tenpran, tentacionia, tinte, tonto, tratamentu, ygantiak.*

/lt/: *altarier, alte, biltuz, bordaltu, buelta dein artio, bulio, eltu, faltaren, galteguiteko, galtu, saltako/saltu tein, saltu cion, ugaltiaz.*

/nd/: *acienda, andi, bendicioniak, landamanian, candelerazko, erresponditu zaun, eskandalo, gomendiuaren, indar, mandozainareki, mandua, mendian, mundu, sendimentu, senditu nion/sendi.*

/ld/: *alda, aldi, espaldan, moldiaz, saldoak.*

/nk/: *anque, arrankatako, franko, komunkisse, onki.*

/lk/: *alkateri, kalka dozkian.*

/ng/: *engañatan, errenglon, Jangeiko, ongui.*

/lg/: *bilgune, bordalgiua, zalge.*



# Contrasting contrastive-topicalization strategies<sup>1</sup>

Dennis Ott\*

University of Ottawa/University of the Basque Country & IKERBASQUE

**ABSTRACT:** This paper offers a comparison and preliminary analysis of ‘topicalization’ strategies in German, Basque, and English. I argue that Basque and English topics at the left periphery are dislocated elements resumed by pronominal correlates, a configuration more directly evidenced in German. I propose an analysis of left-peripheral topics in Basque and English that capitalizes on parallels with left-dislocated XPs in German. Despite superficial differences, left-dislocation configurations in the three languages can be distinguished from inversion constructions and are united in their contrastive character. I argue that dislocated XPs are parenthetical sentence fragments, building on analogous proposals for German and other languages. The analysis is shown to be flexible enough to account for relevant surface differences between the languages while also providing a principled explanation for the contrastive import of left-peripheral topics.

**KEYWORDS:** Dislocation; syntax; ellipsis; pragmatics; question under discussion.

---

<sup>1</sup> I’m indebted to Aritz Irurtzun and two anonymous reviewers for *ASJU* for constructive commentary. Thanks also to Arantzazu Elordieta, Gorka Elordieta, and Azler García for help with the data; none of them should be held responsible for any errors and inaccuracies in the final product. This research was supported by financial aid from the Basque Government to the *Basque Research Group in Theoretical Linguistics (HiTT)*, ref. IT1537-22).

**Corresponding author:** Dennis Ott. Centro de Investigación Micaela Portilla Ikergunea (JUPV/EHU. Universidad del País Vasco/IKERBASQUE. c/Justo Vález de Elorriaga, 1 (01006 Vitoria-Gasteiz, Spain). – [dennis.ott@post.harvard.edu](mailto:dennis.ott@post.harvard.edu) – <https://orcid.org/0000-0002-9573-2348>

**How to cite:** Ott, Dennis (2022). «Contrasting contrastive-topicalization strategies», *ASJU*, 56 (2), 169-192. (<https://doi.org/10.1387/asju.24113>).

Received: 2022-12-05; Accepted: 2023-05-26.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © 2022 Instituto-Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» (JUPV/EHU)



This work is licensed under a

Creative Commons Attribution-NonCommercial-NoDerivatives 4.0 International License

## 1. Introduction

This paper offers a comparison and preliminary analysis of ‘topicalization’ strategies in German, Basque, and English. I will argue that Basque and English topics at the left sentential periphery are dislocated elements resumed by discourse-anaphoric pronominal correlates, a configuration more directly evidenced in German, where it can be contrasted with a *bona fide* gap strategy.

Chomsky (1977) analyzed topicalization in English as involving adjunction of the topicalized phrase to the sentence as a whole and concomitant null-operator movement.<sup>2</sup>

- (1) this book, I really like
- (2) [<sub>S</sub> this book [<sub>S</sub> OP<sub>i</sub> [ I really like  $t_i$  ]]]

Chomsky’s principal motivation for situating the topicalized XP clause-externally was its intuitive resemblance to “as for XP” expressions. The analysis contrasts with that of *wh*-movement, in which the (overt) operator is directly associated with the corresponding gap and subject-verb inversion applies:

- (3) which book do you like?
- (4) [<sub>S</sub> which book<sub>i</sub> [ do you like  $t_i$  ]]

While in English the inversion strategy is confined to *wh*-questions and a few other ‘residual V2’ constructions, in Basque it is used in questions as well as narrow-focus constructions; in German, a V2 language, it applies in main clauses generally.

I suggest in this paper that a version of Chomsky’s analysis is correct for left-peripheral topics in Basque and English, which correspond to left-dislocated XPs in German. Despite superficial differences, the left-dislocation configurations in the three languages can be clearly distinguished from inversion constructions and are united in their contrastive pragmatic character. German (section 2) resorts to either inversion or left-dislocation to mark contrastive topics, while Basque (section 3) and English (section 4) rely specifically on the latter strategy for this purpose.

I will argue that dislocated XPs are properly analyzed as parenthetical sentence fragments, building on analogous proposals for left-dislocated XPs in German and other languages elsewhere (Ott 2014, 2015; Fernández-Sánchez & Ott 2020). This analysis is shown to be flexible enough to account for relevant surface differences between the languages while also providing a principled explanation for the contrastive pragmatic import of left-peripheral topics (section 5).

## 2. Inversion vs. dislocation in German

German has two distinct ‘topicalization’ strategies. As a V2 language, it permits XPs of any category to undergo unbounded A-bar movement to the edge of (root) CP, leaving a gap and triggering finite-V raising (inversion):

<sup>2</sup> S’ corresponds roughly to modern-day CP, while S” marks an extra-sentential position.

- (5) meiner Schwester habe ich – ein Buch geschenkt  
 my.DAT sister have I a.ACC book given  
 ‘I gave a book to my sister’

While inversion with non-*wh* operators as in (5) is sometimes referred to as ‘topicalization,’ the fronted category need not be topical in any strict sense of this (vague) term (Büring 1997).

In the second major fronting strategy, ‘(contrastive) left-dislocation’, the **fronted category** is associated with a *correlative pro-form* (typically, a ‘d-pronoun’) rather than a gap, and inversion/V2 is not permitted:

- (6) meiner Schwester, (*der*) habe (*\*der*) ich – ein Buch  
 geschenkt  
 my.DAT sister her.DAT have I a.ACC book  
 given  
 ‘I gave a book to my sister’

In the general case, dislocation effects an interpretation of the fronted XP as a contrastive topic: it implies the existence of contextually relevant alternatives to the denotation of the dislocated element (so that a natural continuation of (6) would be ...*and to my brother, I gave a bike*). Unlike other types of ‘topic’, *contrastive* topics are really *delimiting* expressions (Krifka 2008); as a result, they need not be nominal but can be of any major category.

Dislocation and inversion can co-occur, in which case the dislocated element precedes the fronted XP associated with a gap (cf. Rizzi 1997):

- (7) meiner Schwester, wann hast du *der* – ein  
 my.DAT sister when have you her.DAT a.ACC  
 Buch geschenkt?  
 book given  
 ‘When did you give a book to my sister?’
- (8) \*wann, meiner Schwester, hast du *der* – ein  
 when my.DAT sister have you her.DAT a.ACC  
 Buch geschenkt?  
 book given

Dislocation and fronting-*cum*-inversion have a number of properties in common. Both can front an XP of any major category; both are unbounded but sensitive to islands; and both show reconstruction effects, e.g. for case and binding.<sup>3</sup>

- (9) island-sensitivity  
 a. \*meiner Schwester war ich da als Peter –  
 my.DAT sister was I there when Peter  
 ein Buch geschenkt hat  
 a book given has  
 intended: ‘I was there when Peter gave a book to my sister’

<sup>3</sup> So-called *hanging topics* share none of these properties; see Fernández-Sánchez & Ott (2020).

- b. \***meiner** Schwester, *der* war ich da als Peter \_  
 my.DAT sister her.D was I there when Peter \_  
 ein Buch geschenkt hat  
 a book given has  
 intended: 'I was there when Peter gave a book to my sister'
- c. ??**meiner** Schwester, wer war da als Peter *der*  
 my.DAT sister who was there when Peter her.D  
 ein Buch geschenkt hat?  
 a book given has  
 intended: 'Who left when Peter gave a book to my sister?'

## (10) binding connectivity

- a. **seiner<sub>i</sub>** Schwester hat jeder Mann<sub>i</sub> \_ ein Buch geschenkt  
 his.DAT sister has every man a book given  
 'Every man gave a book to his sister'
- b. **seiner<sub>i</sub>** Schwester, *der* hat jeder Mann<sub>i</sub> \_ ein  
 his.DAT sister her.D has every man a  
 Buch geschenkt  
 book given  
 'Every man gave a book to his sister'

(We are for the moment abstracting away from the details of the filler-gap dependency involved, to which we turn presently.)

These commonalities, however, should not distract from a number of major differences between the two configurations, which militate decisively against reducing dislocation to A-bar movement. Inversion is a gap strategy and triggers verb raising/V2; dislocation shares neither property. Dislocated elements are prosodically separated from the remainder of the sentence; no such 'comma intonation' is a natural choice for initial XPs in inversion.

Furthermore, bare quantifiers readily undergo A-bar movement but resist dislocation:

## (11) bare quantifiers: inversion vs. dislocation

- a. niemand ist \_ gekommen  
 no.one is arrived  
 'No one arrived'
- b. #**niemand**, *der* ist \_ gekommen  
 no.one he is arrived  
 intended: 'No one arrived'
- c. alles habe ich \_ gekauft  
 all have I bought  
 'I bought everything'
- d. #**alles**, *das* habe ich \_ gekauft  
 all that have I bought  
 intended: 'I bought everything'

And while remnant categories participate in the inversion strategy, they fail to be dislocated:

- (12) remnant XPs: inversion vs. dislocation
- a. [ seiner Schwester  $t_i$  geschenkt ] hat er [ ein Buch ]<sub>i</sub> –  
 his.DAT sister given has he a.ACC book  
 ‘He gave a book to his sister’
  - b. \*[ seiner Schwester  $t_i$  geschenkt ], das hat er [ ein Buch ]<sub>i</sub> –  
 his.DAT sister given that has he a.ACC book

These asymmetries between inversion and dislocation strongly suggest that inversion and dislocation involve rather different structural configurations.

The asymmetries can be captured as follows (Ott 2014, 2015). Inversion is plain A-bar movement to SPEC-C (an instance of Internal MERGE in the framework of Chomsky *et al.* 2019), which—for reasons that remain obscure—requires concomitant raising of the finite verb. A dislocated XP, on the other hand, is an extra-sentential parenthetical element, more specifically an *anticipatory fragment*: the surface remnant of an underlying full sentence that occurs prior to the parallel host sentence in the text sequence, but otherwise bears no structural connection to it.

- (13) [ ich habe [ meiner Schwester ] ein—Buch—geschenkt ]  
 I have my.DAT sister a book given  
 [ der<sub>i</sub> [ habe ich  $t_i$  ein Buch geschenkt ] ] (=6)  
 her.DAT have I a book given

The left-peripheral fragment is derived by ordinary clausal ellipsis, i.e. the same PF-deletion mechanism that independently derives sluicing, fragment answers, XP tags in split questions, etc. (see Merchant 2001, 2004; Arregi 2010; Ott 2016; Ott & Struckmeier 2018).<sup>4</sup> For this kind of deletion to be recoverable, the two clauses must be *parallel* in their interpretation; one way of making this precise, roughly following Merchant (2001), is to require existentially-closed variants of the two propositions modulo the focal/fronted element to be mutually entailing (for the above case,  $\exists x. I\ gave\ x\ a\ book \Leftrightarrow \exists x. I\ gave\ x\ a\ book$ ). See Barros (2014), Weir (2014), and Griffiths (2019), among others, for refinements of this identity condition that need not concern us here.

On this analysis, it follows immediately that a wide range of categories can undergo dislocation; namely, any category that can independently surface as a fragment. Reconstruction effects—including the dative case of the fragment in (6/13) and the bound pronoun in (10b)—are merely apparent, arising as a by-product of the necessarily parallel structure of the elliptical clause, as in other cases of clausal ellipsis. The island-sensitivity of left-dislocation can largely be attributed to the front-

<sup>4</sup> For reasons discussed in Ott & Struckmeier (2018), and *pace* Merchant (2004), I do not assume clausal ellipsis to be fed by obligatory fronting of the remnant in a language such as German, where foci need not move. This is different in the case of Basque (discussed in the following section), where foci are fronted obligatorily.

ing of the correlate within the non-elliptical host; on how to explain it for cases where it obtains while the correlate remains *in situ*, see Ott (2017, in progress), also Fernández-Sánchez & Ott (2020).

Importantly, the analysis likewise rationalizes the observed syntactic, prosodic, and interpretive separation of the dislocated XP. As the surface remnant of a separately generated expression, the fragment precedes an entire V2 configuration, including fronted operators; by the same token, remnant dislocation would require an illegitimate cross-sentential movement dependency. The juxtaposed elliptical clause forms its own compositional and intonational domain, and correlate and dislocate are interpreted analogously in their respective (parallel) clauses. The incompatibility of bare quantifiers with dislocation is a direct effect of their failure to act as antecedents of discourse-anaphoric pronouns generally.

### 3. Left-peripheral topics in Basque

In Basque, in the general case, *wh*-phrases and foci are positioned left-adjacent to the verbal complex (typically composed of nonfinite verb and inflected auxiliary). Thus, relative to the unmarked order in (14a), the order of constituents changes when the subject is focused (14b) or questioned (14c) (examples from Irurtzun 2016):

- (14) neutral order vs. focus/*wh*-placement
- |    |                    |       |       |       |
|----|--------------------|-------|-------|-------|
| a. | Jonek              | ura   | edan  | du    |
|    | Jon.ERG            | water | drink | AUX   |
|    | ‘Jon drank water’  |       |       |       |
| b. | Jonek              | edan  | du    | ura   |
|    | Jon.ERG            | drink | AUX   | water |
|    | ‘JON drank water’  |       |       |       |
| c. | nork               | edan  | du    | ura?  |
|    | who.ERG            | drink | AUX   | water |
|    | ‘Who drank water?’ |       |       |       |

Ortiz de Urbina (1989) and Irurtzun (2016) analyze *wh*/focus-movement in Basque as directly analogous to the inversion strategy of V2 languages, i.e. as fronting of XP to SPEC-C accompanied by raising of the verbal complex:<sup>5</sup>

- (15) [<sub>CP</sub> Jonek<sub>i</sub>/nork<sub>i</sub> edan+du<sub>k</sub> [<sub>IP</sub> t<sub>i</sub> ura t<sub>k</sub> ]]

Topics, in turn, are positioned to the left of such operators:

- (16) **ura** Jonek edan du  
 water Jon.ERG drink AUX  
 ‘Water, JON drank’

<sup>5</sup> See Uriagereka (1999), Elordieta (2001), and Arregi (2002) for alternative analyses.



Inversion accompanying A-bar movement in Basque applies quite generally, including in embedded contexts (Irurtzun 2016). By contrast, topicalization fails to trigger inversion: the contrastive-topical reading of *ura* is only supported by the constituent order in (16); that in (17) unequivocally identifies *ura* as focus.

- (17) *ura edan du Jonek*  
 water drink AUX Jon.ERG  
 ‘Jon drank WATER’

The same point can be made using long-distance topicalization. Unlike long-distance *wh*-movement, which triggers inversion in both the embedded clause and the main clause (Irurtzun 2016), cross-clausal topicalization does not.

- (18) inversion: long-distance *wh*-movement vs. topicalization  
 a. *noiz pentsatzen duzu [ bukatuko dela gerra \_ ]?*  
 when think AUX finish.FUT AUX.C war  
 ‘According to you, when will the war finish?’  
 b. ***ura*** *Jonek esan du [ Mirenek \_ edan duela ]*  
 water Jon.ERG say AUX Miren.ERG drink AUX.C  
 ‘JON said that Miren drank water’

Embedded inversion in (18a), presumably a by-product of successive-cyclic movement, unambiguously locates the temporal variable bound by the *wh*-adjunct in the lower clause; no such inversion is observed in (18b).

Topicalization in Basque is thus not an inversion strategy, unlike *focus/wh*-movement. Rather, as in German, Basque left-peripheral topics precede a complete sentence, including any internally fronted foci/*wh*-phrases and concomitant inversion. Taking the question in (19) as a baseline, any of the post-V constituents can appear before the *wh*-phrase (examples from Saltarelli 1988: 6f).<sup>6</sup>

- (19) *nola eraman du aitak Mikel etxera?*  
 how carry AUX father.ERG Mikel to.house  
 ‘How did father carry Mikel home?’  
 a. ***aitak*** *nola eraman du Mikel etxera?*  
 b. ***aitak Mikel*** *nola eraman du etxera?*  
 c. ***aitak etxera*** *nola eraman du Mikel?*  
 d. ***etxera Mikel*** *nola eraman du aitak?*

Analogously, topics precede pied-piped clauses (see Irurtzun 2016 on this phenomenon):

- (20) ***Jonek*** [ *nork erre duela* ] *esan du?*  
 Jon.ERG who.ERG smoke AUX.C say AUX  
 ‘Who did Jon say smoked?’

<sup>6</sup> Topicalization in embedded contexts appears to be possible (i) but will not be discussed here.

(i) *uste dut [ ura Jonek edan duela ]*  
 think AUX water Jon.ERG drink AUX.C  
 ‘I think that JON drank water’

Furthermore, much as we saw for German, Basque topics are intonationally isolated from the following sentence, despite the fact that they are not consistently separated from the remainder of the sentence by a comma in writing. Ortiz de Urbina (1989: 224f.) observes that “any element preceding the *wh*-[phrase] [or focus, D.O.] is interpreted as a topic and separated from the rest of the clause by a pause. [...] Where more than one pre-CP arguments occur [...] they are assigned a characteristic ‘listing’ intonation pattern [...]”. Ortiz de Urbina (2003: 455) identifies left-peripheral topics as “usually separated from the rest of the clause to their right by a pause and/or a rise in intonation which leads to the major prominence of the clause, that of the focused constituent”; where multiple XPs are dislocated, “they receive a listing intonation, with intonational breaks after each topical element”.

Basque left-peripheral topics, like their German counterparts, are interpreted contrastively. About example (21) (in Ondarroa Basque), Arregi (2002: 195) says that it “suggests that there are other objects about which we should be asking who broke them”, and as such is understood to be a partial answer to *who broke what?*:

- (21) **maxe**      Jónek      apurtu      ban  
          the.table   Jon.ERG   break      AUX  
          ‘JON broke the table’

This observation is echoed in Ortiz de Urbina (2003: 455ff.), where it is observed that left-peripheral (but not right-peripheral) elements are interpreted contrastively and require the presence of a focus in the following clause. We return to this aspect of topicalization in section 5.

Note that since Basque is a null-argument language, topicalized XPs are never formally obligatory; they merely serve to express contrast.<sup>7</sup> The superficial presence of postverbal gaps in the above examples is thus no reason to conclude that Basque topicalization is a *bona fide* gap strategy: argumental gaps are simply *pros* or equivalent null pro-forms.<sup>8</sup> Note in this connection that in the case of VP topicalization, the dummy verb *egin* ‘do’ is used as a correlate:

- (22) [ **liburu bat irakurri** ]    atzo      *egin*    zuen    Mikelek  
          book   one   read      yesterday   do    AUX   Mikel.ERG  
          ‘Mikel read a book YESTERDAY’

The example also illustrates the fact that non-nominal categories can be topicalized; examples of PP and CP topicalization are given below.

- (23) [ **etxe atzean** ]    Mirenen      zain    dago    Mikel  
          house   behind   Miren.GEN   wait   do      Mikel  
          ‘Mikel is waiting for MIREN behind the house’

Azkueren *Morfología Vasca* (1923-25) aipagai duela, *-tapan* eta *-tzapen*, eta *-taile* eta *-tzaile* (geuri dagokigunez) aldaeren alternantziari buruzko ohar zenbait ematen ditu Buenok (2006: 232). Hark azaltzen duenez, Altubek *Morfologiari* egindako oharretan zehaztu zuen aditz-izena *-te* bidez egiten duten aditzek *-tapan* eta *-taile* aldaerak hartzen dituztela (*ikus-te*, *ikus-taile*, *ikus-tapen*); *-tze* bidez egiten dutenek, aldiz, *-tzapen* eta *-tzaile* (*eder-tze*, *eder-tzaile*, *eder-tzapen*). Eredu berriagoek, ordea, artizkidun formak ordezkatu dituztela azaltzen du, besteak beste, *eros-le* aipatuz.

Buenoren azalpenari jarraituz, artizkiaren galeraz aritu zen Mitxelena kasu horietan, eta “derrigortasunaz” mintzatu zen de Rijk. Alegia, azken batean, partizipioaren formak baldintzatzen ei du *-pen/-tzapen* alternantzia, baita *-le* ala *-tzaile* erabiltzea ere. “Azken honetan partizipioak erabat baldintzatzen du *-le* ala *-tzaile* izatea, eta *-tzaile* eskatzen den tokietan forma hori derrigorrezkoa da” (Bueno 2006: 232).

Geuk aztertutako laginetan, nabarmena da *-tzaile* nagusitzen dela, bai Pomier hiztegian, bai Ubillosen dotrinan. Dena den, suma dezakegu alternantzia horren arrastorik: aditz-izena *-te* egiten duten kasuetan, *-le* aldaeraren erabilera dago, adibideak urri izan arren. Pomier hiztegiak, esaterako, *hirulea* (1695), baita *escalea* (1082, *b-* 1759) ere, azken horretan, azaldutakoaren arabera, *-tzaile* esperoko genukeen arren. Ubillosen baditu adibideak: *erosleac* (20), *neq-eramalle* (42), *icasle* (77), *eracusleac* (86) eta *neque-emaillei* (119).

Bestalde, *-pen* eta *-tzapen* berariaz aztertu ez baditugu ere, zenbait adibide behintzat eman ditzakegu kontu honi buruz. Pomier hiztegian, ez dugu *-tzapen* aldaeraren erabilerarik aurkitu. Izan ere, *-pen* darabil aditz-izena *-tze* egiten den kasuetan ere: *haurrapena eman* (1680), *luzapena (eman)* (2134). Adiz, *-tza* darabil honako kasuetan kasu honetan: *ezconza* (885), *heriotza* (1777), *jaiotza* (1854), *necazaritza* (2433), *harranza* (2957), *herrecardaritza* (3023), *arrantzacoa* (3122) eta *vicitza* (3360). Azkenik, aditz-izenaz egindako nominalizazio zenbait ere badakartza: *galcea* (380, 1340), *jaucitcea* (395), *esqueintcea* (910), *escapatcea* (951), *hicutcea* (1131), *hartcecoa*

(1136), *harretze* (1159), *goratcea* (1924), *harri-botatcea* (2946), *erbi-jatea* (1092) eta *jate* (1898).

Azken horiekin lotuta, *-mendul-mentu* atzizkiaz ere mintzo da Bueno (2006: 231), eta Azkue aipatuz (1923-25: 69), “*-men-en* ahaide eta agian latinezko *-mentum-en* seme” direla diosku. Gainera, mailegu zaharragoetan *-mendu* < *-mentum* leherkari ahostunaren alde egiten dela azaltzen du, eta ahoskabea mantendu dela berriagoetan (Mitxelena 1961: 230, 352-353, 360; *apud* Bueno 2006: 234).

Pomier hiztegiak *-mentu-ren* —ez, ordea, *-mendu-ren*— adibide batzuk ere baditu, gehienak oinarri gisa mailegu bat dutenak: *cumplimentu utsa da* (587), *hatrevimentua* (1798), *pentsamentua* (2751), *juramentuguillea* (1905). Gainera, *urriquimentua* (3333) ere badakar. Horretan gaztelera zukeen erreferentzia, ez baitu, Iparraldean bezala, *-nd-* egiten.

Ubillosek ere baditu *-men-en* adibide batzuk: *sinismen* (14, 37), *icusmena* (80), *ezagumentu* (14). Dena den, *-tza* erakoak ditu gehiago: *ezcontza* (2, 13), *vicitza* (8, 60, 80, 93), *morrontzatik* (22, 25), *jaiotza* (47, 61, 72...), *eriotza* (47, 54, 90...), *otoitza* (81, 89, 103)...

Atzizki hasierako *k* eta *t* alternantziak ere mintzo da Bueno (2006: 234). Batetik, *-(t)ar* eta *-(t)asun* aipatzen ditu, baina *k* dutenak ugariago direla dio; horien artean, *-(k)eria*. Gorago aipatu bezala, erromantzeko eredu berranalisien ondorioztat zuen Mitxelenak atzizkiaren aurrean herskaria sartzea.

Gure laginetan, *-keria* aldaera baizik ez dugu aurkitu. Pomier hiztegian, esaterako, Mitxelenak adibide gisa jarritako *tontería* — “*-(k)eria* por las apariencias procede del rom. *-ería* (cast. *tontería*, *bellaquería*, etc.)” (Mitxelena 1961: 247, *apud* Bueno 2006: 234)— aurki dezakegu: *tontoqueria* (3283: “patochada”; 3285: “rudeza” eta 3265: *tontoqueria utzi*: “desasnarse”). Ubillosen dotrinan, berriz, aipatzekoa litzateke *desonesqueria* (36), oinarrian mailegu bat baitu, eta izatekotan, halako batean espero baikenezake *-eria* aldaera topatzea. Aurrez, ordea, *desonheskeria* Axularrek ere [Ax 178 (V 119)], eta *-keria*-rekin emana du Larramendik berak *HHn*.

## 5. Beste azalpen bat: Pomier, Larramendiren ondorengo?

Orain arte landutako hipotesian, ikusi dugu Larramendiren *HHn* dutela hurrengo lekukotza Pomier hiztegian haren editoreek lehen lekukotasun gisa hartutako hitz askok. Pomier *HHn* ondorengo izan daitekeela aintzat hartuz gero, ordea, bestela irakurtzen dira datuok. Lekukotasun horiek alderantziz irakurrita ohartzen gara Larramendiren hitzberriak izan daitezkeela asko, eta Pomierrek harengandik hartu edo egokitu behar izan zituela. Berdin gertatzen zaigu Iparraldeko autoreengandik hartu eta Hegoaldean lehen aldiz erabilitako hitz askorekin ere; Larramendik ere baditu horietako gehien-gehienak eta, beraz, kontuan izateko aukera bat da andoaindarra izatea zubi nagusi.

Pomier hiztegiaren edizioa (Gómez-López & Zulaika 2020) oinarri hartuta hasitako lana amaitzeaz ginelako gehitu diogu ondorengo atala, Lakarrak *jatorri*-ri buruzko artikulua batean (2022) erantsitako oharren harira. Hau da, Pomierrek ere “origen, *jatorri*” bazekarrela konturatuta, hitz hori —eta beste hainbat, ondoren ikusiko dugunez— Larramendiri hartu ote zizkion galdetu beharrean gaudela. Izan ere, Lakarrak (2022: 418) azaltzen digu “ez dela zalantzarik hitza bera *nork sortu* eta are bere

*HH* osatu baino lehen ere erabili zuela finkatzeko —cf. AzkSerm. *mindun, guziakiko, hizkunde, beardanezko...*; Lakarra 1985: 264-67—, beste 60 urtez erabiltzaile bakarra zelarik”. Eraketa bidea eta bertakotzekoa ere zehaztu litezke Lakarraren esanetan: *jaio + etorri* edo, nahiago bada, *ja(io-tza)-TIK (e)torri*. Lekukotasunen historia eginik, “atzeranzko eraketa” bidez bertakotua litzateke, “jatorrizko bekatua” esamoldetik hasita: *jatorriz-jatorrizko* → *jatorri* (Lakarra 2022: 418).

Beraz, Larramendiri hartu bide zion Pomierrek, “bere geruzaren batean, ez jakin 1808 inguruko azkenengoan ala aurreko(et)an edo hasieratik bertatik lekarkeena” (Lakarra 2022: 440). Gogoratzekoa da gugana iritsi den aleak 1808ko data duela inskribatua paper markan. Gómez-López eta Zulaikaren arabera (2020: 12), 1808an Iruñeko *Hospital Generaleko* paperarekin egindako kopia bat dirudi aztertutakoak, baina funtsean 1745 aurretik egina litzateke hiztegia. Lakarraren esanetan (2022: 440), ordea, “ezin bazter liteke P-ren hiztegia 1745 ondoren osatzen hasia izana (ez 1745 baino lehen hasi eta amaitua). Are gehiago, data horrezaz ondorengo izateaz landa, Lren *HH* ere aurrean zuelarik prestatua izatea ezin da baztertu oraingoz”.

Gehiago ere badio Lakarrak (2022: 442), *jatorri* ez ezik, beste lekukotasun batzuk aztertu ondoren: “L eta P biak Gkoak izanik, badirudi Lk behar duela zaharrago (eta dextentez irakurriago) eta Pk berriago (eta bere hizkerari aurreko tradizioari baino lotuago); bien tartean mende erdi bat bederen suposatzea ongi ezkonduko litzateke gainerako lekukotasunekin eta, zalantza gutxirekin, baita *jatorri*ekin gertatuarekin ere”.

### 5.1. Sarasolaren datuak eta Pomier

Datu orokorragoetatik hasiko gara. Gómez-Lópezek eta Zulaikak 54 atzizki ezberdin eta aurrizki bat aurkitu dituzte Pomier hiztegian, ia 500 hitz ezberdinetan —sarrera guztien % 14,5—. Egileen hitzetan, “aski portzentaje handia” da garai hartako hiztegi baterako (2020: 24); hau da, XVIII. mendeko lehen erdirako. Larramendik, ordea, askoz gehiago ditu, Urgellek aztertutako laginetik —4.867 lema ezberdin— erdiak baitira eratorriak (Urgell 2003: 212).

Larramendiren arrastoa nabari da Sarasolak (1997) hitzberrien inguruan emandako datuetan. Testuetako lehen agerraldietan 1751-1800 artean emandako goradaka gipuzkeraren inguruan gertatzen dela diosku (1997: 621), aurreko mendean ez bezala, gipuzkerazkoak baitira gehienak. Eta juxtu aldi horren aurretik kokatzen da Larramendiren *HH*. Zehazki hiztegiei erreparatuz gero, gainera, are nabarmenago ikusten da haren eragina. Hiztegietak lehen agerraldiak % 11,7 dira 1651-1700 artean, eta % 35,6 1701-1750 artean, *HH* argitaratzen den epealdian. Hurrengo mende erdian, aldiz, % 1,9ra jaisten da portzentaje hori. Añibarro daukagu hor, esaterako; beste hainbaten gisan, hitz arrunt eta dialekto partikularretatik Larramendi osatzea zen haren helburua, ez hitzberriak sortzea hizkuntza tekniko-zientifikorako (“*voces facultativas*”).

Pomier hiztegiari helduta, hitz eratorrietan “aski portzentaje handia” izatea errazago uler daiteke, hain justu, Larramendiren ondorengo dela pentsatuz gero. Sarasolak berak (1986: 207) aipatu zuenez, “Hegoaldekoari dagokionez, Larramendiz aurreko literatur ekoizpenaren tasun nabarienetako bat hitz eratorrien eskasia gorria eta atzizki bidezko —*tasun*, eta beharbada *garri*-ren bidezkoak ezik— hitz sortzerik eza da. Jakina denez, egoera hau erabat irauliko zen Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzaz gero*”.

## 5.2. Pomierren lehen agerraldiak

Pomierren lehen lekukotasun gisa hartu genituen 39 hitzetatik 28k dute hurrengo lekukotasuna Larramendirengan: *-tasun-en*, 12tik 9k; *-tzaile-n* eta *-le-n*, 9tik 7k; *-gile*, *-gin* eta *-kin-en*, 10etik 8k, *-ari-n*, 4tik 3k, eta *-keria-n*, 4tik batek. Hipotesi berri horrek begirada aldaturik, alderantziz aztertu ditugu eskura genituen datuak; izan ere, pentsa liteke Pomierrek Larramendiri zor dizkiola gehienak. Lehen lekukotasunak aztertutako eratorrien % 27,5 izatetik, % 7,7 izatera pasatu dira horrela.

Gainerako 11 hitzetan, Añibarro aurkitzen dugu sei kasutan: 1267 *guyeguitasuna* “esceso”, 1325 “demasia” y 1973 *guyeguitasuna* “superfluidad” [Añ “prodigalidad”]; 2284 *moscortasuna* “borrachera” [Añ *moscortasuna*]; 636 *churiqueria* “lisonja” [Añ]; 2008 *laburqueria* “cortedad” [Añ “ruindad, acción vil”]; 3220 *santuguillea* “santero” [Añ]; 1521 *isil-mandataria* “alcahuete” [Añ *issil-*]. Beste bost geratuko lirateke: 2223 *muquertasuna* “terquedad” [Ur *MarII* 99]; 2424 *nazcatasuna* “fastidio” [Ag *Kr* 49]; 2445 *narru-gorritasuna* “desnudez” [AA III 375 *l-*]; 2035 *leunqueria* “lisonja” [fB *Olg* 65]; 926 *eunguillea* “tejedor, tejedora” [Erkiag *BatB* 184].

Berriz *HH*koei helduta, ondoko hauek ordain berbera dute bi hiztegietan, *jatorri-k* bezala. Gainera, *OEH*ren arabera, Larramendik jaso zituen lehenengoz.

- (1) -TASUN:
  - a) L: *biguntasuna* “ternura, blandura”. P: 341 *biguntasuna* “ternura” eta 3394 *viguntasuna* “blandura”;
  - b) L: *ugaritasuna* “abundancia”, “fecundidad”. P: 3406 *ugaritasuna* “abundancia”;
  - c) L: *estutasuna*: “presura”, “aprieto”, “estrechez, estrechura”. P: 1000 *estutasuna* “aprieto, estrechura”.
- (2) -KERIA:
  - a) L: *humequeria* “niñada, niñería” / “puerilidad”. P: 3384 *umequeria* “puerilidad, niñería”.
- (3) -TZAILE:
  - a) L: *ecitzallea* “domador”, “cebadero”. P: 1622 *hecitzallea* “domador”;
  - b) L: *ontzi-garbitzallea*, “fregona, fregatriz, fregoncilla”. P: 2792 *plater-garbitzallea* “fregón o fregona”.
- (4) -ERA:
  - a) L: *aciera*, *azquera* “crianza”, “educación”. P: 170 *aciera* “crianza, educación”;
  - b) L: *asiera* “principio”, “origen”. P: 174 *asiera* “principio”;
  - c) L: *sarrera* “entrada”, “ingreso”. P: 1189 *hateco sarrera* “umbral” eta 3096 *sarrera* “entrada”;
  - d) L: *tabaquera* “tabaquera” [Lar → H, Añ, Arch VocGr]. P: 3250 *tabaquera* “caja de tabaco”.
- (5) -GILE:
  - a) L: *armaguille* “armero”. P: 234 *armaguillea* “armero”;
  - b) L: *baiguillea*, *baeguillea* “cedacero”. P: 318 *baiguillea* “cedacero”;
  - c) L: *juramentuguillea* “jurador”. P: 1905 *juramentuguillea* “jurador”;
  - d) L: *mantaguillea* “mantero”. P: 2328 *mantaguillea* “mantero”;
  - e) L: *erlojuguillea* “relojero”. P: 3071 *relojuguillea* “relojero”;
  - f) L: *errementaria* “herrero”. P: 863 *errementaria* “herrero”.

(6) -ARI:

a) L: *osticaria* “coceador”. P: 2636 *osticolaria* “coceador”.

Azaldu beharrik ez da honezkero, baina Urgellek (2003: 212) xeheki aztertu zue-  
nez, gogora dezagun *HH* “oso aberatsa” dela eratorpenean, “bai atzizki ezberdinen  
kopuru erraldoiagatik, baita atzizki batzuen eratorri ugariengatik ere”. Taula batean  
bildu zituen hori ikusarazteko datu batzuk: atzizki bakoitzarekin haren corpusean  
zuen adibide kopurua, eta horietatik zenbat ziren aurrez lekukotuak. Bereziki dira  
emankorrak —Larramendiren alde— goiko Larramendi-Pomier zerrendan ugarien di-  
tugun *-gile* eta *-era* atzizkien proportzioak: 27tik 2 eta 65etik 2, hurrenez hurren, au-  
rrez lekukotuak. Ez hainbeste, esaterako, *-tasun* (31tik 17) eta *-keria*-renak (22tik 9).

Pomierrek emandako ordain berbera eduki ez arren, *HHn* ageri dira Pomierri  
egotzitako ondorengoak ere. Pentsa liteke askotan Pomierrek gazteleerazko sarrerak  
aberasten dituela ordain berriekin:

(7) L: *ubeltasun* “palidez”, “amarillez”. P: 1673 *hubeltasuna* “cardenal”.

(8) L: *lasaitasun* “Flojedad <-x-> que no aprieta” / *lasaitasun* “Holganza”.  
P: 2191 *lasaitasun* (*gueieguia*) “(sobrada) libertad”.

(9) L: *amparatzallea* “apadrinador”. P: 179 *amparatzallea* “protector”.

(10) L: *erabiltzallea* “administrador”. P: 613 (*carga*-)*eravilzallea* “ganapán” eta  
924 *eravilzallea* “portador”.

(11) L: *osatzallea* “curandero”. P: 994 (*ezur*-)*osatzallea* “algebrista”.

(12) L: *gastatzallea* “gastador”. P: 1232 *gastatzallea* “pródigo”.

(13) L: *eguillea* “eficiente”, “efectivo”, “hacedor”. P: 1623 *heguillea* “eficaz”.

(14) L: *sinuguillea* “gestero”, “señero”, “figurero”. P: 3151 *siñuguillea* “figón”.

(15) L: *necazaria* “(Hombre del) campo” eta “Trabajador, por su jornal”.  
P: 2418 *necazaria* “labrador”.

(16) L: *acabera* “conclusión”. P: 87 *acabera* “fin”.

### 5.3. Larramendi, Iparraldekoen zubi?

Lanaren lehenengo zatian, denboran Pomier Larramendiren aurretik kokatzean,  
hark Hegoaldean lehen aldiz erabili izango zituen adibide ugari atera zaizkigu azter-  
tutako bost atzizkietan: 56 denera. Horien aurrekariak zein diren ikusita, eskura izan  
ezin zitzakeen obretakoak dira 24 (Urtek eta Pouvreaux lehen aldiz lekukotuak). Er-  
diak, gutxi gorabehera. Horrek ez du esan nahi, noski, beste erdiak biltzen zituzten  
autoreak ezagun izan zituenik: Leizarraga (13) —zaila da ezagutzea—, Etxeberri Zi-  
burukoa (5), Axular (4), Voltaire (3) eta Materra (1).

Iparraldeko idazle horien eta Pomierren artean Larramendi jarriz gero, ordea, ia  
erabatekoak dira zenbatekoak. Alegia, ustez Pomierrek Hegoaldean lehen aldiz erabi-  
litakoetatik, Larramendik ere baditu gehien-gehienak: 56tik 45. Atzizkiz atziki: *-tasun*  
atzizkian, 19tik 12; *-tzaille*-n eta *-le*-n, 19tik 18; *-keria*-n, 4tik 2; *-gile*, *-gin* eta *-kin*-en,  
7tik 7; eta *-ari*-n, 7tik 6. Badakigu, gainera, hitz horiek lehenengoz lekukotu zituzten  
gehienak iturri izan zituela Larramendik: Leizarraga, Axular eta Etxeberri Ziburukoa.

Horra adibide batzuk, *OEHn* lehen lekukotasuna duenaren ondoren jarrita:

(17) [Lç Decl Mm 4r: *abrastasuna*] L: *aberastasuna* “riqueza”. P: 73 *averastasuna*  
“riqueza”.

- (18) [Mat 282] L: *berotasuna* “calor, fervor, ardor”. P: 338 *berotasuna* “calor, incendio” eta 364 “ardor”.
- (19) [Lç *Ins* D 4r] L: *gogortasuna*: “acrimonia”, “acerbidad, rigor, aspereza”. P: 1238, 3366 *gogortasuna* “crueldad” eta 1959 “rigor”.
- (20) [Lç] L: *gaztetasuna* “juventud”. P: 1382 *gaztetasuna* “juventud”.
- (21) [Urt I 375 “affaniae”]\* L: *atsoqueria*, *hipuya* “cuento de viejas”. P: 202 *atsoqueriac* “abusiones de viejas”.
- (22) [Lç *Ins* F 6v *gaixta*-] L: *gaiztaqueria* “maldad”. P: 1244 *gaiztaqueria* “maldad”.
- (23) [Lç Gal 5, 21 *h*-] L: *ordiqueria* “embriaguez”. P: 2538 *ordiqueria* “embriaguez, borrachera”.
- (24) [Ax 6 (V 3) *defenda*-] L: *defendatzalle* “Actuante en Escuelas”. P: 757: *defenditzaillea* “defensor”
- (25) [Urt IV 138: *garbitzaille*]\* L *garbitzalle* “lavandera”. P: 1385 *garbitzallea* “lavandero”, 1386 *garbitzallea* (emakumea) “lavandera”.
- (26) [EZ *Noel* 171] [Ax 360 (V 238)] L: *eskaleak*, *eskatzalleak* “mendicantes”. P: 1082 *escalea* “gallofero” eta 1759 *hescalea* “mendigo”.
- (27) [Lç Lc 23, 33 *gaitzgileak*] L: *guizon gaitzguillea* “alma de caballo, hombre sin conciencia”. P: 1397 *gaitzguillea* “malhechor” eta 1952 “reo”.

Lakarrak aurreratu duenez (2022: 441, oin-oharrean), ez dirudi Pomierrek beste lanabesik, “euskarazkorik eta zehazki Iparraldekorik” erabili zuenik, itzultzeko oinarri gisa hartu zuen Requejoren hiztegiak gain. Ezin horren froga positiborik eman, baina esan dezakegu, adibidez, Pomierrentzat *h*-ak ez duela baliorik —irizpide fonetiko edo etimologikorik gabe darabil—. Garai hartan Iparraldeko tradizioarekiko gutxieneko atxikimendu, zaletasun edo ezagutza bat izan balu, irizpide hori behintzat jarraitu beharko zukeen. Beraz, arrazoi linguistikoak alboratuta, Pomierrentzat *h*-ak euskal testu guztien tradizioaren aurka doan balio utilitarioa zuela uste dugu: zenbait hitz markatzeko erabiltzen zuela, testu nagusian aurreko saioan ahaztutakoak ondorengo erredakzioan sartzeko.

Halaxe diote edizio-gileek ere. Hitz bat baino gehiagoko lokuzioetan, adibidez, argi ikusten da irizpide linguistikorik ez dagoela; soilik lokuzioen edota hitzen hasieran jartzen zituela *h*-ak. Geure adibideetatik: 1186 *hardo-carrayatzallea* “vinatero”, 1726 *hacusatzaile* (*gezurrezcoa*) “malsín”, 1748 *hengañatzallea* “marrullero”, 3021 *herriertaria* “rechinador”, 2972 *haguintaria* “prelado” eta 3062 “superior”, 1715 *haldameneratu* “ladearse”.

Horra Gómez-López eta Zulaikak ematen dituzten adibideak (2020: 34-35):

- (28) 1727 *haguindu* “mandar”.
- (29) 1728 *hasco aguindu ta batere eman ez* “manda potros y da pocos” (Requejoren *THLn* bezala).
- (30) 1729 *haguinduc echeric galcen ez du* “el que promete no empobreze”.
- (31) 1730 *haguindu-zalea* “mandón”.

Edo:

- (32) 1703 *hez batera eta ez bestera dagoana* “indife[re]nte”.
- (33) 1736 *hescua escuaren gañean egon* “estar mano sobre mano”.
- (34) 2994 *hatez ate ibilli* “andar puerta en puerta”.



Hauxe da edizigileen azalpena (Gómez-López & Zulaika, 2020: 33): zenbait teknika darabiltza Pomierrek folio batzuetan sartzen ez zaizkion letretako hitzak sartzeko. Adibidez, *A-z* edo *E-z* hasten diren hitz batzuk *H* letran sartzea, edo *B-z* hasten diren batzuk gero *V-n* sartzea. Halako oharrak dakartza hiztegiak letra batzuen amaieran: “*A, E, I, O, U letra obequin asitcen dira[n] itz asco arquituco dira G-ren urrena, H-requin*” (2020: 33). Ordena alfabetikoa jarraitzen du hiztegiak, noski, baina tartean, hiru lekutan sartzen ditu *H*-rekin hasitako zerrenda batzuk: *G* aurretik, *I* bokalaren tartean, eta *R* aurretik.

Zein hitz sartzen zituen hor, edo zein hitz markatzeko erabiltzen zuen *H-a*? Lagin batzuk aztertuaz, aukera bat da pentsatzea adibide batzuetan behintzat Larramendi osatzen ari dela, eta osatu edo zuzendu nahi dituen horiei jartzen diela aurretik *H-a*. Larramendiren *agintari* “superior”, adibidez, Pomierrek 2972 *haguintaria* “prelado” eta 3062 *haguintaria* “superior” dakartza. Eta “grande”-rentzat *galanta* ematen du, (*h*)*andi* aldaera ohikoagoa izanik. Larramendik ere badu *galanta*, baina ez hor, “hermoso, bello” esateko baino. “Grande” edo “grandeza”, ordea, beti *andi* eta *anditasun*-ekin itzultzen ditu. Horra baten eta bestearen sarrera batzuk:

- (35) L: *ceiñ ere heran andi ta luce*, “quan grande eres, y largo”, *anditasuna* “grandeza”, *galanta* “hermoso, bello”. P: 1168 *handia* “vehemente”, 1688 *handia* “gallardo”, 1365 *galanta* “fornido”, 1194 *galanta* “grande”.
- (36) L: *argaltasuna* “flaqueza”. P: 1683 *hargaltasuna* “fragilidad”.
- (37) L: *salatzallea, acusatzallea* “acusador”. P: 1726 *hacusatzaile* (*gezurrezcoa*) “malsín”.

Azken kontu bat aipatzearen, esan liteke afrikatuak sistematiko samar darabiltzala Pomierrek, txukunegi Larramendiren *HH*ren aurretikoa izateko —nahiz eta 1729ko gramatikan dagoeneko frikari eta afrikatuen arteko bereizkuntza hori jaso zuen Larramendik—. Bokal artean eta hitz amaieran behintzat ondo bereizten ditu frikari eta afrikatuak. Esaterako, *-tzaile* atzizkidunak *-tz-z* emateaz gain, beste hainbat ere badakartza: 8 *arrautzari*, 98 *arotza*, 315 *beatz*, 1565 *izotz*, 2433 *necazaritzza*, 3023 *herrecardaritzza*, 3193 *servitzari echecoa*. Ozen ondoren, berri: 28 *aunzari*, 36 *aranzari*, 134 *alza*, 248 *arzaiz-maquilla*, 380 *galcea*... gisako batzuk dakartza, nahiz eta salbuespenak ere badituen, aditz-izenetan gehienbat: 16 *arrantzari*, 323 *burrunctia*, 661 *ibiltcea*, 664 *artcen*, 694 *galtceco*, 775 *zabiltza*, 902 *eltcea*... *ts*-rekin ere antzera esan liteke: 24 *arratsari*, 65 *averatsa*, 132 *autsa*, 133 *auts*, 3317 *uts equin*... Ozen ondoren: 1518 *iguelsoa*, 1841 *itzalsua*, 1848 *jaquinsua*, 2930 *erantsi*, 1147 *hirentsi*... Baita editoreen arabera errata izan daitezkeen hauek ere: 971 *ensun*, 366 *batsuetan*, 2664 *oñatsa* (Gómez-López & Zulaika 2020: 60).

## 6. Ondorioak

Lan honi ekitean, helburu orokor bezain lauso bat genuen buruan (§ 1): literatur hizkuntzaren historia egiten laguntzea. Hau da, izenak sortzeko atzizkiek literatur hizkuntzaren garapenean izandako eragina aztertzea, jakinik nolabait lotuta behar zutelata batak eta besteak. Batez ere literatur gipuzkera genuen gogoan, baina oro har, euskararen hitzberrigintzari begiratuta, bagenekien albora ezineko mugarria zela Larramendiren *HHk* ezarritakoa. Haren aurreko eta ondorengoak aztertzen hasi ginen,

beraz (§ 1.3); batik bat, Pomier hiztegiari buruz Gómez-Lópezek eta Zulaikak egindako lanari eta Ubillosen dotrinari helduta.

Sarasolak hitzberrien inguruan ateratako datuak (§ 3.4) genituen ikuspegi historiko orokor bat izateko. Ubillos ezaguna zen hark datuak bildu zituen garaian; ez, ordea, Lubietta eta Pomier. Lehendik ezagun genuen bilakaera horretan bi testuok nola kokatzen ziren ikertu nahi genuen, eta uste dugu badutela garrantzia literatur gipuzkera gehiago ezagutu eta Larramendik ezarritako mugariari buruz daukagun irudia frogan jartzeko, *HH*ren aurreko eta ondorengo lanak ispilu hartuta.

Sarasolari esker dakigu, esaterako, *HH*ren garaian jotzen dutela goia lehen agerraldiek, alde handiz, eta askoz hitzberri gutxiago dokumentatzen dela segidan, nabarmen hitz eratorri gehiago erabiltzen den arren. Larramenditarra zela bagenekien aurrez, baina alde horretatik ere nabari zaio Ubillosi haren ondorengoa dela (§ 2.2). Hogeitik gora atzizki ezberdin identifikatu ditugu haren laginean, 72 sarrera ezberdin eman dituztenak. Bi hitz baino ez daude lehen lekukotasun gisa har daitezkeenak (§ 3.1), gutxienez bitxia edo gerora gutxi erabilia horietako bat: *libertasun*. Hegoaldean lehen aldiz erabilitakoak ere ez dira asko, eta Leizarraga eta Axular ageri dira aurrekari gisa. Ubillosen kasuan, baina, badakigu Axularren lanak behintzat ezagun izan zitzaizkela.

Larramendiren eraginaz ari zela, haren erakusgarri, Ubillosen pasarte bat eman zuen Sarasolak (1992: 316), ondoren honakoa gehitzeko: “Ezin begitanduzkoa litzateke Larramendi baino lehen [...]. Koerlazio guztiz garaia bide dago literatur euskalki baten eratzearen eta bertan gertatzen den hitz eratorri kopuruaren artean”. Horixe berretsi beharrean gaude geu ere.

Ubillosen kontrako adibidea genuke Lubietta (§ 2.3). Dotrina bat da lehenengoa, eta euskara irakasteko eskuliburu bat bigarrena, baina bien artean nabari da alderik handiena eratorpenari begiratuz gero. Bien arteko kontrastean, argi ikusten da Larramendiren mugarrria. Gipuzkerazko hiztegi gintzan pieza garrantzitsua da Lubietaren hiztegia ere. Pomier hiztegia aztertu ondoren, datuak osatzeko eta *HH*ren aurreko egoeraz hobeto jabetzeko balio izan digu hura aztertzeak: nabarmena da aldea erabilitako atzizki kopuruan nola atzizki bakoitzetik eratorritako hitzetan.

Pomier hiztegian ageri diren atzizki asko erabili ere ez ditu egiten Lubietak. Zortzi bat atzizki baino ez darabiltza, eta horietako gehienak, pare bat aldiz gehienez. Larramendi aurretik Hegoaldeko testuetan erabili ez ziren atzizkiei begiratuta, adibidez, ohar gaitzke halakorik ez duela Lubietak: *-pen-ik ez du, ezta -era-rik* ere. Pomierrek eta Ubillosek, aldiz, badituzte; gehiago bigarrenak lehenengoak baino.

Pomier hiztegia non kokatu, horixe izan da lanean aurrera egin ahala sortu zaigun galdera eta ikergai nagusia. Larramendiren aurrekoa izateko hitz eratorri asko baditu ere, gutxi dira benetan lehen agerraldiak.

Geure hasierako azterketaren arabera, % 27,5 (142etik 39) lirateke lehen lekukotasunak Pomierren hiztegi hitz eratorrien artean (§ 3.3). Aski hurbil legoke datu hori Sarasolak Larramendiren epealdirako emandako portzentajetik (% 35,6), baina lanaren azken kapituluaz azaldu bezala (§ 5), gauzak zeharo aldatzen dira Pomier *HH*ren ondorengotzat joz gero. Izan ere, 39 lehen lekukotasunetatik, aurreko hurbilketan 28k zuten hurrengo agerraldia *HH*n: beraz, gehien-gehienak hari zor izango lizkioke benetan. Gainerako 11 hitzetatik seitan, berriz, Añibarro ageri da (§ 5.2). Berdin gertatzen zaigu ustez Pomierrek Hegoaldean lehen aldiz erabilitakoekin ere: 56tik 46 Larramendiren bidez hartuak izan litezke. Pomierrek Iparraldeko tradizioarekiko lotura gutxi edo ba-

tere ez duela suposatuz —eta Larramendik bazuela jakinik, eta hertsia-hertsia, gainera—, gero hura zubitizat hartuta baino ezin dira ulertu horiek guztiak. Gainerako 10 hitzetatik, Kardaberazek eta Mendiburuk dakartzate bi (§ 3.3.2).

Zenbakitan baino xeheago ikertu behar lirateke horiek guztiak, hitzez hitz, bakoitza nondik nora sortua den eta zer bide egin duen aztertzeke, eta, hala, Larramendiren eta Pomierren arteko hartu-emanak nola izan diren hobeto fintzeko. Dena den, orain arte ikusi ahal izan dugu, hitzen lehen agerraldiak eta aurrekariak ez ezik, garrantzitsua dela ondoren zer bide egin duten ere kontuan hartzea. Horrek ahalbidetu digu, adibidez, Pomierren lehen lekukotasunetako gehienak Larramendik ere bazituela ikustea —baita zenbaitetan larramenditarren bat tarteko dela ere; haiek Ubillos, Kardaberaz eta Mendiburrekin dute harremana ere ikertu behar litzateke—. Behin bigarren hipotesia lantzen hasita, berdin egin dugu Iparraldeko tradizioetik zetozen hitzekin ere.

Lan honek erakutsi digun gauzetako bat hori izan da, hain zuzen: datuak eta porzentajeak alde askotatik begira daitezkeela, baina halako lantegi handietan hitz bakar batek ere alda dezakeela begirada —eta, begirada aldatuta, lehen baino gehiago edo uste ez genuenik esaten digutela datu berberak—. Horixe gertatu zaigu *jatorri*-ri buruz irakurri ondoren: Larramendi aurretik jarrita, hobeto irakurtzen dira Pomierren lehen lekukotasunak —geuk aztertutako atzizkietan, 11 baino ez lirateke—. Horietako sei Añibarrok ditu ondoren. Beste bost geratuko lirateke: 2223 *muquertasuna* “terquedad” [Ur *MarIl* 99], 2424 *nazcatasuna* “fastidio” [Ag *Kr* 49], 2445 *narru-gorritasuna* “desnudez” [AA III 375 l-], 2035 *leunqueria* “lisonja” [fB *Olg* 65], 926 *eun-guillea* “tejedor, tejedora” [Erkiag *BatB* 184].

Orain badakigu, Lakarrari irakurrita (2022: 442), “Pomier (haren hiztegiaren bertsio ezagun bakarra) Larramendiren zordun garbia” dugula. Oraindik badago zer ikertu, ordea: “Zor horren nolakoa kantitatean eta kalitatean ikertzeke eta ikertzeko dago eta baita \*P eskuizkribuaren lehen bertsioa edo hiztegi-asmu horren lehen geruza 1745 aurretiko ala ondoko den eta are \*P eta Pren artean izan litezkeen moldaketa edo aldaketen kronologia ere” (Lakarra 2022: 442).

Beraz, hasierako helburu orokor hartatik —izenak sortzeko atzizkiek literatur hizkuntzen garapenean izandako eragina aztertzea—, baina hortik gehiegi urrundu gabe pentsatuaz, lanak berak eraman gaitu aztergaia xehetu eta begirada Pomier hiztegiaren eta Larramendiren arteko harremanean jartzera. Lan bakoitzeko datu hutsak ateratzen hasi ginen, hitz eratorrien zerrendak egin eta atzizkika antolatzen. *OEH*ren laguntzaz lehen agerraldiak eta Hegoaldeko lehenak bereiztera jo genuen gero, eta datu horiek osatuz joan gara pixkanaka, horietan bilatu nahi genuena zehazteko: ondorengo agerraldiak, Iparraldeko zein lan izan zitzaizketen eskura aztertutako autoreek, eta, azken unean, espresuki Larramendik zein zituen ere begiratu behar izan dugu, haren eta Pomierren arteko loturak aztertzeke. Nahiz eta nahi bezain ondorio argirik atera ez eta bidea nahi baino gorabeheratsuago egin, uste dugu lana hasterakoan baino ikuspegi aberatsagoa, baita zehatz eta seguruagoa ere, dugula orain XVIII. mendeko eratorpen bidezko Gipuzkoako hitzberrigintzaz, dela horretan tipologia aski ezberdinak erakusten dituzten aztertutako lekukotasunei dagokienez, bai beren arteko erlazioez eta baita horien eta protagonista nagusi den Larramendirekiko alde, antz eta zorrez ere. Asko da oraindik bide honetan egiteko geratzen dena, baina nahi genuke lan honek ere lotura horietan eta eratorpenaren eta literatur hizkuntzen arteko harremanean argi pixka bat jarri izana.

## 7. Bibliografia

- Bilbao, Gidor. 2012. Lubieta, izen berri bat euskal testuen historian. In Joseba A. Lakarra, Joakin Gorrotxategi & Blanca Urgell (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra*, 621-649. Gasteiz: UPV/EHU.
- Bilbao, Gidor & Ane Bueno Berridi. 2010. *Diccionario en castellano y basquenze* (1728). Lubieta-aren hiztegiaren transkripzioa (lan argitaragabea).
- Bueno Berridi, Ane. 2006. Atzizkiak aztergai autore ezberdinen begiradapean. *ASJU* 40(1-2). 221-244.
- Euskaltzaindia. 1995. 49. ARI (-lari) atzizkiaz [pdf]. [https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua\\_0049.pdf](https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0049.pdf).
- Euskara Institutua. [2011]. Hitz eratorpena. In *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. Leioa: UPV/EHU. <https://www.ehu.eus/seg/morf/4/5>.
- Gómez-López, Ricardo. 1997. Euskalaritzaren historia eta historiografia: ikerketa-arloaren egoeraz. *ASJU* 31(2). 363-391.
- Gómez-López, Ricardo & Zulaika, Josu M. 2020. *El vocabulario Pomier. Edición y estudio de un diccionario manuscrito anónimo euskera-español (ASJUren gehigarriak 72)*. Bilbo: UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba A. 1985. Larramendiren hiztegi-gintzaren inguruan. *ASJU* 19(1). 9-50.
- Lakarra, Joseba A. 1992. Larramendiren aurreko hiztegi-gintzaren historiaz: aztergai eta gogoeta. In Ricardo Gómez & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak*, 275-312. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Lakarra, Joseba A. 1993. *XVIII. mendeko hiztegi-gintzaren etorkiez*. Gasteiz: UPV/EHUko dokto-rego-tesia. [http://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Joseba\\_Lakarra\\_TESIA.pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Joseba_Lakarra_TESIA.pdf).
- Lakarra, Joseba A. 2022. *Jatorr(i), aitor(tu), ilor(tu), bihor(tu)*: filologia ala hil. In Iván Igartua & Jesús Antonio Cid (arg.), *Tu voz en muchas voces. Escritos en homenaje a Jon Juaristi*, 401-460. Bilbo: UPV/EHU.
- Mitxelena, Koldo. 1989. A propósito del catecismo vasco de Ubillos. *FLV* 54. 149-160.
- Sarasola, Ibon. 1986. Larramendiren eraginaz eta. *ASJU* 20(1). 203-215.
- Sarasola, Ibon. 1997. Euskal hitz altxorraz. *ASJU* 31(1). 617-642.
- Ubillos, Jose Antonio. 1785. *Christau doctriñ berri-ecarlea christauari dagozcan eguia sinis-beharren-berria dacarrena*. Tolosa: Francisco de la Lama (Berrargit. faksim. Donostia: Hordago, 1978).
- Urgell, Blanca. 2003. Eratorpena Larramendiren hiztegi (I): eratorbideen analisisa. *ASJU* 37(1). 203-260.
- Urgell, Blanca. 2005. Larramendiren euskal liburuak 1745 arte: testu bibliografiaranzko hurbilketa bat. *Lapurdum* 10. 247-286. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.62>.
- Urgell, Blanca. 2018. Lehen Euskara Modernoa (1745-1891). In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, 543-657. Gasteiz: Eusko Jaurilaritza.
- Zulaika, Josu M. 2012. Breve panorámica de la lexicografía vasca anterior al *Diccionario Trilingue* de Larramendi (1745). *BSEHL* 8. 43-71.

## Zildozko Perutxeneko euskal predikuak (XIX. m.): aurkezpena eta ikerketaren lehen emaitzak<sup>1</sup> *Basque sermons from Perutxena in Cildoz (19th c.): Presentation and first results of the research*

Ekaitz Santazilia\*

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP)

**ABSTRACT:** In this work, I present a 19th-century Basque sermon collection from the Perutxena house in Cildoz/Zildotz (Ezcabarte, Navarre) and provide some guidelines for its examination. After describing it, I show that this scattered collection actually constitutes a single corpus. Moreover, I identify the likely authors and provide some biographical data in order to find out when and where these sermons were preached. Then, I identify some of the bibliographical sources employed by the authors when producing the texts. Afterwards, I highlight the significance of researching the language and linguistic variation in the corpus. Finally, I claim that, including this collection, the abundant Basque preaching texts during that time in Navarre constitute a text genre in itself.

**KEYWORDS:** Sermons; history of Basque; Basque texts; Cildoz/Zildotz (Ezcabarte); Unzu/Untzu (Juslapeña); Navarre.

**LABURPENA:** *Lan honetan Zildozko (Ezcabarte, Nafarroa) Perutxena etxetik ateratako XIX. mendeko euskal sermoi-sorta aurkeztu dut, eta etorkizunean hura ikertzeko gidalerroak eman. Deskribatu ondoren, sakabanaturik egon den corpusa bakarria dela erakutsi dut. Gainera, egileak zein izan daitezkeen iradoki, datu biografikoak eman ditut, eta predikuak non eta noiz erabili zituzten argitu.*

---

<sup>1</sup> Esker zorretan naiz Enrike eta Itziar Diez de Ultzurrun Sagalàrekin, artxiboan miatzen egindako lanagatik, familia-funtsa begiratzeko emandako erraztasunagatik, eta testu honi egindako oharrengatik. Eskerrik asko, orobat, lan hau arretaz begiratu duten bi ebaluatzaileei. Lan hau Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak diruz hornitutako “*Monumenta Linguae Vasconum* 6: avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca” proiektuaren barnean dago (PID2020-118445GB-I00).

\* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Ekaitz Santazilia. Giza eta Hezkuntza Zientzien Saila - Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA/NUP). Arrosadiko campusa, z/g (31006 Iruñea). – ekaitz.santazilia@unavarra.es – <https://orcid.org/0000-0003-1158-821X>

**Nola aipatu / How to cite:** Santazilia, Ekaitz (2022). «Zildozko Perutxeneko euskal predikuak (xix. m.): aurkezpena eta ikerketaren lehen emaitzak», *ASJU*, 56 (2), 219-243. (<https://doi.org/10.1387/asju.23959>).

Jasoa/Received: 2022-10-05; Onartua/Accepted: 2022-11-02. Online argitaratua / Published online: 2022-11-11.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © 2022 Instituto-Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» (UPV/EHU)



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

*Gero, testuak idazteko egileek erabili zituzten iturri bibliografiko batzuk identifikatu ditut. Ondotik, darabilten hizkera eta corpus barmeko hizkuntza-bariazioa ikertzearen garrantziaz aritu naiz. Azkenik, bilduma hau gaineratuta, garai hartako Nafarroako erdialdeko euskarazko sermoigintza oparora genero beregaina dela aldarrikatu dut.*

*HITZ GAKOAK: sermoigintza; euskararen historia; euskal testuak; Zildotz (Ezkaabarte); Untzu (Txulapain); Nafarroa.*

## 1. Sarrera

Pedro Diez de Ultzurrun Etxarte (1924-1994, ik. Barandiaran 1996) euskaltzale iruindarra zenaren funtsean,<sup>2</sup> Zildozko (Ezkaabarte) Perutxenetik ateratako dokumentu zahar zenbait daude, han baitzituen jatorria eta askaziak. Paper horien artean, euskarazko prediku sorta bat dago, ustez etxe hartako seme batek edo batzuek idatzia XIX. mendearen lehen laurdenean edo erdian (ik. Irigarai 1966).

Gainera, sermoi sorta hori Irigarai familiaren funtsean (ik. Santazilia 2022a, 2022b) daudenekin bat datorrela ikusi ahal izan dut; alegia, horiek guztiek bilduma handi bakarra osatzen dutela.<sup>3</sup>

Corpus horrek badu euskararen historiarako interesik, bai eta ere zailtasunik, hainbat alorretan:

1. Corpus sakabanatua, ikertu gabea eta —hein handi batean— argitaragabea da, pasarte batzuk kenduta (ik. Irigarai 1966, 1975; Diez de Ultzurrun 2018).
2. Iruñe ondoko euskararen idatziak dirateke, baina edizioa eta hizkuntza-azterketa egin behar dira.
3. Tamaina aldetik, garaiko corpus homogeneousik zabalena da segur aski, Lizarraga Elkanokoaren lanen gibeletik.
4. Testuek ez dute egiletza eta data garbirik, nahiz eta zenbait helduleku ematen dituzten duda horiek ebazteko. Egile bakarra duten ere dudatzekoa da.
5. Bildumako testu bakar batzuk, argi eta garbi, ez dira corpus honen parte; beste lekutakoak eta egilerenak dira.
6. Testuen antolaketak eta katalogazioak arreta merezi dute, bereiz sailkatutako testu zenbait, menturaz, prediku beraren zati direlako.
7. Testuen iturriak zein diren argitu beharra dago.
8. Bariozioa dago testuen artean, dela ortografian, dela ezaugarri linguistikoetan, eta horren zergatia argitu behar da (egiletza, garaia, iturria...).
9. Honek guztiak irakurketa soziolinguistikoa behar du. Argitu behar da nola eta zergatik osatu zen halako bilduma mamitsua urte gutxian, Bonapartek hegonafarrera deitu hizkeran, eta zein lotura duen corpus honek gero eta zabalagoa den Iruñe inguruko testu corpusarekin.

<sup>2</sup> Iruñeko Diez de Ultzurrun-Sagalà familia, Pedroren seme-alabak hain zuzen, dira funtsaren zaindariak gaur egun.

<sup>3</sup> Pedro Diez de Ultzurrunek (1960: 378) ere bazekien Angel Irigarai zuen sermoi sorta eta berea funts beraren parte zirela, eta Satrustegik (1995) ere hala jaso zuen.



1. irudia

Zildoeko Perutxena, 2022an.  
(Arg.: E. Santazilia)

Dударик gabe, auzi horiek guztiak behar bezala ebaztea ez da artikulu bakarrerako langaia. Lehen saio honetan, *corpusa* aurkeztuko dut (§ 2); ondotik, egileez eta datez orain arte dakidana bilduko dut (§ 3); zenbait predikuren atzean dauden iturri bibliografikoak azalduko ditut gero (§ 4), eta hizkerari buruzko zertzeladak emanen, jarraian (§ 5). Hondarrean ondorioak (§ 6), erreferentziak (§ 7) eta eranskina heldu dira.

## 2. *Corpusa: seiak bat*

Aitzinatu dudan bezala, sei sortatan sakabanatuta dagoena inoiz bilduma bakarra izan dela garbi dago: tankera bera dute denek (idazkera, estiloa, papera, garaia, hizkuntza...). Sei sorta horien lehen katalogazio-, zenbatze- eta deskribatze-saioa egin dut. Lehenik, sorta bakoitzari kode bana esleitu (DU, DUSAT, DUIRE, DUIR, IR eta IRCI), eta gero prediku edo prediku-zati bakoitzari zenbaketa korrelatiboa eman diot (adibidez, DU-001, DU-002, eta abar.). Testu bakoitzaren ertzean arkatzez idatzi dut signatura, jatorrizko dokumentuetan. Hona sorta bakoitzaren deskribapen laburra:

- DU (Diez Ultzurrun): 11 dokumentu. Diez de Ultzurrun-Sagalà familiaren bilduma da. Zildoeko Perutxenean agertu zen prediku sorta hau eta, familiak dioenez, Isidoro Diez de Ultzurrun etxe hartako seme kaputxinoaren eskuetan izan ziren. Ikertzeko dago horietakoren bat hark idatzi zuen. Sorta honetan, DU-009k bestelako letrakera eta hizkera du, ipar-mendebalderagokoa, segur aski.
- DUSAT (Diez Ultzurrun-SATrustegi): 6 dokumentu. Pedro Diez de Ultzurrun zendu ondoren, Enrike eta Itziar seme-alabek aurreko sortatik ateratako prediku batzuk utzi zizkieten Jose Maria Satrustegiri. Satrustegiren heriotzean, apez arruazuarraren familiaren eskuetan gelditu ziren, eta Euskaltzaindian gero. Berriki itzuli dira Diez de Ultzurrun-Sagalà familiarenera. DUSAT-003 gutunazala da, barruan bi prediku dituena: DUSAT-003-1 eta DUSAT-003-2.
- DUIRE (Diez Ultzurrun-IRigarai-Ezkabarte): 7 dokumentu. Aingeru Irigaraik zuen sermoi sorta. Haren seme Jose Angel Irigaraik gorde izan ditu gutunazal batean. Ezkabarteko predikuak direla dio gutunazalak. DUIRE-007k arras letrakera diferentea du.
- DUIRC (Diez Ultzurrun-IRigarai-Cildoiz): 16 dokumentu. Aingeru Irigaraik zuen sermoi sorta. Haren seme Jose Angel Irigaraik gorde izan ditu gutunazal batean. Zildoeko predikuak direla dio gutunazalak. Gutun horretan Makirriango dotrina ere egon bide zen inoiz, baina orain ez dago hor.<sup>4</sup> Sorta honetan Hiriberri-Aezkoakoa datekeen sermoia ere badago (DUIRC-014). DUIRC-007 sermoia ere desberdina da: XVIII. mende hondarrekoa izan daiteke.
- IR (IRigarai): 82 dokumentu. Aingeru Irigaraik zuen sermoi sorta. Sermoi zati batzuk solte daude. Horiei ere kodea eman zaie banaka, eta etorkizun-

<sup>4</sup> Orain diez de ultzurrundarrek dute, Angel Irigaraik Pedro Diez de Ultzurruni eman ziolako 1958. urtean (Diez de Ultzurrun 1960).



nean zatiok nolabait batu daitezkeen ala ez aztertu behar da. IR-001 ez da sermoia, Eritzeko 1863ko dotrina bat baizik. IR-029 ez da predikua. Mendi-rik 1811ko otsailaren 7an sinatutako dokumentua da, Ozueko (Untzu gaur egun) alkateari igorria, frantses tropen kontra egin nahi dutenek herrian babesa dutela dioena, eta traidoreok salatzeo aginduz. IR-052 beste itxura bateko sermoia da: 1862ko data du eta 1932an Irigarai Beltzuntzen jaso zuela dirudi, hala idatzirik ageri baita. IR-078 predikua ere bestelako letrakera du.

- IRCI (IRigarai Cildo): 7 dokumentu. Sorta hau geroago agertu da Jose Angel Irigaraiaren etxean. Katalogatu (eta, beraz, zenbatu) ez ditudan beste dokumentu batzuekin batera zegoen: Lesakako bando baten kopia; Lesakako bi euskal testu administratibo; Gurutzebide baterako kantuak; Zildoeko Perutxeneo liburu bat, gurutzebidea eta otoitzak dituen; Fermin Irigaraiaren testu bat, eta gipuzkeraz dagokeen otoitz bat (ik. horien deskribapen zehatzagoa Santazilia 2022b lanean).

Perutxeneo seme Isidoro Diez de Ultzurrun kaputxinoa, Mendizabalen desamortizazioaz geroztik, sortetxera itzuli zen eta 40 urtez izan zen Zildoeko apez (ik. § 3.3), 1880an komentura itzultzeko aukera izan zuen arte. Orduan, paperak sortetxean gelditu ziren; tartean, euskarazko testu eta liburu zenbait, baita hizpide ditugun sermoiak ere (Diez de Ultzurrun 1960).

DUIRE, DUIRC, IR eta IRCI sortak (dena 112 dokumentu) Angel Diez de Ultzurrun Perutxeneo etxeko jaunak Angel Irigarai eman zizkion 1933. urte aldera (Diez de Ultzurrun 1960: 377), eta, ondoren, Jose Angel Irigarai semeak gorde zituen. Orain, ordea, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian daude, Jose Angel Irigarai familiaren funtsa artxiboari dohaintzan eman dionez geroztik (ik. Santazilia 2022a, 2022b). DU eta DUSAT sortak ez bide zituen Irigarai eraman, eta Perutxeneo gelditu ziren. 1957 aldera, Angel Diez de Ultzurrunen seme Kamilok, Perutxeneo premuak, bere lehengusu Pedro Diez de Ultzurruni eman zizkion gelditzen ziren sermoi, testu eta liburuak (Diez de Ultzurrun 1960: 378), eta Pedroren seme-alaben eskuetan daude une honetan.

### 3. Egiletza eta datatzea

Aipatu dudanez, garbi dago sermoiak Zildoeko Perutxenetik atera zirela, Isidoro Diez de Ultzurrun kaputxinoaren dokumentuen artetik, baina horrek ez du baitezpada esan nahi Isidoro izan zela sermoi horien egilea.

Sermoiak ez daude sinaturik, baina bada egiletza eta datak zehazteko frogarik.

#### 3.1. Iturri zuzenak

Zenbait prediku bestelako gutun eta agirien ifrentzuan eta ertzetan idatzirik daude, papera berrerabiliz eginak. Dokumentu horietan bada izenik eta datarik irakurgai. Hala, DUSAT-001en zati bat Auzan 1828ko uztailearen 4an datatutako gutun batean idatzia dago. Baltasar Zubiria(?) delakoak Jose Manuel Urtasun Untzuko abade eta lehengusuari igorritakoa da. DUSAT-003-1en zati bat ere gutun batean

dago, Zildoeko behin-behineko abadeari igorrita, 1818ko apirilaren 29an.<sup>5</sup> DUSAT-003-2 sermoiaren zati bat Puiutik Untzuko abadeari igorri gutunaren binperrean dago. Beste zati bat Manuel Ezkurra Soltxagako abadeak 1805eko ekainaren 30ean izenpetutako ziurtagirian dago idatzita. Orri hori bera gerora Untzuko bataio-liburuan gehitu beharreko pasarte baten zirriborro gisa baliatu zen: 1806an sortutako ume bati dagokio. Gainera, Zildoeko apezari 1836an idatzitako gutunean ere beste zati bat dago. DU-006ren atal batek Untzuko abadeari 1821eko otsailaren 9an zuzendutako agiria du euskarri, eta beste atalak, 1824ko urriaren 30ean Nabazko parrokoari zuzendutako agiria. DU-008 Jose Manuel Urtasun Untzuko abadeari Otsakartik 182[.] urteko irailaren 17an zuzendutako gutunean dago idatzita. Beste zatia 1821eko irailaren 27an Otsakartik Untzuko abade Manuel Urtasuni igorri gutunean dago. DUIRE-002 sermoia 1851ko<sup>6</sup> martxoaren 27an idatzia da, Berriobeitiko bikario Juan Bernardo Etxeberriak Ezkabarteko kabildoko dekanari zuzendutako gutunaren ifrentzuan. IR-036 Arreko Trinitateko kofradiaren zordunen zerrenda batean idatzi da. Zerrendak Juan Manuel Urtasunen sinadura darama, Arreko Trinitateko kofradia laikoko abadea baita. IR-061 predikua Manuel Urtasun apezari, Zildoeko biztanleari, 1826ko urriaren 7an arma bat erabiltzeko luzatutako lizentzian idatzita dago. IR-072 Arreko Trinitateko goi karguei zuzendutako paper batean idatzita dago. IRCI-001ek erdian papertxo du eta horren giblean “Manuel de Urtasun [...] Abad de Unzu” irakur daiteke. IRCI-002 paper puska batean idatzitako sermoi zatitxo da eta Juan Manuel Urtasun Untzuko abadearen izena irakur daiteke. IRCI-003 ere papertxo batean idatzitako sermoi zatia da, Joseph Manuel Urtasun Untzuko parrokoaren izena dakarrena.


Izenez eta karguez gain, datak ere aitzinatu ditut aurreko pasarteetan, XIX. mendearen lehen erdikoak denak. Horiei gainera dakieke IRCI-007 1819ko Errege Zedula baten giblean idatzitako sermoi zatia dela eta DU-010 1855eko ekainaren 16an inprimatutako dokumentua duela euskarri.

Hori gutxi balitz bezala, sermoi frankoren ertzean noiz predikatu ziren esaten zaigu eta, ikus daitekeenez (ik. 2. irudia), prediku batzuk behin eta berriz erabili ziren. Ertzetan idatzitako data horien artean, 1810ekoa da goiztiarrena (IR-082), eta 1879koa, ordea, berriena (IRCI-005).

Bada, beraz, nondik abiatu testuen egiletzan eta datatzean argi apur bat ekartzeko. XIX. mendearen lehen erdia dugu nagusi ardatz kronologikoan. Gainera, han eta hemen ageri zaizkigu Jose Manuel Urtasun eta Juan Manuel Urtasun izenak, Zildotz eta Untzu herrietako parrokiak, Ezkabarteko kabildoko burutza eta Arreko Trinitateko kofradia laikoko abadetza ere. Datorren atalean zehaztuko dut horrek denak Isidoro Diez de Ultzurrunekin duen lotura.

<sup>5</sup> Data ez da argi eta garbi irakurtzerik.

<sup>6</sup> Urtea dudazkoa da, ez baita ongi irakurtzerik.



## 2. irudia

Sermoi hau zortzi urtetan bederen predikatu zen.  
(NEAN, Irigarai funtsa, 1. kaxa, 1. karpeta, IR-017)

### 3.2. Apezak Zildotzen eta Untzun

Lehenik eta behin, ikusagun XIX. mendearen lehen erdi aldera nor egon zen apez Txulapaingo Untzun eta Ezkabarteko Zildotzen (ik. 1. taula). Horretarako aski dugu Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboan dauden parroketako sakramentu-liburuetara jo-tzea, jakiteko zein apezek jaso zituen idatziz bataioak, heriotzak, ezkontzak eta beste-lakoak, garaian garai. Han-hemenka, Elizaren tribunaleko auzibideek ere ematen di-gute daturik.

**1. taula**  
Apezak Zildotzen eta Untzun

Urtea	Zildotz	Untzu
	Jose Olaitz	* <sup>7</sup>
	Behin-behinekoa	*
	Santiago Iturriria (behin-behinekoa), Orrioko abadea	*
1761	Juan Urtasun	*
1762		
1784	Martin Felix Ezkurra (behin-behinekoa), Untzuko abadea	Martin Felix Ezkurra
1786	Matias Orrio	Juan Jose Larraiotz (behin-behinekoa), Ollakarizketako abadea
1800		
1801		
1809	Frantzisko Joakin Untziti (behin-behinekoa), Orrioko bikarioa	Jose Manuel Urtasun
1810	Jazinto Makaia	
1814	Jose Manuel Urtasun (behin-behinekoa)	
1814	Jose Espartza	
1817	Jose Manuel Urtasun (behin-behinekoa), Untzuko abadea	
1819	Juan Manuel Urtasun	Jose Manuel Urtasun & Isidoro Diez de Ultzurrun & Antonio Aginaga
1842		
1844		
1851	Isidoro Diez de Ultzurrun & Juan Manuel Urtasun	Antonio Aginaga
1856	Isidoro Diez de Ultzurrun (behin-behinekoa)	*
1879	Zeledonio Belasko (behin-behinekoa)	*

<sup>7</sup> Izartxoia dagoen kasuetan, ez dut datua kontsultatu.

Hala, Zildotzen, herriko seme Juan Urtasunek hartu zuen parrokia 1761ean (IEA, Apezpikutegetiko auzitegia, Auzibideak, 2189, 16. zk.), 1784ko otsaila arte. Untzuko parrokiar arduratzen zen Martin Felix Ezkurra izan zen ondoren behin-behineko parrokoa Zildotzen, 1785ean Matias Orrio zildoztarrak behin betiko kargua hartu zuen arte (IEA, Apezpikutegetiko auzitegia, Auzibideak, 2479, 11. zk.). Orrio 1809ko urria arte egon zen han, eta behin-behineko apez baten ondotik, 1810eko azaroan Jazinto Makaia nabaztarrak hartu zuen Zildoizko parrokia (IEA, Apezpikutegetiko auzitegia, Auzibideak, 2695, 25. zk.). Jose Espartza etorri zen gero, 1814ko irailetik 1816ko abendura. Ondoren, Untzuko parrokoa, Juan Manuel Urtasun izeneko, ageri zaigu behin-behinean, 1819ko urtarrila arte, eta urte bereko uztailean Juan Manuel Urtasunek hartu zuen behin betiko kargua urte luzez (IEA, Apezpikutegetiko auzitegia, Auzibideak, 2723, 10. zk.); 1855eko ekainaren 8koa da azken bakarkako sinadura parrokiako liburuetan. Urte batzuk lehenago, Migel Isidoro Diez de Ultzurrun ageri da sinatzaile Juan Manuelekin batera tarteka, eta 1856ko abendutik 1879ra bitarte, Isidoro da Zildoizko parrokoa, behin-behineko karguan betiere.

Untzun, ordea, Martin Felix Ezkurra dugu apez 1762ko maiatzetik 1799ko otsaila bitarte. Juan Jose Larraiotz Ollakarizketako abadea behin-behinean egon zen 1800eko otsailetik 1801eko otsailera bitarte, eta Jose Manuel Urtasunek hartu zuen behin betiko abadetza 1801eko irailetik bederen (IEA, Apezpikutegetiko auzitegia, Auzibideak, 2653, 9. zk.), 1843ko irailera. 1842ko ekainaren 19tik, Isidoro Diez de Ultzurrunekin batera edo Antonio Aginagarekin batera sinatzen du. Aginaga behin-behineko abadea da 1844ko irailetik, eta aurrerago behin betiko karguan ageri da.

Berrerrabilitako paperetatik erauzitako datuak ikusita, Zildoizko eta Untzuko apez hurrenkera begiratuta, eta predikazio-urteei erreparatuta (1810 eta 1879 artean), nahiko garbi irudika daiteke Jose Manuel Urtasun > Juan Manuel Urtasun > Isidoro Diez de Ultzurrun ibilbidea. Jarraian emanen ditudan datu biografiko apurretan erakutsiko dudanez, lehen biak anaiak ziren, eta hirugarrena, iloba.

### 3.3. Perutxeneko semeak

#### 3.3.1. *Jose Manuel Urtasun Lakidain*

Zildoizko bataio liburuan ikus daitekeenez, Jose Manuel Urtasun 1773ko azaroaren 26an sortu zen Perutxenean. Juan Jose Urtasunen eta Manuela Mikaela Lakidainen seme gehiena izan zen. Aitaxi-amatxiak, ordea, Zildoizko Juan Urtasun eta Barbara Leranotz zituen aitaren aldetik, eta Matias Lakidain eta Juana Maria de Larunbe beltzuntzearrak amarenetik. Aitaren aldeko aitaxik eginarazi zuen gaur egun arte iraun duen etxea Jose Manuel jaio baino bost urte lehenago, etxeko atalburuak argitzen duenez (ik. 3. irudia).<sup>8</sup>

<sup>8</sup> Juan Urtasun izeneko apeza ageri zaigu herrian 1761 eta 1784 urteen artean (ik. 1. taula). Ez dut ikertu, baina oso litekeena da hura mintzagai ditugun urtasundarren askazia izatea eta, beharbada, etxea eginarazi zuena.



### 3. irudia

Perutxeneko atalburua.

(Arg.: E. Santazilia)

Horretarako azterketa gairiditu ondoren, Albako dukesaren patroitzapekoa zen Aldatz-Etxabakoizko parrokia eskuratu zuen 1798ko maiatzaren 9an (IEA, Apezpikutegiko auzitegia, Auzibideak, 2778, 8. zk.). 1801eko uztailaren 13an joan zen Untzuko parrokiara, bestea utzita (IEA, Apezpikutegiko auzitegia, Auzibideak, 2656, 12. zk.). Gainera, 1818ko martxoaren 7tik behin-behineko apez ibili zen Zildotzen, Jose Espartza apeza (Orikaingo Sanpaulorena etxekoak berau) ongiezik zegoe-lako. 1818ko apirilaren 6an hil zen Espartza 32-33 urterekin, eta sorterrian ehortzi zuten (IEA, Apezpikutegiko auzitegia, Auzibideak, 2723, 10. zk.). Orduan utzi

zuen Jose Manuelek Zildozko behin-behineko parroko kargua. Badakigu jakin Nabatzen ere izan zela **behin-behineko parroko, hango sakramentu-liburuan agiri bat** sinatu zuelako, 1825eko uztailaren 14an.<sup>9</sup> Bestalde, hainbat urtez argitaratutako *Guía del Estado Eclesiástico Seglar y Regular* delakoan, “Juan Jose Urtasun, abad de Unzu” izeneko bat (izena gaizki emanik, hain segur), Anueko behin-behineko artzipreste karguan ageri zaigu 1818 eta 1835 urteen artean bederen.<sup>10</sup>

Gainera, urte haiek Frantziarekiko gerra-urteak izan baitziren, 1812an Untzun bizi ziren 15 eta 50 urte bitarteko gizonen errolda egin zen, banan-banan datu biografiko eta fisionomikoak biltzen dituen (NEAN, Estatistika, 11. sorta, 14. zk.). Zerrenda horretan lehena dugu apeza: 36 urteko<sup>11</sup> Manuel Urtasun, Zildotzen jaioa baina Untzun dagoena, Zildozko Juan Jose Urtasun etxejabe laborariaren eta Mikaela Lakidain defuntuaren semea. Altueraz txikia bide zen, kolore sanokoa, kopetazabala, begi urdinkarak zituen, sudurra eta ahoa arruntak, eta ilea eta bizarra urdintzen hasiak.

Jose Manuel 1844ko ekainaren 1ean hil zen, 70 urte, 6 hilabete eta 26 egunekin, eta hil horren 3an ehortzi zuten Zildotzen, eliza ondoko kanposantuan. Heriotza-agiri horrek berak dioenez, urte batzuk zeramatzan burua galduta: “por hallarse ha mucho tiempo turbado la facultad intelectual ò como estasiado”. Horrek azaltzen du zergatik ageri diren Untzuko parrokia-liburuetan 1842tik aurrera Jose Manuel Urtasun anaia eta Antonio Aginaga sinatzaile, harekin batera edo haren ordeiz.

### 3.3.2. Juan Manuel Urtasun Lakidain

Aitzinatu bezala, Jose Manuelen anaia zen. Perutxenean sortua, 1786ko irailaren 17an, Zildozko bataio-liburuan ageri denez. Bistakoa da honek ere Juan Jose Urtasun eta Manuela Mikaela Lakidain zituela guraso: sei seme-alaben artean gazteena, hain zuzen.<sup>12</sup> Anaia Juan Jose izan zen bataioko aitabitxietako bat. Atarrabian konfirmatu zen, 1787ko apirilaren 17an (IEA, Diozesiaren gobernua, Ordena-espeditak, 310. k., 18. zk.).

Untzun bezala, Zildozko gizonen 1812ko errolda ere badugu (NEAN, Estatistika, 10. sorta, 59. zk.). Horretan esaten zaigu 21 urte dituela,<sup>13</sup> laboraria dela, Zildotzen jaioa eta han bizi dena, altueraz baxua, kolorez beltzarana, kopeta eta aho arrunte-

<sup>9</sup> Naski horregatik ageri zaigu DU-006 sermoiaren zati bat 1824ko urriaren 30ean Nabazko parrokoari zuzendutako agiri batean: agiria Urtasuni berari zuzenduta zegoelako, edo han behin-behinean zegoenean paper hori berrerabili zuelako.

<sup>10</sup> Honako hau dio *Gran Enciclopedia de Navarra* (Nafarroako Aurrezki Kutxa 1990): “ANUÉ, Arciprestazgo de: Perteneciente a la diócesis de Pamplona. En la Edad Media comprendía Roncesvalles, Burguete, Lanz, la cendea de Ansoáin y los valles de Erro, Esteribar, Anué, Ulzama, Atez, Odieta, Olaiibar, Ezcabarte y Juslapeña. En 1567 se le incorporó la parroquia de Valcarlos, hasta entonces de la diócesis Bayona. En 1863 se le segregaron los arciprestazgos de Roncesvalles (con Valcarlos, Burguete y Erro) y Esteribar (con Ezcabarte y Ansoáin); y en 1958 Juslapeña pasó al arciprestazgo de la Cuenca. Desde 1971 forma parte de la zona pastoral vasco-parlante”.

<sup>11</sup> Orduan 39 urte zituen. Agian errolda urte batzuk lehenago egina da, frantsesaldiaren hasieran.

<sup>12</sup> Jose Manuel (1773), Juan Jose (1775), Juana Frantziska (1778), Josefa Lorentza (1780), Mígel Jose (1783) eta Juan Manuel (1786) dira anai-arrebak.

<sup>13</sup> Aurrekoan bezala, datua ez da zuzena: 1812an 26 urte zituen.

koa, begi-nabarra, sudurluzea, eta ile eta bizar beltzekoa. Ageri denez, orduan ez zen oraindik apeztua. Gramatika ikasketak Garesen egin zituen eta 1818an jaso zuen lehen tontsura (IEA, Diozesiaren gobernu, Ordena-espeditenteak, 310. k., 18. zk.). Iruñeko San Migel seminarioan filosofia eta teologia morala ikasten zebilela, 1818an lehen tontsura galdegin zuen eta, Zildoizko abadetza esleituta, 1819an ordena txikiak eta subdiakono ordena jaso zituen (IEA, Diozesiaren gobernu, Ordena-espeditenteak, 151. k., 10. zk.), diakono izan zen urte hartan berean (IEA, Diozesiaren gobernu, Ordena-espeditenteak, 154. k., 17. zk.), baita apez ere (IEA, Diozesiaren gobernu, Ordena-espeditenteak, 98. k., 4. zk.).

Artean Untzun parroko zebilen Jose Manuelek anaia gazteari utzi zion, beraz, behin-behinean zuen Zildoizko parrokia, 1819. urtean (IEA, Apezpikutegiko auzitegia, Auzibideak, 2723. k., 10. zk.).

IR-036 sermoiak esaten digunez, Arreko Trinitateko abadia laikoko kapilaua izan zen omen, baina ez dut horri buruz informazio gehiago biltzerik izan.

Juan Manuel 1855eko irailaren 17an hil zen, 69 urterekin. Zildotzen ehortzi zuten eta zeukan guztia Josefa Lorentza Urtasun arrebari utzi zion, sortetxea barne. Arreba sarri hil zen, ordea, 1855eko azaroaren 2an, testamenturik gabe.

### 3.3.3. *Isidoro Diez de Ultzurrun Urtasun*

Zildoizko bataio-liburuak dio 1807ko apirilaren 4an jaio zela, Perutxenean. Aurkeko bien iloba zen. Aita Saldiseko Txurikoreneko Migel Karlos Diez de Ultzurrun zuen, Zildotza ezkondua lehen aipatutako Perutxeneko Josefa Lorentza Urtasun Lakidainekin. Senar-emazte horien ondorengo zuzenak dira egun Perutxenean bizi direnak.

Ezkabarteko errolda bati esker (NEAN, Estatistika, 12. sorta, 22. zk.), 1817an Perutxenean bizi zirenen izen deiturak zein ziren jakin dezakegu. Hala, Juan Jose Urtasun premu alargunduarekin batera bizi zen Jose Manuel Urtasun semea, apeztukoa zena, alaba Josefa Lorentza eta haren senarra, aipatu Migel Karlos. Frantziako Goldaratz, Juana M.<sup>a</sup> Makirriain eta Mikaela Irisarri ere han bide ziren, baina ezin azal dezaket zergatik. Esan bezala, Migel Karlosen eta Josefa Lorentzaren semea zen Isidoro, eta erroldan ageri da, umeen artean, "Isidro (*sic*) Ulzurrun" izenpean. Gainerako umeak Manuel, Josefa eta Pablo ditugu, Isidororen anai-arrebak, hain zuzen.

Isidoro Kaputxinoen ordenan sartu zen. 1832ko ekainaren 9an, 25 urte zituela, korista izateko habitua hartu zuen Cintruenigoko komentuan,<sup>14</sup> eta ordutik nobizio korista zenak 1833ko ekainaren 10ean egin zuen botuen profesa irmoa, komentu berean.<sup>15</sup> Iruñeko komentuan bizi izan bide zen gero (Diez de Ultzurrun 1960), Mendizabalen desamortizazioak (1836-1837) handik lekutu eta sortetxera eramanean zuen arte.

<sup>14</sup> *Libro en que se asientan las recepciones de los novicios, que reciben el habito en el Convento del Noviciado de esta Prov[incia] dela Inmaculada Concepcion de los Padres Capuchinos del Reyno de Aragon y Navarra.* Enrike Diez de Ultzurrunek eman dit aktaren irudia.

<sup>15</sup> *Libro de actas del noviciado de Cintruénigo y Pamplona. Y profesiones solemnes de Pamplona. Años 1793-1834. Años 1880-1889.* 239. or. Enrike Diez de Ultzurrunek eman dit aktaren irudia.



Parrokia-liburuei begira, ikus dezakegu 1842an Jose Manuel Urtasun osabarekin eta Antonio Aginagarekin batera aritu zela behin-behinean Untzuko parrokian, azkenak kargua hartu arte. 1855ean beste osabarekin, Juan Manuelekin, dugu Zildoeko parrokian behin-behinean, 1856an bakarrik sinatzen hasi zen arte, behin-behineko karguan, betiere. 1879an utzi zuen hango parrokia eta komentura itzuli, 1888an hil zen arte.

Laburbilduz, Juan Jose Urtasunek eta Manuela Mikaela Lakidainek izandako sei seme-alaben artean, sermoiekin lotura dutenak lehena eta azkena izan ziren, baita Josefa Lorentzaren seme eta aurreko bien iloba Isidoro ere. Sermoiak elizan predikatzeko zirenez, parrokiaren batean ibili ziren garaikoak behar dute izan. 2. taulan jaso dugu bakoitza zein denbora-tartetan aritu zen zeregin horietan.

## 2. taula

Apez bakoitzaren lan-urteak gutxi gora-behera

	Urteak
Jose Manuel Urtasun	1801-1842 <sup>16</sup>
Juan Manuel Urtasun	1818-1854/1855
Isidoro Diez de Ulzurrun	1842-1879

Predikuak hiruren eskuetatik pasatu zirela ikusita, ebatzi behar da zein eskuri dagokion bakoitza eta batzuek ageri dituzten moldaketak eta zuzenketak nork eginak diren.

## 4. Letrakera

Predikuak Jose Manuel Urtasunen eskukoak izan zitezkeela iradoki zuen Irigaraik (1966: 262-263),<sup>17</sup> baita Matias Orriorenak ere, 1786tik aurrera Zildoeko apez izan zenarenak. Orrioren letrakera Perutxenekoa bestelako testu batzuetan identifikatu dudalakoan nago, baina esango nuke ez dagoela haren eskuko sermoirik bilduma honetan. Bestalde, 1826 eta 1878 artean datatu zituen Irigaraik, baina, bestelako azalpenik eman gabe, eta ez dakit zein izan daitekeen horretarako arrazoiak; izan ere, Irigaraik gordetako sortan badira lehenagoko data daramaten predikuak. Gainera, orain badakigu zaharrenak 1826koak badira, nekez izan daitezkeela Matias Orriorenak, Orrio 1810eko otsailaren 17an hil baitzen bat-batean, Zildoeko hildakoen liburuan jaso zenez.

Sermoi letrakerak eta parrokia-liburuetako agirien sinatzaileenak alderatzeko saiotxoak egin dut azaletik, nork zer idatzi zuen jakiteko. Lan hori sakon eta sistematikoki egin beharra dago, baina ez da ematen duen bezain erraza: Jose Manuelek eta Juan Manuelek letrakera aski antzekoa dute; Isidororena, ordea, bestelakoa da (cf. 4., 5. eta 6. irudiak).

<sup>16</sup> Kargua 1844 arte izan bazuen ere, gogoan har burua galdua zuela aspaldixko.

<sup>17</sup> Untzukotzat du, baina zildoztarra zen.

tizado el 1<sup>a</sup> citado Juan Tomas Jaxtorra, y enana  
 Martina de Cildor ya difunta, Vecinos de este  
 lugar; maternos Lorenzo de Oreien, y Juana Jo-  
 sefa de Errea Vecinos de Sarasa; y para que  
 conste hice este asiento en Zildor a veinte y  
 nueve de Mayo de mil ochocientos diez y ocho  
 a Diez y ocho  
 D. <sup>1</sup> Jose Man. Urtasun Abad de  
 Unzu e Int. de Zildor

## 4. irudia

Jose Manuel Urtasunen letrakera  
 (IEA, Parrokia-artxiboak, 657. k., 4. zk., 74. or.)

de Isidor, ya dif. y enana  
 merec. ya dif. Materno. Juan Martin de Buzutun, y enana  
 Catalina de Urtasun ya difuntas, el natural de Cildor, y elle  
 de Osocain, duena miera, que fueron de la casa de  
 Ocainene de este lugar de Cildor; y para que conste hice  
 este asiento firmado de mi mano el die veinte y seis del mes  
 y año u. sup.  
 D. Juan Manuel de Urtasun  
 Abad de Cildor

## 5. irudia

Juan Manuel Urtasunen letrakera  
 (IEA, Parrokia-artxiboak, 657. k., 4. zk., 84. or.)

Testu gehien-gehienak Jose Manuelen eskukoak direlakoan nago,<sup>18</sup> nahiz eta, esan bezala, patxadaz begiratu behar den. Adibide gisa, erka bitez 4. irudiko Jose Manuelen letrakera eta sermoietan ugarien ageri zaigun 7. irudikoa. Ertzetan idatzitako predikazio-urteek (ik. 2. irudia) Jose Manuelen testuak Juan Manuelek eta are Isidorok ere erabili zituztela darakutsate.

<sup>18</sup> Orain esan dezakegu, segur aski, *Ezconcerca doaciñei emandaquioqueten aviso gaia* izeneko Untzuko edo Zildozko testutxo anonimoaren gibelean ere (Santazilia 2013) urtasundarrak daudela.

Del bairriano Natural de Villanueva y residente en <sup>1828</sup>  
 Torves a quien advece el porvenir espiritual y obli-  
 gaciones que contraigo: Abuelo porcasos Tomas Be-  
 baice ya difunto Natural que fue de Utraz, y Hermano  
 de Cenoz tambien difunto Natural que fue de Cia:  
 Maternos Martin Galdi Natural de Urdians, y Bea-  
 nanda Olacoa Natural de Gaxiain  
 Y para que conste mire este asiento firmado  
 de mi mano hoy dia Nube del mes y año en Supra  
 Isidoro de Cildoz  
 Abad Pns.<sup>a</sup> Cildoz

## 6. irudia


Isidoro Diez de Ultzurrunen letrakera  
 (IEA, Parrokia-artxiboak, 657. k., 4. zk., 128. or.)

... cierto van mozeau de becatu equitico viciosa  
 edo costumbrea izandocinuela demborarembates,  
 eta erpalimberaquezu averiguen cez frecuencia  
 requi exorces cinan, guti goraberas, artebat bene-  
 batequi, illabete bat berzoatequi, ez erare cembat  
 demboras inau n zuen costumbre gaisto anrec, ex-  
 ranen duzu: Jauna, cierto nago ondelacs viciosa  
 izan muela, baña etiaquetec aseguratu cembat dem-  
 boras inau n zuen, exnan dezaguetena da oimbea-  
 ce vretatic ezela paratues, edo ondelacs dembo-  
 retatic paratues cela. Auda Tang<sup>ac</sup> baquearen  
 autorea den beraba manacen diecna, ceñen le-

## 7. irudia

Ustez Jose Manuel Urtasunena den sermoia  
 (NEAN, Irigarai funtsa, 1. k., 3. karp., IRCI-005)


Paratestuek ere laguntzen dute honetan. Gogoan izan sermoi batzuk bestelako paperen binperrean idatzi zirela, eta horietan datak eta izenak ageri direla. Hala, 8. irudiko sermoi-zatia Juan Manuel Urtasunek sinatutako papera berrerabiliz idatzi zen. Letrakerak erkatuta ere, bere eskukoa dela dirudi.



8. irudia

Juan Manuel Urtasunen testua (NEAN, Irigarai funtsa, 1. k., 1. karp., IR-036)


Orobat gertatzen zaio, esaterako, 1855. urtean inprimatutako agiri batean idatzitako sermoiari (ik. 9. irudia). Jose Manuel hila zen ordurako eta Juan Manuel urte hartan berean hil zen, irailan; beraz, bere azken testuetatik izan daiteke honakoa.



9. irudia

1855eko agiri batean idatzitako predikua (Diez de Ultzurrun-Sagalà familiaren funtsa, DU-101)


Dokumentu batzuek gehiketak, zuzenketak eta moldaketak dituzte. Horiek nor-ekin zituen banan-banan argitu behar da; izan ere, kasu batzuetan, egileak berak eginak dira baina, beste batzuetan, esku desberdinak ere izan daitezke. Ustez Jose Manuelek izkiriaturako testu batzuetan, esaterako, ezin da baztertu Juan Manuelek edo Isidorok gerora eskua sartu izana, kontuan izanik sermoiak denek ibili eta erabili ziztuztela. 10. irudiko adibidean, esate baterako, ematen du testu nagusia Jose Manuelek egin dela, baina ondotik anaia Juan Manuelek egin dituela emendioak.



10. irudia

Moldaketak predikuetako batean  
(NEAN, Irigarai funtsa, 1. k., 1. karp., IR-054)

Ez ahatz, gainera, arras letrakera diferentea duten predikuak ere badirela bilduman, eta horien egiletza argitzeko dagoela. Ikus horren adibidea 11. irudian.



11. irudia

Bestelako egikera eta letrakera duen predikua  
(NEAN, Irigarai funtsa, 1. k., 1. karp., IR-078)

## 5. Iturriak

Halakoetan ohi bezala, prediku hauen egileek ere beste autoreen lanak erabili zituzten bereak ontzeko, nahiz eta ez ohi zuten, salbuespenak salbuespen, iturria berariaz aipatzen. Pasarte batzuen jatorria zein izan daitekeen aurkitzeko saiakera egin dut, azaletik eta sistematikotasunik gabe, baina ediren dut emaitzarik, baita 1. eranskinean bildu ere.

Aspaldi, Irigaraik (1975) berak iradoki zuen Mendibururen eragina egon zitekeela testu hauen gibelean, eta sermoigileak ere hala aitortzen du kasu bakar batzuetan. Nik ere *Jesusen Amore-nequeei dagozten cembait oioitz gai* (1760) lanaren emaria badagoela egiaztatu ahal izan dut han-hemenka. Nolanahi ere den, sermoiek ez dute beti Mendibururen testua hitzez hitz kopiatzen: zenbait egitura eta pasarte antzekoak dira, baina ez berdinak. Mendibururen testuak egilearen hizkerara hurbiltzeko saiakerak, beraz, arreta beregaina merezi duke. Beste egileen erdarazko testuen itzulpenak ere franko dira. Ez dakit, ordea, itzulpenak zuzenean egileek egin zituzten, ala tarteko beste iturriak egon ote den.

Gainerakoan, erdarazko testuetatik hitzez hitz itzuliak dira sermoi edo sermoizati zenbait: dela latinetik, dela gaztelaniatik. Sermoietan berariaz aipatzen den autorea da Pedro Calatayud. Aipatzen den orri zenbaketari eta gaiari begira, *Doctrinas prácticas que solía explicar en sus misiones...* lana da erabili dena, 1797ko edizioan. Liburu hau gutxienez beste hiru sermoiren atzean dagoela egiaztatu ahal izan dut. IR-008 sermoian Jean Croiseten obra aipatzen da, eta segur aski *Año cristiano o ejercicios devotos...* izeneko itzulpena da autoreak eskuetan izan zuena, baina ez dakit zein urtetako ediziotan. Baliteke Iruñean Longasek inprimatutako edizioa izatea (Iturbide 1997). Bestalde, Miguel de Santanderren *Doctrinas y sermones para misión...* obra da beste zazpi sermoi edo sermoi-zatiren iturria. Zein edizio erabili zen, ordea, ez dut begiratzerik izan. Climenten *Pláticas dominicales* ere identifikatu dut bi kasutan, eta Josep-Ignatius Clausek latinez idatzitako *Spicilegium catechetico-concionatoriumen* edizioaren bat dago beste bost sermoiren gibelean bederen. Azkenik, Fr. Francisco de la Madre de Dios garestarrak 1705ean Iruñean inprimatutako *Theatro Trinitario* azpimarratu nahi nuke. Sermoigileak berak aipatzen du behin, baina gutxienez beste sermoi baten jatorrizko testua ere bada. Aurreko obrekin edo autoreekin alderatuta, zabalkunde apalagokoa dugu lan hau, eta berori erabiliko dut itzulpen lanaren erakusgarri:

Lastimoso caso! Lance estrecho! y riguroso ahogo es la memoria de el Juycio Universal, q[ue] oy nos pinta la pluma de San Lucas. Precederàn señales espantosas, y horribles al día de el Juycio. Vendra el Hijo de Dios con espantosa Magestad, à juzgar à los mortales. El sol, luna, y estrellas han de apagar sus resplandores, en señal, de que Dios ha encendido su divino enojo. (Madre de Dios, 1705: 1)<sup>19</sup>

\* \* \*

Caso lastimosoa! lance erchia! eta neque rigurosoa da juicio universalaren memoria, cein pintacen baitigu egungo egunean S[a]n Lucasek. Juicioaren egunari alcinduco zaizquie sañale izugarriac. Etorrico da Jang[oicoare]m (*sic*) semea magestade espantoso batequi, mortaleac juzgazera, Yguzquiac, Yllarguiac, eta Yzarrac guibelatuco dute be-

<sup>19</sup> Eze luzeak labur eman ditut, eta laburdurak hedatu. Gainerakoan, jatorrizkoari lotu naitzaio.

ren arguitasuna, mateco entendazera, etzi Jang[oico]ac ychequi, edo vistu duela bere colera divina. (IR-019)

Diez de Ultzurrunek (1960: 378) esaten digunez, Perutxeneko bibliotekan ba omen ziren, gainera, Mendibururen *Jesusen biotzaren debocioaren* bigarren edizioa (1751), eta Mikelestorenaren *Cerura nayduenac ardezaquean vide erraza* lanaren zatia, 1754ko ediziokoa, latinezko eta gaztelaniazko beste liburu zenbaitekin batera. Gainera, Larramendiren hiztegiaren (1745) liburuki bat ere bazen (gaztigua, Enrike Diez de Ultzurrun). Euskarazko liburu horiek guztiak Diez de Ultzurrun-Sagalà familiak ditu orain. Euskarazko lan horiek sermoietan islarik ba ote duten begiratu beharko litzateke. Edonola ere, lehen begiratuan, Larramendiren lexikoaren isla nabarmenik ez dut sumatu.

Horrez gain, bai Jose Manuel Urtasun, Untzuko apeza, bai Juan Manuel, Zildo-zkoa, sermoi-liburu batean heldu den harpidedunen zerrendan ageri zaizkigu: Felipe de la Virgen del Carmenen *El párroco. Pláticas doctrinales y morales para todos los domingos y fiestas principales del año...* (1828) liburuaren 3. liburukian, hain zuzen. Jose Manuel, bestetik, Francisco Alvaradoren *Cartas críticas...* (1825) liburuaren harpidedunen artean dago, 4. liburukian heldu den zerrendak jasotzen duenez.

Laburbilduz, sistematikoki begiratu behar da ea aipatu obra horietan dagoen sermoi gehiagoren iturria, eta iturri berriak aurkitzen diren. Gainera, zorrotz begiratu behar da sermoi bakoitzaren zein zati atera den zein iturritatik. Perutxenean zegoen biblioteka eta egileak harpidetuta zeuden liburuak aintzat hartu behar dira iturriak bilatzeko tenorean, eta iturriok beste euskal predikarien obretan ere ageri diren begiratu.<sup>20</sup> Iturria zein modutara erabili den jakin behar da: hitzez hitzeko itzulpena dugun, moldaketa, balizko inspirazioa, edo bestelakorik. Kontuan izan ez dakigula, momentuz, testuak zuzenean erdaratik itzuli ziren, itzulpenak beste norbaitek egin zituen, ala Mendibururen bidez ailegatu diren, esaterako. Sermoi bildumek edizio ugari izan ohi zituztenez, zein edizio erabili ziren egiaztatu behar da. Horrek sermoien egiletza-urtea argitzeko *post quem* data eman dezake. Azkenik, predikuaren gaiaren eta hautatutako iturriaren arteko loturarik baden begiratu behar da, eta sermoigile bakoitzak iturri jakin batzuk erabili zituen.

## 6. Hizkeraz bi hitz

Ezbairik gabe, euskararen historiaren ikerketarako, sermoietan erabilitako hizkera aztertzea da urratsik garrantzitsuena. Alabaina, testuen taxuzko transkripzio eta ediziorik gabe, urrun gaude oraindik zeregin horretatik, eta ohartxo batzuk baizik ez ditut eginen.

Egileen jatorria eta lantokia ikusita, Ezkabarteko edo Txulapaingo hizkeratzat hartu izan da testu hauek darabiltena (Irigarai 1966, 1975). Bonaparteren etiketak erabiliz, Hegoaldeko goi nafarrera dela ere esan izan da. Baina zero-hipotesi hori ezaugarri-zerrendetan oinarritu behar da; hortaz, hizkuntza-azterketa sakona eskatzen dute predikuok.

<sup>20</sup> Clausen *Spicilegium*, esaterako, Lizarraga Elkanokoak ere erabili zuela badakigu (Zabalza 2005). Gainera, Martin Ibero Izuko abade goñibartarrak ere, xviii. mendearen bigarren erdian, Carabantes eta Calatayud aipatzen ditu bere sermoietan, Andrade, Barcia, Chía, Echeverz, Garcés, Lyra, Manni, Martínez de la Parra eta Nierembergekin batera (Ondarra 1996: 263). Azken hauek gure sermoietan ere badiren begiratzea ez da erokeria.

Corpusaren tamaina ikusita, desberdintasunetan oinarritutako hizkuntza-azterketa egiteari deritzot interesgarrien. Ongi dago esatea testuetan *erran* eta *bertze* ageri direla, eta *ez esan* eta *beste*, baina horrek deus gutxi aldatzen du eremu hartako mintzoaz orain arte dakiguna. Haatik, corpusak darakutsan barne-bariazioa aztertzetik —eta horren kausak bilatzetik— franko ikas dezakegu, besteak beste, muga lektalez, eredu linguistikoez, polimorfismoaz eta, funtsean, soziolinguistikaz (ik., besteak beste, Camino 2003).

Jarraian corpusaren barne-bariazio horren adibide batzuk eman ditut. Zerrenda ez da, edozein gisaz, ez osoa, ezta adibide guztiak biltzen dituen ere.

### 6.1. Grafia

- Txistukari frikari bizkarkaria adierazteko, <z> grafemaren aldean, <tz> ageri da batzuetan. IR-055 predikuan esaterako, *ez* eta *etz*, biak ditugu, ezezko adberbiorako.

### 6.2. Fonologia

- Sinkopa ez da sistematikoa. IR-009n, *atera* eta *atra* biak ditugu (*ateratu* ere bai, DU-001en), eta IR-012n, *berla* eta *bereala*.
- Bokalen artean flap delakoa galtzen da kasu batzuetan, baina ez beti. DUIRE-006k *cirelaric* eta *tigularic* du eta IR-070en *armaic* dago *jangoicoric* formarekin batera.
- Beheko bokalaren asimilazioa edo “Rui araua” azkarra da testu batzuetan, morfema- eta hitz-mugak gaintitzeraino, eta bakanagoa beste batzuetan. *Mandamentue* dago IR-004n eta IR-047k, adibidez, *gure baiten* eta *gure baitan* dakartza. Urrunago doaz *duzune* (DU-003) eta *au de* (IR-004), DUSAT-001eko *becatua* eta *penitencia* bezalakoekin alderatuta. Ikertu behar da, baina badirudi Juan Manuel Urtasunek anaiak baino gehiago islatzen dituela asimilazioak, bien testuetan ediren badaitezke ere.
- Nafarroako mintzo askotan *bat* > *at* dugu bokal zenbaiten ondotik. Predikuetan ere bietarik dugu: *sabioat* (IR-070), *arratoat* (DU-001) - *falso batequi* (IR-006).
- [*Ez* + *d*-] > [*Ez* + *t*-] bilakatzen da kasu batzuetan, baina ez beste batzuetan: *eztuzu* (IR-009) - *ez duzule* (IR-011).
- Aferesiari doakionez, *maten* eta *ematen* ditugu IR-007n, baita *zauceco* eta *eza-guceco* ere, IR-070n. Adizkietan ere, *tugun* - *ditugun* txandaketa dago IR-025 predikuan.
- Geroaldiko aspektu-marka *-n-z* amaitutako aditzetan *-en* ohi da, baina *-ain* ere badago: *izanen derela* (IR-025) - *joain ceren* (IR-55).

### 6.3. Izen morfologia

- *G-* duten erakusleak ditugu batzuetan, baina gehienetan ez dago halakorik: *dembora gau* (DU-003) - *divino hau* (DUIRE-004).
- Komitatiboan *-ki* eta *-kin* daude, are elkarren ondoan ere: *andiarequin* - *sanduarequi* (IR-012); *garrequi edo atzaparrequi* (IR-070).



- Partizipioak eratzeko hiru modu bederen ikusi ditut, baina azkena da ohikoena: *enfadatute* (IRCI-006) - *engañetue* (DUIRE-001) - *batayaturic* (IR-007).

#### 6.4. Aditz morfologia

- Iraganeko -nrik gabeko adizkiak daude, baita -ndunak ere. *Arquicen ce* (IR-008) eta *eracutsi cigu* (IRCI-006) adibideekin batera, IR-010 sermoiko *icasi zue* dugu, prediku berak bi lerro beherago *artu zuen* badakar ere.
- *Izan* aditzaren Nor saileko adizkietan, -i-l-e- txandaketa dago: *dere* (IR-003) - *dire* (DUSAT-003-1). IR-055eko adibidea aski argigarria da: *diranetan ere arquiteuco cerela*.
- *Izan* aditzaren Nor saileko adizkiek -i- dutenean, erlatibozko marka hartzean, txandaketa dago, are testu berean ere: *diran* - *diren* (IR-007).
- Adizki tripertsonaletan, absolutiboa 3. pertsona plurala denean, -it- zein -zki- da pluralgilea: *ditigun* (DUIRE-007), *citioia* (DU-011) - *dizquiout* (IR-007), *cizquiugun* (IR-071).
- Adizki bipertsonal iragankorretan, absolutiboa 3. pertsona plurala denean, ez da beti -z- ageri: *tute* (IR-071), *cituten* (IR-047) - *dituztenac* (IR-011), *bacituzten* (IR-071).

#### 6.5. Sintaxia

- Objektu zuzena genitiboan dago kasu bakan batzuetan, aditza nominalizaturik dugunean: *mundu onen juzgacera* (IR-071) - *Jang[oi]co bacarbat adoracera* (DUIRE-001).

#### 6.6. Hiztegia eta aldaerak

Horra, bestalde, hiztegi eta aldaera kontu zenbait, hurrenkera alfabetikoan emanak. Ikus daitekeenez, kasu batzuetan bi aukerak testu berean ditugu.

- *bezala* (DU-003) - *becala* (IR-004)
- *cergatican* (IRCI-006) - *ceren gatic* (DUSAT-001)
- *creazalleac* - *creazalearen* (IR-070)
- *daus* (IR-047) - *deus* (IR-12)
- *ecusten* (IR-003) - *icusten* (IR-12)
- *ertean* - *artean* (IR-006)
- *guibela edo atcera* (IR-071)
- *guztis* (IR-055) - *gucis* (IR-12)
- *mereji* - *merciceco* (IR-004)
- *orain* - *orai* (IR-003)
- *ssarrite*<sup>21</sup> (IR-070) - *jarrita* (IR-071)
- *aurretic* (IR-055) - *alcinetic* (IR-071)

<sup>21</sup> <ss> digrafoak sabaiurreko txistukari frikaria adierazten du.

Txandaketa hauen guztien gibelean zer ote dagoen jakitea ez da aise. Elkarren ondoan dauden baina ibar banatakoak diren Untzu eta Zildotzen arteko isoglosen errua izan daiteke; gainera, txandaketa batzuk balizko esku diferenteekin batera doazen jakitea ere beharrezkoa da, ala egile berak garai diferenteetan idatzi izanaren ondorio. Nolabait azaldu behar da testu beraren barneko bariazioa ere: sinonimia eta polimorfismo kontua izan daiteke batzuetan, ala Mendibururen edo hurbilagoko beste idazleen (Lizarrraga Elkanokoa, Martin Ibero eta beste) etorria ere bai, egileak horietatik edaten badu. Ezin ahatz daiteke, gainera, ezaugarri zenbaiten prestigioa, beste formen aldean. Horrekin batera, ezaugarrien maiztasuna neur daiteke, eta ikusi ezaugarri batzuen eta beste batzuen presentziak ala faltak elkarren arteko loturarik duen. Buruenik, testu batzuek dituzten moldaketak nork eta zergatik egin zituen jakitea ere interes handikoa da.

## 7. Ondorioak

Lan honetan, Zildoeko Perutxena etxetik ateratako XIX. mendeko euskal prediku sorta izan dut hizpide. Corpus hori hein batean ezezaguna eta eskuragaitza izan zaie ikertzaileei, jatorrizko dokumentuak han eta hemen sakabanaturik egon baitira, eta paperok eskuetan izan dituzten ikertzaileek aspaldi eta bakan baizik ez baitituzte aipatu. Zati handi bat esku publikoetara pasatu denaz geroztik, jatorrizkoak non dauden argitu dut, corpus osoaren batasuna aldarrikatu, eta bestelako jatorria edo egile-tza duketen sermoi bakanak ere identifikatu ditut. Horrekin batera, corpora behar bezala ikertzeko bideak zein izan daitezkeen aitzinatu dut.

Perutxenetik atera zenetik prediku-sortak egindako bidea zein izan den deskribatu dut, eta nola zatitu zen sei ataletan. Aingeru Irigarairen eta Pedro Diez de Ultzurrunen eskuetan egon zirela ikusi dugu, eta J. M. Satrustegik ere izan zituen gutxi batzuk.

Testuek berek ematen duten informazioa erabilia eta grafiak alderatuta, sermoi gehienak Jose Manuel Urtasunenak izan daitezkeela ematen du: XVIII-XIX. mendeetan bizi izan zen Perutxeneko semearenak hain zuzen, Untzun parroko egon zen garaian eginak. Beste batzuk haren anaia txikiak, Juan Manuelek, idatziak dirudite, Zildoeko parrokan zebilela. Bien ilobak, Isidoro Perez de Ultzurrunek, jarauntsi zituzkeen gero. Hiru apezten biografian sakontzerik ere izan dut, eta badirudi sermoi horiek Untzuko parrokan erabili zirela lehenik, eta Zildoekoan gero.

Sermoi horien iturri batzuk identifikatu ditut. Mendibururen euskarazko predikuez gain, latinezko eta gaztelaniazko beste autore batzuen obrak ere erabili zituztela garbi dago, baina iturrien ikerketan aurrera egiteko bide berriak urratu beharko lirarteke etorkizunean.

Hizkeraren azterketari ekin baino lehen, edizio filologikoa egin beharra dago. Ezaugarri linguistikoak deskribatzearekin batera, ezaugarri horien corpus barneko bariazioa ikertzetik euskal predikugintzaz gauza asko ikas daiteke.

Labur esanda, bariazio geografikoaren eta ezaugarri dialektalen deskribapenak duen interesetik harago, corpus hau soziolinguistika historikoan eta generoaren soziologian sakontzeko ekarpen handia da. XVIII. eta XIX. mendeetan Nafarroa erdialdean han eta hemen sakabanaturik dugun sermoitegi zabala —orain honako hau ere gehituta— ezin zaio zoriari egotzi: politika jakin baten emaitza da, eta horrek, ezinbestean, batasuna ematen dio generoari. Emeki-emeki, definitzen joan beharko genuke zein diren testugintza horren gibelean dauden autoreak, autoritateak, ereduak,

iturriak, itzulpen-estrategiak, prestigiozko aldaerak, zirkulazio-bideak eta, funtsean, barne-loturak. Horretaz guztiaz jabetuta baino ezingo dugu euskararen iragana behar bezala deskribatu eta azaldu.

## 8. Erreferentziak

- Alvarado, Francisco. 1825. *Cartas críticas*. Madril: E. Aguado.
- Barandiaran, Asier. 1996. *Pedro Diez de Ulzurrun (Bidegileak, 7)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Calatayud, Pedro. 1797. *Doctrinas prácticas que solía explicar en sus misiones...* Madril: Benito Cano (4. edizioa).
- Camino, Iñaki. 2003. *Hego-nafarrera*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Carabantes, Jose. 1717. *Pláticas dominicales y lecciones doctrinales...* Juan Sanz: Madril (P. Islaren itzulpena).
- Claus, Joseph Ignatius. 1738-1740. *Spicilegium catechetico-concionatorium...* Augsburg: Matthias Wolffen alarguna.
- Climent, Josef. 1799. *Pláticas dominicales que el ilustrísimo señor don Josef Climent, obispo de Barcelona predicó...* Bartzelona: Bernardo Pla.
- Croisset, Jean. 1782. *Año christiano o ejercicios devotos para todos los días del año*. Iruñea: Longás.
- Diez de Ultzurrun, Enrike. 2018. Un sermón de Ezkabarte sobre la vendimia. *Ze Berri* 133. 13.
- Diez de Ultzurrun, Pedro. 1960. El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828. *Euskera* 5. 377-403.
- Irigarai, Aingeru. 1966. Nuevos documentos para el estudio del vascuence alto navarro meridional. In Juan Maluquer de Motes (koord.), *Problemas de la prehistoria y de la etnología vascas*, 261-267. Iruñea: Nafarroako Foru Diputazioa.
- Irigarai, Aingeru. [A. Apat-Etxebarne]. 1975. Navarro - meridional deitu euskara motaz zerbait. *Diario de Navarra* 1975-08-28. 14.
- Iturbide, Javier. 1997. La edición navarra del “Año Christiano” de Jean Croiset. Un testimonio de venta de libros por suscripción en el siglo XVIII. *PV* 210. 191-222.
- Larramendi, Manuel. 1745. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, y latín*. Donostia: Bartolomé Riesgo y Montero.
- Madre de Dios, Francisco de la. 1705. *Theatro Trinitario adornado de sermones para la dominica del año...* Iruñea: Juan Joseph Ezquerro.
- Mendiburu, Sebastian. 1751. *Jesusen biotzaren debocioa*. Iruñea: Joseph Ezquerro.
- Mendiburu, Sebastian. 1760. *Jesusen amore-nequeei dagozten, cembait otoitz-gai...* Iruñea: Juan Antonio Castilla (3 liburuki).
- Mikelestorena, Jose. 1754. *Cerura nai duenac ar dezaquean vide erraza*. Iruñea: Martin Joseph Rada.
- Nafarroako Aurrezki Kutxa. 1990. *Gran Enciclopedia de Navarra*. Iruñea: Nafarroako Aurrezki Kutxa.
- Ondarra, Frantzisko. 1996. Juan Martin de Ibero (1729-1783): Izuko parroquia (1754-1783), *FLV* 72. 235-267.
- Santander, Manuel. 1802-1803. *Doctrinas y sermones para misión...* Madril: Administración del Real Arbitrio de Beneficencia.
- Santazilia, Ekaitz. 2013. Iruñe ondoko euskal testu zahar berri bat. *FLV* 116. 91-120.

- Santazilia, Ekaitz. 2022a. Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa (I. dokumentu argitaratuak). *FLV* 133. 229-257. <https://doi.org/10.35462/flv133.9>.
- Santazilia, Ekaitz. 2022b. Irigarai familiaren funtsa Nafarroako Errege Artxibo Nagusian: katalogoa (II. dokumentu argitaragabeak). *FLV* 134. 471-490. <https://doi.org/10.35462/flv134.7>.
- Satrustegi, Jose Maria. 1995. Pedro Diez de Ulzurrun, sendagilea (1924-1994). *Euskera* 40(1). 585-587.
- Virgen del Carmen, Felipe de la. 1828. *El párroco. Pláticas doctrinales y morales para todos los domingos y fiestas principales del año...* Zaragoza: Francisco Magallón.
- Zabalza Seguín, Ana. 2005. El tratado sobre el matrimonio de Joaquín de Lizarraga (1782). In Ignacio Arellano & José María Usunáriz (arg.), *El matrimonio en Europa y el mundo hispánico*, 211-223. Madril: Visor Libros.

## 9. Eranskina

### 3. taula

#### Prediku zenbaiten iturriak

Predikua	Iturria(k) <sup>22</sup>
IR-004	Alboan idatzirik: "Calatayud tom 1. pag. 34.". Pasarte horretan zera dio sermoiak: "Vio-zeco gogortasun au deicen du S[a]n Gregorioc <i>peccatum invisceratum</i> ". Calatayuden <i>Doctrinas Prácticas</i> da aipatzen duen lana, 1797ko edizioan. Jarraian, zera dator: "con lo demas para el asunto, hasta aqui el Teatro Trinitario". <i>Theatro Trinitario</i> segur aski Fr. Francisco de la Madre de Diosen lana da (1705).
IR-008	Sermoiak hala dio: " <i>Bienen a proposito p[ar]a el asunto las dos consideraciones de Croiset de la Dom[inic]a de pasion</i> ". Croissetek frantsesez idatzitako obraren gaztelaniazko itzulpena da, <i>Año cristiano ó ejercicios</i> izenekoa.
IR-010	Hasiera Clausen <i>Spicilegium catechetico-concionatorium</i> lanetik itzulia ( <i>Dominica IV. Quadragesimae. Conceptus XVIII. De ignominiosa coronatione Christi Domini</i> ).
IR-012	Pasarte bat Mendibururen <i>Jesusen Amore-nequeei dagozten cembait otoitz gai</i> (1760) liburutik hartua (I. lib., I. otoitz-gaia, § II). Beste bat Santanderren <i>Doctrinas y sermones para mision</i> lanetik itzulia (4. sermoia).
IR-013	Zati batzuk Clausen <i>Spicilegium catechetico-concionatorium</i> lanetik itzuliak ( <i>Dominica passionis. Conceptus XIX. De sententia mortis contra Christum lata</i> ). Mendibururen <i>Jesusen Amore-Nequeei dagozten cembait otoitz gai</i> (1760) lanaren emaria ere ikusten da (IV. lib., LX. otoitz-gaia, § I).
IR-017	Pasarte bat Santanderren <i>Doctrinas y sermones para mision</i> lanetik itzulia (3. sermoia).
IR-019	Fray Francisco de la Madre de Diosen <i>Theatro Trinitario adornado de sermones...</i> (1705) lanetik itzulia (I. liburukia, I. sermoia: <i>de el primer domingo de adviento</i> ).
IR-020	Pasarte bat Santanderren <i>Doctrinas y sermones para mision</i> lanetik itzulia (III. liburukia, 11. sermoia).

<sup>22</sup> Edizio-urte zehaztu ez dudanean, egileak zein edizio erabili zuen ikertu ez dudalako da. Ondorioz, halakoetan, nik erabilitako edizioa aipatu dut erreferentzien atalean; ez, halaberharrez, sermoigileak berak erabilitakoa.

Predikua	Iturria(k)
IR-027	Santanderren <i>Doctrinas y sermones para misión</i> lanetik itzulia (13. sermoia: <i>de la gloria</i> ).
IR-033	Lehen partea Climenten <i>Pláticas dominicales</i> lanetik itzulia (XLVI. platika: <i>para la dominica quarta de quaresma</i> ).
IR-038	Santanderren <i>Doctrinas y sermones para misión</i> lanetik itzulia (17. sermoia: <i>de ánimas</i> ).
IR-044	Alboan idatzirik: “se halla en el sexto tomo de Calatayud, pag. 274”. Baina, gaia bera iza-nik ere, euskal testua ez dator bat horrekin. Ik. beherago, IRCI-005.
IR-045	Dudazkoa, baina metaforaren bat Mendibururen <i>Jesusen Amore-Nequeei dagozten cembait oititz gai</i> (1760) liburuan ageri dira (i. oititz-gaia, § III).
IR-049	Calatayuden <i>Doctrinas prácticas que suele explicar en sus misiones...</i> lanetik itzulia (II. liburu-a, 12. tratatua, 2. dotrina).
IR-055	Zati batzuk Clausen <i>Spicilegium catechetico-concionatorium</i> lanetik itzuliak ( <i>Dominica 1ª quadragesimae, Conceptus XV. De tristitia &amp; agonia Christi Domini in horto</i> ).
IR-062	Carabantesen <i>Pláticas dominicales y lecciones doctrinales de las cosas más esenciales</i> lanetik itzulia (II. lib., xc. lezioa: <i>Para el domingo vigesimoquarto después de Pentecostés: de la muestra, y que cada uno la tendrá conforme viviere</i> ).
IR-073	Mendibururen <i>Jesusen Amore-Nequeei dagozten cembait oititz gai</i> (1760) liburutik hartua (i. lib., XXI. oititz-gaia).
IR-075	Clausen <i>Spicilegium catechetico-concionatorium</i> lanetik itzulia/moldatua ( <i>Dominica 3ª quadragesimae, Conceptus XVII. De crudelissima flagellatione Cristi Domini</i> ).
IR-077	Climenten <i>Pláticas dominicales</i> lanetik itzulia (II. lib., XLIV. platika: <i>para la dominica tercera de quaresma</i> ).
DUIRE-006	Santanderren <i>Doctrinas y sermones para misión</i> (1. dotrina).
DUIRC-003	Calatayuden <i>Doctrinas prácticas que suele explicar en sus misiones...</i> lanetik itzulia (II. liburu-a, XI. tratatua, II dotrina).
DUIRC-008	Hasiera Santanderren <i>Doctrinas y sermones para misión</i> lanetik itzulia ( <i>Parábola del hijo pródigo. Domingo 1º de Quaresma</i> ).
DUIRC-009	Zati batzuk Clausen <i>Spicilegium catechetico concionatorium</i> lanetik itzuliak ( <i>Dominica 2ª Quadragesimae. Conceptus XVI. De alapa Christi Domini in domo Caiphae</i> ).
DU-001	Calatayuden <i>Doctrinas prácticas que suele explicar en sus misiones...</i> lanetik itzulia (I. liburu-a, VI. tratatua, III. dotrina).
DU-005	Sermoiaren bigarren zatian, zera dio: “vease sobre el particular el tom. 2 de Mendiburu pag. 234”. <i>Jesusen Amore-Nequeei dagozten cembait oititz gai</i> (1760) lanari dagokio <sup>23</sup> (XLVIII. oititz-gaia, § II). Baina ez du zuzenean Mendibururenetik kopiatzen.
IRCI-005	Predikuaren gaia Calatayudek aipatzen duela dio alboan: “tomo 6, p. 274”. <i>Doctrinas Prácticas que suele explicar en sus misiones...</i> lanaren 1797ko ediziotik itzulia (VI. liburua, I. tratatua, II. dotrina: <i>Del modo de hacer la confesión general</i> ).

<sup>23</sup> Obra honek bi edizio izan zituen urte bertsuetan: 1759-1760. urteetan, hamaika liburukitan argitaratu zen. 1760an, ordea, hiru liburukitan. Hemen aipatzen den orrialde-zenbakia hiru liburukitako edizioari dagokio. Gainera, hori bera da Perutxenean agertu zen edizioa, egun diez de ultzurrun-sagalátarren eskuetan dagoena.



***Aucun prophète n'est bien reçu dans son pays.  
Ana Ürrüti (1826-1900) ebanjelista eta itzultzailearen  
bizitza eta gutunak***<sup>1</sup>

Aucun prophète n'est bien reçu dans son pays.  
*The life and letters of evangelist and translator Anna Urruty  
(1826-1900)*

Manuel Padilla-Moyano\*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**ABSTRACT:** In Basque Studies, Anna Urruty, a nineteenth-century evangelist and translator from the Country of Soule, was long forgotten until Roque (2013) revived her memory. The goal of this paper is twofold. On the one hand, I reveal new data sketching out Anna Urruty's biography. On the other, I present a recently found set of letters sent by Urruty to the Bayonne pastor, Joseph Nogaret. Anna Urruty's letters in French are a particularly valuable source of information regarding three aspects: 1) Anna Urruty's life itself; 2) the history of Basque texts; and 3) the network of Protestant Basques in the nineteenth century.

**KEYWORDS:** Anna Urruty; Souletin Basque; Basque texts; Bible translation; Protestant Basques.

---

<sup>1</sup> Lan hau ondoko ikerkuntza proiektu eta taldeen babespean egina da: *Approaching the evolution of the case system of Basque. A semantically-grounded study* (Eusko Jaurlaritzaren doktoretza ondoko laguntza, POS-2021-2-0001), *Monumenta Linguae Vasconum 6: avances en la cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca* (Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, PID2020-1188445GB-I00) eta *Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia* (Eusko Jaurlaritza, IT1534-22). Bihoaz ene esker hoberenak CEPBko lehendakaria den Philippe Chareyre jaunarentzat, Ana Ürrütiren gutuneriaren kopia ene eskuetan jartzeagatik; John Bost Fundazioko Ariane Dahan anderearentzat, ene kontsulta eta galto guztiei prontoki erantzuteagatik; Maitena Duhalderentzat, frantsesaren gaineko hainbat zalantza argitzeagatik; eta aldizkari honen ebaluatzaile anonimo batentzat, presenteko lanaren hobetzeko lagundu duten iruzkin ezin pagatuzkoengatik. Erran gabe doa, nihaur naiz artikulu honen akats eta ments gutzien erantzule bakarra.

\* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Manuel Padilla-Moyano. Ikasketak Klasikoak Saila, UPV/EHU - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, z/g (01006 Vitoria-Gasteiz). – manuel.padilla@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-2051-2885>

**Nola aipatu / How to cite:** Padilla-Moyano, Manuel (2022). «*Aucun prophète n'est bien reçu dans son pays. Ana Ürrüti (1826-1900) ebanjelista eta itzultzailearen bizitza eta gutunak*», *ASJU*, 56 (2), 245-302. (<https://doi.org/10.1387/asju.24116>).

Jasoa/Received: 2022-12-05; Onartua/Accepted: 2023-03-08. Online argitaratua / Published online: 2023-03-17.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © 2022 Instituto-Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» (UPV/EHU)



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

**LABURPENA:** *Euskal ikasketetan Ana Ürrüti XIX. mendeko ebanjelista eta itzultzaile zuberotarren izena abantzuran egon da Roquek (2013) haren memoria berreskuratu arte. Lan honetan, batetik, Ana Ürrütiren biografia zirriborratzen duten datu berriak aurkezten ditut, eta bestetik, Ürrütik Joseph Nogaret Baionako artzainari igorri zizkion frantsesezko gutunak, berriki aurkituak. Ürrüti-Nogaret gutuneria informazio iturri baliagarria da bereziki hiru alderdiri dagokionez: 1) Ana Ürrüti anderearen bizitza; 2) euskal testuen historia; eta 3) XIX. mendeko euskaldun protestanteen sarea.*

**HITZ GAKOAK:** *Ana Ürrüti (Anna Urruty); zuberera; euskal testuak; Bibliaren itzulpena; protestante euskaldunak.*

## 1. Ana Ürrüti<sup>2</sup>

### 1.1. Orain arte genekiena

Guti erran izan da Ana Ürrütiz,<sup>3</sup> eta are gutiago euskal ikasketetan. Vinsoni esker (1891: §§ 438a & 439b) badakigu bi libururen itzultzailea dela: *Ebanjelio saintia Jesus-Kristena Jondane Johaneren arabera* eta *Jondane Phetiriren epitriac* (Baiona, 1873). Ondoren aurkeztuko diren gutunek erakutsi bezala, Vinson eta Ürrüti elkarlanean aritu ziren (18, 23, 24, 25 & 27. gutunak). Berriki aldizkari honek argitaratu duen Vinsonen eta van Eysen arteko gutunerian, lehenak bitan gomendatzen du Ürrüti andereagana jotzea:

Si vous voulez causer avec une basquaise intelligente, originaire de la Soule, demandez M<sup>lle</sup> Anna Urruty, aux « Salons de Lecture, 6 Percy Street, Bedford Square ». Je lui ai dit du reste d'aller vous voir. (Vinsonek van Eysi gutuna, Baiona, 1874ko otsailaren 20a; orobat 1875eko urtarrilaren 15eko gutunean [Munduate Ugartemendia 2022: 188])

- ANABITARTE jauna [Baldomero?]. Ana Ürrütik *monsieur espagnol à Saint-Sébastien* bati gaztelaniazko liburu batzuk eman nahi dizkiola dio (11). Beste pare bat gutunetan Anabitarte jauna Vinsonen eta Bonaparterentzat ordainpeko kopiatzaile gisara aipatua da (23, 27). Baldomero Anabitarte Donostiako artxibozain eta liburuzale ezaguna izan zen; ene aieruan bera da gutunetako *monsieur espagnol* hura, gero Anabitarte deitua.
- BONAPARTE, Louis-Lucien (1813-1891). Ana Ürrüti Bonaparteren kolaboratzaile aritu zen Londresen, liburuen kopiak egiten edo eginarazten eta testuen itzulpenak zuzentzen. Gutunetan, besteak beste, zubereraren ortografiaren gaineko eztabaida aipatua da (26, 27, 28).
- BUSSON jauna (?). Zuberoako gizon honek ez zuen Ana Ürrütirentzat frantsesetik zubererara itzulpena egiteko agindua bete (12).
- CALDERON andrea (?). [Clara Marianne Storey] (Londres, 1838-1921). Philip Hermogenes Calderon margolari eta Erret Akademiako kidearen emaztea. Philip Hermogenes (Poitiers, 1833 - Londres, 1898) Juan Antonio Hermógenes Calderón (Villafranca de los Caballeros, 1791 - Londres, 1854) idazle eta akademikoaren seme bakarra izan zen. Juan Calderón Baionara erbesteratu zen, bertan protestantismora konbertitu, eta Londresera emigratu zuen.
- CAZALS, P. Baionako liburu saltzaile eta inprimatzailea, 1873an Ana Ürrütiren bi itzulpen lehen edizioa karrikaratu zuena (15, 17, 18).
- DE FÉLICE, Guillaume « Théodore » (Montauban, 1840 - Versailles, 1891). Orthezeko Eliza erreformatuaren artzaina eta Joseph Nogaret artzainaren adiskidea, 2. gutunaren hartzailea da. Ana Ürrütirekin harremanetan zen. Lan batzuk argitaratu zituen, besteak beste, *Catéchisme à l'usage des écoles primaires protestantes*. Gogora bedi Ürrütiren ebanjelioaren itzulpenaren bigarren edizioak Orthezen argitaratu zirela (1887-1888).
- DE LA HARPE andrea [ezkont aitzin Jacqueline Louise Henriette Malan] (Geneva, 1813). César Henri Abraham Malan teologo genevarraren alabetarik bat, Alphonse Richard de la Harpe Bordeleko artzainarekin ezkondua; ene hipotesiaren arabera, Ana Ürrütik haren bost haurrak zaindu eta hezi zituzkeen (6).
- DE LA HARPE, Alphonse Daniel (Rolle, Suitza, 1779 - Bordele, 1861). Artzain suitzarra, XIX. mendearen hastapenean Bordelen finkatua, eta 1820an bertako Eliza Librearen sortzaileetarik, Eliza Ebanjeliko Librearen enbrioi. De la Harpe familia erabakigarria izan zen Ana Ürrütiren bizitzan: bere gaztaroko urte batzuk haien etxean eman zituen, Bordelen, eta bertan protestantismoa hartu zuen.
- DE LA HARPE, Alphonse Richard (Bordele, 1814-1855). Alphonse Daniel de la Harperen seme, eta Bordeleko artzain. Badirudi Bordelen hil zutela. Ana Ürrüti Alphonse de la Harpe bataren ala bestearen etxean egon zen ebaztea zail da; cf. 10. oin-oharra (23).
- DE LA HARPE andereñoa. Ikus Du Pontet andrea.
- DE LA HARPE, Clément Daniel (Bordele, 1843). Alphonse Richard de la Harpe artzainaren eta Jacqueline Luoise Henriette Malanen seme gehiena, Marie Schacherrekin ezkondua (23, 25).
- DU PONTET andrea [ezkont aitzin Ellen Fanny Charlotte de la Harpe] (Bordele, 1845). Alphonse Richard de la Harpe artzainaren haurretarik bat, gerora Jules Du Pontet Londresko Eliza Frantsesaren artzainarekin ezkondua. Haur denboran Ana Ürrütiren artzain gozatu zatekeen, beharbada horrek azaltzen du Ürrütiren *lapsus linguae* Du Pontet jauna « le mari de Mademoiselle De la Harpe » deitzean (4); gainerakoan « Madame Du Pontet » (20, 23).

- DU PONTET, Jules Marc Henri (ca. 1845). Alphonse Richard de la Harpe Bordeleko artzainaren suhia eta Londreseko Eliza frantses suitzarraren artzaina (4, 23, 25, 26), hark egin zuen Ana Ürrütiren La Forceko *La Retraite* asiloan sartzeko eskaera (ikus § 1.3.6).
- ELGART jauna (?). Londresetik Ana Ürrütik gutun bat igorri zion (23).
- ETCHANDY jauna (?). Iruriko zuberotarra, Monsegur kapitainaren adiskide. Ana Ürrütik utzitako liburuak sekretuki irakurtzen zituen (12).
- FAVRE jauna (?). Ainhoan aita familiako bat. Haren ezagutza eginik (5), Ana Ürrütik liburuak uzten zizkion (9). Favre eta bere familiakoak beldur ziren protestante gisara agertzeko (5, 6). Zenbait itzulpenen egiteko prest agertu zen (27).
- GRANIÉ / GRANIER jauna (?). Eliza erreformatuan edo Biblia Sozietatean kargu bat izan behar zuen; 1869an Ana Ürrütiren Parisetik Euskal Herrira erakartzeko parte hartu zukeen (2, 5).
- HABIAGUE jauna (?). Gisa guztiz zuberotarra, Ana Ürrütiren inprenta probak zuzentzeko enkargua baitzuen. Behin baino gehiagotan Ürrüti mesfidati agertzen da Habiague jaunaren hitzaz (15, 16, 17, 20).
- HATTON, abbé. Ithorrotzeko apeza, Ana Ürrütiren hitzetan « un grand théologien, mais un grand fanatique » (14,1v).
- INTXAUSPE, Emmanuel [*chanoine Intchauspé*] (Zunharreta, 1815 - Onizegaine, 1902). Zuberoko eliz gizon eta itzultzailea. Bonaparteren laguntzaileetarik bat izan zen. Ana Ürrütik haren liburuak ezagutzen zituen, eta literatur zubereraren kodetzearen gaineko eztabaidan parte hartu zuen (23, 27).
- LASSERRE, E. Baionako inprimatzailea (12).
- LESPÈS, andrea. Baionako inprimatzailea. Haren baitan Flora MacKichan eskoziarrak *Perlasco colierbat* liburuaren lehen edizioa inprimarazi zuen (15).
- LEUZINGER jauna (?). Parisen bizi zen. Londresekat zihoala, Ana Ürrütik bisita errendatu zion (23).
- MIRANDE jauna (?). Mauleko bitartekaria, Ana Ürrütik harengana jotzen zuen liburuen igortzeko eta hartzeko. Baionako Galuperie kaiaren 30. zenbakian adreza zeukan Ponteil jaunaren bazkide (10, 12, 13, 14).
- MONSEGUR jauna (?). Zuberoan bizi zen kapitain erretiratua, Ana Ürrütirekin testu batzuen itzulpenean kolaboratu zuena (12).
- NOGARET andrea (?). Joseph Nogaret Baionako artzainaren emaztea.
- NOGARET, Edmond. Joseph Nogaret artzainaren seme, Ana Ürrütik harengandik zerbait zerbitzu jaso duela aipatzen du (23, 26).
- NOGARET, Élisabeth. Joseph Nogaret Baionako artzainaren alaba; Ana Ürrütik inoiz goraintzi igortzen dio (23, 26).
- NOGARET, Joseph (1811-1890). Baionako Eliza erreformatuaren artzain eta Ana Ürrütiren gutunen hartzaile; ikus § 2.1.
- PEARSE, George (?). Parisen bizi zen Biblia Sozietateko kide seinalatua. 1874an, Londresera bidean zihoala, Ana Ürrütik bisitatu zuen (23).
- PONTEIL jauna (?). Baionako bitartekari bat, Mauleko Mirande jaunarekin nolabait bazkidetua (12).
- PROBYN, Alice Eliza (Londres). Lætitiaren ahizpa, 1884an Rowley Hill apezpiku anglikanoarekin ezkondu, eta handik hiru urtera alarguntsatua. Vinsonen arabera (345a), hark inprimarazi zuen *Perlasco colierbat* liburuaren bigarren edizioa.

- PROBYN, Lætitia (Londres, 1836 - Hendaia, 1879). Euskararen ikaskuntzan barnatua, van Eysekin eta Vinsonekin harremanetan zen, eta Museo Britanikoan zenbait euskal liburu-  
ren kopia egin zuen (ikus Vinson 1891: xxv-xxvi). Hendaian etxe bat zeukan; 1879an  
bertan hil zen, itsasoan bainua hartzen zuelarik (Vinson 1891: xxv). Lætitia Probyn da  
19. gutunaren egilea, Joseph Nogaret artzainak Ana Ürrütirengandik jaso gutuneriare-  
kin sailkatua.
- SALLABERRY, [Jean Dominique Julien?] *Chants populaires du Pays Basque* argitalpen ospe-  
tsuaren prestatzaile mauletarra izan ala ez, jaun honek Ana Ürrütirentzat itzultzeko pro-  
posamena errefusatu zuen (12).
- SCHACHER jauna (?). Londresen bizi zen eta ondoan aipatzen den George Schacher ez den  
beste bat (26).
- SCHACHER, Georges. Clément de la Harpe artzainaren koinatua. Bordelen bizi zen; Londre-  
setik Ana Ürrütik haren bitartez bidaltzen eta hartzen zituen gauzak (24, 25).
- SIMON andereñoa (?). Donibane-Garazin bizi zen Ana Ürrütiren aspaldiko adiskidea (7, 9).
- STUART-MENTEATH, Patrick William (Douglas, Manneko Uhartera, 1845 - Ziburu, 1925).  
Ziburun bere emaztearekin bizi zen kimiko eta geologoa, 1903an *Pyrenean Geology* ar-  
gitaratu zuena (Londres: Dulau). Ana Ürrütik kontatzen du Stuart-Menteath jaunak li-  
buruak banatu zituela, eta herriko apezak herra ikaragarria ziola (7, 11).
- [ÜRRÜTI, Antoine] (Ozaze, ca. 1791-1878). Ana Ürrütiren aita (10, 13, 21, 27, 28).
- [ÜRRÜTI, ?] Ana Ürrütiren ahizpa, Senperera ezkondua; ikus 19. oin-oharra. Ana bere ahiz-  
parenean egoten zen Lapurdin ebanjelizatzen zuenean (4, 5, 7).
- VINSON, Julien (1843-1926). Ana Ürrütirekin elkarlanean aritu zen. Besteak beste, Ürrütik  
liburu zenbaitekin hornitu zuen Vinson, hartaz pentsatu zuen bere ebanjelioaren itzul-  
penaren inprenta probak berrikus zitzaiz, eta harentzat egin zuen Museo Britanikoko  
Leizarragaren alearen pasarte batzuen kopia (18, 23, 24, 25, 27).

III. Eranskina: De la Harpe familiaren genograma



Anna Urrutyk gutunetan aipatzen dituenak nabarmendu dira.



## Euskara unibertsitate mailan atzerriko hizkuntza gisa irakastea: zorrotzasunetik malgutasunera *Teaching Basque as a foreign language at university level: From rigidity to flexibility*

Karlos Cid Abasolo\*  
Universidad Complutense de Madrid (UCM)

*Bohumil Zavadil euskalari  
txekiar jakintsu apalari*

**ABSTRACT:** How should Basque language subjects be approached in universities outside Basque Country? As a result of the lecture that I gave as a guest speaker in the Etxepare Basque Institute during the Summer Courses of the University of the Basque Country in 2014, and of the paper based on that lecture that I published in 2016, in the last few years I have revised the answer to the initial question, replacing a stricter viewpoint with a more flexible one. For many years, there was only one “menu”, which seemed rigid; by contrast, in the last few years the number of “menus” has increased to three, which has resulted in more flexibility and an adaptation to the wishes and needs of “customers” (students). The first one is philological, but also offers a space for the practical teaching of Basque. The second one is practical, but also offers a space for philological aspects of interest. The third one is aimed at Basque-speaking students preparing for the B1, B2 and C1 level certification exams. The three “menus” can be sweet if the right ingredients are used, or else they may turn sour if choosing the wrong ingredients. In any case, care has been taken for two ingredients to be included: attractiveness and added value compared to other language courses.

**KEYWORDS:** Practical Basque; language skills; language prejudices; syntax; linguistic typology; language interferences.

**LABURPENA:** *Nola planteatu behar dira euskara irakasgaiak Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetan? Abiapuntutzat hartuta UPV/EHUko 2014ko Uda Ikastaroetan Etxepare Euskal Institutuak gonbidaturik egin nuen hitzaldia eta hitzaldi hartan oinarrituta 2016an argitaratu nuen*

\* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Karlos Cid Abasolo. Área de Estudios Vascos. Departamento de Lingüística, Estudios Hebreos, Árabes, Vascos y de Asia Oriental, UCM - Facultad de Filología, Edificio D, despacho 00.355.0. Universidad Complutense de Madrid. C/ Profesor Aranguren, s/n. Ciudad Universitaria (28040 Madrid). – abasolo@ucm.es – https://orcid.org/0000-0002-0080-0337

**Nola aipatu / How to cite:** Cid Abasolo, Karlos (2022). «Euskara unibertsitate mailan atzerriko hizkuntza gisa irakastea: zorrotzasunetik malgutasunera», *ASJU*, 56 (2), 303-315. (https://doi.org/10.1387/asju.24658).

Online argitaratua / Published online: 2023-03-20.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © 2022 Instituto-Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» (UPV/EHU)



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

*artikulua, azken urteotan eguneratu egin dut galdera horrentzako erantzuna, ikuspuntu murrizt samarraren ordeztar irizpide malguagoak erabiliz. Urte luzez, “menu” bakarra eskaini nuen; azken urteetatik honantz, ordea, hiru, “bezeroen” (hots, ikasleen) nahi eta beharrei egokituak: lehenengoa gehien bat filologikoa da, baina euskararen irakaskuntza praktikoari ere tarte bat utziz; bigarrena, ordea, gehien bat praktikoa da, baina alderdi filologiko interesgarriari ere tarte bat eskainiz; hirugarrena, ordea, ikasle euskaldunei zuzendua, B1, B2 edo C1eko azterketa presta dezaten. Hirurak izan daitezke gozoak, osagai egokiak erabiliz gero. Eta hirurak izan daitezke garratzak, osagai desegokiak erabilita. Nolanahi ere, bi osagai erabili behar dira ezinbestean: erakargarritasuna eta gainerako hizkuntzen irakaskuntzarekiko balio erantsia.*

*HITZ GAKOAK: euskara praktikoa; hizkuntza-trebetasunak; hizkuntza-aurreiritziak; sintaxia; hizkuntza-tipologia; hizkuntzen arteko interferentziak.*

## 1. Sarrera

2014an, Etxepare Euskal Institutuak gonbidaturik, UPV/EHUko Uda Ikastaroetako *Bikaintasuna euskal ikasketetan (IV)* ikastaroan hartu nuen parte “Euskara atzerriko unibertsitateetan nola irakatsi eta nola ez irakatsi” izeneko hitzaldiarekin. Hitzaldi hura oinarri hartuta, “Euskara Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetan nola irakatsi” izeneko artikulua paratu nuen (Cid Abasolo 2016). 2022an, Etxepare Euskal Institutuak berriro gonbidaturik, UPV/EHUko Uda Ikastaroetako *Bikaintasuna euskal ikasketetan XII: Egon eta egin, sustraiak sendotuz aurrera begira* ikastaroan esku hartu nuen “Etxepare Institutuko irakurletzetan euskara irakasteko menuak: osagai gozoak eta gazi-garratzak” deituriko hitzaldiarekin, zeinean malgutu egin bainuen 2014ko hitzaldian eta 2016ko artikuluan agertutako ikuspuntu murrizta.

Euskalari txekiar bati (Bohumil Zavadil katedradun jakintsuari) euskalaritzak eta euskalgintzak zor dioten omenaldi gisa kontzebitu nuen 2022ko hitzaldia, artikulua honen muina dena. Balio izan beza artikulua honek ere Bohumil Zavadil jauna omentzeko.

## 2. 2016. urtera arteko ikuspegia

2016ko artikuluan, desegokitzen jo nuen Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuak (HEEMB) finkatutako lau trebetasunak (mintzamena, entzundakoaren ulermena, irakurritakoaren ulermena eta idazmena) Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetako euskara irakasgaietan lantzea. Orduko nire iritziaren arabera, gauza bat da euskara unibertsitatean ikastea eta beste bat, oso desberdina, hizkuntza eskoletan (Euskal Herrikoetan zein Euskal Herritik kanpokoetan), euskaltegieetan edo euskal etxeetan. Artikulu hartan, irakasmodu zehatz bat proposatu nuen Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetarako: teorikoa, gramatika oinarritua, filologikoa, hizkuntzalaritza orokorrari lotua, euskara beste hizkuntza batzuekin erkatzen duena (lektoretza bakoitzaren kokaguneko hizkuntzarekin, batik-bat), material gaurkotuak erabiltzen dituen, euskarari buruzko uste okerrak gezurtatzen dituen, eta datu egiaztatuak eskaintzen dituen, hala nola euskara uste den baino inguruko hizkuntzen antzekoagoa dela eta ez dela Europako gainerako hizkuntzak baino zaharragoa. Bestela esanda, Euskal Herriko unibertsitateetan euskal filologia lantzen den

modutik ahalik eta hurbilen dagoen irakasmodu bat. Euskararen “erraiak” aztertzean datzan metodo honen bidez, ikasleak, alde batetik, euskarari buruzko hainbat informazioz jabetzen dira, eta, bestetik, ikasle erdaldunen kasuan (hots, ikasle guztien edo, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseari<sup>1</sup> dagokionez bederen, gehienen kasuan), euskarazko perpaus solteak, hitzen esanahia ezagutu gabe, ikuspuntu azentual, fonetiko, morfologiko eta sintaktikotik aztertzea lortzen dute.

### 3. Oraingo ikuspegia

Begi bistakoa da *filologia* hitza zaharkiturik geratu dela, unibertsitateetako ikasketen planetatik<sup>2</sup> ia desagertzeraino. UCMri dagokionez, bada Filologia izeneko fakultatea, baina graduen izenetan berba horren arrastorik ez dago, hizkuntza hilen ikasketetan izan ezik (*Filología Clásica*). *Filología Hispánica* zeritzona *Español: lengua y literatura* bilakatu zen, eta *Filología Inglesa*, ordea, *Estudios Ingleses*. UPV/EHU, Euskal Filologia lizentziatura Euskal Ikasketetako Gradu bihurtu zen, Euskal Filologia esamoldea master eta doktoradutzako izendapenetara mugatu zelarik. Aitzitik, harrigarria da nola litekeen unibertsitate horretan gaur egun ere egotea Filologia izeneko gradu bat, non aipamen eta ibilbide hauek eskaintzen diren, tartean hizkuntza hilak zein biziak daudelarik: Aleman Filologia, Frantses Filologia, Filologia Hispanikoa eta Filologia Klasikoa.

Bestalde, filologia fakultateetara (UCMkoaz ari naiz, baina susmatzen dut beste leku askotakoetan antzera gertatzen dela) gaur egun joaten diren ikasleak ez dira aspaldikoen tankerakoak: badira, oraindik ere, interes filologikoagatik izena ematen dutenak, baina beste askok ikasketen funtzio instrumentala lehenesten dute, eta, hizkuntzei dagokienez, hizkuntza eskoletan edo akademietan eskaintzen dena bilatzen dute unibertsitatean. Horixe da errealitatea, eta alferrik da errealitate horri itzuri egitea. Alferrik da, orobat, errealitate horri itzuri eginda irakastea. Hori dela eta, UCMko Filologia Fakultatea (hizkuntzen irakasgai ez ari naiz) hizkuntza eskola bilakatu da, eta irakasgai horien programetan A1, A2, B1, B2 eta C1 mailak erdiestea aipatzen da helburu nagusi gisa. Beraz, errealitate horri iskin egin ezinda, aldatu egin dut, 2014ko hitzalditik hona, artikulua honen izenburuak adierazten duen gaiari buruzko neure iritzia, jarrera zorrotzetik malgurantz lerratuz. Malgutze horrekin badu zerikusi handia honako egitate honek: Etxepare Euskal Institutuko lektoretza duten hiri askotan ez dagoela euskara irakasten deneko ez euskal etxerik, ez hizkuntza eskolarik ere, eta, beraz, lektoretza hori dela unibertsitate-ikasleek euskara praktikoa ikasteko duten aukera presentzial bakarra.

Jakina da edozein unibertsitateetako edozein irakasgaiaren programan ezaugarriak eta edukiak zehazten direla, maiz ikasleen hobespen eta xedei erreparatu gabe; hala ere, euskara irakasgaiaren/irakasgaiaren kasuan, behintzat, programa hori malgotu egin daiteke, molda daiteke atzerriko unibertsitateetako ikasleak euskara irakasgai(et)an izena ematera bultzatu dituzten arrazoietara. Ikasle horien artean izango dira neurri handi edo txikiagoan euskaldundu nahi dutenak eta izango dira euskara maila teo-

<sup>1</sup> Aurrerantzean, UCM.

<sup>2</sup> Uler bedi: *plan* + postposizio ablatibo plurala, eta ez *planeta* + postposizio ablatibo singularra.

rikoan soilik ezagutu nahi dutenak ere. Bestalde, kontuan hartu beharko da honako edo horrako unibertsitateak zein gradutako ikasleei eskaintzen dizkien euskara irakasgaiak,<sup>3</sup> zenbat irakasgai diren, eta astean zenbana ordutakoak, argi baitago ez dela gauza bera lau ordu edo ordu eta erdi. UCMn, gaur-gaurkoz, sei irakasgai dira (Euskara I, Euskara II, Euskara III, Euskara IV, Euskara V eta Euskara VI), lau hilekoak, astean launa ordutakoak, gradu guztietako ikasleei heziketa osagarri moduan eskaintzen zaizkienak eta edozein gradutako hautazko irakasgai baten ordeztatu daitezkeenak. Bestalde, Euskara I eta Euskara II oinarritzko irakasgaiak ere badira, Filologia Fakultateko gradu guztietako 1. mailan. Euskara III eta Euskara IV, aldiz, hautazkoak Ingeles Ikasketetako graduan.

Urte luzez, menu bakarra eskaini izan dut neure klaseetan. Azken urteetatik honantz, ordea, zorrotzasunetik malgutasunerako bidea harturik, hiru, bezeroen (hots, ikasleen) nahi eta beharrei egokituak. Izan ere, ohartu naiz menu bat baino gehiago eskaintzen dituzten jatetxeek bezero gehiago erakartzen dituztela menu bakarrekoei baino.

Lehenengo menua, Euskara I eta Euskara II irakasgaietan soilik eskainia, gehien bat filologikoa da, baina tartetxo bat uzten zaio lau hizkuntza-trebetasunen lanke-tari, zeina ez baita ebaluagarria. Euskara I eta Euskara II-ko bigarren menuan, ordea, hizkuntza-trebetasunak lehenesten dira, baina alderdi filologiko interesgarriei tarte bat utziz. Bi menuak izan daitezke gozoak, osagai egokiak erabiliz gero. Eta biak izan daitezke garratzak, osagai desegokiak erabilita. Bietan, euskara praktikoari dago-kionez, entzundakoaren ulermena eta mintzamena dira gehien lantzen diren hizkuntza-trebetasunak, lauetatik garrantzitsuenak baitira. Esan gabe doa ikasle euskaldunak salbuetsita daudela klasearen atal horretatik.

Hirugarren menu bat ere eskaintzen dugu UCMn: baditugu hiru irakasgai, Euskara IV, Euskara V eta Euskara VI, alegia, ikasle euskaldunek edo euskaldun oso izateko bidean daudenek B1, B2 edo C1eko azterketa presta dezaten diseinatuak. Ikasle horien artean badira euskal herritarrak (DBH eta Batxilergo D eremuan egindakoak) bai eta Euskal Herriko kanpokoak ere. Menu honetan, HABEko aurreko urteetako azterketak eta antzeko ariketak lantzen dira, bai eta mahai gainean jartzen hainbat euskara irakasleek egia eztabaiaezin gisa transmititu ohi duten hizkuntza-eredu murriztaren gabeziak (garbizalekeria gramatikal eta lexikoaz ari naiz).<sup>4</sup> Bistan da, bestalde, hirugarren menu horretako ikasle profila ez dela euskararen irakaskuntza eskaintzen duten Euskal Herriko kanpoko beste unibertsitateetan izaten.

Gure beste ikasle euskaldun batzuek (Filologia Fakultateko edozein gradutako lehen mailakoek), aldiz, Euskara I eta Euskara II oinarritzko irakasgaietan ematen dute izena. Hogei bat hizkuntzaren artean bat aukeratu behar, eta euskara hautatzen dute, gehien bat, eta salbuespenak salbuespen, hamabi kreditu aise lortzearen, Erasmus beka batekin Berlinera joan eta bertako espainiera klasetan izena ematen duten Filologia Hispanikoko ikasle espainiarren antzera. Aitor dut urte askoan mesfidan-

<sup>3</sup> Ez da gauza bera Filologia Hispaniko edo Erromanikoko ikasleei soilik eskaintzea, edo Filologia guztietakoei, edo unibertsitateko guztiei.

<sup>4</sup> Euskadi Irratiko Faktoria saioko kolaboratzailea nintzen garaian, 2022ko urtarrilaren 6ko emanaldian hain zuzen ere, lekukotasun esanguratsu baten berri eman nien entzuleei. Hemen dago entzungai: [https://drive.google.com/file/d/1PWAT2gOpC\\_eiyG4-05keUAcYmpEkWwXY/view](https://drive.google.com/file/d/1PWAT2gOpC_eiyG4-05keUAcYmpEkWwXY/view).

tzaz hartzen nituela horrelako ikasleak eta haien hautua gaitzesten nuela, baina, azken urteotan, beso-zabalik hartzen ditut, gure irakasgaientzat onuragarriak izan daitezkeelakoan, zeren eta, alde batetik, gure ikasle-kopurua handitzen laguntzen dute,<sup>5</sup> eta, bestetik, on egiten diote klasearen dinamikari. Baina badira beste bi arrazoi, pisu handia dutenak:

- Beren lehen hizkuntzari buruz (edo, lehen hizkuntza izan gabe ere, ulertzen, hitz egiten eta idazten duten hizkuntza bati buruz) ez dakizkiten hainbat kontu ikasten dituzte, hizkuntza horri buruz hausnartzen dute, hizkuntza horretaz buruan sartuta dauzkaten uste okerrak zalantzan jartzen dituzte, eta, irakasgaiak gainditurik, ohartzen dira atera duten etekina ez dela hamabi kreditu horietara mugatu.
- Ikasle horiek, hamabi kreditu errazak erdietsirik, lehen aipaturako beste etekin txit erabilgarri bat atera diezaiekete hurrengo ikasturteetan gure beste irakasgai batzuei: B1, B2 edo C1eko agiria lortu ahal izatea.

Laburbilduz, arrazoi askorengatik, hobe irakaskuntza aukera guztiei atek zabaltea. Azken finean, dagoen errealitatera moldatu behar dugu unibertsitate-irakasleok geure lana, baina, hori bai, desio genukeen errealitatea geure irakasle-jardueratik baztertu gabe.

### 3.1. Euskara praktikoa

Euskara praktikoa Euskara I eta Euskara II irakasgaietan osagai nagusia izan edo bigarren mailakoa izan, komeniko litzateke, nire aburuz, hainbat jarraibide betetzea, metodologia zaharkitua baztertze aldera. Jarraibide gehienak lehenago aipaturako artikulua hartan aletu nituen (Cid Abasolo 2016: 212-213, 220-221). Haietako bat, nire ustez garrantzitsuena, “euskara hizkuntza zaila da” topiko faltsuari aurka egitea da, beti ere argudio linguistiko bidez (Moreno Cabrera 2007-2008).<sup>6</sup> Harrigarria da nola dagoen uste oker hori hain hedatuta, besteak beste, Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetako euskara-ikasleen artean, Txekian euskal lektore ibilitako Denis Almandozen hitzak lekuko. *Berria* egunkariko kazetari batek, elkarrizketa batean, galdetu zionean zer esaten zuten bere ikasle txekiarrek euskara ezagutzen hasten zirenean, honela erantzun zion Almandozek: “hitzak politikak iruditzen zaizkie; gramatika eta lexikoa ikasten hasten direnean, ordea, oso zaila dela diote” (Goikoetxea 2020: 40). Zergatik deritzote zaila? Euskal gramatika berez zaila delako? Euskal lexikoa berez zaila delako? Ez. Ikuspuntu linguistiko hutsetik, txekiera lehen hizkuntza duteenez euskara ez da, esaterako, frantsesa baino zailagoa. Egia da frantsesa eta txekiera, euskara ez bezala, hizkuntza indoeuroparrak direla, baina:

- Frantsesa erromanikoa da eta txekiera eslaviarra.
- Txekierak, euskarak bezala, kasuak dauzka, eta frantsesak ez.

<sup>5</sup> Ikasle eskasia geure irakasgaien ajea ez ezik, hainbat unibertsitateetako hainbat maior, minor, master eta doktoradutzarena ere bada.

<sup>6</sup> Hizkuntzalari madrildar horren artikulua ahalik eta hizkuntza gehienetara itzuli beharko litzateke, eta itzulpen horiek lau haizeetara zabaldu.

- Txekiera jasoan, euskara jasoan legez, ahoskera ortografiatik gertu dago (hainbesteraino, non bi hizkuntzoi buruz esaten baita, salbuespenak salbuespen, idazten diren bezala ahoskatzen direla), eta frantsesean, ordea, ez. Jakina denez, gaur egungo ahozko frantsesa oso urruti dago frantsesaren gaur egungo ortografiatik, honek ez baitu islatzen hizkuntza horren mendetako bilakaera fonetiko handia. Horrexegatik esan ohi da frantsesaren ortografia oso kontserbadorea dela.
- Frantsesak, txekierak ez bezala, modu subjuntiboa du, ikasle txekiarrentzako buruhausterako. Jakina denez, euskarak ere badu, baina ahoz ia ez da erabiltzen, eta idatziz ere ez gehiegi, zeren eta subjuntiboaren funtzio berak dituen aditz forma sinpleago bat du, jokatu gabea, esan nahi baita, aditz-izena.

Eta abar, eta abar.

Zer gertatzen da orduan? Hizkuntza bat zaila dela esateko irizpide estralinguistikoak, normalean aitortu gabeak, txit barneratuta daudela Almandozen ikasle txekiar horien buruetan eta munduko filologia fakultateetako milaka ikasle eta irakaslerenentan. Noiz esaten dugu hizkuntza bat zaila dela? Hari buruz ezer ez dakigunean edo, areago, ezer jakin nahi ez dugunean; hari buruzko aurreiritziak ditugunean; hura ikasteko motibazio gutxi (edo batere ez) daukagunean; hizkuntza gutxitua denean; bere eremua hizkuntza hegemoniko batekin edo gehiagorekin partekatzen duenean; eremu horretako herritar gehienek hizkuntza gutxitu hori ez dakitenean. Nonahi dabilta hizkuntzei buruzko aurrejuzguak. Hori larria da. Baina, esan bezala, are larriagoa da edonongo filologia-ikasleen (eta irakasleen!) ahotan ibiltzea.

2016ko artikuluan aipatu gabeko jarraibide bat erantsi nahi nuke orain, hots, gramatika-eredu okerrak saihestu beharra, hala nola euskararen hitzen ordena barkartzat perpausaren hasieran subjektua eta bukaeran aditza dauzkana hartzea eta galdegaiaren legea (Altube 1930) itsu-itsuan **sinestea eta sinetsaraztea**. **Euskal garbizalekeria** linguistikoaren arau ezagunak dira horiek, eta euskararen irakaskuntzan oso errotuak. Baina errealitatea eta aurreiritzi puristak ez doaz eskutik hartuta. Izan ere, garbizalekeria linguistikoa baino lehenagoko idazleek maiz jartzen zuten aditza subjektuaren atze-atzean (Hidalgo 1995), eta berdin jokatzen dute gaur egungo euskaldunek mintzatzen direnean. Orobat, Altube baino lehenagoko idazleek galdegaiaren legearen kontradibide ugari eman izan dizkigute eta, era berean, gaur egungo euskaldunek milaka ematen dizkigute egunero, mintzatzen direnean. Perpaus iragankorren hitzen ordenari dagokionez, SOA (subjektua-objektua-aditza) eta SAO (subjektua-aditza-objektua) **ez dira aukera bakarrak: OAS (objektua-aditza-subjektua)** maiz erabiltzen du euskal prentsak (*Berriak* eta *Argiak*, kasu), titularretan batez ere.

- (1) Krisiaren erantzunaren «ebaluazio independente» bat babestu du OMEk (*Berria*, 2020-05-19).
- (2) Dimisioa eman du Lesothoko lehen ministroak (*Berria*, 2020-05-20).
- (3) Gasa dagoen ikertzeko baimena ukatu du Gasteizko udalak (*Argia*, 2020-12-31).
- (4) Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren lan-deialdiak hizkuntz eskubideak urratzen dituela salatu du Hizkuntz Eskubideen Behatokiak (*Argia*, 2021-01-14).

Hori ez da, nire ustez, kasualitatea. Izan ere, badago arrazoi bat kazetaritzan OAS erabiltzeko: prentsaren titularretan eurretan ere sarri dago fokua (linguistikoa eta informatiboa) osagarrian, eta horrela erabat nabarmenduta geratzen da.

Argi dago hiru hitz-hurrenkerak erabil daitezkeela, baina beti ere kontuan harturik objektua luzea denean (perpaus osagarri bat izan edo kasu-sintagma bat izan) SAO dela ohikoena. SOA pontifikatua objektua laburra denean baino ez da eraginkorra.

### 3.2. Euskararen historia

Ikasle euskaldunek edo euskaldun oso izateko bidean daudenek B1, B2 edo C1eko azterketa presta dezaten diseinatutako irakasgaietan, ez du zentzurik euskararen historiari jarduteak, ezta gaur egungo egoera soziolinguistikoz, euskararen jatorriari buruzko teoriez, euskalkiez, euskara batuaz eta abarrez ere, ez bada hizkuntza-trebetasunak lantzeko ariketetan. Euskara I-ean, ordea, badu zentzua, eta ez nolana hikoia. Neurrian datza kokka: Euskara I-eko ikasleek irakasleari proposatzen badiote euskara praktikoa lehenestea, euskararen historiaren, euskalkien, gaur egungo egoera soziolinguistikoren eta abarren gaineko informazioa jorratuko da, bai, baina maila apalean. Baldin eta euskara praktikoa irakasgaiaren bigarren mailako osagarria bada, berriz, euskararen historia-eta sakonkiago jorratuko dira. Dena den, kasu batean zein bestean, nire ustez, irizpide komunak ezarri behar dira euskarari buruzko informazio hori guztia Euskara I-eko ikasleen esku jartzekoan. Haietariko garrantzitsuenak da material gaurkotuak erabiltzea, kalitatezkoak, fidagarriak eta askotarikoak (bideoak, artikulatuak, liburuak eta Interneteko informazioa).

### 3.3. Gramatika

UCMn, HEEMBko maila jakin bateko agiria lortzera bideratutako euskara irakasgaietan, mintzamenaren eta idazmenaren tresna gisa lantzen da gramatika, unibertsitatean barik hizkuntza eskolan bageunde bezala. 2014. urtera arte nuen ikuspegia traizionatzen al dut horrela jokatu? Aitor dut baietz. Eta ez dut batere damu.

Gainerakoetan (Euskara I-ean eta Euskara II-n), ordea, euskara praktikoa lantzean (eta berdin dio nagusiki edo bigarren mailako osagai gisa jorratzen den), gramatika konturik ez da aipatzen ikasgelan, zeren, euskara ikasten baino, euskaraz jabetzen lagundu behar baitzaie ikasleei, 1. hizkuntza balitz bezala, murgiltze prozesu neketsu baina, aldi berean, atsegin, dibertigarri<sup>7</sup> eta emankorren, ikasgelarako propio sortutako euskara hutsezko PDF bat erabiliz. Non daukate ikasleek eskura gramatika-azalpenak eta hitzen itzulpenak, beren 1. hizkuntzan idatzita? Ikasgelatik kanpo erabiltzeko paratu dudana PDF batean. Gainera, gramatika-zalantzak galdetzeko, badago irakasleari tutoretza eskatzea, nahiz eta ikasleek behar baino gutxiagotan erabiltzen duten baliabide hori.

Euskara I eta Euskara II irakasgaietan, euskara praktikoa bigarren mailako osagaia den irakasmoldean, gramatika-teoria lantzea da helburu nagusia, euskararen “erraiak” ikasleen begi bistan jarriz, hizkuntza-maila guztietan, fonetikatik hasi eta

<sup>7</sup> Umorea da irakaskuntza ororen arrakastaren gako nagusietako bat.

sintaxiraino. Horretarako, honako informazio-iturri hauek jar daitezke, besteak beste, ikasleen eskura: Artiagoitiaren 2014ko artikulua, morfologiarako;<sup>8</sup> *Sareko Euskal Gramatika* (Euskara Institutua [2011a]) morfologia, sintaxi eta tipologia-rako; Zubiri anaien gramatika (Zubiri & Zubiri 1995), azentu eta sintaxirako; eta nik ikasleentzat adibide eta ariketekin paratutako PDF bat, gramatika-gai guztiak ikasgelan jorratzeko.

Bi irakasgai horiek lau hilekoak izanik eta astean lau klase-ordukoak, zein maila lor dezakete ikasleek gramatikaren ezagutza hutsari dagokionez, biak amaituta? Harrigarria irudi balezake ere, B1-edo.<sup>9</sup> Biak gaingitzen dituztenek perpaus bakunak, elkartuak eta konplexuak, ulertu gabe, hots, lexikoaren makulurik gabe, bikain aztertzeke gai dira hizkuntza-maila guztietan: fonetika, azentu, izen-morfologia, aditz-morfologia, eta sintaxian. Halaber, euskal gramatika ikasleen 1. hizkuntzarenarekin eta ezagutzen dituzten beste hizkuntzenekin erkatzen da ikasgelan. Konparaketa hori oso erakargarria gertatu ohi zaie ikasleei: hizkuntza ergatibo eta eranskari bat ezagutzea esperientzia berria da haietariko gehienentzat.

Euskara I-eko gramatika-edukien eta materialen zerrenda nire 2016ko artikuluan dago irakurgai, eta, beraz, zentzugabea da hona ere ekartzea. Euskara II-ko gramatika atalak, berriz, honako hauek dira: sintaxia, tipologia eta hizkuntzen arteko interferentziak. Labor-labor aletu ditzadan hurrengo lerroetan.<sup>10</sup>

### 3.3.1. Sintaxia

Hona hemen Euskara II-n sintaxiaz lantzen diren gaiak:

1. Perpaus bakunak
  - 1.1. Determinatzaile sintagma
  - 1.2. Kasu sintagmak eta postposizio sintagmak
  - 1.3. Perpausaren egitura
  - 1.4. Perpaus inbertsonalak eta kausatiboak
2. Perpaus elkartuak eta konplexuak
  - 2.1. Perpaus elkartuak
    - 2.1.1. Alborakuntza
    - 2.1.2. Juntadura: emendioa, hautakaritza, aurkaritza
  - 2.2. Perpaus konplexuak: menderakuntza
    - 2.2.1. Osagarriak
    - 2.2.2. Adjektiboak (erlatiboak)
    - 2.2.3. Adberbialak

Perpaus bakunak lantzeko, nire PDFko adibideak eta ariketak erabiltzen ditugu ikasgelan, bertan ematen ditudan azalpenen osagarri. Gai horren abiapuntua da, beste gai gramatikarena bezala, euskararen eta gaztelaniaren (eta ez bakarrik gaztela-

<sup>8</sup> Moreno Cabreraren artikulua nioena Artiagoitiarenaz diot orain: ahalik eta hizkuntza gehienetara itzuli beharko litzatekeela, munduko euskara-ikasleen eta euskaltzaleen hobe beharrez.

<sup>9</sup> Ahozko ekoizpenari dagokionez, ordea, ozta-ozta iristen dira A2 mailara.

<sup>10</sup> Honako esteka honetan deskarga daitezke Euskara I-eko eta Euskara II-ko ikasleentzako PDFak, baita Euskara Praktikokoak ere: <https://www.ucm.es/estudiosvascos/recursos-propios>.



niaren) arteko konparaketa. Determinatzaile sintagmaren egitura (gaztelaniarena eta euskararena) ikasleek beraiek zehazten dute PDFko bi hizkuntzetako adibideak kontuan hartuta (euskarazkoak, salbuespenez, hitzen ezinbesteko itzulpenaren laguntzarekin, noski). Izan ere, zenbat eta klase magistraletatik urrunago, hobe. Zenbat eta gehiago sustatu autoikaskuntza, hobe. Hurrengo pausoa da ikasleek kasu eta posizio sintagmen egitura zehaztea, bai eta sintagma haietariko bakoitzaren funtzio sintaktikoa ere, Euskara I irakasgaiaren erdietsitako morfologia-egagupenak baliatuz. Oinarri horiekin eta perpausaren egiturari buruzko argibideekin, perpaus bakunaren analisiari ekin diezaioke, hasieran pixka bat kostata eta bukaeran, ekinaren ekinez, aise, beti ere hiztegirik erabili gabe.

Jarraian, perpaus elkartuak eta konplexuak hitzen esanahia ezagutu gabe aztertzeko jarraibideak emango zaizkie.

Hona hemen bi perpaus, bata bakuna eta bestea konplexua. Bakoitzaren oin-oharrean esteka bat dago, eta bertan klikatuz analisi sintaktikoa entzun daiteke. Perpaus bakunarena Paula Ricote ikasleak egina da; perpaus konplexuarena, berriz, Diana Burgoa ikasleak. Biak erdaldunak. Eta ez batak, ez besteak ez zekiten deusik ere euskarari buruz Euskara I-eko klaseetara joaten hasi baino lehen. Bakoitzak hiztegirik gabe eta morfologia-taulak, sintaxi-adibidetegia eta klaseko apunteak erabiliz burutu zuen egokitu zitzaion perpausaren analisia:

- (5) Faxista talde batek 49 pertsona hil ditu Zeelanda Berriko bi meskitatan<sup>11</sup>
- (6) Kafea atera zidatenean, ardo usaina zuen gizon bat hurbildu zitzaidan<sup>12</sup>

### 3.3.2. Tipologia

Tipologia aztertzeke, *Sareko Euskal Gramatika* informazio-iturri txit egokia da, baina are interesgarriagoa deritzot ikasleek beraiek aletzeari Euskara I eta Euskara II irakasgaiak landu ahala barneratu dituzten euskararen ezaugarri tipologiko nagusiak, hala nola:

- Ergatiboa da. Bai izen-morfologian, bai aditz-morfologian da ergatibo. Alabaina, aditz-morfologian *ergatibitate hautsia* ere gertatzen da, lehenaldiko aditz iragankorretan, objektu zuzena hirugarren pertsona denean. Hortaz, euskararen ergatibitatearen mitoa nolabait ñabartu behar da: euskara ergatiboa da, bai, baina ez erabat.
- Eranskaria da.
- Lau kasu ditu, bai, baina ez du deklinabiderik, *Sareko Euskal Gramatikaren* irizpidearen arabera (Euskara Institutua [2011b]).
- *Pro-drop* hizkuntza da.
- Artikulu mugatua izenaren atzean dauka, errumanieran edo bulgarietan gertatzen den bezala.
- Generorik ez du izen-morfologian, baina bai, ordea, aditz-morfologian (hitanoan, hain zuzen).

<sup>11</sup> <https://drive.google.com/file/d/1OqQsvG8H1SDOleR5qtCxDCiGcFv9XaSP/view>.

<sup>12</sup> [https://drive.google.com/file/d/1v4IRmg19YV-YHDnS6mDl\\_xK2PWYWYZzO/view](https://drive.google.com/file/d/1v4IRmg19YV-YHDnS6mDl_xK2PWYWYZzO/view).

—Azentu nagusia ezkerreko lehenengo silabetako batean dauka, bigarrenean, hain zuzen. Antzeko azentu moldea dute hizkuntza kaukasoar askok, bigarren silaban (tsaxur hizkuntzak) edo lehenengoan (georgiera, archi, bats edo txetxerierak). Gaztelanian, ordea, jakina denez, azken silabatik hasita zehazten da azentuaren araberako hitz mota.

Euskararen balizko isolamendua (askoren ahotan dauden euskarari buruzko uste oker ugarietako bat) gezurtatzeko bidea ematen digu tipologiak. Azter ditzagun sarean aurki daitezkeen baieztapen edo definizio zenbait:

Although I travel a lot for the world, I still live with my wife and children in the town where I was born. I think it's a vital choice. It is a small place, a beautiful fishing village on the Atlantic coast. The people who live in this place still speak the Basque language (a 3000 years old language, no related to other languages in Europe).

Kirmen Uribe (University of Iowa 2017)

Linguistically, Basque is a language isolate (unrelated to any other existing languages).

Wikipedia (Wikipedia contributors 2013)

Una lengua aislada es una lengua natural para la que no se ha probado ningún parentesco con otra lengua viva o muerta. Presumiblemente, una lengua aislada es aquella que no pertenece a ninguna familia de lenguas propiamente dicha (es decir, ella es la única miembro de su familia).

Wikipedia (Colaboradores de Wikipedia 2023)

### **aislar**

De *isla*.

1. *tr.* Dejar algo solo y separado de otras cosas. *U. t. c. prnl.*

*DLE* (s.v.)

Lehenengo bi aipuen harira, galdera hau egin diezaiekegu ikasleei: zein esangura dituzte ingelesezko “no related to” eta “unrelated to” esamoldeek? Izan ere, bai Kirmen Uribe euskal idazle Euskal Filologian lizentziadunak, bai Wikipediak, esanahi bakarria ematen diote (‘-ekin ahaidetu gabea’), beste esangura bat ahaztuz: ‘-ekin erlaziorik ez duena’. Gauza bera gertatzen da hirugarren aipuarekin: Wikipediak, beste hainbat informazio-iturrik bezala, esanahi horixe ematen dio “aislada” berbari.

Laugarren aipuan ikusten dugu *DLE* askoz adiera zabalagoa ematen diola *aislar* aditzari, zeina *isla* hitzetik baitator. Euskara hizkuntza isolatua da? Ikuspuntuaren araberakoa izan behar du erantzunak: ahaidetasunari dagokionez, hau da, Uribek, Wikipediak eta hainbatek darabilten irizpide bakarrari dagokionez, bai. Baina tipologikoki ez, zeren euskarak bai baititu ezaugarri tipologiko ugari hizkuntza askorekin partekatzen dituenak. Ezta geografikoki ere, zeren elkarreragin ugari izan baititu hainbat mendetan auzo-hizkuntzekin, hala nola latin, gaztelania eta frantsesarekin. Hortaz, euskarak, tipologikoki eta geografikoki, ez du isolatutik ezer ere. Hala erakutsi zigun Koldo Mitxelena bere hitzaldi eta idazlan askotan.

### 3.3.3. *Hizkuntzen arteko interferentziak*

Aurreko atalean nioenez, eremu bera partekatzeagatik elkarreragin ugari izan dituzte euskarak eta auzo-hizkuntzek. Gai hau jorratzean, eta UCMn gaudenez, euskararen dauden gaztelaniaren interferentziak eta gaztelanien dauden euskararenak aztertzen ditugu. Bidenabar esanda, hau oso gai erakargarria izan ohi da ikasleentzat. Eta bi irakurgai proposatzen dizkiet informazio-iturri gisa: 2013an eta 2014n idatzi nituen bi artikulu (Cid Abasolo 2013, 2014), zeinetan *euskañola*, *berniz-hitzak* eta kode-aldaketa baitira kontzeptu garrantzitsuenak, bigarrena, nik asmatua, eta Googleko emaitzei erreparatuta, arrakastarik lortu ez duena.

### 3.4. **Lexikoa**

Gai hau ere Euskara II-n jorratzen da. Euskarak hitz andana mailegatuta dauzkanez, argi dago lexikoki ere ez dela hizkuntza isolatua, garbizalekeria linguistikoaren ahaleginak gorabehera. Eta, halaber, argi dago beste edozein hizkuntzak bere lexikoa aberasteko dituen prozedura berberak dituela Aitorren hizkuntzak: eratorpenak, hitz-elkarketak, maileguak, aldaketa semantikoak, metaforak, akronimoak, etab. Gaiari buruzko informazioa, klase magistraletik beharrean, irakurgai batetik helarazten diet ikasleei: “La lexicografía vasca a lo largo de la Historia” artikulutik (Cid Abasolo 2010). Besteak beste, orrialde horietan errepasatzen dira euskarak glosa eta hiztegien bidez historian zehar beste hizkuntza batzuekin izan dituen harreman lexikoak: Donemiliagako glosak; Aymeri Picaud, Arnold von Harff eta Lucio Marineo Siculoren hitz-zerrendak eta hiztegitxoak; *Glossaria duo vasco-islandica* ezin interesgarriagoa; Landucci, Larramendi eta Azkueren hiztegiak, etab.

## 4. **Ondorioak**

Artikulu honetan, unibertsitate mailako euskararen irakaskuntzan zorrotzasunetik malgutasunera egin dudana bidaiaren berri eman dut, bi diziplinaren arteko erlazioak jorratuz: linguistika eta didaktika.

Neure ikasleak buruan nituela idatzi ditut orrialdeok. Profil ugariko ikasleak dira, eta zaila da guztiei “menu” bakarria eskaintzea denen gustukoa izango dena. Irakasleok geure gogoko programa eta metodologia izan ditzakegu, baina ukaezina da aldaketa etengabeak ari direla gertatzen gizartean eta, 1998tik izan ditudan ikasleei dagokienez, oraingoek zerikusi txikia dutela duela hamarkada bat edo bikoekin, eta are txikiagoa 1998koekin. Urte luzez pentsatu izan dut unibertsitatea eta hizkuntza eskola<sup>13</sup> mundu desberdinak direla eta xede desberdinak eduki behar dituztela: hizkuntza eskolek hiztunak sortzea eta Filologia Fakultateek irakasleak eta hizkuntzalariak.<sup>14</sup> Eta, helburu desberdintasun horretan sinetsirik, luzaro laga nuen UCMko nire kla-

<sup>13</sup> Madrilgo Hizkuntza Eskolako euskara irakasle ibili nintzen hamalau urtez.

<sup>14</sup> Hori dela eta, hainbat artikulu paratu ditut, espainieraz, Euskara I eta Euskara II irakasgaietan jorratzen ditudan edukiei buruz, beti ere ikasleengan pentsatuz. Horixe da, eta ez harrokeria, lan horiek bi irakasgai horien erreferentzia bibliografiko nagusietakoak izatearen eta artikulu honetan aipatuak izatearen zioa.

seetatik kanpo euskara praktikoa, baina, denboraren poderioz, leiho hori pixkanaka irekiz joan nintzen, harik eta 2016ko artikuluan proposatu nuen arte klaseen denboraren heren bat-edo euskara praktikoa eskaintzea. Urte batzuk geroago, 2016ko proposamen horri ere zorrotzegia neritzenez, ikuspegi malguago baten aldeko hautua egin nuen, irakaskuntza neure pentsamoldera ez ezik, ikasleen nahi eta beharretara ere egokituz. Euskara I eta II-ko ikasleak ez ditut salbuesten euskararen historia ezagutzetik, baina euskara praktikoa beren klaseen osagai bilakatu da, talde batzuetan beste batzuetan baino garrantzitsuagoa, talde bakoitzaren lehentasunen arabera. Eta, irakasgai kopurua handitu ahala (urte askoan Euskara I eta Euskara II soilik, 2017tik baita Euskara III eta Euskara IV ere, eta 2023tik baita Euskara V eta Euskara VI ere), tarte handiagoa utzi ahal izan zaio euskara praktikoa, hainbestearino, non, gaur-gaurkoz, Euskara IV, Euskara V eta Euskara VI HABEko B1, B2 eta C1 mailako azterketak prestatzeko antolatuta dauden. Eta egon badaude horretarako ikasleak, egon badaude horretarako bezeroak: UCM erraldoian edozein gradu egiten duten euskaldunak, euskal herritarak izan edo ez.

Laburbilduz, arrazoi askorengatik, zabal diezazkiegun atea irakaskuntza aukera guztiei!

## 5. Omenaldia

Bihoaz azken hitzak Bohumil Zavadil euskalari txekiarra omentzera. Urte askoan irakatsi zuen euskara marko teoriko estrukturalistatik Pragako Karlos Unibertsitatean. *Baskičtina. Lingvistická interpretace* ('Euskara: interpretazio linguistikoa') liburuaren egilea da (Zavadil 2011), non euskararen deskribapen zabal bat eskaintzen dien irakurle txekiarrei. Haren jakinduria eta apaltasuna goraiapatuz amaitzen dut artikulua hau. Eskerrik asko, lagun! Děkuji ti, kamaráde!

## 6. Biografia

Altube, Seber. 1930. *Erderismos*. Bermeo: Gaubeka.

Artiagoitia, Xabier. 2014. Una vuelta al mundo de la morfología vasca (preferiblemente en menos de 60 minutos). *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca* 19. 231-245. <https://doi.org/10.5944/rllcgv.vol.19.2014.13767>.

Cid Abasolo, Karlos. 2010. La lexicografía vasca a lo largo de la Historia. *Revista de Filología Románica* 27. 163-178. <https://revistas.ucm.es/index.php/RFRM/article/view/RFRM1010110163A>.

Cid Abasolo, Karlos. 2013. Hibridismo lingüístico en la Vasconia peninsular: sustrato vasco en el español. *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca* 18. 263-282. <https://doi.org/10.5944/rllcgv.vol.18.2013.10798>.

Cid Abasolo, Karlos. 2014. Hibridismo lingüístico en la Vasconia peninsular: influjo de la lengua castellana en la lengua vasca. *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca* 19. 247-266. <https://doi.org/10.5944/rllcgv.vol.19.2014.13768>.

Cid Abasolo, Karlos. 2016. Euskara Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetan nola irakatsi. *Revista de lenguas y literaturas catalana, gallega y vasca* 21. 211-227. <https://doi.org/10.5944/rllcgv.vol.21.2016.17449>.

- Colaboradores de Wikipedia. 2013. Familia de lenguas. In *Wikipedia* [online]. 2023/03/10. [https://es.wikipedia.org/w/index.php?title=Familia\\_de\\_lenguas&oldid=149792589](https://es.wikipedia.org/w/index.php?title=Familia_de_lenguas&oldid=149792589).
- DLE = Real Academia Española. *Diccionario de la lengua española*, 23. argit. [23.6 bertsioa online]. <https://dle.rae.es>.
- Euskara Institutua. [2011a]. *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. Leioa: UPV/EHU. <https://www.ehu.eus/seg>.
- Euskara Institutua. [2011b]. Deklinabiderik ez. *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. Leioa: UPV/EHU. <https://www.ehu.eus/seg/morf/2/4>.
- Goikoetxea, Jakes. 2020. Txapela buruan. Denis Almandoz. Brno-n bizi den donostiarra. *Berria* 2020/05/09. 40. <https://www.berria.eus/paperekoa/1886/040/001/2020-05-09/erantzukizun-garrantzitsua-dut.htm>.
- Hidalgo, Víctor. 1995. Ohar estatistiko garrantzitsuak euskararen hitz ordenaren inguru. *Euskara, S. V. O.? Fuentes Linguae Vasconum* 70. 401-420.
- Moreno Cabrera, Juan Carlos. 2007-2008. Sobre la complejidad y dificultad de las lenguas. El caso del euskera. *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca* 13. 199-216. <https://doi.org/10.5944/rllcg.vol.13.2007.5931>.
- University of Iowa. 2017. 5Q Interview: Kirmen Uribe, 2017 IWP resident. *The Writing University*. 2017/08/10. <https://writinguniversity.org/news-archive/2017/08/5q-interview-kirmen-uribe-2017-iwp-resident>.
- Wikipedia contributors. 2013. Basque language. In *Wikipedia* [online]. 2023/03/12. [https://en.wikipedia.org/w/index.php?title=Basque\\_language&oldid=1144245187](https://en.wikipedia.org/w/index.php?title=Basque_language&oldid=1144245187).
- Zavadil, Bohumil. 2011. *Baskičtina. Lingvistická interpretace*. Praga: Karolinum.
- Zubiri, Ilari & Entzi Zubiri. 1995. *Euskal gramatika osoa*. Bilbo: Didaktiker (Españierazko bertsioa: *Gramática didáctica del euskera*. Bilbo: Didaktiker, 1995).



JÜSEF EGIATEGI (1782). *Aberastarzün güzién giltz bakhoitza. Egan 75(1-2)*, 2022, 371 or. Manuel Padilla-Moyanoren edizio kritikoa. Sarrera: Koro Seguroa.

1. Bai Euskal Herrian, bai nonahi, ezagutzaren arloko eduki guztiak ez dira beti adituen eskuetan izan. Usu mediku liberal edo tradizionalistagoko zenbaiten esku egon dira, edo apezten esku, edo irakasle orokorragoko batzuen esku. Garaian garaiko errealitatearen emaitza da hau, unibertsitatea ez baita arras berandu arte heldu hainbat herrialdetako eskualde frankotara. Horixe da euskal filologiari Euskal Herrian gertatu zaiona: ofizioko ikertzaile eta berezilarien aldia heldu arte, eta horien artean Koldo Mitxelena dugu nabarmenena, zenbait mediku, elizgizon, irakasle edo euskaltzainen eskuetan ibili dira testuak, haiexek prestatu dituzte idazlan zahar edo klasikoen edizioak. Ezin pentsatuko dugu, ez luke kanorerik horrela pentsatzeak, ordu arteko ogibide liberaleko jende testu zaharren zale haien edizioak, hondar urteetako filologo ikasiek baliatu irizpide tekniko berberen bidez ondu zirela.

2. Objektuak dira eskuizkribuak, objektuak dira haien kopiak, baita haiengan oinarriturik moldiztegietan argitaratu ohi diren liburuak ere. Horiek guztiak objektuak diren ber, haien ohiko itzulinguru, gora-behera, joan-jin bihurri, galera, ebasgo eta nahasmen berak ukan ditzakete denboran eta espazioan zehar. Horixe da 2022ko *Eganen* lehen aleak dakarrena, 1782an Jüsef Egiategi irakasle zuberotarrak idatzi zuen 58 orriko eskuizkribu baten argitalpena, zuberera zaharraren ezaugarriez ezagutza akreditatua duen Manuel Padilla-Moyanok ondua. Baina horrekin guztiarekin batean, argitalpenaren sarreran eskuizkribuaren izaeraren eta ibileren berri ematen zaigu.

Argitalpenaren sarrera eskuizkribuen paperaren ur-marketan aditua eta *Egan* al-dizkariaren zuzendari den Koro Seguroak idatzi du, eskaini baitu eskuizkribuaren joan-jin eta ibilera ugarien berri. Adibidez, jatorrizko eskuizkribuan zuzenketa ugari dago eta orrialdeen oinetan oharrak datoz. Kapitulu guztiak ez daude zenbakiturik eta ximenki ordenaturik, ezta, dirudienez, osorik ere. Adibidez, 18. kapituluaren hasiera baizik ez da gorde, jarraipena ments du (207. orrialdea / 408. oin-oharra) eta erleen kapituluaren hasiera ere ments du (208/409). Ez da kopia garbia, ezta lan bururatua ere. Argitaratzaileek uste dute eskuizkribua Egiategiren beraren eskuz idatzia dela. Hori guztia ikusirik, argitaratzaileek hondarrean orrien eta *berezita* edo kapituluaren banaketa berrantolatu dute, testuaren logikaren mesedetan (20). Kapituluaren antolaketa 21-22. orrialdeetan aipatzen dute. Atal eta eduki ugari ditu eskuizkribuak. Eman dezagun: haurren zaintzaz, etxea zaintzeaz, baratzeaz, etxaldeaz, kandedez, kala-

muaz, irin-ogiez, urdeez, hegaztiez, ahuntz, aker eta arkumeez... Halako batean apezak eta Egiategi errientak duten mintzaldi bat ere ageri da eskuizkribuan.

*Aberastarzün gūzién giltz bakhoitza...* da, lehen ere (1983, 2010) filosofiako lan luze bat Euskaltzaindian bi liburukitan argitaratu zitzaion idazle eta *errejent* zuberotarraren 1782ko idazlanaren izena. Egiategik berak zekarren 1782ko idazlan honen berri 1785eko data daraman *Filosofo huscaldunaren ekheia* idazlanean (1983), zeina Pariseko Liburutegi Nazionalean Antoine Abadiaren paperen artean aurkitu baitzuen Txomin Peillenek. 1785eko liburuaren bigarren atala osatzea geroago gertatu zen, Patri Urkizuk Pariseko liburutegi berean Abadiaren beste paper sorta batean Egiategiren 1785eko idazlanaren bigarren zatia aurkitzean, zeina Peillenek berak 2010ean argitaratu baitzuen.

3. Eskuliburu da *Eganek* argitaratu berri duen 1782ko idazlan hau eta emaztekiei etxeko eta baserriko lanak behar bezala gobernatzeko erakusteko idatzi zen: *etchéco anderé huscalduna etchaltéco lanétzas jakinturic aberatz guerthuren déna*. Eskuizkribuan, artileaz diharduenean, XVIII. mendeko Louis-Jean-Marie Daubenton naturalista aipatzen du itzultzaileak, *Mosde Daubanton* izendaturik (133). Frantziako erdi-ekialdeko Monbard-en 1716an sortua, frantsesezko *Instruction pour les bergers et pour les propriétaires de troupeaux* idatzi zuen (1782), eta baliteke hau izatea Egiategiren eskuizkribuko edukien iturri frantsesetarik bat.

Margaita eta Grazi Basabürüko alegiazko bi emazteki zuberotar dira. Margaitak 49 urte eman ditu Frantzian zerbitzuan eta haren nagusi etxekandereak idatzi esku-liburu tekniko bat, etxekandereen eginkizunetz diharduena, Zuberoko *üskarara* itzularazi nahi du. Haur denborako Grazi adiskideak diotso badela errient zuberotar bat hori propiki egin lezakeena, Egiategi, hain zuzen ere. Behin Egiategik itzulpena ondurik, apezak irakurri eta adierazten dio itzulpen egokia egin duela: *Jüsef, ezin hobeki diik frantsesa hüskaratiü... Jarraik ezak ber bidia heldü izatekiano azkentziala, ene gain honki jina datekiala* (141); cf. Ugarte (2020: 563).

Segurolaren eta Ugarteren 2021eko idazlan batean adierazten zaigu nolako gizar-te-giroan idatzi zuen Egiategik lan hau (119):

Elkarrizketan, Margaitak eta Gracik nostalgiaz hitz egiten dute 1682 eta 1735 artean Oloroko diozesia zuzendu zuten apezpikuek, euskal dantzei erakutsi zieten estimuagatik. Aitzitik, François de Revol 1742 eta 1783 arteko diozesiko apezpikuaren jarrera kritikatzeko dute, berau izendatu gabe. Egiategi al da emakumeen ahotik hitz egiten duena?

Lanak baditu *realia* gehiago: eman dezagun, testuan ageri denez, ahuntz euskalduna baino, indiarra hobea da, eta espainiarra ere bai (103). Lorena eskualdea ere aipatzen da erlegintzaz jardutean: *Lorrenan die berze manera. Lürrian die xilho egiten sarien erezian, hetan dütie arratsan petik gora ezarten, gaiezko freskürak dütü erliak eraitserazten* (235).

Idazlanaren Segurolaren aurkezpenak dirauen artean, ezagutza ugari biltzen du irakurleak Egiategiren lanaz eta haren saihetseko jakingarri zenbait buruz. Eman dezagun, ez dakigu non sortu eta non hil zen XVIII. mendeko Jüsef Egiategi idazle zuberotarra, baina Aurelia Arkotxak erakutsi zigun (2004), Etxeberri Ziburukoaren lana ezagutzen zuela eta haren testu labur baten egokitzapena ere egin zuela. Txomin Peillenek Egiategiren pentsamoldea aurkeztu zigun (2004), ez iraultzaile,



baina erreformista, Zuberoako errealitatean guztiz inplikaturik zegoena, komunitarista eta euskaltzalea, kontsumismoaren eta apezten gehiegikerien aurka ageri zena, estatua eta Eliza nahasterik nahi ez zuena, eta Belako handikien familiak lanerako zuen zaletasuna goresten zuena. Lehenago ere, Baionako Euskal Museoen agerkerian Egiategiren pentsamoldeaz hainbat ohar idatzi zituen zendu berri den Peillenek (1984).

Berebat, Seguroiak diosku 2022ko argitalpen honetan (29-31), 1782ko eskuizkribu honen papera Biarnokoa dela, 1780koa, baina paperaren gai iduriez ziharduela, 2002ko *Lapurdumen* Seguroiak ez zituen Biarnoko paper-lantegiak bakarrik aipatu. 1744rako Zuberoakoen berri ere bazekarren (323), Ipar Euskal Herrian Hegoaldean baino lehen hasi baitziren papera ekoizten: Iruñean dugu lehena, 1753-1754an. Lehen paper sortak *Hospital General de Pamplona* eta lehoia daramatza ur markatzen 1755ean. Bizkaiko lehena Berrizen hasi zen 1779an, eta Gipuzkoan, berriz, Alegian, 1803an, paper-errota hau Joannes Ibar zuberotarrak abiarazi baitzuen, Antonio Maria Labaien antzerkilaria jakinarazi zigunez (1967).

4. Egiategiren 1782ko eskuizkribu honen joan-jinen abentura editoreen eskutik bizi daiteke. Lehen argitalpena du hau eta hainbat gora-behera jasan du 240 urteko historian zehar. Pauen argitaratu zela adierazten du eskuizkribuak, baina artean ez da alerik ezagutu, erakutsi digunik liburu gisa *J. P. Vignacour-tarén Moldiskidiatic... Cordeliesén khantian dagoénétic. Jaon Intendantaren bayména-reki batian* argitaratu zela. Eskuizkribua Zuberoako familia batek zeukan eta Aingeru Irigarai euskaltzainak haren arrastoari jarraikiz, idazlana ezagutu eta Gipuzkoako Aldundiaren 1.200 pezetaren bidez erosteko aukera izan zen. Egiategiren eskuizkribua 1961ean ordaindu izanaz Gipuzkoako Aldundian gorde diren agiri eta fakturak argitaratu dira 2022ko *Eganen* (26-28).

Egiategiren filosofiako 1785eko liburua argitaratu zuen Peillen joan berri zaigunak 1782ko eskuizkribu honen berri dakar *Egan* aldizkarian 1963. urteko uztailean (75-77), eta Peillenek esanez Mitxelenak adierazpen batzuk erantsi zizkien (78-81), baizik eta Aingeru Irigarai mediku euskaltzainak bazuela eskuizkribu honen berri. 1964ko *BAP* aldizkarian Lino Akesolok idatzi zuenez (373-374), berak ere eskuartearen ukan zuen eskuizkribu hau. Lehenago Forel-Salaberri familiak eduki zuen, 1870.ean *Chants populaires du Pays basque* argitaratu zituen Mauleko Jean-Dominique “Jules” Salaberriren familiako ondorengoa zen Forel zuberotarrarengandik eskuratu zen 1782ko eskuizkribu hau, Aingeru Irigarai zenak *Eganen* zioenez (1965: 249), Gipuzkoako Foru Aldundiko artxibategiko Fausto Arozena arduradunaren interesari esker eskuratu ere.

Irigaraik, Mitxelenak eta Akesolok eskuartearen eduki zuten Egiategiren 1782ko eskuizkribua, baina ondotik, Donostian 1947tik Gipuzkoako Aldundiko liburutegian Arozenaren laguntzaile lanean ziharduen Jose Artetxe idazle azpeitiarraren etxeko liburu eta paper artera jo bide zuen. Txomin Peillen jabetu zen liburutegi publikoak erosi eskuizkribua ez zela inon ageri, galdurik edo zegoela, baina Mitxelena hil arte ez zuen horren berri eman edo salatu. Eskuizkribua galdutzat jo zen.

Halaz, Peillen euskaltzainak Aingeru Irigarai euskaltzainaren seme Jose Anjeli galdegin zion eskuizkribuaz. Jose Anjelek aita zenaren paperen artean eskuizkribuaren zati baten kopia bat aurkitu zuen eta Peilleni eman, eta euskaltzain zuberotarrak zati

hori, eskuizkribuaren seiren edo zazpiren bat, argitaratu zuen Euskaltzaindiaren *Eusker*a aldizkarian (2012: 801-822). Hona aldatzen ditut Peillenek harakoan zekarzki-gun alderdi jakingarri batzuk (803):

Hizkuntzaren aldetik beste liburuak jende ikasiei zuzendu baitzituen Egiategik berak asmatu euskara garbian idatzi bazituen, oraingoan zerbait irakurtzen dakien herri xeheari zuzendua baita zuberera normalean idatzia da, bi hitz baizik ez ditu Larramendiren hiztegitik hartu: bi aldiz *berezita* ‘kapitulu’ eta behin *megopia*, ‘gogoa’. Bestalde, Oihenart miretsiz *berze* erabiltzen badu, zubererazko *beste* eta *hainbeste* buruzagitzen dira.

Jakingarriena da nola hitzaurrean, luzaro Frantzian bizitu zuberotar emakume bat mintzarazten duen eta hark hemezortzigarren mende hasieratik Zuberoako gizartean aldatu diren ohiturak aipatzen ditu, gero bere filosofia liburuan Egiategik sakonduko dituenak: nola jendea auzikari bilakatu zen, nola fedea hoztu, nola emakumeak eta gizonetzkoak ostatuetan biltzen eta mozkortzen ziren, nola plazako jaiak aldatu ziren, eta jantzi berriak agertu.

Ohargarria da nola Revol apezpiku bat aldaketa batzuen errudun egiten duen Egiategik, elizgizon horrek bertutearen izenean plazetan neska-mutilen euskal dantzak, branleak, debekatu zituen, *Non dantza, han infernua* plazetan denen aurrean ardo edanez egiten ziren jaiak galdu, jendea ostatuetan edo isilpean edaten eta jauziak dantzatzeko ordez, neska-mutilak elkarri jauzi eginez lizunkerietan galtzen.

5. Egiategiren eskuizkribuaren ibilera bihurriak jarraipena ukan zuen eta Arterxeren inguruko gertakari aipagarri gehiago daude, eragin dutenak eskuizkribua gero agertu izana. Pedro Berriochoa historialariak Artetxe idazleaz ikertzen ziharduela, Egiategiren 1782ko eskuizkribua aurkitu zuen azpeitiarraren etxeko liburutegian. 1971n hil zelarik, Donostiako Gros auzoan bizi zen Artetxe, Norteko ferrokarrilaren trenbidetik ez urrun. Berriochoaren liburua berriskoa da, 2021ekoa: *Recordando a José de Arteche (1906-1971)*. Artetxeren gaiak Antón Ugarte historialaria ere erakarri zuen eta ondotik, Egiategiren 1782ko eskuizkribua Gipuzkoako Aldundiaren liburutegira itzularazi da.

Koro Segurola filologoak gaiarekin lotura zuzena duten gertakari gehiago dakarzkigu *Egan*-en 2022ko argitalpen honen sarreran, baina sarrera honek 2021eko *Egan*-en Segurolak berak eta Antón Ugartek eskuizkribuaz egin zuten aurkezpena garamatza ere, era honetako iruzkinak ageri baitira bertan: Jose Artetxe laguntzailak ez, Milagros Bidegainek ordezkatu zuen Gipuzkoako Aldundiaren liburutegian 1967an Fausto Arozena erretiroa hartu zuenean. Artean, bere ikerlanetan Salamanca ziharduen Mitxelena euskaltzainak hizkuntzalaritza indoeuroparrek katedran eta 1967 hartan berean Gipuzkoako Aldundiaren hizkuntzalaritzako *ASJU* nazioarteko aldizkaria berragertarazi zuen, baina errenteriarrek ez zion aipamenik egin Egiategiren 1782ko eskuizkribuari, ez orduan eta ez gero.

6. Arestian adierazi bezala, Manuel Padilla-Moyano euskal filologo kordobarrak egin du edizio honen lan zail eta bihurria, halako lan bati lotzeko Zuberoako euskararen itzulunguruak ongi ezagutu behar baitira. Eginkizun horretan arras trebe dela 2017an frogatu zuen, Zuberoako testu zaharrez ondu zuen UPV/EHUko doktoretza-tesian. Harakoan zuzendari handiak ukan zituen, Beñat Oihartzabal hizkuntzalaria eta Blanca Urgell filologoa, ximenki landu baitzuen 900 orrialdeak gainditu zituen lan luzea.

Padilla-Moyanok nolako edizioa egin duen argitu du. Zorionez, testu hirukoitza da: eskuizkribuaren faksimilea orrialdez orrialde ageri da argitalpenaren bukaeran. Ez da letra guztiz erraza, baina lupa baten laguntzaz anitz hobetzen da letren definizioa. Bestalde, Egiategiren grafia sistema ez da Zuberoako testu zaharretan ohikoena dena ere, baina irakurlearen mesederako, idazle haren grafien eta egungoen arteko zubigintza dakar argitaratzaileak 39-41. orrialdeetan.

Bigarrena Egiategiren testu zaharraren Padilla-Moyanoren transkripzioa da, jatorrizkoaren idazketa bera dakarrena, eta haren interpretazioa ere, horra testu beraren hirugarren aldaera, egin du, egungo grafiara aldatu baitu jatorrizko idazkia. Testuko orduko euskara egungo grafian idatzi du, filologo batek egin lezakeen bezala, eta ez, inoiz egin izan denez, orduko testuari aldaketa fonologiko batzuk aplikaturik. Hau da, ez du orduko Zuberoako mintzoa euskara orokorrera ekarri, ez ditu, testua egoera zaharragora edo batuagora ekartzeko, xiberotarrenak diren aldaketa foniko batzuk testutik kendu. Eman dezagun, 1782an <neguan> ‘neguan’ idatzi zuen Egiategik, eta egun Zuberoan hori *negüan* idazten dutenen arrazoa deusetan ukatu gabe, filologoa den eta hizkuntza errearen bilakabidea aurkezteko lan egiten duen Padilla-Moyanok, bere argitalpenean *negian* idatzi du, grafia gaurkotuan, hori baita Egiategik idazlana ondu zuen 1782an ahoskatzen zuena eta idatzi nahi ukan zuena.

Edizio kritikoa egin duenez, aurkitu dituen hutsak zuzendu ditu, halaxe nahiko baitzuen 1782an Egiategik ere, idazterakoan egin zituen hutsez ohartu balitz, gauza bat idatzi nahirik, oharkabean beste zerbait idatzi zuenean. Argitalpenaren bukaeran datoz zuzenketak (242-244), gardentasunez ikus dezan irakurleak argitaratzaileak zer zuzendu duen eta nola zuzendu duen. Eman dezagun, 16. orriaren aitzineko alderdian *eritazuna* dena, *eritarzuna* bihurtu du argitaratzaileak transkripzioan, eta *eritarziina* interpretazio eguneratuan.

Bestelako ohar jakingarriak aparatu kritikoa eman ditu Padilla-Moyanok, oinoharretan. Eman dezagun: irakurketa bat ez bada ziurra, edo hitz baten gainean argitasun edo azalpena ematen baldin bada, gaskoinez nola den, edo hitz batez Egiategi idazleak ohar bat idatzi ote zuen, edo xx. mendeko Larrasketaren hiztegiak dakarren hitza den, ala Egiategik (1782) Larramendiren hiztegitik (1745) hartu zuen, ala argitaratzaileak hori susmatzen duen, bederen. Baita Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegiak* [OEH] hitzaz zein argibide dakartzan ere... hori guztia oinoharretan dakar. Oharren dei diren zenbakitxoak, gainera, bi testuetan datoz, grafia zaharreko Egiategiren beraren testuan, nahiz Padilla-Moyanoren interpretazio edo testu modernoan. Zeinahi bertsio irakurtzen duenak, zenbakien deiari esker ohar berberak ditu aukeran aparatu kritikoa.

Testuaren edizioak ekarri du ere, digitalizatu eta testua ongi aztertu ondotik, “testuko orrien antolaketan zenbait aldaketa” egin izana, orrien eta kapituluaren banaketa berrantolatu izana (20), horregatik, Padilla-Moyanok dioenez “edizioaren orrialde-zenbakiak testuaren barneko antolamendua finkatu ondoko egoera islatzen du” (37). Bestalde, “egilearen nahia errespetatzeko, eskuizkribuaren bigarren idatzaldiko formak eta moldeak lehene[tsi dira], lehen idatzaldikoak hizkuntzaren historiaren aldetik interesgarriago gerta balitez ere” (37). Argitaratzaileak diosku testu editatuak ez dituela “Egiategik ezabatu dituen hitzak erakusten; horretarako irakurleak faksimilera jo dezake[ela]” (37).

Argitaratzaileak ez ditzake eskuizkribuko pasarte guztiak beti-beti gardentasunez uler: idazleak osorik idatzi ez zuelako, edo idazketako, kultura desberdintasuneko nahiz dekodifikatze prozesuko bestelako arrazoi ezkutuagoengatik..., ulertu gabeko pasartetzat utzi ohi dira horiek usu. Hona edizio honetako hiru adibide, gurutzeak adierazten baitigu pasarte horretan gauzak ez daudela argi:

*beren thopuletan* (†), *ta bederaka ta biribiltürük erran izan den bezala* (133)

*gros erdi bat hobelo* (†) *hauts esnian* (179)

*truen* (†) *üngürüz igaiñeraziteko erle güziak zakiala* (235)

7. Grafiaren sisteman ohargarri da, zubereraz ohikoak diren aldaketez landa, jatorrizko idazkian <ao> sekuentzia /aw/ diptongoa dela, Padilla-Moyanok *au* idatzia. Bestalde, <-> eta <^> ikurrek pean duten bokala sudurkari ahoskatzen dela nahi zuen adierazi Egiategik; alta, sudurkaritasuna hasperenarekin bat denean, Egiategik <nh> balia dezake (39). Berebat, Egiategik idatzi *cikhiñac* Padilla-Moyanok ere *zikhiñak* dakar (241). Argitalpeneko oin-oharretan badira argibideak sudurkaritasunaren gaiaz: Egiategiren nokako adizkietan <badñant> horrek *badñāt* adierazten duela (51/26), *orga* hitzean sudurkaritasuna <orguant> idatzirik markatu zuela (129/188); *salbon* (197/380) ‘xaboia’ hitzean sudurkari dela azken *u*: /salbũ/. Eskuizkribuan bokalen sudurkaritasuna adieraztea “oso defektiboa” denez, ez da argitalpena ekarri (36).

Kontsonanteen adierazpenean txistukarietan dira gauzak nahasien, idazle gehienek edo hizkuntza gehienetan bezala, Egiategik ez baitzuen fonema/grafia binomioan sistematikoki eta era biunibokoan jokatu, ezta unibokoan ere. Txistukarien artikulazio guneari dagokionez ez zuen fonema eta grafien arteko jarrera homogeneorik izan. Berebat, ez zuen jokabide zehatzik ukan bokal arteko txistukari ahoskunak eta ahoskabeak bereizteko. Ekialdeko Euskal Herrian hainbat hitzetan bokalarteko kokagunean egun txistukari ahoskunak baliatzen dira. Hauetarik batzuk atzo goizeko mailegu berriak dira, frantsesetik etorri berriak, baina badira beste hitz batzuk, euskal jatorrikoak edo mailegu zaharrak izanik, bokalarteko txistukari ahostuna dutenak. Zuberoako euskaran nabarmena da hori eta aspalditik dago honen lekukotasuna: Belapeirek, esate batera, <s> eta <z> idazten zituen bokalarteko txistukari igurzkarari ahostun apikari eta lepokariak; ahoskabeetarako, berriz, <ss> eta <c, ç> zerabiltzan; cf. Agirre (2001). Pastoralak idaztean edo kopiatzean izan diren ohitura grafikoen azterketak ere egin dira bakan batzuk (Oihartzabal 1991; Loidi 2004).

Egiategik <gazna> eta <ezne> idazten zituen, mende eta erdi geroago Larrasketak bezala. Gaurgero xvii. mendean Belapeirek *ezne* zekarren, baina Moyano-Padillak *esne* ekarri izana argudiatzen du: “testuinguru fonologiko honetan <z> grafemak txistukari ahostuna irudikatzen duelako, bizkarkari ala erretroflexua izan” (63/51). *Gazna*-ren kasuan, berriz, *gazna* dakar. Nolanahi ere den, Belapeireren garaitik *ezne* da Zuberoako aldaera, eta nik ere, Oihergin, Pagolan, Sarrikotapean, Ündürainen, Ainharben eta Urdiñarben *ezne* bildu dut. Egiategirena ere *ezne* uztekoa zen.

Herskari hasperenduetan ere Egiategiren markatze grafikoa ez da sistematikoa: “ediziogileak hots horiek eskuizkribuan grafikoki markatuak direnean baizik ez ditu testu modernizatuan islatu”. Zehaztasunak oro 40-41. orrialdeetan dakartza Padilla-Moyanok.

8. Eskuaratean daukan eskuizkribuak eragiten dituen erronken aitzinean argitaratzaileak usu interpretazio bat egin behar izaten du eta hori, azken buruan, erabaki bat hartzea da, irtenbiderik logikoenaren edo arrazoizkoenaren alde jo behar du nondik edo handik: konparazione, Padilla-Moyanok *ekhi-jalگیرareki* aldaeran bigarren *r* parasitotzat jo du (217/432); *eskülarri* ‘eskularrua’ hitzean berranalisia ikusi du (217/433); *necatua* aldaeran (182/337), *-tua* bokal sekuentzia zuberotarrez ager ezin litekeenez, *nekatsu*-ren bidezko irtenbidea aurkitu du, azken buruan, edizio kritikoa egitea deliberatu baitu.

Hizkuntzarekiko borrokaren edo edizioaren gune-guneko gaien aldetik, lexikoren hainbat eta hainbat interpretazio egin behar ukan du. Konparazione: zuberera zaharreko agurtze formulai erne egon behar ukan du Padilla-Moyanok Egiategiren hitz guztiez oharretako (50/24), baina uler daitekeenez, gogor ekin behar ukan die hiztegi teknikoei eta iraganeko frantsesekoei. Hiztegi horien ekarria oin-oharretako azalpenetan jatorrizko hizkuntzan ageri da: euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz edo ingelesez. Bearnoerarako ohiko Palay baliatu du: eman dezagun, eskuizkribuko *eskauteil* ez da adiera gardeneko hitza (172/304), baina zer den jakitera hurbiltzeko, baitezpada jo behar da Palayren hiztegitara.

Argitaratzaileak erakutsi du liburu hain tekniko itzultzean Egiategik Larramendiren hiztegia gogotik baliatu zuela. Adibide batzuetan uste du iturri lexikoa Larramendi izan daitekeela. Konparazione, honako adibideetan uste du baliatu zuela: *bedatü* ‘prohibir’ (56/38); *gaiñeraztü* Larramendiren *eraztu*-tik eratorri zuela uste du (63/50). Ez daki *eragildia* eta Larramendiren *eraquida* ‘conformación’ loturik ote dauden (202/393).

Larramendiren hiztegitik hartu hitzetan beti ez zuen Egiategik xuxen asmatu eta Padilla-Moyanok haren hutsen azalpenak dakartza argitalpenean zehar; cf. Egiategik *garbinai* hitza nola dakarren, Larramendiren erdara → euskara hiztegian *curioso* sarrera bikoitzetik abiatuak (48/18). Adibide batzuetan bada aldaketa Larramendiren iturritik Egiategiren erabilerara, beharbada gaizki kopiatu edo interpretatu zuelako: Egiategiren eskuizkribuko *bibert* aldaera *bidert* bihurtu du Padilla-Moyanok, ustez ez zuen Larramendiren *bidertu* ongi hartu (102/144). Harrietek bezala, *jario* beharrean, Egiategik Larramendiren *odol-gario* hutsa jarraitu zuen (174/311). Larramendiren *ekadoi* ‘juez, justicia’, *akadoi* dakar Egiategik (126/184). Larramendiren *itsasorratz* ‘bruxula’ Egiategik *itzarotz* desitxuratu zuen (145/215). Egiategiren *naikarri* aldaerak iradokitzen du *h* gabeko Larramendiren *naicari* (148/219). Egiategiren *betirana*-ren iturria Larramendiren *betirauna* ‘perpetuo’ (203/396) da. Larramendiren *quiscurtea*, ‘convulsión de nervios’, Egiategik *gizkhürtiak* (168/292) dakar, *q* etzana *g*-tzat harturik. Larramendiren *liñabera* ‘algodón’, Egiategiren *leñabera* (173/306) da.

Ondoko etsenpluetan Padilla-Moyanok ez du zalantzarik Egiategik Larramendiren hiztegitik hartu zuela hitza:

*erladia* ‘enjambre’ (215/426), *gogakidaria* ‘instinto’ (93/126), *izaira* ‘naturaleza’ (200/389), *izkidezgarri* ‘incomprensible’ (149/221), *lanbikeatürrik* ‘alambicar’ (172/303), *nazaro* ‘naturaleza, forma de ser’ (93/127), *oligai* ‘aceituno’ (152/231), *ze-jakin* ‘ignorante’ (127/186).

Ondoko pareetan Larramendiren iturria ageri da eta Egiategiren ondoko erabilerak:

Larramendiren *aboeztu* ‘resolverse, disiparse’ / Egiategik *aboeztü* (187/355), *adra* ‘regla’ / *adrak* (214/424), *askaitu* ‘festejar’ / *askaitago* (120/168), *ascogo* ‘multitud’ / *askogia* (214/422), *baldoquiak* ‘sien’ / *baldokiak* (168/293), *banaita* ‘diferencia’ / *banaita* (66/56), *bereztarqui* ‘al natural’ / *berez tarkido* (180/332), *bezucendea* ‘original’ / *bezuzenda* (189/363), *desaraudea* ‘desorden’ / *desaradian* (118/166), *desbildu* ‘descoger’ / *desbiltü* (187/356), *dindaya* ‘retintín’ / *dindaiak* (174/308), *duiquindea* ‘industria’ / *duikindia* (225/455), *encorganza* ‘constipación’ / *enkorgantza* (181/335), *gaboilchoa* ‘tornillo’ / *gaboltxa* (239/484), *gaitzurretia* ‘peligroso’ / *gaitzürretsi* (221/445), *gamboilla* ‘quitasol’ / *kanboila* (143/208), *ganarazi* ‘persuadir’ / *ganaraztia* (125/182), *garagarquia* ‘tisana’ / *gararkia* (182/338), *inchea* ‘sereno de la noche’ / *intxian* (137/197), *irozcaya* ‘materia, parte del compuesto’ / *iroskai* (188/360), *irozo* ‘sostener’ / *irozoa* (239/485), *ichiristeza* ‘indigestión’ / *itxeristiza* (91/120), *iceta* ‘naturaleza’ / *izeta* (163/271), *jakinai* ‘curiosidad’ / *jakinangia* (62/49), *liquelea* ‘pañuelo’ / *likilia* (141/206), *liñabera* ‘algodón’ / *leñabera* (173/306), *lotargia* ‘letargo’ / *lohargia* (93/124), *micalte* ‘calamidad’ / *mikhaltza* (153/236), *orenloyua* ‘reloj’ / *orenloian* (226/456), *ugaindu* ‘regar’ / *ügain* (65/54), *uqueritsu* ‘contagioso’ / *ükereitsu* (92/123), *ule* ‘artilea’ / *uletik* (95/128), *zaitirandu* ‘conservar’ / *zaitirandzen* (86/106) & *zaitiratzen* (214/423), *celaustu* ‘evaporar’ / *zelaust*, emankor baita -t hori (184/343).

9. Argitaratzaileak egin dituen iruzkin eta oharretan leku nagusia dute zenbait hitz edo idazketak, argitaratzaileak ez baitu lortu testuan ageri dena ezagun dugun hitz baten bidez identifikatzea. Idatzizko hiztegieta halako ordainik ageri ez delako edo, Egiategiren eskuizkribuko zenbait hitz esanahi gardenik gabe gelditu dira argitalpenean. Ondoko idazketa, forma edo hitzen adiera ez da argi gelditu: *andetzeranian* (116/163); *argoilatüren* (220/438); *gola* hitzaren adiera nahasia dela dio (176/316); *hasliar* ez dela inon ageri, ea ‘hasle’ ote den (147/218); *inkaria*-ren balizko adierez dihardu (236/477); *iruzian* (137); *jif* (110/158); <lasto erras> identifikatzeko aukera bat baino gehiago ematen du (222/446); <maçira> delakoaz alternatiba dakar, *mairu* izeneko landarea, baina Lapurdira so legokeela dio (178/326); *molla*: ez da argi lehen bokala, izan liteke *e*, *a* edo *o* (184/341); *bihi telli* horretan ez ote den *eli*; halere, Egiategik zerbait ezabatzea ahortzi dukeela diosku (179/329); *tia* edo *lia*? (177/320); *ültzazen* ahoaren atal bat dela uste du, baina ez daki segur (150/222). Dio *espilingo* ‘orratza’ hitza, latinez *spinula*, euskararen lexikografoek ez dutela bildu (67/60). OEHK *iskilinba* ‘alfiler’ aldaera dakar, erromanikoa dela dio, REW 8154. Jean Etxeparek *ixpilinga* darabil eta Aezkoan ere *ixpilinga* ibiltzen da. Berebat, *garintxa* gorputz-atal bat izan litekeela dio (91/122), baina ageri den ingurune semantikoagatik, beste mintzoetako *garitx(a)* & *kalitx(a)* ‘enorra, bikorra’ izan liteke.

Testuetako forma edo hitz ilunen adiera xerkatzeko garaitsuko testuetara edo ondoko eskualdekoetara jotzea egoki da, baina halakorik ugari ez denean, beste bideak urra daitezke. Edizioan ez da adierazten testuan ilun dauden hitz edo formen esanahia argitzeko egungo zuberotarrengana jo ote den, hitz horien balizko herexaren bila, ahozko mintzoan ezagunak ote diren jakiteko, edo oharretan ez da horren berri eman, bederen.

10. Argitaratzaileak zer iruzkindu eta zer ez, aldagai ugariaren arabera gertakaria da: a) zer dakien komunitate zientifikoak gai batez; b) zer uste duen argitaratzaileak dakiela testuko hizkuntzaz eta edukiez edizioaren balizko irakurleak; c) zer dakien horretaz iruzkinak egiten dituen argitaratzaileak. Halaber, iruzkintzen ez dena bera ere oharren iturri izan liteke beste norbaiten arabera.

Eskualdeko honako hitzez iruzkinak egitea deliberatu du argitaratzaileak:

*amaiñ* ‘amarauna’ hitzaren *abain* aldaera (213/421); *artekan*, muga adierazten duen postposizioa (161/264); *atbe bat* ‘multzo bat’ azaldu du (144/214), baina lehen aldiz 106n agertu da; *beillo* ‘arras bero’ adierazgarri dela (181/336); *berritan* ‘bi aldiz’ (197/379); *botxi* ‘amildegia’ (99/136); *ebi* ‘erraz’ (159/255); *elge* ‘alor landua’ (128/187); *ephelliala* ‘epelera’ palatalizazio adierazgarria dela (138/200); *haga* (125/178); *pikoste* ‘zila’ (203/398); *trapha* ‘tranpa’ (220/439); *ükharai* ‘eskumuturra’ (225/454); *ükhürü* ‘lasai’ (231/470); *zerü* eta *zelü* dakartzala Egiategik (55); *zethaxü* ‘bahea’ (229/465).

Larramendik *miritz* ‘ungüento’ dakar eta Egiategik, berriz, aldaerak dakartza: *meriza*, *mirize*... (161/261). Argitaratzaileak diosku ere Egiategik *merize*-tik aditza sortu zuela: *merizetü* (188/357). Oihenartekin batean, diosku Egiategi dela *athera* darabilen zuberotar bakarra (77/77). Bikoitzasunak aipatzen ditu: *üthür-bü-minka* nahiz *üthür-hüminka* (174/310) darabiltzala. Bi aldiz iruzkindu du *gaitzürü* (66/57 & 193/369), baina lehenean likidoa da, eta bigarreanean, berriz, solidoa; cf. *gonka* (69/62). Egiategiren *beharkinde* aldaera bakarra dela, *OEHk* dio erabilera beti *beharkunde* dela (200/387). Testuko *urtiki* bakarra dela dio (223/449), *urthuki* dela bestela, eta Zuberoan badela *urthiki* ere. Egiategiren *beatzün* aldaera ez daki zergatik den afrikatua (203/397).

\**Iron* oinarriko adizki sorta bat iruzkindu du: *ginitiroala* ‘genitzakeela’ (103/145), *leitzikiro* ‘liezazkioke’ (89/114), *liriokenik* ‘liezaiokenik’ dela (91/118). Bestalde, *litzékereio* ‘litzaioke’ dela diosku (124/176).

Inoiz gertatu da argitaratzaileak hitz jakin batez ez duela egin beharreko aipu edo oharra haren lehen agerraldian egin, bigarreanean baizik, edo gertatu da ere, hitz baten inguruko aipu edo oharra errepikaturik bi aldiz agertu izana. Eman dezagun, *erhi* neurria dela diosku (64/53), baina ondotik ere hori bera dio (215/425). Ageri den bigarren aldan azaltzen du *ainharba* ‘armiarma’; 157.ean du lehen agerraldia, baina 221.ean aipatzen du haren esanahia, 441. oin-oharrean. *khüto* ‘laster’ 51n eta 141ean agertu da, baina bigarren aldan iruzkindu du, 205. oin-oharrean.

11. Badira argitaratzaileak oharririk egin ez duen kasuak ere, eman dezagun, beste filologo batek eginen litzuzkeelarik. Ohi bezala *zenbat buru*, *hainbat aburu*. Arras berezia da Egiategiren *arhintartzün* (217), oraino ahazkoan Zuberoan *-tarzün* arkaismo ez afrikatua entzuten delako / *biharamün* dakar testuak, ez da adierazten ondotik Zuberoan *biheramen* edo *biharemen* aldaerak ibili direla / *emekiz-emeke* (239) dakar, Baxenabarren eta Nafarroako eskualde zenbaitetan *emeke-emekia* litzatekeena / *eruan* ‘eraman’ dakar (119), geroztik Xiberoan aldaera galdua dena / *erraren* ‘erranen’ dakar, baina ez da bokal arteko ttap horren berri aipatzen (140) / *güti* & *gütik* (125) dimorfismoan ez da *-k* horretaz argibiderik eskaini; Euskal Klasikoaren Corpusaren arabera *gütik* ez da Egiategiren aldaera baizik / *khopitz* ‘gorputza’ (167) gaiaz ez da oharririk egin, ezta [r] finkatu ere / *langiten* ‘lan egiten’ (219) iruzkinik gabe dago / *lüzzenenak* ‘luzeenak’ (125) aldaeran ez da superlatibo bikoiztua aipatu, Baxenabarreko Amikuzen edo Garazin ezezaguna ez dena / *ostotétan* ‘ostoetan’ (121) forman, ez da *t* horretaz deus adierazi, ezta Zuberoan *h-* gabea dela ere / *üztalla* aldaeraz landa bada *üztarila* ere (123), ez da iruzkindu.

Argitaratzaileak dio Egiategik aditzean beti ez duela pluraleko komunztadura eginen: *muztü behar zereio* [\*zereitzo] *phüntak* (67); cf., alderantziz, *ahüntzek ardiek*

*beno gehiago esne emaiten dütie* ‘dituzte’ (95). Egiategiren *handiago gert daitekian* ‘daitezen’ *garbantzak* (67) plurala da, eta *harez balia litakian* ‘litezen’ *gure etxeko anderiak nahi niken* (59) ere bai. Baita *arhinzta ezpeleitakie* ‘ez balekizkie’ (224/451) aldaera ere. Hori horrela da, baina komeni da Zuberoako *daiteke/ditake* eta *litake* adizkiez zerbaixko argitzea, ez baitira Egiategiren euskararen berezitasun edo ezaugarri bat, Zuberoako euskara guztiarena baizik. Adiera plurala duten Egiategiren *daiteteke* eta *litake* aldaerak aintzat harturik, aipa dezagun *ditake* eta *litake* aspaldian direla Zuberoan pluralekoak. Konparazione, Zuberoan *ditake* adizkiak ‘daitezke’ balio plurala du xvii-xviii-xix. mendeetan, bederen. Halaber, *laite* adizkiak plurala adierazten du 1782ko Alphonsa Rodriguezen *Praticako* adibide batean: *pundu gucietan hain arhinzki igaraiten tuçu, nun kassi ikatz gorrietan gaganan hain fite ibilteraz gueroz, ezpailaite* ‘ez bailitezke’ *erra* (137). Zuberoan ere plurala da, baina *lite* da Intxauspek dakarren aldaera (1858: 153). Euskal Herrian badira gertakari honen paraleloak. Betolatza batek, konparazione, pluraleko *leitekean* dakar xvi. mendean. Leizarragak eta Oihenartek ere badute adibide bat edo beste. Oihenartek ere 1. pertsonan *gitake* ‘gaitetzke’ dakar: *bata ezpada nahi, ezkitakek guduka ni eta hi* (2003 [1657]: 256), gezoztikakoa da hor *z* pluralgilea. xix. mendeko Zuberoan ere 3. pertsona pluraleko adizkia da *ditake*: Intxauspek ahaleko Nor singularrean *dáite* & *dáiteke* dakartza eta pluralean *ditake* (1858: 171). Gaiaz ikuspegi osoagoa dakar Lakarrak orain (2022). Nolanahi ere den, edizio hau kritikoa izanik ere, Padilla-Moyanok argi izan du eskuizkribuko euskararen hizkuntza-azterketa osoa eraiki izanak arras berantaraziko zukeela argitalpena, eta denbora laburrean ondu du edizioa.

12. Testu zaharren edizioetan argitaratzailea gogotik saiatzen da eskuizkribua behar den bezala aurkezten eta horregatik, guti izaten dira horietan agertzen diren huts daktilografikoak, eta horrelaxe izan da honetan ere. Irakurraldian so eginik, ale bat edo beste agertu da erdi ezkutuka. Hiru bat txistukariari dagozkio, egin behar zuen aldaketak argitaratzaileari oharkabean ihes egin diolako, nahiz honek, sistematikoki aldatu dituen behar ziren *s* → *z* guztiak: testuko *edanerasi* (205), *ezartias* (235) eta *frantzseses* (173) aldaerek, *edanerazi*, *ezartiaz* (225/454) eta *frantzsesez* —cf. *frantzsesez* bi aldiz (177)— beharko zuketzen izan. Eta *Lopzen* horrek (225/454) *Lopezzen* behar zuen izan. Bestalde, *gaiean* pro *gaínean* dakar (243/31r). Argitaratzailearen halako lan luzean hutsaren hurrengoa dira huts guti horiek eta ez dute deusetan baldintzatzen Padilla-Moyanok ondu digun argitalpen bikain hau.

Iñaki Camino

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

## Bibliografia

- Agirre, Pello. 2001. Belapeireren grafiak. *ASJU* 35(1). 299-361.
- Akesolo, Lino. 1964. Una obra vasca ignorada: “Erle gobernatzalleen guidariya”. *BAP* 20(4). 367-374.
- Arcocha-Scarcia, Aurélie. 2004. Eguiatéguy, lecteur de Ioannes Etcheberri de Ciboure. *Lapurdum* 9. 49-66. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.785>.
- Berriochoa, Pedro. 2021. *Recordando a José de Arteche (1906-1971)*. Donostia: RSBAP.



- Daubenton, Louis-Jean-Marie. 1801 [1782]. *Instruction pour les bergers et pour les propriétaires de troupeaux*. Paris: Impr. de la République.
- Egiategi, Jusef. 1983. *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia (1785)*. Bilbo: Euskaltzaindia (Txomin Peillenen argit.).
- Egiategi, Jusef. 2010. *Egiategiren filosofo huskaldunaren ekheia. Bigarren liburukia*. Bilbo: Euskaltzaindia (Txomin Peillenen argit.).
- Intxauspe, Emmanuel. 1979 [1858]. *Le verbe basque*. Donostia: Hordago.
- Irigarai, Aingeru. 1965. "Erle... guidariya". Nuevo ejemplar. *BAP* 21(2). 248-250.
- Labaien, Antonio María. 1967. ¿Cuál fue la primera fábrica de papel en Guipúzcoa? *BAP* 23(1).101-104.
- Lakarra, Joseba A. 2022. Plurakzionalitatea, supletibismoak eta -it-en jatorriaz. In Irene Barberia & Alexander Iribar (arg.). *Papers on Basque linguistics in honour of Jon Franco*, 19-44. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Larramendi, Manuel. 1745. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence, y latín*. Donostia: Bartolomé Riesgo.
- Loidi, Ane. 2004. Antioikiako San Julianen pastoralara. *ASJU* 38(1). 1-133.
- Mitxelena, Koldo. 1963. Eraskin gisa. *Egan* 21(1-3). 78-81.
- Mitxelena, Koldo. 1964. Aclaración. *BAP* 20(4). 374.
- Oihartzabal, Beñat. 1991. *La pastorale souletine. Édition critique de Charlemagne*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Oihenart, Arnaud. 2003 [1657]. *Euskal atsotitzak eta neurtitzak*. Bilbo: Euskaltzaindia (Patxi Altuna & Jose Antonio Mujikaren argit.).
- Padilla-Moyano, Manuel. 2017. *Zuberoako euskararen azterketa diakronikoa: XVI-XIX. mendeak*. Gasteiz: UPV/EHU & Université Bordeaux Montaigneko doktoretza tesia. <http://hdl.handle.net/10810/26535>.
- Palay, Simin. 1998 [1932]. *Dictionnaire du béarnais et du gascon modernes (bassin aquitain), embrassant les dialectes du Béarn, de la Bigorre, du Gers, des Landes et de la Gascogne maritime et garonnaise*. Paris: CNRS.
- Peillen, Txomin. 1963. Juseff Egiateguy, Larramendi-ren zuberotar jarraikizale bat. *Egan* 21(1-3). 75-77.
- Peillen, Txomin. 1984. Un historien de langue basque au XVIII<sup>e</sup> siècle, Juseff Egiateguy. *BMB* 104. 65-96.
- Peillen, Txomin. 1991. Euskarazko idazkiak eta beste, Zuberoan Iraultza garaikoak. In Jean-Baptiste Orpustan (zuz.), *1789 et les Basques: histoire, langue et littérature*, 195-210. Talence: Presses Universitaires de Bordeaux.
- Peillen, Txomin. 2004. Jusef Egiategi erreformista (1785). *Lapurdum* 9. 215-226. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.858>.
- Peillen, Txomin (arg.). 2012. *Aberastarzun guzien giltz bakotxa* (Zuberoa XVIII. mendean). *Euskera* 57(3). 801-821.
- Segurola, Koro. 2002. *Jeanne d'Arc* pastoralaren eskuizkribua: *Le plus ancien connu? Lapurdum* 7. 313-326. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.1032>.
- Segurola, Koro & Antón Ugarte. 2021. Jusef Egiategiren *Aberastarzun gussién guils bakhoitza* (1782) eskuizkribuaz gehiago. *Egan* 74(1/2). 105-124.
- Ugarte, Antón. 2020. El manuscrito "encontrado" de *Aberastarzun gussién guils bakhoitza* (1782) de Juseff Egiateguy. *BAP* 76(1-2). 561-572.
- Villanueva, Antonio. 1996. *José de Arceche Aramburu: vida y obra de un vasco universal*. Donostia: Kutxa Fundazioa.



«Julio Urkixo» Euskal Filologi Mintegiaren Aldizkariaren Gehigarriak  
Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»  
*Publications of «Julio de Urquijo» Seminar of Basque Philology*

- I. *El Seminario "Julio de Urquijo". Antecedentes y constitución*, 1955. Agotado.
- II. JOSÉ MARÍA LACARRA, *Vasconia medieval. Historia y filología*, 1957. Agotado.
- III. MANUEL AGUD - LUIS MICHELENA, *Landuccio*, *Dictionarium Linguae Cantabrigae (1562)*, 1958. Agotado.
- IV. LUIS MICHELENA, *Fonética histórica vasca*, 1990 (1961<sup>1</sup>, 1977<sup>2</sup>, 1985<sup>3</sup>). 18 €.
- V. NILS M. HOLMER, *El idioma vasco hablado. Un estudio de dialectología vasca*, 1991 (1964<sup>1</sup>). 12 €.
- VI. LUIS VILLASANTE, *Pedro A. de Añibarro*, Gramática vascongada, 1970. 8 €.
- VII. CÁNDIDO IZAGUIRRE, *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*. (Índice inverso de Gerardo Markuleta), 1994 (1970<sup>1</sup>). 12 €.
- VIII. *Papers from the Basque Linguistics Seminar. University of Nevada. Summer 1972, 1974*. 10 €.
- IX. JULIEN VINSON, *Essai d'une bibliographie de la langue basque. Con las anotaciones del ejemplar de Julio de Urquijo*, 1984. 18 €.
- X. LUIS MICHELENA, *Sobre historia de la lengua vasca*, 1988. 2 vols. Agotado.
- XI. LUIS MICHELENA - IBON SARASOLA, *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, 1989. 12 €.
- XII. HUGO SCHUCHARDT, *Introducción a las obras de Leizarraga. Sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga*, 1989. 8 €.
- XIII. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, I. A-Ardui*, 1989, 1993. Agotado.
- XIV. JOSEBA A. LAKARRA (ed.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, 1991. 36 €.
- XV. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskalaritzaren historiaz I: XVI-XIX. mendak*, 1992. 18 €.
- XVI. BEÑAT OYHARÇABAL, *La pastorale souletine: édition critique de Charlemagne*, 1990. 18 €.
- XVII. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskalaritzaren historiaz II: XIX-XX. mendak*.
- XVIII. JOSEBA A. LAKARRA, *Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)*, 1994. 10 €.
- XIX. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, II. Arduin-Beuden*, 1990, 1993. Agotado.
- XX. LUIS MICHELENA, *Lenguas y protolenguas*, 1990 (1963, 1986). 8 €.
- XXI. ARENE GARAMENDI, *El teatro popular vasco. Semiótica de la representación*, 1991. 12 €.

- XXII. LASZLÓ K. MARÁ CZ, *Asymmetries in Hungarian*, 1991. 15 €.
- XXIII. PETER BAKKER, GIDOR BILBAO, NICOLAAS G. H. DEEN, JOSÉ I. HUALDE, *Basque pidgins in Iceland and Canada*, 1991. 10 €.
- XXIV. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, III. Beule-Egileor (Barraso-Bazur)*, 1991. Agotado.
- XXV. JOSÉ M.<sup>a</sup> SÁNCHEZ CARRIÓN, *Un futuro para nuestro pasado*, 1991. 15 €.
- XXVI. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, IV. Egiluma-Galanga*, 1991. Agotado.
- XXVII. JOSEBA A. LAKARRA - JON ORTIZ de URBINA (eds.), *Syntactic theory and Basque syntax*, 1992. 18 €.
- XXVIII. RICARDO GÓMEZ - JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko irailaren 2-6)*, 1994. 21 €.
- XXIX. JOSÉ I. HUALDE - XABIER BILBAO, *A phonological study of the Basque dialect of Getxo*, 1992. 8 €.
- XXX. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, V. Galani-Iloza*, 1992. 8 €.
- XXXI. KARLOS OTEGI, *Lizardi: lectura semiótica de Biotz-begietan*, 1993. 18 €.
- XXXII. AURELIA ARKOTXA, *Imaginaire et poésie dans Maldan behera de Gabriel Aresti (1933-1975)*, 1993. 18 €.
- XXXIII. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, VI. Ilpiztu-Korotz*, 1993. 8 €.
- XXXIV. JOSÉ I. HUALDE - GORKA ELORDIETA - ARANTZAZU ELORDIETA, *The Basque dialect of Lekeitio*, 1994. 18 €.
- XXXV. GEORGES REBUSCHI, *Essais de linguistique basque*, 1997. 18 €.
- XXXVI. XABIER ARTIAGOITIA, *Verbal projections in Basque and minimal structure*, 1994. 12 €.
- XXXVII. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, VII. Korpa-Orloi*, 1994. 8 €.
- XXXVIII. PATXI GOENAGA (arg./ed.), *De grammatica generativa*, 1995. 18 €.
- XXXIX. ANTONIO CID, *Romancero y balada oral vasca. (Literatura, historia, significado)*.
- XL. AMAIA MENDIKOETXEA - MYRIAM URIBE-ETXEBARRIA (eds.), *Theoretical issues at the morphology-syntax interface*, 1997. 21 €.
- XLI. BERNARD HURCH - MARÍA JOSÉ KEREJETA, *Hugo Schuchardt - Julio de Urquijo: Correspondencia (1906-1927)*, 1997. 21 €.
